

Irratibidearen barrunbean zehar

Irratibidearen Barrunbean Zehar

Harigabeko telegrafiatik ziber-irratietara

Gorka Jakobe Palazio

Udako **Euskal Unibertsitatea**
Bilbo, 2000

Lan honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du.

© Gorka Jakobe Palazio
© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-8438-005-X
Lege-gordailua: BI-1465-2000

Inprimategia: SERVISISTEM, Bilbo
Azaleko diseinua: Iñigo Ordozgoiti

Banatzaileak: U**EU**. Concha Jenerala 25, 4. BILBO telf. 94-4217145
helbide-elektronikoa: argitalpenak@ueu.org www.ueu.org

Zabaltzen: Igerabide, 88 DONOSTIA

Aurkibidea

ESKAINTZA 7

0. ATARIKOA 9
Gorka Jakobe Palazio, EHUko irakaslea

1. IRRATIBIDEA ETA INFORMAZIO-IRRATIGINTZA HISTORIAN BARRENA. 13

2. IRRATI-KODEA 39

3. GIZA AHOTSA ETA EBAKERA 51

4. INFORMAZIO-ITURRIAK IRRATIBIDEAN 65

5. ALBISTEA ETA IRRATI-IDAZKUNTZA 89

6. IRRATIKO INFORMAZIO-GENEROAK 115

7. ENTZULERIA ETA AUDIENTZIA 133

8. IRRATI-PROGRAMAZIOA 153

9. IRRATIAREN NORABIDE BERRIAK 171

10. BIBLIOGRAFIA OROKORRA (AUTOREKA) 185

ESKAINTZA:

Maisuen maisua izan den Mariano Cebrián irakasle eta lankideari, bere liburuek irratibidearekiko zaletasuna piztu zidatelako
eta
ene ikasle irratizaleei, eguneroko informazio-langintzan Juvenal-ek esandakoaz oroit daitezen: VITAM IMPENDERE VERO (bizitza egiari eman)

0. ATARIKOA

Irratia, hedabide modura, historia luzeko informazio-bitartekoa da. Gure herrian hirurogeita hamar urte bete ditu honezkero, eta, batez ere, informazioari eta musikari esker lortu ditu arrakasta eta entzule-kopuru handia urteen joanean.

Makina bat urte pasatu dira, irratia gainerako hedabideekin elkarrekiko lehian hasi zenetik gaur egun arte. Irratia, pertsona bakartien lagun eta berrikitan gertatu denaz jabetu nahi dutenen erreferentzia-aparatua, irudien alorretik lekora dago, soinuen munduari erabat lotuta egon delarik. Eta irratiak audioaren errealitatetik lau alor hartu ditu osagai, erakutsi nahi duena gureganatzeko ekintza baldintzatuko dutenak: lehenbizi antitesia aipa dezadan, hots, soinurik eza; bigarrenik, hitza edo mintzaira; hirugarrenik, musika, hau da, soinuak nahasteko jarduna; eta laugarrenik, audio-efektuak.

Irrati izena erabiltzeari egoki deritzot, baina ez dezagun ahantz lehenago *tezef* eta *radio* berbak ere erabili ditugula geure hizkuntzan irratia izendatzeko. Lehenbizikoak, *tezef*ak alegia, hedabide honen hastapenera garamatza, *harigabeko telegrafia*k urrats bat gehiago eman zuen garaira. *Telegraphie Sans Fils* izendapenak laburkina sortu zuen: TSF. Eta laburkina lexikalizatuz joan zen, harik eta herri xeheak *tezef* hitza bere egin zuen arte. Ipar Euskal Herriko lagunek ongisko dakite oraindik zer izkutatzen duen hitz-laburtzapen horrek.

Bigarrena, *radio* alegia, aski bazterturik geratu da gaur egun. Euskaldunok, *radio* berba Curie senar-emazteek aurkitutako elementu kimiko erradioaktiboa (*radium*) izendatzeko erabiltzen dugu. Baina, zein da hitz horren jatorria? Hiztegiek dioskutenez, *radius* berba latinoan daude mailegu honen erroak. Eta *radius* berbak argi-izpia esan nahi du. Argia eta irratiaren hastapena zuzenean erlazionaturik daude. Irratibidea gizakion ahotsa zabaltzeko sortu zen. Ahotsa haririk gabe erretransmititzeko teknologia behar zen. Horrela, telegrafoa izan zen hastapenean faktore eragilea. Lasterketa bat abiatu zen irratia asmatu arte. Telegrafoa 1839. urtean sortu zen, eta, berari esker, albisteak argiaren abiadura hartuko zuen jasotzailearengana heltzeko. Argiaren abiadura erdietsirik zegoen, baina haria bera zen oztopo, hots, ekaia edo materia. Gero, behin telefonoa (1886) eta irrati-telegrafoa (1901) asmatutakoan, Marconi italiarrak irrati-hedapena asmatu zuen, era horretan, XX. mendearen hasieran informazioaren mundua ezezik, gure arbasoen ekanduak eta aburuak baldintzatuko zituen hedabidearen historia hasi delarik.

Bestalde, informazioan oinarritutako irratia funtsezkoa izan da historian zehar. Irratia, prentsa idatziari eta telebistari zerbaitetan irabaztekotan, informazioaren zabaltzean nagusi-

tzen zaie. Albisteak iraupen laburrekoak dira irratibidean, apika minutukoak; telebistan zenbait orduz iraun dezakete albisteek, nahiz eta urtez urte informazio-zerbitzuak handituz doazen, eta telebistak ere berrikitan gertatu denari buruzko informazioa bilatzen duen. Hortaz, irratiak informazioaren esparruan ere segitu behar du lehiatzen beste hedabideekin, baita Internetekin ere, entzule-kopuruak emendatuko baditu.

Albistetik hurbilen egon den hedabidea da irratia, hirurogeita hamar urteko historia luzean albisterik gehien eman duena izanik. Hiritar euskaldun anitzek ukan dute hamarkada hauetan irratiaren informazio-izaeraren esperientzia zuzena; gainera, esperientzia hori, zenbaitetan, transmititzen den gertakari informatiboarekin bat egiteraino iritsi da. Kasu horietan, une informatiboa gure barne-muineraino sartzen da, aldez edo moldez hedabidearen bitartekotza teknikoa bigarren planoan zeharo ostendurik geratuz (gutako askok dugu gogoan Tejero koronel espainiarraren estatu-kolpe ahaleginaren irrati-emanaldia, zuzenean egin zena).

Ahozko informazioaren alor honetan euskaldunok, alta, badukegu abantaila bat, gure tradizioa ahozkoa izan baita. XIV. mendetik hona euskaldun gutxik sortu dute idatzizko tradiziorik. Gure ohiturak, koblak, bertsoak eta abar aho-belarriz heldu zaizkigu. Hortixek datorke euskaldunok irratiari diogun begikotasuna. Oraindik ere, baserri-munduko euskaldun askok irratitik edaten dute, informazio-egarria asetzeko. Irratiak garrantzi itzela izan du gure kulturan, eta horretaz jabetzeko, Ipar Euskal Herriko irratien arrakastari behatzea baino ez da.

Irratibideak erronka handiak ditu etorkizunean, baina desafio nagusien artean, informazioarena dago zalantzarik gabe, irratia hedabide aproposa baita hiritarrek azken ordu eta uneko gertakarien berri jaso dezaten.

Garatzeko aukera urriak dituen hedabidetzat ere jo dute inoiz irratia, gainbehera joateko joera duen komunikabidetzat, alegia. Haatik, aurrikuspen negatibo eta kritikoak gorabehera, hor dirau euskaldunen gizartean apala eta sinesgarria den mezubide modura. Progra-mazio homogeneoko irratia da gurea, bai edukien aldetik, bai formatu eta generoen aldetik ere, irratibidean ere mimesia gertatzen baita, berrikuntzei aukera gutxi emanez, nahiz eta beste hedabideak baino egokiagoa izan gauzak eraldatzeko.

Estudio General de Medios (EGM) erakundearen arabera, musika-saioak eta irrati-estazio handien goizeko irratsaio informatiboak dira gehien entzuten direnak. Gero, goiz eta arra-tseko albistegiak datoz entzuleen gustuaren *ranking*ean, eta bukatzeko arratsaldeko zenbait irratsaio eta gaueko eta asteburuko kirol-saioak. Ikus daitekeenez, informazioa eta irratibidea hagitz erlazionaturik daude ezinbestez, arrakasta lortu nahi izatekotan. Entzuleek momentuko informazioa jasotzen dute irratitik, eta musikarekin eta goizeko irrati-komunikatzaile ospetsuekin betetzen dute beren gustuaren asealdia. Hala ere, hori ez da

islatu publizitateak irratian urtean-urtean uzten dituen diru-sarreren emendatzean, gutxi gorabehera telebistak baino bost aldiz diru gutxiago jaso baitute irratiek azken urteetan publizitate bidez.

Bestalde, Espainiako estatuan lehia handia dago irrati konbentzional eta irrati-formularen artean entzuleak bereganatzeko. 1999. urtean EGMren arabera, adineko hiritarren %53,5ek entzun zuen irratia eta kopuru horretatik konbentzionalak %32,2a hartzen du; irrati-formula, ostera, %24,6rekin geratzen da. Irrati-estazioen kopuruari gagozkiola, estatu osoan 1700 estazio zeuden urte berean eta kategoriaka, 1000 pribatuak ziren, 303 gobernu zentralarenak eta 402 gobernu autonomiko eta udalenak nolabait esatearren. Beraz, panorama anitza eta konplexua irratia ondo ezagutzeko eta aztertzeko.

Nolanahi den ere, digitalizazioaren aroak ahalbide berriak ekarri dizkio irratibideari eta *feedback* handiagoko komunikabide bihur daitekeela dirudi. Jasotze digitalak kalitate handiagoko irratia dakarkigu hirugarren milurtekoaren atalasean, nahitaezko aurrerapen teknologikoa dena, irratiak beste hedabideekin lehian segi dezan. Gainera, digitalizazioak irrati-en-tzunaldien pertsonalizazioa ere eragingo du. Interneti esker, irratia hedabide sinkronikoa izatetik asinkronoa izatera pasatu da. Sarean, entzule bakoitzak kanal bakarra dauka eta *gunetik gunera* tankerako komunikazioa gauzatzen da. Era horretan, entzule bakoitzak irratsaioak edonoiz entzun ditzake. Beraz, aro berriak multimediatikoa bihurtuko duke hedabide zaharra, *World Wide Web* sarean joera multimediatikoa nagusi izango baita.

Gorka Jakobe Palazio

EHUko irakaslea

1. IRRATIBIDEA ETA INFORMAZIO-IRRATIGINTZA HISTORIAN BARRENA

1.1. IRRATIAREN AURREKARIAK ETA HASTAPENA



James C. Maxwell fisikari eskoziarra (1831-79)

Irrati-uhinen existentzia aurresana izan zen, enpirikoki ediren aurrez. 1868an James Clerk Maxwell fisikari eta matematikari eskoziarrak elektromagnetismoari buruzko legeak finkatu zituenean lehenbiziko urratsak eman ziren irratia sortzeko bidean. Daniel Czitrom-ek (1985, 71) gogoratzen digun bezala, "Kablerik gabeko telegrafiarako oinarri zientifiko definitiboa ez zen sortu, ez kondukziotik, ezta indukziotik ere, espazioan zehar doazen uhin elektromagnetikoen kontzeptutik baizik". Beraz, XIX. mendeko fisikari teoriko ospetsuenetariko batek, Maxwell abizena zuenak, matematikoki aurkitu zituen uhin elektromagnetikoak, eterean hedatzen ziren uhinak, hain zuzen ere. Historialari gehienak akort dira irratia 33 urte geroago (1901ean) sortu zela esatean.

James C. Maxwell-ek 1864an liburu garrantzitsua argitaratu zuen "*Elektrizitatea eta magnetismoa*" izenburupean, energi mota bi hauen arteko erlazio estua agerian utziz. Ordura arte, bi energia hauek independenteak zirelako ustea zegoen. Liburu horretan James C. Maxwell fisikari eskoziarrak erakutsi zuenez, periodikoki edo aldiro norantzaz aldatzen den korronte elektrikoa gai da espazioan zehar uhin modura transladatzen diren eremu elektrikoa eta eremu magnetikoa sortzeko.

Uhin elektromagnetiko horien existentzia, Heinrich Rupdolph Hertz alemaniarrak berretsi zuen geroago. Hertz-ek zirkuitu elektriko bat egin zuen aipatu uhinak sortzeko,

ikersaio hartan uhin horiek argiaren hedapen-abiadura bera zutela (300.000 kilometro segundoko) erakutsiz. Horren zioz, uhin elektromagnetikoek fisikari alemaniar honen deitura daramate (uhin hertziarrak).



Heinrich Rudolph Hertz fisikari alemaniarra (1857-94)

Gaur egun *irrati-uhinak* izenaz ezagutzen dugunaren lehenbiziko erakuste praktikoa 1879. urtean burutu zen. David E. Hughes, EEBBetako asmatzaileak (1831-1900) hasi-masiko igorgailu bat eta hargailu bat egin eta Londresko Great Portland kaletik harigabeko seinaleak igortzea lortu zuen. Hughes ez zen ohartu bere esperimentuaren garrantziaz, eta 20 urte pasatu arte ez zuen argitaratu.

Izan ere, XIX. mendearen azken hamarkadetan emari handiak egin ziren, XX. mendean irratigintza garatzea ahalbidetuko zutenak. Emeki-emeki lehenbiziko igorgailu eta hargailuak sortuz joan ziren. Oliver Joseph Lodge (1851-1940) asmatzaile britainiarrak lehenbiziko irrati-hargailua eraiki zuen, Hertz-en bobina eta bere txinpart-arkua baino sentikorragoa, irratitik komunikatzeko erabil zitekeena. 1894ean eginiko ikerlan batean, Lodge-k 137 metroko distantziara komunikatzea erdietsi zuen. Urte bat geroago (1895) eta Errusian Alexander Stepanovitx Popov-ek hargailu bat egin zuen, eguratsean gerta daitezkeen jatorri elektromagnetikoko perturbazioak erregistratzeko gai zena. Alexander S. Popov fisikariak antena-sistemak hobetzeko ahalegin handiak egin zituen eta Sovietar Batasunean irratiaren asmatzailetzat daukate.



Guglielmo Marconi-k Fisika Nobel Saria eskuratu zuen 1909. urtean

Baina historiografiak Marconi italiarrari (1874-1937) eman dio irratia deskubritu izanaren ospea. Guglielmo Marconi-k 1897ko ekainaren 2an inskribitu zuen patentea, zeina urtebete geroago ezagutu zitzaion. Marconik fase esperimentaletik harantzago eraman zuen harigabeko transmisioa. Bere lanak Italiako gobernuaren interesen barruan sartzen ez zirenez, Bretainia Handira aldatu zen. 1897. urtean, ekainaren 20an zehazki, Wireless Telegraph and Signal Company Limited elkartea sortu zuen, irratiak gero handia ukanen zuelakoan. Marconiren ahaleginak bere igorgailuen potentzia eta irismena handitzean zeutzan, igorgailu eta hargailuaren arteko sintonizatzearen garrantzia aintzakotzat hartu ez zuelarik. Geroago, ikerketak egindakoan, bakuometroaz baliatuz emisioen irispena handitzen zela konturatu zen. Horrela, 1898. urtean Dover hiritik hurbil zegoen toki bat eta itsasertzetik 19 kilometrora ainguraturik zen East Goodwin itsasuntzia lotzea

erdietsi zuen. Urte bat geroago Saint Paul itsasuntzian irratia ezarri zuten, eta geroago beste itsasuntzi alemaniar batean, Wilhelm der Grosse izenekoan (1900).

Baina Guglielmo Marconiren saiakuntza handiena, mundua benetan harritu zuena 1901eko abenduaren 12an burutu zen, Amerika eta Europa elkartzean. Kornubiatik (Britainia Handia) igorritako "s" Morse alfabetoaren letra (hiru puntu) 3.520 kilometrora hartu zen Ternuan. Marconiren hargailua 122 metroko antena bati atxikita zegoen, antena hau kometa batek eutsia zelarik; igorgailua, gasolinazko motore batek higiturik generadore batek ibilarazten zuen eta antenari hirurogeita bana metroko lau tantaik eusten zioten. Dena den, zerbitzua komerzializatzeko garaia ez zen iritsi 1907. urtera arte. Lehenbiziko Mundu-Gerraz geroztik Marconik uhin laburren gainean ikertzen jardun zuen, 1937an hil zen arte.



1901. urtean Marconi-k Ternuan jasotzen du Kornubiatik igorritako "s" letra.

Azkenik, Reginald Aubrey Fessenden kanadiarrak (1886-1932), Massachusetts deritzon hiri estatubatuarretik transmitituz, gauza garrantzitsua lortu zuen: itsaso zabalean zeuden operadoreek musika eta hitzak entzun ahal izan zituzten. Hori munduan izan den lehenbiziko transmisio audiomodulatua izan zen (ikus 1.5 atala).

1.2. IRRATI-UHINEN IZAERA

Elektroiek zirkuitu elektriko batean oszilatzen dutenean, beren energiaren parte bat erradiazio elektromagnetiko bihurtzen da. Frekuentzia (oszilazioaren bizkortasuna) hagitz altua izan behar da aprobetxagarriak diren intentsitate-uhinak produzitu ahal izateko; uhin hauek espaziotik doaz, argiaren abiadura daramatelarik. Hauetako uhin batek antena metaliko bat topatzen duenean, bere energiaren parte bat metalaren elektroi askeetara iragaiten da eta mugimenduan ipintzen ditu, korronte alterno bat eratuz; korronte honen frekuentzia uhinarena bera da. Hauxe da irratitik komunikatzeak duen printzipioa. Irrati-emisore batek frekuentzia jakin bateko erradiazio elektromagnetiko kontzentratua sortzen du. Horrela sorturiko uhinak antena batek jasoak dira. Antena horrekin kontaktuan sartzen diren guztietarik, hargailuak berarekin sintonizaturik daudenak baino ez ditu anplifikatzen.


Ahotsak eta musika irratitik erretransmititu ahal izateko, seinale "eroale" uniforme baten uhinak audio-seinale modulatuak izan behar dira. Uhinen modulazioa bi eratan egin daiteke: anplitudean (anplitude-modulazioa, AM) eta frekuentzian (frekuentzia-modulazioa, FM). Hargailua frekuentzia altuko uhin eroaleak ezabatzeko gauza da, jatorrizko soinuaren frekuentziako uhin elektrikoak bakarrik jasoaz.

1.3. HASIERAKO IRRATI-EMANALDIAK ETA ESTAZIOAK

Soinuaren bidezko komunikazioak sortzen zituen problemak emeki-emeki gaindituz joan ziren XIX. mendearen azken hamarkadetan, eta, euskaldunon irrintzia eta afrikar jendearen tam-tama historiara paseak izanen ziren aurki. Gizakiak bitarteko hobea asmatu zuen urrunetiko komunikazioa ahalgarri egiteko: telefonoa. Horrela, 1875ean Elisha Gray-k eta Alexander Graham Bell-ek telefonoa sortu zuten. Asmakariak egundoko garrantzia izan zuen, lehenengoz lortu baitzen giza ahotsa urrutira igortzea.

Geroago, G. Marconi-k harigabeko irrati-telegrafia errealitate bihurtzea lortu zuen, irratizko komunikazioen hasiera ekarriko zuena. Baina 1909. urtera arte ez zuten bat egin bi asmakari hauek aparatu bakar batean. Fleming-ek eta De Forest-ek lehenbiziko balbula termoioniko anplifikatzaileak sortu zituzten (diodoa eta triodoa), geroago Fessenden, Poulsen eta Colppits-ek ordurarteko aparatuak hobetzeko eta horrela —elektrofisikaren teoria orokorrak ediren nahi zuena— giza ahotsa distantzia handitara eroalerik gabe transmititzea ahalgarri egiteko.

Izaera publikoa zuten lehenbiziko transmisioak 1920. urtean burutu ziren Chelmsford hiritik (Britainia Handia), Marconi-k sorturiko elkarte ingelesak bultzaturik. Emanaldirik entzutetsuena Nellie Melba soprano australiarrak 1920ko ekainaren 15ean La Bohème-ren aria bat interpretatu zuenekoa izan bide zen. Orotara 4.000 britainiarrek jaso zituzten Chelmsford-etik heldu zitzaizkien soinuak, N. Melbaren ahots ederra alegia (Border, 1981, 26).



Nelli Melba sopranoaren emanaldia (1920)

Baina lehenago Ameriketako Estatu Batuetan hasiak ziren emanaldi pribatu eta noiz-behinkakoak. 1908. urtean Kalifornian Ch. D. Herrold-ek pratikan jarri zuen eskualde hartako nekazariei informazio meteorologikoak transmititzea. Urte bat geroago, Lee De Forest-i esker, New Jersey-ko irrati-entzuleek Enrico Caruso-k New York-eko Metropolitan Opera House-n emandako kontzertua segitu ahal izan zuten. L. De Forest-ek urraturiko bideari jarraikiz, Wisconsin-eko unibertsitariak 1911n noiz-behinka informazio ekonomiko eta meteorologikoa transmititzen hasi ziren WHA izeneko emandegitik. Baina 1920. urtera arte gutxi izan ziren horrelako emanaldiak Europan eta Estatu Batuetan.

Agi denez, lehenbiziko irrati-emanaldi erregularrak egin zituzten estazioak EEBBetan sortu ziren: WWJ Detroit-ekoa eta KDKA Pittsburgh-ekoa (Pennsylvania). Azken irrati-emandegi honetako zuzendari izan zen Frank Conrad-ek ospea erdietsi zuen 1920ko azaroaren 2an presidentetzarako hauteskundeen berri eman zuenean, orduko hartan Warren

G. Harding errepublikarrak irabazi zuelarik. Baina Holandak ere bere egiten du lehenbiziko irrati-emandegi erregularra egin izana, 1919ko azaroaren 6an hasi baitzen PCGG izeneko emandegia Haga hiritik emititzen.

Irrati-hedapenaren esperientziaren hasiera hartan bada ezaugarri nagusi bat estatu eta nazio guztietan gertatu zena: ez zegoen kontrol ofizialik, gobernuek ipinitakorik. Eta egoerak honela iraun zuen, harik eta politikariak, irratien ahalbideez konturatuta, komunikabide honek iritzi publikoan daukan efektua kontrolatu nahi izan zuten arte.

Amerikako Estatu Batuak aintzindari agertzen zaizkigu irrati-hedapenaren arlo honetan, lehenbiziko emandegiak eurrez eta aski anarkikoki sortu zirelarik. EEBBetan, 1927az geroztik hasi ziren hedabide honi buruzko legeria egiten. Unibertsitateak, trust ekonomikoak, alderdi politikoak, nekazari-elkargoak eta abar, bakoitza bere irratsaioak emititzen hasi ziren, lege aldetik inolako oztoporik izan gabe. Laster irrati-kate handiak sortu ziren elkarte ekonomiko boteretsuen eskutik: Westinghouse (Chicago, Nevada, Pittsburgh, Springfield), Radio Corporation of America (RCA), National Broadcasting Company (NBC), Columbia Broadcasting System (CBS)… Aintzindari amerikarrek ez zekiten zer egin irrati-estazioek bizirik iraun zezaten. Sustengua aurkitu beharrean zeuden. David Sarnoff-ek 1916an txosten bat egin zuen Marconi enpresako goi-arduradunentzat, zeinetan aparatuen egileei deia egiten baitzitzaien beraiek izateko programa-egile. Ideia horri segituz, RCAk 1926an NBC irrati-katea sortu zuen. Hala ere, ordurako argi zegoen publizitateak irrati-estazioen koste handia ordainduko zuela (I. de Sola Pool, 1992, 95). Bestalde eta garai bertsuan, 1922an hain zuzen ere, ATT telefono-elkarte iparramerikarra *bitarteko* berria negozio modura hasi zen kontsideratzen, argi edukiz ezen beraiek programazioen kontua albo batera utzi behar zutela, transmititzeari baino ez emanez —*carrier* soilak, alegia—. Baina, ideiak ez zuen arrakasta handirik izan, zeren New Yorkeko WEAF estazioa sortu zutenean inor ere ez bai-tzen joan irratsaioak egiteko tarte edo denborak alokatzera. Ez zegoen lar inzentiborik ekoizle beregainak programak sortzera anima zitezen. Horrexegatik WEAF estazioak irra-tsaio propioak egiten hasi behar izan zuen, RCA edo Westinghouse-ko estazioek bezalaxe.

Dena den, David Sarnoff-en txostenari oso garrantzi handia eman diote autore batzuek, hedabide sortu berriaren garai hartan kontzepzio-aldaketa ekarri baitzuen. Hortaz, John Hasling-ek honakoa diosku "bring music into the home by wireless" delako Sarnoff-en ideia hartaz (1980, 13-14):

> Before Sarnoff´s memo, wireless transmission was seen as a point-to-point method of communication —one person to another. It had been used as a means of transmitting messages and news events, but to individuals, not to a broad audience. Furthermore, radio was conceived as an information, rather than an entertainment, medium.

Estatu Batuetatik irten gabe, 1920ko hamarkadaren hasieran jada, publizitatearen segada —entzuleentzakoa— gero eta erakargarriagoa izaten hasia zen. Programa-tarteak erabiltzen ziren *publizitate biguna* aireratzeko (esaterako, apartamentu egin berrien erosleak aurkitzeko) eta hamarkadaren erdira arte irratia ez zen zeharo finkatu Estatu Batuetan. 1926an ATT elkarte telefonikoak amore eman zuen eta dirua irabazteko zeukan ideia ona ez zela ikusita, ituna sinatu zuen RCArekin, elkarte bakoitzak bere eremuan aritzeko —RCA irrati-estazioen jabe eta ATT irrati-telefoniarekin geratu zen, RCAri linea telefonikoak lagatuz—.

Sistema komertzialaren eraginkortasuna handia izan zen, publizitateak akuiluturik lehiakortasuna sortuz. Gogora dezagun 1917an 125 mila irrati-hargailu zeudela merkatuan, zortzi urte geroago bost milioi eta erdi aparatu, eta 1950. urtean-edo 72 milioi, hau da, familia bakoitzeko bat baino gehiago.

Frantzian, Lehen Mundu-Gerraren ostean, telefoniaren aurrerakuntzak telegrafiaren esparruari atxikiago joan ziren irrati-hedapenaren alorrari baino; "gainera, helburu militarrak eta distantzia handitara egindako komunikazio partikularrak ziren helburu nagusiak Compagnie Générale de TSF bezalako enpresa handientzat" (Albert, 1982, 30). TSF izeneko enpresa horrek 1921eko ekainaren 26an irrati hedapen publikoko emanaldia egin zuen eta azaroaren 26an Sainte-Assis-etik kontzertua transmititu. 1921. urtean, Eiffel Dorreko irrati-estazioak jarri ziren, Ferrié jeneralak zuzenduak, eta, beraz, militarren menpekoak zirenak. Estatu frantsesean Radiola izeneko enpresa pribatua ere sortu zen garai horretan. Emile Girardeu izan zen Radiola-rentzat, Estatu frantseseko lehen irrati pribatuarentzat alegia, baimena lortu zuena, 1922ko azaroaren 6an lehenbiziko emanaldia egin ahal izateko. Irrati hartako lehen hizlaria Marcel Laporte komediantea izan zen, "Radiolo" izengoitia hartuko zuena (Bamberger, 1997, 89). 1923an PTT Irratia hasi zen emititzen, Posta eta Telegrafoaren Goi-Eskolan jarrita. 1924etik 1926ra bitartean Toulouse Pyrénées, Radio Lyon, Poste-Parisien, Radio-Club de Fécamp, Radio-Vitus eta Bordeaux Lafayette (azken hau 1926ko mar-txoan) ere irrati-emanaldi publikoak hasi ziren uhinetaratzen.

Bretainia Handian 1922. urtean sortu zen British Broadcasting Company enpresa, bost urte geroago British Broadcasting Corporation (BBC) izena hartuko zuena, hain zuzen merkataritza-kriterioari muzin egindakoan zerbitzu nazionaleko izaera hartu zuen garaian. 1922. urtean ere beste emandegi batzuk sortu ziren Montreal-go irratia, Mosku-ko Klodinskaia, Radio Lausanne, Buenos Aires-ko Radio Argentina eta Sydney-ko 2BL. Belgikan 1923.ean hasi ziren emititzen Radio Belgique-tik frantses hizkuntzaz, eta N.V. Irratitik nederlanderaz. Espainian eta Italian 1924. urtean hasi ziren emititzen Radio Ibérica-tik (bi urte geroago desagertu zen) eta Irrati-Batasun Italiarraren barruan ziren Erroma eta Milan-go irratietatik. 1925. urterako Europako 19 estatutan zeuden jada irrati-estazioak eta maiztasunez eginiko irratsaioak.

1.4. INFORMAZIO-IRRATIAREN GARAIAK

Informazio-irratiaren bilakaera ezin da ondo ulertu hedabide honen alde teknologikoaren historiaz eta bilakera horrek daramatzan ondorioez jabetu ezik. Horregatik uste dut interesgarria izan dela hori berori ikustea, gainetik bada ere. Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, irratia berehalako soinu-transmisioa da, leku batetik beste batera egiten dena. Laburbiltzearren, denbora iragan arau eta alor teknologikoari dagokionez, irratiak hiru oztopori itzuri behar izan die: denborari (irratia berehalakotasun elektronikoa da), espazioari (aldiberekotasuna informazioaren ibilbidean) eta ekaiari (informazio-mezua biderkatu egiten da, makina bat pertsona edo entzulerengana heltzeko). Horrelaxe suertatzen da mirakulua: giza ahotsa, musika eta naturako soinuak eta isilaldiak gure baitara iristen dira, informatzeko, entretenitzeko edo hezteko xedez.

Lan honetan guri interesatzen zaigun alorra informazioarena da, irratia hedabide edo bitarteko aproposa baita informatzeko. Angel Faus (1981) eta Mariano Cebrián (1994) irakasleek ondotxo zehaztu dituzte irrati-mota horrek historian izan dituen mugarriak. Euskal Herriko mailari ere dagozkio aro horiek.

Lehenbiziko garaia XX. mendeko lehen urteetan hasi zen —irratia sortu zen unetik beretik—, 1936an bukatuz. Urte haietan, informazio-irratiaren alorrean jazoera sonatua izan zen David Sarnoff-ek, hogeita bat urteko irratilariak, 1912ko apirilean 62 orduz etenik gabe Titanic-en hondoratzea erretransmititu zuenekoa. Sarnoff-ek profesionalki lan egin zuen, itsasuntzi erreskatatzaileetako jendea elkarrizketatuz, bizirik atera ziren pertsonen izenak batuz eta jendearen arreta irratibidean ipinaraziz, erantzukizun handiz eta irratia gertaera informatiboen berri emateko bitarteko dinamiko eta egokia zela agerian utziz. Titanic-en hondamena Marconi-ren familia osoaren akabera izan ahal izan zen, konbidatuta baitzeuden bidaia hartan Titanic itsasuntzian Atlantikoa zeharkatzera. Guglielmo-k eta Bea emazteak uko egin zioten bidaiatzeari, azken momentuan semea gaixotu baitzen. Marconi bera Carpathia itsasuntzira joan zen zer gertatu zen eta ea operadorearen errakuntza izan ote zen galdetzera. Teknikak ez zuen hutsik egin, operadoreak baizik (Border, 1981, 23). Irratia edo Harigabeko Telegrafia oraindik itsas komunikazioetarako tresna zen batez ere.

Bi urte geroago, 1914an hain zuzen ere, eguraldiari buruzko informazioa eta berriak hedatzeko tresnatzat hartu zuten Estatu Batuetako zenbait unibertsitatek. Michele Hilmes-ek (1997, 35) prozesu hori kontatzen du:

> Broadcasting weather and news bulletins to midwestern farmers developed as another viable use for radio telegraphy. Both the University of North Dakota and Nebraska Wesleyan University began farm services in 1914, at first to a very limited number of trained Morse code receivers who would circulate the information through other means in their communities.

Sei urte geroago, lehenbiziko emanaldi erregularrak hasi ziren Estatu Batuetan 1920az geroztik. Pittsburgh-ko KDKA estazioa izan omen zen lehenbizikoa. Pennsylvaniako irrati horren emanaldien aurretik, jendeak egunkarietan kontsultatzen zuen irrati-estazioen noiz-behinkako emanaldiak noiz ziren jakin nahirik. Batzuetan egunak pasatzen ziren ezer uhietaratu gabe, entzuleen nahiak eta irrikak zapuztuz. Hortaz, KDKA estazioaren ordutegi finkoak sinesgarritasuna eman zion hedabide berriari; entzule kopurua emendatu egin zen eta, halaber, irrati-estazioaren jabearen irrati-aparatuen salmentak gora egin zuen (Keith, 1992, 14).

KDKAk 1920an egin ziren presidentetzarako hauteskundeen berri eman zuen, Harding-en eta Cox-en arteko lehiari buruzko informazioa eman zuen, alegia. "But first, if this broadcast is reaching you, please drop us a card. Address station KDKA, Westinghouse, Pittsburgh, Pennsylvania" izan ziren estazio hartako esatariaren hitzak, iparramerikarrentzako lehenbiziko albistegi erregulartzat jo dezakegun hartan aipatu zirenak (Bittner, 1977, 1); hots, irratilariek *feedback*a eskatzen zuten, entzuleei buruz zerbait jakitearren. Nahiz eta albisteak hedatu zituen lehenbiziko irrati-estazio komertziala KDKA izan, ia aldi berean Detroit News (8MK) izenekoa ere konturatu zen informazioa irratiz igortzearen abantailaz. 8MK estazioaren helburua Detroit News kazetarentzako irakurleak irabaztea zen; KDKAren xedea, ostera, ondokoa zen: "its own survival as a new medium" (Bittner, 1977, 2).

Irrati-estazioen kopuruak berehala egin zuen gora irratiaren berritasuna eta problema teknikoak gorabehera:

> The broadcast industry was born during the early 1920´s, and by 1922 there were 600 stations on the air. Two years later 1,400 stations were in operation, but most of these functioned as promotional sidelines of commercial businesses. Over 100 stations were owned by newspapers, while others were operated as hobbies (Dary, 1970,11).

Bestalde, 1922. urtean *toll-casting* (irrati-hedapen tarifaduna) izeneko sistema abiarazten dute. Erretransmisio-denbora salgai jarri zuten eta New Yorkeko Hawthorne Court enpresak 100 dolar ordaindu zituen hamar minutu erabili ahal izateko Queens auzoko etxebizitzen salmenta iragarriz. Iragarkia enpresako ordezkari batek irakurri zuen eta irakasleen sermoien antzerakoa izan zen entzuna New Yorken (Keith, 1992, 14). Publizitate-iragarleak eta irrati-estazioen jabeak elkarri begiratzen hasiak ziren.

1924ko azken hilabetean, Estatu Batuetako ehun kazeta-enpresak sortua zuten irrati-estazioa informazioa igortzeko. Bi urte geroago, RCAk National Broadcasting Company izeneko enpresa sortu zen 24 estazio katean bilduz.

Bestalde, Europan ere bateratsu hasi ziren irratibidezko lehen emanaldi erregularrak egiten Paris-tik —Eiffel dorretik—. Katalunian 1924ko azaroaren 14an hasi zen emititzen EAJ-1 Radio Barcelona, lehenbiziko irrati-estazioa. Espainiako legeriak komunikazio radio-

elektrikoak Estatuaren monopoliotzat kontsideratzen zituen, nahiz eta estazio komertzialeei baimenak emateko prest egon. 1925eko ekainaren 17an Unión Radio sortu zen, El Sol egunkariko eta Espasa-Calpe argitaletxeko zenbait enpresariri esker. Hain zuzen ere, irrati-kate horrek egin zuen lehen Albistegia Nagusia (*Diario Hablado*) Estatu espainiarrean: La Palabra.

Estatu Batuetan, ostera, urte bi arinago (1923) egina zuten lehen Albistegi Nagusia; Bill Slocum, Herald Tribune-ko kazetaria, hamabost minutuko albiste laburrak irakurtzen hasi zen New York-eko WJZ estaziotik, ohikoak bihurtuko ziren albistegi laburrak sortuz. Urte berean H. V. Kaltenborn kazeta-zuzendaria ere hasi zen antzeko serial informatiboak egiten (Dary, 1970, 12). Garai hartan prentsa idatziko kazetariak kontratatzen zituzten irratietako albistegiak egiteko; informazio-agentziek —United Press, International News Services izenekoak eta Associated Press-ek— uko egin zioten irrati-estazioei notiziak bidaltzeari eta kinkan sartu zen hedabide berria, 1924tik 1926ra irratiaren sona beheraka zihoala. Albistegietan kazetak erabiltzen ziren informazio-iturri modura eta berehala sortu zen prentsa idatziaren eta irratiaren arteko lehia edo borroka. Irratiak prentsa-agentziek igorritako notiziak nahi zituen eta ituna egin nahi zuen agentziekin. Hala ere, 1933. urtera arte lehiakortasunak bere horretan iraun zuen, urte hartan hain zuzen CBS deritzonak sortu baitzuen lehen-biziko informazio-agentzia, irrati-estazioei zuzendua: Columbia News Service (CNS). Irratiaren ahalmen informatibo handiaz jabetuz joan ziren hainbat enpresari eta aditu, Munich-eko krisiak (1938) nazioarteko informazioaren egarria agerian utzi zuen arte. Albiste-agentziek denboraren poderioz amore eman behar izan zuten, eta, irratiaren azkartasuna (jendearengana heltzekoa) kontuan hartuta, irratilarientzako zerbitzuak eskaini.

Hego Euskal Herrian irratia Primo de Rivera-ren diktadurapean sortu zen. Donostiar askorentzat egun handia izan zen 1925eko irailaren 29koa, egun hartantxe hasi baitzen emititzen Radio San Sebastián (EAJ-6). Emisore edo igorgailua Txubillo mendikaskoan jarri zuten (Igeldo) eta estudioa hiri barnean. Igorgailuak 500 watteko potentzia zeukan eta prentsa idatziko euskaltzale batzuen ekimenaz hobetuz joan zen, euskara ere komunikazio-hizkuntza modura zerabiltela. Programazio gehiena musikari zegozkion atalek osatua zen eta erlijioak garrantzi handia zuen lehenbiziko emanaldi haietan (Díaz Noci, 1992, 369).

1936. urtean jada irrati-estazioak zeuden euskal hiriburuetan. Donostiakoa Unión Radio-rena zen eta gainerakoak zenbait enpresariren jabego ziren (De Pablo, 1998, 35).

Estatu Batuetan irratibidea informaziorako bitarteko bikaina zela agerian geratu zen 1931az geroztik, urte hartan CBS, Time Incorporated eta BBDO agentziak babestutako *The March of Time* izeneko irratsaioek informazio-gaurkotasuna izan zuten abiaburu, entzuleengan inpaktu handia edukiz. Geroago, Edward R. Murrow irratilariaren zuzeneko erreportaiek arrakasta handia iritsi zuten (gogoangarriak Londres-ko bonbardaketei buruz-

koak). Irratia, horrela, informazio-iturri prestigosoa bilakatu zen (Bertrand, 1983, 46). Informazioa eta irratia uztartuz hasi ziren.

Laburbilduz, lehenbiziko garaian irratia komunikazio maritimo eta militarrerako erabili zen batez ere, nahiz eta enpresari, aditu eta kazetari batzuk berehala konturatu ziren hedabide egokia zela publizitate eta informaziorako. Gainera, irratiari buruzko teoria garrantzizko bat idatzi zen garai honetan: Bertold Brecht dramaturgo juduak irratia benetako komunikazio-sistematzat jo zuen hedabide berria. Brecht-ek *feedback*aren alde egin zuen, entzuleen partehartzearen alde alegia, irratiaren ahalmen guztia aprobetxatzearren.

Bigarren garaia 1936. urtetik 1960ko hamarkadaren hastapenera doa. Irratiak bi gertaera bizi izan zituen mugarri periodo honetan: irratsaio baten emanaldia eta II. Mundu--Gerra. Bi gudaldik markatzen dute irratiaren historia. Bata fiktizioa da; bestea, aldiz, benetako gerra.

1938ko urriaren 30ean CBS irrati-kateak "Munduen gerra" izeneko irratsaioa transmititu zuen. Orson Welles gazteak irrati-uhinetara eraman zuen Herbert George Wells literaturgile ingelesaren idazlana, eta Mercury Theatre-ko aktoreen laguntzaz alienigenen inbasioa zegoela sinestarazi zien entzuleei. New York Times egunkariak honelaxe titulatu zuen lehen orrialdean: *Radio Listeners in Panic, Taking War Drama as Fact*. Jende batzuen izua itzela izan zen; horrela erakutsi zen, irratibideak aukera handiak eman zitzakeela fikzio eta dramaren alorrean.



Orson Welles gaztea Munduen Gerra antzezlana uhinetaratzen (1938)

Bestalde, II. Mundu-Gerrak irratiaren beste ezaugarri bat jarri zuen agerian: irratibidea egokia izan zitekeen jendearen animoak eta pentsamenduak aldatzeko edo berrindartzeko. Beraz, irrati-informazioak zentsura ezagutu zuen. Estatu Batuetan ere zentsura aldarrikatu eta The Censorship Code indarrean jarri zen 1942ko otsailaren 15ean; irrati-estazioek ezin zuten aliatuen gerra-ekintza militarrei buruzko informaziorik eman, arduradun politikoek emandako informazioa salbu. Hori autozentsura ekintzatzat hartu duen autorerik ere izan da. Dena dela, informazio-egarria gero eta handiagoa zen japoniarrek Pearl Harbor erasotu zutenetik, 1941eko abenduaren 7az geroz:

> During the next four years, radio network news programs increased by more than 300%. News by radio matured in both technical and social aspects, but the war also gave radio a new kind of public service responsability —voluntary censorship… The Censorship Code was revised three times during the war years. Each time it became less restrictive, and when the war ended, nearly all restrictions were lifted (Dary, 1970, 25).

Bestalde, esan dezagun 1940. urterako irratia estatubatuar gehienentzat informazio-iturri nagusia zela, berek ezagutu eta adierazitakoaren arabera (Bertrand, 1983, 46).

Gerra-garaian eredu bi suma daitezke irratiaren alorrean: alemaniarra eta britainiarra. Bata autoritarioa, bestea nahiko profesionala.

Alemaniako irrati nazionalsozialistaren antolaketa Joseph Goebbels-en langintza izan zen. 1932tik Propaganda-Ministerioa antolatzen aritu zen, apurka-apurka estazio guztien botere ekonomiko-politikoaz jabetuz. 1938an uhin motzeko zerbitzuari hasiera eman zion, emanaldiak Britainia Handira eta geroago Frantziara ere bideratuz. Urte bat geroago zeharo debekatu zuen atzerriko estazioak entzutea, interferentziak edo trabak ere jarriz, jendeak estazio haiek sintoniza ez zitzan. 1943. urtean Joseph Goebbels-en agintepean uhin luzeko 107 estazio eta uhin motzeko 23 zeuden; uhin motzean 207 informazio- eta propaganda-emanaldi egiten ziren 53 hizkuntzatan (Faus, 1981, 72). Irratia gerrako helmugen mesedetan zegoen, eta horretarako funtzionatzen zuen.

Bestalde, irrati britainiarraren eredua bestelakoa zen. BBCren informazio-zerbitzuek egia uhinetaratzen zuten; porrotak eta garaipenak kontatzen saiatzen ziren. Jendearengan konfidantza sortu nahi zuten. Sinesgarritasunari atxikitzea zen kontua, egiazalea ez zen propagandari itzuriz.

Hego Euskal Herrian, irratitik emititzen zen informazioa Franco diktadorearen erregimenak kontrolatzen zuen. 1950ko hamarkadan finkatuz joan zen irrati frankista institzionala: Radio Alava, Radio Juventud de Eibar, Radio Juventud de Vizcaya —azkeneko biak Cadena Azul de Radiodifusión katearen barruan—. Radio Popular-ek 1959an Iruñeko estazioa sortu zuen, baita bi urte geroago Loiolakoa, eta 1962an Donostiakoa ere. Euskara

hizkuntza debekatua zen Franco-ren erregimenarentzat, eta behin gerra galdu ostean, hainbat euskaldun informazioa beren hizkuntzan jasotzeko eskubiderik gabe geratu ziren.

Penintsulatik kanpo Radio Euzkadi eta Radio España erresistentziaren boza bihurtu ziren. Hego Euskal Herriko herritarrengana iristeko asmoz, Radio Euzkadik 22 urteko historia isildua garatu zuen. Lehenbizi 1946tik 54ra bitartean Iparraldetik emititu zuen, beste alderdiaren ahotsa, galtzaileen ahotsa izaki, Eusko Jaurlaritza legitimoaren boza hain zuzen ere. Geroago, EGI erakundeak zuzia hartuko zuen Caracas-en 1965-1977 urteen bitartean. Gerraostean bere harrikoskorra ipini zuen Radio Euzkadik, nazioarteko komunitateak Franco-ren erregimena egotziko zuelakoan, eta falangista eta erreketeen aurka egin zuen, herritar gehienei ahotsa kendu zietenen kontra preseski. Oraindik orain ezagutu gabeko lanaren ezagupena egon da, euskal irrati elebidun horren historiaren berri oraintsu eman baitigute zenbait autorek (Arrieta et al., 1998).

Garai honetan gertatutako berrikuntza teknologikoak oinarrizko lau elementu ekarri zituen: FMren garapena, transistoreen aplikazioa, estereofonia eta magnetofonoaren asmatzea (Cebrián, 1994, 37). Lauek izan zuten eragin handia informazio-irratian.

Irratian musika zen nagusi, informazioak gero eta minutu gehiago hartzen bazuen ere. Estatu Batuetan, esaterako, ondoko eran nabaritu zen informazioaren emendatzea zenbait irrati-katetan (White, 1947, 86), eduki nagusiei dagokienean:

Edukia	**NBC** (1933/44)	**CBS** (1933/44)	**MBS** (1944)
Musika	67,3/32,6	54,2/33,1	39,3
Informazioa	2/20,4	4,7/16,5	22,5
Dramak	11,2/26,7	18,1/28,6	7,2

Hortaz, informazio-irratiaren izaera agerian zen Estatu Batuetako kate nagusietan, baita musika-saioen apaltzea ere, L. White-ren kopuruetan ikus daitekeen bezala.

Franco-ren erregimenak nazioarte-mailan onespena irabazi nahian, Vatikanoarekin ituna sinatu eta aukera eman zion Eliza katolikoari estazio propioak eduki ahal izateko. Hitzarmena 1953an izenpetu zuten eta 1957az geroztik COPE (Cadena de Ondas Populares Españolas) katean bildu ziren estazio berriak.

Hego Euskal Herriko irratietan, Espainiakoetan bezalaxe, lehiaketak, disko eskainiak, jendearen partehartzea estudioetan eta irrati-serialen arrakasta gertatu ziren. Kirol-irratilarien sasoia (SER-ek Carrusel Deportivo irratsaioa sortu zuen 1953an) eta ahots oneko hiz-

lari-aurkezle eta aktoreen garaia ere izan zen. Informazio-irratia, aldiz, bigarren mailan geratu zen, ordurako —1960ko hamarkadarako— sinesgarritasunaren arazoa problema izaten hasia baitzen, batez ere Hegoaldeko lau herrialdeetan. Irratia bakanka irteten zen kanpora, kanpoko informazioaren bila, salbu eta jaialdi eta antzekoetan —loterian, hondamendien aldeko ekitaldietan eta Franco-ri eskainitako txaloen berri emateko— (Cebrián, 1994, 40).

Hirugarren garaia 1960ko hamarkadaren hasieratik 1977ko informazio-liberalizaziora iritsi artekoa da. Periodo honetan irratigintzan ideia berriak sortu ziren: gero eta pertsonalizatuagoa zen hedabidea dugu irratia, eta informazioaren esparruan kaleko jendearen problematikara hurbiltzeko saioak egin ziren. Mariano Cebrián-ek dioen bezala, garai horretan "notizia- eta laguntasun-irratia" zen. FMk arrakasta lortu zuen hirietan eta horrek kalitatezko musikaren entzunaldiak ekarri zituen. Gainera, irratiak espezializazioa bilatu zuen, entzuleria desberdinengana heltzeko asmoz (batez ere gazteek sintonizatzen zituzten FMko estazioak).

Garai honetan irrati kontrakulturala ere sortu zen. Estatu Batuetan estudianteek estazioak sortu zituzten hainbat salaketa egiteko (Vietnam-go gerra, beltzen baztertzea…) eta Europan irrati libreak popularizatu ziren. Italian horrenbeste indar eduki zuten irrati libreek igorritako informazioa bestelakoa zen; kontua ez zen ahots ona eta solemnea edukitzea, mikrofonoa kalera ateratzea eta jendeari hitza ematea baizik, horrela entzuleekin bat egiteko eta *feedback*-arena errealitate bihur zedin.

Europako estatu gehienetan monopolioak zeuden eta irrati publikoetan espezializazioari ekin zitzaion —kanalka—. Lehenbiziko Kanal edo Programa entzuleria guztiei zuzendua izaten zen, Bigarren Programa musika klasikoan espezializatua, eta Hirugarren Programak eduki kulturalak eta hezkuntza alorrekoak zituen.

Irratilari askok zuzeneko informazioa bilatzen zuten. Mikrofonoak kalera ateratzen hasi ziren, gertakarietako protagonisten ahotsak jaso ahal izateko. Irrati alternatibo eta pribatuen eragina ikusten zen irrati publikoetan. Programazioa egokitu egiten zitzaien entzuleen ohiturei eta asteburuetako programazioa zeharo bereizten zen lanegunetakotik.

1965ko dekretu frankista batek FMko estazioen araudia finkatu zuen. Dekretuan esaten zenez, estazio horiek ezin ziren 500 watt baino potentzia handiagokoak izan. Horren kariaz, FMko estazioak geldiro sortu ziren. Geldiro abiatu zen informazio librearen hedapena; gogora dezagun Radio Nacional de España-k zeukala informazioaren monopolioa, estazio guztiek bere albistegiak ematen baitzituzten. Beraz, monopolio informatiboa nagusi izan zen garai honetan Hego Euskal Herrian. Ondo informaturik egon nahi zutenek Radio Paris (gaztelaniazko notiziak), Mosku Irratia, BBC edo Radio Pirenaica sintonizatu beharra zuten.

Laugarren garaia informazioaren alorrean gertatutako liberalizazioarekin hasi zen (1977ko urrian) eta ia hogei urtez iraun zuen, harik eta 1996an irrati digitalak aro berrian jarri gintuen arte.

1977ko urrian Espainiako irrati-estazio desberdinei aukera ematen zitzaien, nahi izanez gero, informazioa uhinetaratzeko orduan RNEren albistegiekin bat ez egiteko. Bakoitzak bere informazio-zerbitzuak presta zitzakeen jada, informazio estatala emateko.

Garai honetan estazio-kopurua emendatu egin zen eta horietako asko kateetan sartu ziren, gero kate horiek talde multimediatikoen barruan sartzeko. Etorkizunean, irrati digitalak aukera gehiago emango digu ahots gehiago entzun ahal izateko. Eta irrati digitalak Europan honako izena dauka: DAB (Digital Audio Broadcasting). Orain XXI. mendearen atalasea pasatuta, irrati informatiboak erronka berriak dauzka, eta garrantzitsuenak, ezbairik gabe, horrenbeste lehiakide dituen eremu informatiboan bere tokia finkatzea eta teknologia berriek sortzen dituzten ohitura berriei egokitzea dira.

Hego Euskal Herriari dagokionez, 1996ko azaroko data DAB deritzon irrati berriaren mugarri garrantzitsua izan zen. Hilabete hartan SER irrati-kateak proba teknikoak egin zituen Iruñean Bosch-Blaupunkt enpresaren tresnen laguntzaz. Iruñeko seme-alaba batzuek SER-en emanaldi digitalak entzun ahal izan zituzten kalitate digitalaz. SER kateko zuzendariak, Augusto Delkader-ek, teknologia horrek irratiaren edukiak sakonki aldatuko zituela esan zuen. DABen lehenbiziko esperientzia zen, eta horrek eragina izango du irrati informatiboan. EAEko Euskal irrati publikoa ez zen egon 1997ko apirilaren 10ean DAB sistema garatzeko Espainian eratu zen Forumean. Batzarrean 10 irrati-kate eta elkarte espainiar egon ziren, tartean RTVE, Kataluniako Irratia, SER eta Radio Popular (Martínez-Costa, 1997).

Atal hau bukatzeko, informazio-irratiaz ari garenez, aipatu beharrekoa da informazioan oinarritutako kanalen hautua. Izan ere, Frantzian eta Katalunian nolabaiteko arrakasta eduki dutenak faltan ditugu Euskal Herrian; behintzat jatorria hemen daukanik ez dute sortu oraindik. Esaterako, Catalunya Informació estazioak 12.000 entzule zituen (lanegunetan, egunero 30 minutuz gutxienez) 1992an, eta 132.000 izatera pasatu zen 1998. urtean, EGM enpresaren arabera; apiriletik maiatzera arte, Dympanel-ek 172.000 entzule esleitu dizkio. Horrelako irrati-estazio batek suspertu egingo luke informazio-irrati nazionalaren esparrua Euskal Herrian, Hegoaldean zein Iparraldean. Nahiz eta Euskadi Irratiak eta Radio Euskadik informazio-zerbitzu arrakastatsuak izan dituzten orain arte, informazioan soilik oinarritutako beste estazio lehiakide bat edukitzea ez litzateke txarra izango erakunde publikoarentzat, balizko irrati horren baliabideak Interneteko irratigunerako ere izan daitezkeela pentsatuz.

1.5. HEGO ETA IPAR EUSKAL HERRIA: EUSKAL IRRATIGINTZAREN MOTA BI (NAZIONALA ETA LOKALA).

Hego Euskal Herriko autonomi erkidegoetan batez ere gertakari bat aipatu beharra dago, informazio-irratiari ezezik, irratia egiteko beste moldeei ere dagokiena: irrati nazionalaren sorrera. Hori ezinbestekoa zen euskal komunitatea suspertzeko eta euskal sena duen herri-izaerari eusteko. Ezinbesteko baldintza zen eta helburua lortu zen, indar abertzale moderatuei esker batez ere, Eusko Alderdi Jeltzale eta bere magaletik sortutako EAko gizon-emakume politikariei esker.

Izan ere, gaur egun euskal irrati publikoa zeharo erroturik dago komunitate euskaldunean, bai Iparraldean, bai Hegoaldean. Gainera, hirugarren milurtekoaren hasieran indartsu agertzen da audientzien *ranking*ean bere lau estazioekin (Bilboko Radio Euskadi, Donostiako Euskadi Irratia, Gasteizko Radio Vitoria eta gazte jendearentzat den Euskadi Gaztea). José M. Otermin-ek, Julián Beloki-k eta Odile Kruzeta-k zuzenduta, bide onetik ibili da azken urteotan euskarazko irrati publiko generalista (Donostiako Euskadi Irratia) oso lehiakorra den eremuan.

EITBko estazioetako emanaldiak entzunenak dira 1990ko hamarkadaren amaieraz geroztik Euskal Autonomi Erkidegoan, SER katearekin lehia bizian. Denbora iragan arau, irratietako albistegiek entzule frankoren sinesgarritasuna irabazi dute Gernikako Estatutua aprobatu zenetik. 1998an CIES eta EGM enpresek honako audientzia eman zieten EAEko estazio publikoei, EITB taldekoei alegia (entzuleak eguneko):

irrati-estazioa	**EGM (1998)**	**CIES (1998)**
Euskadi Irratia	68.000	84.000
Radio Euskadi	158.000	147.000
Radio Vitoria	27.000	25.000
Euskadi Gaztea	70.000	62.000
Orotara	*323.000*	*318.000*

Kopuruak etengabe goitituz joan dira Eusko Irratia sortu zenetik. 1996an CIESek 252.000 entzule esleitu zizkion EITB taldeari irratiaren esparruan.

Irratietan ere euskara erdarekin —gaztelania eta frantsesarekin— lehiatzen da entzuleak irabaztekotan Euskal Herriko hiru erkidego politikoetan. Informazioaren esparruan euskara batu estandarrak erroak bota ditu euskal kazetaritzan, eta dagoeneko, salbuespenak gorabehera, profesionaltasuna nabaritzen da. Euskal irratien sarean badira beste estazio batzuk,

tokian tokikoak direnak, eta udalen laguntzaz, irratilarien kabia ezezik, informazioaren esparru lokalaren hutsunea betetzen dutenak.

Hirugarren milurtekoaren atalasean, egin dezagun Euskal Herriko irratien tipologia orokorra, irrati-informazioa tipologia horretatik sortzen diren estazioei zeharo eta estuki loturik baitago. Horretarako, bi parametro nagusi hartu ahal ditugu kontuan: irratiaren kokapena edo estaldura alde batetik, eta irratiaren izaera bestetik. Bigarren faktorearen arabera, hiru multzotan sailka daitezke Euskal Herriko irrati guztiak: instituzionalak edo publikoak (nazionalak, estatalak, herrialde zein udal barrutikoak), komertzialak eta libreak (alternatiboak eta kulturalak). Faktore biak kontuan harturik, honako sailkapen hau egin genezake:

1. Irrati estatalak: Radio France Pays Basque, RNE (Radio Nacional de España), SER irratikatea, COPE…

2. Euskal irrati-estazio nazionalak: Euskadi Irratia (euskaraz), Radio Euskadi (gaztelaniaz).

3. Herrialde-irratiak: Bizkaia Irratia, Gure Irratia, Donostiako Herri Irratia, Xiberoko Botza, Radio Vitoria…

4. Udal irratiak: Getxo Irratia, Arrasate Irratia, Oñati Irratia…

5. Irrati lokal komertzialak: Radio 7, Kosta Irratia, Radio Correo, Onda Vasca…

6. Irrati libreak: Euskalerria Irratia, Xorroxin Irratia, Hala Bedi Irratia, Pititako Irratia…

Sei multzo hauetatako azken lauetan *irrati lokalak* izenaz ezagunak direnak ditugu. Irrati lokalen artean, euskara hutsezko estazioak ere badaude. Estazio horiek euskararen normalizaziorako eta informazio lokalerako abiaburu eta lagungarritasuna dute xede nagusitzat. Dena den, estazio horiek oraindik ez dute asmatu programazioarekin, eta lege aldetik baldintza estuegiak topatu dituzte. Horren kariaz, irrati-multzo horren eraginkortasuna hagitz mugatua da (Aranguren, 1999, 333). Euskal Autonomi Erkidegoko udal irratien egoera ez da inondik ere Kataluniakoena. Hemen, Herri Katalanetan ez bezala, udalek eta herritarren komunitate edo elkarteek ez dute hartu profesionaltasunerako bidea han egin duten heinean, eta beraz, irrati lokalen esparrua irrati libre edo alternatiboentzat geratu da batez ere.

Iparraldeari dagokionez, bistan da euskal herri-mugimenduak irrati-sare garrantzitsua eratu zuela 80ko hamarkadan. Urte haietan eta neurri handi batez Iparraldeko euskaltzale, apez eta Eliza euskaldunari esker, erantzuna eman zitzaion herritar askok eskatzen zuten euskarazko informazioa jasotzeko irritsari. Alde batetik, Estatu frantsesak turismoari ateak

zabalduz Iparraldeko jatorrizko kulturari egindako mesprezuari aurre eginez, eta bestetik, herria bizi zedin euskal nazionalismoak agertutako grinari esker, euskarazko irratien panorama biziki aldatu da Baionako Gure Irratia, Nafarroa Behereko Irulegiko Irratia eta Xiberoko Botza irrati-estazioen agertzeaz batera.

Gure Irratiak 1981eko abenduaren 24an igorri zuen lehen irratsaioa Milafrangako estudiotik. Behin-behineko estatutuak eginda eta irrati-lana egiteko hiru animatzaile kontratataturik, 1982ko legearen zain geratzen zen, lege frantses hark irrati libreen araudia ekarri behar baitzuen. Aipa dezagun, dena dela, Gure Irratia sortzeko ideia 1981eko udan sortu zela, behin zenbait euskaltzalek Entzun Ikus elkartea eratu eta gero.

Gure Irratiak Iparralde osorako emititu beharra azpimarratu zuten bilkuretan, eta horretarako Bigura menditontorra egokitzat ikusten zen antena ezartzeko, era horretan Zuberoako herrialderaino iritsi ahal izateko. Baina proiektua ezerezean geratu zen bitartekoen faltagatik eta baimen-ezagatik. Antena ez zuten aldatu Milafrangatik eta Gure Irratiaren estaldura gaur egun daukan eskualdean geratu zen: Lapurdi barrena, itsasertzeko zati bat eta Nafarroa Behereko iparraldea. Gure Irratian, programazio osoa, %100, euskaraz izan da beti.

Jesús Muguruza-k (1988) gogoratzen duenez, 1982ko apirilean Gure Irratiak hiru animatzaileetako bi kanporatu behar izan zituen aipaturiko legearen belutzearen kariaz. Dirulaguntzarik gabe irratiak ezin zuen aurrera egin. Gainera lehiakide berriak agertu ziren 1982. urtean: Radio Bayonne (frantsesez) eta Radio Adour Navarre (elebiduna, baina frantsesez nagusi). Lehenbizikoa Sud Ouest egunkariaren, UDF (Union pour la Démocratie Française / Frantses Demokraziaren aldeko Batasuna) alderdiaren eta Baionako udalaren sostenguz agertu zen.

Gure Irratiak 5 langile zituen nominan 1990. urtean, eta 60 bat lagun biltzen zituen kolaboratzaile-sarean; azken hauen artean 30 bat berriketari eta egunero gai jakinez jarduten zuten (Oiz, 1990). Gainera, informazio biziagoa emateko asmoz, elkarlana bultzatzeko prest egon da sortu zenez geroztik. Joxan Oiz-ek (1990, 47) honela kontatu zigun hiru irratien artean egindako elkarlanaren fruitua nolakoa zen: "…entzulegoarengan arrakasta handiena duena, hots, 7,30etan osatzen duten albistegia, hiru herrialdeen informazioa boteaz saio berean, elkarren korrespontsalak bihurtuz. Halaber, igandeetan (programaketa finkorik ez bada ere oraindik) Meza igortzen dute bat eginda, arratsaldeko hainbat kirol berrirekin batera. Finean, urradurarik gabeko elkarlana".

XX. mendeko azken urtean eginiko biltzar nagusian, Gure Irratiak egoitza berria zeukan jada Baionako Poissonnerie karrikako 18. zenbakian; Bertako Portua du izena. Biltzar hartara, Agus Hernan zuzendariak bi gai nagusi eraman zituen: Gure Irratiaren programen hedatzea Internet sarean eta eztabaida orokorra Iparraldeko irrati-panorama berriaz, behin Radio Bayonne eta Anglet FM desagertu ondoren; azken gaiaren gaineko gogoetak Noel

Elorga-k, Xipri Arbelbide-k eta Erramun Baxok-ek egin zituzten. Agus Hernanek pozik agertu zuen Herria astekarian (1999-II-28, 2) Iparraldeko euskal irratien izaera herrikoia eta entzuleen erantzuna: "Euskal Herriko lehen irrati euskalduna (Iparralde eta Hegoalde barne) hasi zen Milafrangan duela 17 urte, esperantzaz betez milaka euskaldun, geroztik gure sustengatzaile jarraikiak izan direnak. Horren froga hoberena berriki agertu Médiamétrie-ren inkesta da, honek hiru irrati euskaldunak (Gure Irratia, Irulegiko Irratia eta Xiberoko Botza) 8,7 mailan jartzen baititu".

Irulegiko Irratiaren lehen irrati-emanaldiak 1981eko abenduan hasi ziren Irulegitik bertatik (Donibane Garazi hiriburutik gertu). Estudioa Menta etxaldean kokaturik zegoen, mahastien erdian (Herria, 1992). 1987an antena Jara kaskoan ezarri zuten eta bi urte geroago estudioa Donibane Garazira eraman zuten. Irratiari laguntzeko, 1992an Oihartzuna (*Oiarzuna* idatzita hastapenean) batasun edo elkartea sortu zen. 1994. urtean lau lanpostu zituen 5 langileren artean banaturik eta gainera objektore bat eta CES bat ere ari ziren lanean (Bidart, 1995, 25). Irratiaren finantziazioa herritar eta herri-elkarteen partehartzean oinarritu zen. Zehazki, finantziazioaren %50eko portzentaia kirol-elkarte, sindikatu eta kultur elkarteen bidez betetzen zen eta gainerakoa udal dirulaguntzei eta herri-jaietan eginiko diru-biltzeei esker (Muguruza, 1988). Orain urte batzuk, Herria astekarian (1994-IV-28, 1), Peio Cedarry-ri —irratia kudeatzen duen Oihartzuna elkarteko zuzendariari— egindako elkarrizketak, Irulegiko Irratiaren aldeko kanpainaren ostean eginak, argiro azaldu zuen zeinei esker bizirik zegoen Mentako irratia: "ekonomikoki ez gira hain gaizki. Orainokoan gure konduak ekilibratzen ditugu. Kanpañak berak ekartzen dauku %40… Entzuleeri esker bizi da beraz gehien bat Irulegiko Irratia. Entzuleek dute, urtero beren sustengua ekarriz, aintzinarazten gure proiektua. Frantziako Estado guzian, etsenplu bakarra da zointan entzuleak hoinbertze bermatzen diren: entzulea irratiaren laguntzailea eta partaidea da. Herriko Etxeek ere beren laguntza ttipia ekartzen daukute: Baxenabarreko 78 herrietarik 40 batek du Irratia laguntzen". Beraz, aurrekontuko diru-sarrerak honako era honetara zeuden (Herria, 1992): %40 kanpainatik, %30 diru publikotik eta %30 beste iturri txikietatik (%10 Euskal Kultur Erakundeak emana).

J. Muguruza-k aipatu zuen bezala, Irulegiko Irratiaren programazioa hiru atalen inguruan antolatu zuten: informazio-programen, irratsaio kulturalen eta sormenezko programen inguruan. Irulegiko Irratiak frantsesezko irratsaio gutxi uhinetaratu du sortu zenetik orain arte, euskarazko programen portzentaia %90 ingurukoa izan delarik.

Xiberoko Botza irratiari dagokionez, esan dezagun Uhaitza izeneko elkartearen ekimenaz sortu zela 80ko hamarkadaren hasieran, nahiz eta 1978an jada ideia hausnartu zen, administrazio frantsesak eta Zuberoako udalek *Contrat de Pays* ituna egin zutenean preseski. Irratsaio guztien %30 gutxi gorabehera frantsesez egiten zituen eta zeuzkan helburuak, Lapurdiko *Entzun Ikus* elkartearenak bezala, hauexek ziren: informazio lokala garatzea, euskara suspertzea eta kulturaren indar biziak biltzea herri-dinamika sortzeko. Euskararen presentzia emendatu egin zen apur bat denboraren joanean, 1995ean irra-

tsaioen %80 euskarazkoak baitziren (Bidart, 1995). 1982ko uztailean hasi ziren emititzen Libarrenx-eko gaztelutik, antena Zalgize-ko tontor batean ipinita. Maulen agintzen zuen Frantziako Alderdi Sozialistak gaztelutik emititzea onetsi zuen eta, beraz, Zuberoako hainbat nekazari eta gainerako hiritarren ahots bilakatu zen berehala irratia. Gotañe-tik Maulera pasatu zituzten estudioak 1986an eta 1994an 3 irratilari, objektore bat eta CES bat ari ziren lanean bertan. Bestalde, entzule-kopurua neurtzeko egindako zundaketa batek erakutsi zuenez, 16.000 bizilagun zuberotarretatik 6.000 gutxi gorabehera irrati honen entzule ziren (Muguruza, 1988). Siadeco euskal enpresak 1991. urtean egin zuen ikerketa soziologinguistiko baten arabera, Ipar Euskal Herrian entzuten diren irratien gaineko datuei dagokienez, honako emaitzak atera ziren (Herria, 1991): %68,1ek ez zuten euskal emankizunik entzuten. Eta %31,9k euskal emankizun bat gutxienez egunero entzuten zuten, erran nahi baita, gutxi gorabehera 63.000 entzule 15 urtez goitikoak.

Horrez gain, inkestak euskal emankizunen entzutea jendeek zeukaten ezagutza linguistikoaren arabera ere neurtu zuen: %64,9 euskaraz ongi mintzatzen direnak; %34,2 euskaraz pixka bat mintzo direnak; %5,7 euskaraz mintzatzen ez direnak.

Irratiei egokitu zitzaien entzuleriaren heina, honakoa izan zen:

Gure Irratia	%17,6
Irulegiko Irratia	%12,5
Xiberoko Botza	%9,1
Radio France Pays B.	%12,3
Euskadi Irratia	%4,8
FR3 Aquitaine	%9,8

Siadeco-k inkesta hura egin eta 5 urtetara, 1995ean hain zuzen ere, hiru irrati euskaldunek 70.000 pertsonako entzuleria zuten (biztanleriaren herena ia). Gainera 130 kolaboratzaile zituzten, Iparraldeko hainbat herritako berriak emateko, eta hamahiru lanpostu finko hiru estazioetan. Urte hartan 1.965.000 liberako aurrekontua zeukaten eta astelehenetik igandera goizaldeko seietatik gaueko hamarrak arte emititzen zuten (Euskaldunon Egunkaria, 1995-X-22, 12). 1995ean Departamentuko Kontseilu Nagusiak urteko dirulaguntza gisa irrati bakoitzari 80.000 libera soilik eman arren, irratiek bizirik iraun ahal izan dute orain arte, Iparraldeko hainbat udalen sostenguari esker. Euskararen garapenean jokatu duten rolagatik, Nafarroa Behereko 67 auzapezetariko 63k sinatu zuten euskal irratien aldeko sostengua, Zuberoan 35etik 27k, eta Lapurdin 40 alkatetariko 18k (1995ean). Departamentuak ematen dien diruaz gain, gogora dezagun badutela beste iturri bat: “irrati bakoitzak, elkarteak kudeatzen dituzten Frantziako beste irratiek bezala, dirulaguntza esku-

ratzen dute urtero, 200.000 libera ingurukoa" (Bidart, 1995); kultur elkartea izateagatik botere publikotik jasotzen duten dirua gutxiegi da, egiten duten funtzioa kontuan hartuta. Izan ere, kexak eta kezkak era askotakoak eta maiz eginak izan dira.

Gainera, datu guztiak ezin daitezke onak izan, euskaldunen kopurua txikiagotuz baitoa Iparraldean (Euskaldunon Egunkaria, 1996-X-20, 10). Frantsesaren aldeko egoera diglosikoak min handia egiten die euskal irratiei eta Euskal Kultur Erakundea (EKE) kezkatuta dabil hirugarren milurtekoaren hasieran euskal irratien iraupena ziurtatzeko, euskaldunen kopuruaren emendatzea ezinbestekoa baita.

1.6. FRANTZIAKO INFORMAZIO-IRRATI PUBLIKOA

Lehenbizi, eman ditzagun data batzuen erreferentziak, Estatu frantseseko irratibide publikoaren erroak hobeto ezagutzearren (Lafrance eta Simon, 1992, 173):

- 1837ko maiatzaren 8an telegrafiaren monopolio estatala sortzen da.
- 1926ko abenduaren 28an PTT erakundearen barruan irrati saila sortu zuten, 1933az geroztik enpresa irrati-hedatzaile pribatuak bereganatzeko asmoa edukiko zuena.
- 1935eko otsailaren 13an Conseil Supérieur de la Radiodiffusion (CSR) finkatu zen Mandel-en dekretuaren bitartez.
- 1940ko apirilaren 1ean Informazio Ministrotza sortu zuten hedabideen esparrua kontrolatzeko.
- 1953ko abenduaren 31n estatu-monopolioa abian jartzen da programen ekoizpenaren esparruan.
- 1959ko otsailaren 4an RTF (Radio-Télévision Française) erakundearen sorrera gertatzen da, beti ere, Informaziorako Ministrotzaren menpean zegoena.
- 1964ko ekainaren 2an ORTF (Office de Radiodiffusion-Télévision Française) erakundea sortu zen.
- 1972ko uztailaren 3an ORTF erakundearen estatutak aldatzen dira. Gobernuak berak hautatzen du erakunde horren burua eta Haut Conseil de l´Audiovisuel (Ikusentzunezkoen Goi Kontseilua) sortzen da.

- 1974ko abuztuaren 7an ORTF honako sei erakundeetan banatu zen: Antenne 2, TF1, FR3, Radio France, Societé Française de Production (SFP), Télédiffusion de France (TDF) eta Institut National de l´Audiovisuel (INA).

- 1986ko irailaren 30ean Commission Nationale de la Communication et des Libertés (CNCL) sortzen da Telekomunikazioen esparrua arautzeko eta TF1 pribatizatzeko.

Ezaguna da Estatu frantsesak irrati publikoaren alorrean daukan eta eduki duen eskaintza paregabea; Francisco J. Montes-ek (1990) dioskun bezala, munduan lehenbiziko postua eduki du eskaintza programatiko publikoari dagokionez, bere atzetik britainiarren irrati publikoa doalarik. Gogora dezagun irrati publiko frantsesean, Radio France International delakoaren programez gain, zerbitzu estatalak sei kanal dituela; eta kanal horien artean, bata, informazioan oinarritzen dena eta arrakasta handikoa dena hain zuzen, eredutzat hartua izan da: France Info. Dena den, atal honetan irrati-eredu honekin sartu aurretik, argi utzi behar ditugu zenbait ideia.

Frantziako irratigintzan, Espainiakoan bezalatsu, Estatua zen irrati-estazioen nolabaiteko tutorea. Agustín Remesal-ek (1990, 7) aipatzen duen bezala, tutoretza horren aurka irrati lokal frantsesek egin zituzten lehen borrokak 1977. urtean jazo ziren: "Brice Lalonde lider ekologistak (geroago M. Rocard sozialistaren gobernuko ministroa izan zena) Frantziako lehen irrati pirataren sorrera aldarrikatu zuen. Bolbora zenbait hilabetez hedatu eta frantsesen lurraldea horrelako irratsaioez josita agertzen da (uhin libreak, uhin berdeak, uhin alternatiboak…), Europako gainerako irrati-estazioetatik bereizgarri zuten bakarra hizkuntza izanik".

ORTF (Office de Radiodiffusion-Télévision Française / Frantziako Irrati-Telebistaren Bulegoa) erakundearen monopolioaren akabera P. Maurois lehen ministro sozialistak 1982an sinatutako legeak ekarri zuen. Urte hartan, euskal irratiak sortu ziren urtean hain zuzen ere, aro berri bati eman zitzaion hasiera, oinarrizko printzipio bi finkatuz: Estatuak ikusentzunezkoen alorrean zeukan monopolioaren bukaera eta hiritar frantsesek ikusentzunezkoen esparruan komunikazio libre eta pluralistarako dituzten eskubideen sustapena.

Informazio-irratiari gagozkiola, ezin utz daiteke aipatzeke 1987. urtera arte France Inforen (informazioa 24 orduz) gaur egungo programa edo kanalaren funtzioa Radio 7 izenekoak betetzen zuela, nahiz eta azken irrati hau desberdin xamarra zen (gazteentzako informazio erabilgarriak emateaz batera, 24 orduz musika uhinetaratzen zuen; *rock* moldea batez ere). Formula aldatu nahian, Roland Faure-k, Radio France-ko presidente-zuzendariak, Radio 7 itxi eta Radio France Info abiarazi zuen 1980ko hamarkadaren amaieran, informazioan oinarritutako irrati-mota horrek entzuleen irritsak eta gustuak irabaz zitzan. Oraindik, tamalez, euskarazko irratien panoraman ez dugu horrelako irratirik, nahiz eta informazioan soilik oinarritutako irratiek Katalunian, Frantzian eta Espainian nahiko en-

tzule eta arrakasta lortu duten. Francisco J. Montes-ek (1990) esan zigun bezala, Radio France irrati publikoaren "vedettea" den France Info-k bide berria urratu du informazioaren esparruan, Europan lehenbizikoetakoa izanik horrelako programazioa egiteko orduan. Informazioan oinarritutako irrati-mota honen aurrekariak New York-eko Wins´10-10 eta Erresuma Batuko ITN estazioetan dago, "nahiz eta albisteen antenaratze-denborari dagokionez, antzekoena Washington hiriko WTOP irratia izan, *all news radio* lelo edo slogana darabilena" (Montes, 1990, 92).

France Info-ren ideia, irratiaren esparruan maiz izan ohi den bezala, azterketa edo zundaketa soziologikoei esker sortu zen. Sofres izeneko erakundeak galdetegia burutu zuen frantziarren artean eta erantzunen %72 etengabeko informazioko irrati-kanal baten alde azaldu zen. Horrexek eragin zuen Radio 7-ren bilakaera eta desagertzea. 1990ean France Info-k 2 milioi entzule zituen eta A. Remesal-ek (1990, 14) aipatu bezala, autopublizitatea egiteko honako lelo bitxia zerabilen: "France Info, berriemailea bazina bezala, arin-arin informaturik egoteko".

Jean Ferré komunikazioaren alorreko adituak aipatu duen bezala, ez da oso ulergarria zergatik XX. mendeko azken hamarkadetara arte ez den abiatu arinago irrati-mota hori, gogoan edukita 1924ko azaroaren 3tik —Eiffel dorretik frantsesezko lehen albistegia emititu zenetik— jada ahalgarria zela horrelako etengabeko informazio-zerbitzua eratzea. Kontua "albisteen supermerkatua" sortzea eta irratibidera eramatea zen, eta horretan frantsesak Europan eta alor publikoan lehenbizikoak izan dira, geroago sortu baitziren Catalunya Informació eta Radio 5.

1.7. IRAKURGAIA

Ondoren, Torcuato Luca de Tena kazetari espainiarrak ABC egunkarian (1982-XII-24) idatzitako testua duzu. Luca de Tena-k ederto asko kontatzen digu zer-nolako hasiera eduki zuen irratifoniak; giroan jartzen gaitu, asmakariaren garrantziaz jabearaziz.

Irrati-hedapena eta Gabonak

Kapitaina eta itsasuntziko lehenbiziko ofiziala zur eta lur geratu ziren elkarri begira. Armadoreak beste postu bat gehiago sortu zuen tripulazioan: telegrafistarena. Kontua hauxe zen: ez zekiten zertarako izan zitekeen baliagarria itsasuntzian horrelako pertsona bat edukitzea. Hamar urte iraganak ziren jada Washington eta Baltimore hirien artean lurpeko kablea luzatu zenetik, Morse kodeaz harremanetan egon ahal izateko; beste hiri batzuek ere burutu zuten horrelako ekimena eta, egia esan, asmakaria benetan eraginkorra zen premiazko mezuak lehorrez elkarri pasatzeko; baina, zer demontre egingo zuten itsasuntzian telegrafoaz? Itsaspeko kable bat bota, hark izan ditzakeen trabatzeko arriskuak kontuan hartzeke? Eta zer-nolako tamaina eduki

beharko zuen kableak, itsaso zabalean erabilia izateko? Ideiak ez zuen, ez bururik, ez hankarik: armadorea burutik jota zegoen.

1906ko udaberrian gaude. “Azaldu ahal didazu —galdetzen dio lehenbiziko ofizialak telegrafistari— nola bidaliko dituzun mezuak lehorrera itsas zabalean nabigatzen gaudenean? Airez ote? —erantsi zuen iseka eginez—.” “Horixe, jauna —erantzun zuen gizonak—.” Bertan ziren eta txunditurik zeuden pertsonei azaldu zien, Marconi deitura zeukan italiarrak patentatu berria zuela Londresen harigabeko telegrafoa, Morse kodearen soinu metalikoak ibilarazten zituena, *hertziarrak* deituriko uhin ibiltari arin eta bizkor batzuen bizkarrean. “Eta luze joko ote du uhin horien bidez mezuak lehorrera bidaltzeak, Bermuden parean gaudenean? —Galdetu zuen kapitainak—. Zeren, geldoak balira, hobe genuke uso mezulariak edukitzea.” Sor eta lor geratu ziren uhin hertziarrak zaldia baino, trena baino, hurakan-haizea baino, errebolber baten bala baino arinagoak zirela entzun baitzuten. “Distantzia laburretan, lurrekoak bezalakoetan… —segitu nahi izan zuen telegrafistak—”. “Hara! Lurraren distantzietan bezala diozu! —hitza kendu zion itsasuntziaren komandanteak—. Bistakoa da zuk ez duzula sekula bidaiatu Australiara!”. “Australiaz hitz egiten didazunez, kapitain, esango dizut bertara igorritako mezu bat New York-tik emititzeaz batera helduko dela”. “Gutaz trufatzen ari al zara, lagun? Eta Lurraren itxura biribila, zer? Eta mendiak? Eta eraikinak? Horiek guztiak ere gainditzen al dituzte uhin horiek?”. “Zuk zeuk esan duzu, jauna”.

Goraxeago aipatu dudan bezala, 1906ko udaberria zen. Urte erdi geroago, Gabon egunean, zoragarria zen jostailuaz oraindik ohiturik ez bazeuden ere, kapitainak Morse kodearen bidez Gabon mezu bat igorri nahi izan zion familiari. Telegrafista hori egiteko prest zegoelarik, bat-batean ahots bat entzun zen, tokitatik zetorren baina entzungarri zen soinu bat, nondik arraio hel zitekeen inork ere ez zekiela, zeren kostaldetik oso urrun baitzeuden, Ingalaterra Berriaren parean. Jesukristoren sortzea eta aingeruak artzainei berri onaz egindako iragarpena kontatzen hasi zen. Lipar honetara helduta, txirulez eta bibolinez egindako doinu bat hasi zen entzuten, koru zerutiarrek egina eta interpretatua zela ziduriena. Belauniko jarri ziren guztiak mirari baten lekukoak zirela sinetsita; lehenbiziko ofizialak, eszeptikoagoa zenak, txantxa zela pentsatu zuen. Edison-ek asmatua zuen hamarkada batzuk lehenago fonografo izeneko tresna bat, fotografiak irudiak geldiarazten eta artxibatzen dituen antzera, zenbait aste, hilabete edo urte lehenago emititutako giza ahotsa ezkozko disko batzuetan gordetzen zuena. Norbaitek ezkutatua edukiko ote zuen fonografo bat itsasuntzian? Bila ibili arren, alferrik: hitzak eta kantak telegrafotik zetozen. Ez zekiten San Lukaren ebanjelioa irakurtzen zuen ahotsa Fessenden deitura zuen kanadiarrarena zela, doinua Haendel-en “Luzea” zela eta historian izan den lehenbiziko erradiofonia-saioa zela. Hau gertatu zenetik hirurogeita hamaseigarren urtemuga betetzen da gaur.

Reginald Fessenden-ek, Edison-ek New York-en zuzentzen zituen laboratorioetan enplegatuta zegoenak, urteak zeramatzan Marconi-ren aurkikuntzak estudiatzen. Marconi-k 1896. urtean harigabeko telegrafiaren oinarriak ipini zituen eta saioa egin zuen bata bestetik hamabi miliatara zeuden itsasuntzi bi elkartuz mezu-igorketaz; horrez gain, Marconi-k 1901ean Ozeano Atlantikoan zehar irrati-seinaleak igortzea lortu zuen. Geroago, 1906ko urtean hain zuzen, Londres-en asmakaria patentatu eta serieka igorgailuak eta hargailuak ekoizten hasi zen, txakada batez, lipar batez, ziztu bizian Morseren soinuak igorriko zituztenak, uhin hertziarrak ziren ibiligailu azkarrek garraiaturik. Fessenden bere buruari galdetzen hasi zen uhin misteriotsu haiek gauza izango ote ziren Morse-ren kakara zakarra baino soinu gozoagoak garraiatzeko; eta baiezko ondo-

rioa atera zuen. Musika eta giza ahotsaren modulazioak ere igor zitezkeen. Problema ondokoa zen: igorgailua sortzea. Eta horretan aritu zen. Horrela, 1906ko abenduaren 24an lehenbiziko saioa egin zuen Pittsburg-etik oso hurbil zegoen laborategitik bertatik. Arrakastak eragina izan zuen. Ingalaterra Berritik nabigatzen ari ziren itsasuntzi guztiek jasoa izan zen emanaldia.

Harrigarria bada ere, Marconi ez zen bere asmakariaren ondorioaz jabetu, eta ez zen konturatu hitza igor zitekeela espazioan zehar. Harrigarriagoa da, hala ere, Fessenden ez konturatzea bere asmakariaren baliagarritasunaz eta posibilitate itzelez. Hamar urte gehiago iragan behar izan ziren (1916an) harik eta Ipar Amerikako Marconi elkarteko telegrafista gazte batek bere enpresari proposamena egin zion arte: "Badakit nola egin —esan zien bere ugazabei— gure salmentak mila aldiz biderkatzeko. Orain arte gure aparatuak elkarte telegrafikoei baino ez dizkiegu saltzen, gobernuei eta zenbait nazioren indar armatuei. Altzari moduko jasogailu batzuk ekoizten baditugu, "musika-kutxatila" bezalakotsuak, eta kontzertu eta sinfoniarik hoberenak emititzen baditugu, irratia etxe guztietara zabalduko da. Ziur nago negozio ederra izango dela." Horra hor beste gizon bat itura apuntatzen zuena, oraindik bete-betean erdialdean jo ez arren, asko hurbildu zena. Aparatu asko saldu ziren, eta Westinghouse bezalako enpresak hargailuak ekoizten hasi ziren. Baina inori ere ez zitzaion bururatu ahozko kazetaritza sortzea. Ideia hori, aipatu berri dudan enpresako goi-exekutibo batek eduki zuen, H.P. Davis izeneko batek. Davis-ek bere hargailuak iragartzeaz batera, emaitzak jaso ahala presidentetzarako hauteskundeen berri irrati bidez emango zutela esan zuen. Hauteskunde haietan Warren Gamaliel Harding errepublikarra eta Cox demokrata lehiatu ziren. Egun hura, 1920ko azaroaren 2a, egun garrantzitsua izan zen irrati-hedapenerako. Interprete musikal batzuk kontratatu zituzten eta, albisteak tartekaturik, kontzertu laburra eman zuten, hizlariak tarteka etendua, oihuka egiteko: "Datu berriak hauteskundeei buruz!". Horrenbeste entzule egon ziren ezen H.P. Davis-ek horrelako gertakariak berriz ere errepikatzea pentsatu baitzuen. Kontua zen, albisteak, musika, jolasak, umorezko saioak, eguraldiari buruzko informazioa, olerkien irakurketak, elkarrizketak eta erreportaiak nahastea. Enpresak errefusatu egin zuen ideia. Irrati-hargailuen fabrikazioa aparatuen salmentek utzitako etekinen bidez kosteatzen zen. Baina nork sustatu eta ordainduko zituen emanaldiak? Erantzuna berehala agertu zen: konbentzi dezagun kapela-saltzaile bat bere kapelak onenak direla esan dezan irratitik, eta kapelak agortu egingo zaizkio; teatroaren alorreko enpresa bat bere komedia edo drama bikaina dela eta ikusleek hiru hilabete lehenago eskatu beharko dituzte sarrerak. Iragartzeko eskubideagatik kobratuko diegu eta horrexek kosteatuko ditu emanaldiak…" Eta horrela gertatu zen.

Morse gabe, ez zen telefonoa existituko; Edison gabe, ez zen izango baterako transmisio-jasoketarik; Fessenden gabe, giza ahotsak ez zuen Morse ordezkatuko; David Sarnoff gabe, ez zen etxeko irrati-hargailurik egingo; H.P. Davis gabe, ez zen informazio-saiorik, ez hezkuntza-saiorik ez eta saio komertzialik ere egongo… Irrati-hedapena kate bat bezalakoa izan zen, eta mailak lotzeko hamarkadak pasatu behar izan ziren.

Gaur, Gabon bezperan, interesgarri iruditu zait gogoratzea, orain dela hirurogeita hamasei urte lehenbiziko irrati-emanaldia izan zela, zeinean giza ahotsa —ordura arte inoiz ez espazioan zehar urruneira igorria— uhin hertziarren gainean ibili baitzen. Eta Fassenden-en ahotsa igorria izan zen, preseski, Done Lukaren hitzak erreproduzitzeko. Gaur bertan gomutatzen ditugu gertakari prodigioso horiek.

1.8. ERREFERENTZIAK

Albert, Pierre eta Tudesq Andre-Jean. *Historia de la radio y la televisión*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica, 1982.

Aranguren, Asier. *Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian*. Doktoretza tesia, EHU, Kazetaritza Saila, Leioa. 1999.

Bidart, Jojo. "Euskarazko uhinez Iparraldea bustitzera" in *Argia* astekaria, 1995-III-5, 1520 zb., 24-27 orr.

Arrieta, Leyre eta Rodríguez, José Antonio et al. *Radio Euskadi: La Voz de la Libertad*. Bilbao: EITB, 1998.

Bertrand, Claude-Jean. "Los medios electrónicos. La radio" *in Los medios de comunicación social en Estados Unidos*. Iruñea: EUNSA, Universidad de Navarra, 1983, 41-46 orr.

Bittner John R. eta Bittner Denise A. "Radio: An Emerging Consciousness" in *Radio Journalism*. New Jersey: DePauw University, 1977, 1-15 orr.

Border, Rosemary. *The Beginning of Radio*. New York: Cassell, 1981.

Cebrián, Mariano. "Grandes momentos de la información radiofónica" in *Información radiofónica. Mediación técnica, tratamiento y programación*. Madril: Síntesis, 1994, 29-51 orr.

Czitrom, Daniel. *De Morse a McLuhan*. Mexiko: David Martínez, 1985.

Dary, David. *Radio News Handbook*. EEBB: TAB Books, 1970.

Díaz Noci, Javier. "Euskara irratian: gerra aurreko lehenengo urratsak" in *RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos),* 40. urtea, 2. zb., 1992, 365-374 orr.

Faus Belau, Angel. "Evolución histórica de la radio" in *La radio. Introducción a un medio desconocido*. Madril: Latina Universitaria, 1981, 33-107 orr.

Franquet, Rosa eta Martí, Josep Mª. *La radio: de la telegrafía sin hilos a los satélites*. Bartzelona: Mitre, 1986.

Hasling, John. "The Development of Radio Broadcasting" in *Fundamentals of Radio Broadcasting*. New York: McGraw-Hill, 1980, 13-22 orr.

Herria astekaria. "Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian", 1991-XII-12, 2132 zb.

Herria astekaria. "Irulegiko Irratiak 10 urte. Irulegiko Irratia, Baxe Nafarroako mahastia". 1992-III-5, 2144 zb., eranskina.

Hilmes, Michele. *Radio Voices. American broadcasting, 1922-1952*. Minneapolis: University of Minnesota Press, 1977.

Keith, Michael C. "Una resprospectiva" in *Técnicas de producción de radio*. Madril: IORTV, 1992, 13-23 orr.

Lafrance Jean-Paul eta Simon Jean Paul. "France: broadcasting in turmoil" in *The People´s Voice: Local Radio and Television in Europe*. Londres: John Libbey & Company, 1992, 170-185 orr.

Martínez-Costa, Pilar. *La Radio en la Era Digital*. Madril: Santillana, 1997.

Montes, Francisco José. "La radio pública francesa" in *Mensajes y Medios*, 20. zb., azaroa, 1990, 89-95 orr.

Muguruza Guarrotxena, Jesús. *Las radios vascófonas de Euskadi Norte*. Argitaratu gabe, 1988.

Oiz, Joxan. "Iparraldeko irratiak gerora beha elkar lanean eta urrats finkoez" in *Argia* astekaria. 1990-III-18, 1284. zb., 46-48 orr.

Pablo, Santiago de. "Los medios de comunicación durante el franquismo" in *Radio Euskadi: La Voz de la Libertad*. Bilbao: EITB, 1998.

Pool, Ithiel de Sola. "Discursos y sonidos de largo alcance" in *Historia de la comunicación* Vol. 2. Bartzelona: Bosch, 1992, 81-116 orr.

Remesal, Agustín. "Francia: del monopolio a la libre competencia" in *Mensajes y Medios*, 10. zb., urtarrila, 1990, 6-11 orr.

Remesal, Agustín. "France Info: la noticia total". *Mensajes y Medios*, 20. zb., azaroa, 1990, 14-19 orr.

White, Lewellyn. *The American Radio*. EEBB: University of Chicago, 1947.

2. IRRATI-KODEA

2.1. IRRATI-KODEAREN EZAUGARRIAK

Irratibidean komunikazio-prozesua gertatzen da; gainera, telefonoari esker, maiz benetako komunikazio-prozesuaz mintza gaitezke, zeren hedabide honetan irratilariak jasotzailearen erantzuna jasotzen baitu; jasotzailearekiko harremana artezagoa eta benetakoagoa da, beste hedabideetan baino —prentsan eta telebistan alegia—, hauetan bakanka gertatzen baita. Izan ere, irratia komunikazio-prozesua denez, irratibideak kodea darabil igorlea eta jasotzailea harremanetan jar daitezen.

Mezuak sortzeko erabiltzen den arau-multzoa da kodea. Hortaz, arau horiek irratibidearen elementu adierazkorren eta elementu horiek igor dezaketen esanguraren arteko elkarrekikotasuna finkatzen dute. Irratiaren kasuan, bere izaera teknologikoa kontuan hartuta, bistakoa da erabil daitezkeen elementu adierazkorrak entzumenari baino ez dagozkiola. Elementu nagusiak bi baino ez dira: soinua eta soinu-eza, isilaldia alegia; irratibidean aztertu ohi diren azpielementuak, ostera, mintzoa, hotsak (musika, audio-efektuak, zarata) eta isilaldia dira. Armand Balsebre-k (1994, 21), A. Moles-en lana aipatuz eta semiotikaren ikuspuntutik, irrati-mezua hiru sistematan sailkatzen du:

- Ahozko diskurtsoaren prozesu sekuentziala, sinbolo akustikoetan oinarritzen dena: fonetikaren audio-objektuak.

- Sistema akustikoak, gertakizunaren irudi zehatzaren audio-garapena erreproduzitzen dutenak.

- Musika, komunikazio ezfiguratibotzat aurkezten den kasu partikularra dena eta elementu abstraktuak dituena.

Ikusten denez, hiru sistema horiek mintzoari, musikari eta hots- edo audio-efektuei dagozkie. Horiez gain, esan bezala, isilaldiaren sistema ere hartu behar da gogoan.

Beraz, irrati-kodea definitzeko, esan dezadan aipaturiko elementuak nahastuz edo elkartuz igorleek eta jasotzaileek erabiltzen duten arau-sistema dela, irrati-mezuak interpretatzeko zein ekoizteko. Edo, argiago esateko, irrati-kodeak finkatzen du mintzoa, musika, isilaldia, zarata eta audio-efektuak erabil daitezkeen modua, irrati-mezuak adierazkorrak izan daitezen.

Izan ere, irratia hitza edo mintzoa da; alta, beste elementuak ezin ahantzizkoak dira. Entzumenetik jasotzen duguna da irratibideak eskaini ahal digun bakarra, eta, beraz, bistan da musikak, isilaldiak eta audio-efektu eta zaratek ere zerbaiten berri ematen dutela, zerbait adierazi ohi dutela alegia.

2.2. MINTZOA

Mintzoa irratibidearen elementu nagusia dela esan dezakegu. Mintzoa ahotsa da, gizakion lengoaia, hitza eta esaldiak, ideiaren kodifikazioa; eta irratilaria ahalegindu egiten da kodifikazio horretatik sortzen den esangura bere bezeroei helarazten. Horrexegatik eduki behar du ahots argia irratitik mintzatzen denak, eguneko albisteak kontatu nahi dituenak.

Irratilaria, mikrofonotik berba egiten duena, irrati-estazioaren arima da, estazioaren ahots ofiziala, nolabait esateko. Estazioa, besteak beste, irratilariaren ahotsagatik da ezaguna, bere mintzoak aditzera ematen dituenengatik eta ematen dituen moduagatik, jakina. Cristina Romo-k (1991, 51) esaten digun bezala, "irratiko esatariek eta aktoreek mintzo argia eduki behar dute, indartsua, bokalizazio onekoa, sentimenduak eta emozioak iradokitzen dituena eta, beharrezkoa denean, eraldatzeko gai dena".

Irratibidearen elementu nagusia denez, mintzoaz gehiago idatzi beharra dago, baita atal oso bat eskaini ere. Hortaz, hirugarren kapituluan zehaztuko dugu zelako elementua den ahotsa eta zer-nolako ezaugarriak dituen irratibidean.

2.3. MUSIKA

Musika doinua da, soinu harmonikoak. Hots eta doinuen alorretik jalgitzen da musika. Gaur egungo gizartean negozio handia bilakatu den elementu hau irratian dago present eta neurri batez berari esker ere bada gaur egun berez dena.

Musika irratibidearen osagarri garrantzitsutzat jo dezakegu. Gidoiaren atal ezin ahantzizkoa den honek gauza askoren berri eman diezaguke. Albistegintzan ere erabiltzen da eta aspaldidanik —sortu zenez geroztik dela esan dezakegu— irratibideari atxiki zaio.

Ekintzak intentsifikatzeko balio du musikak. Informazio irratsaioetan ere baliatzen da. Musikarik gabe zail samar edukiko genuke entzuleen arreta gureganatzea. Hortaz, irratilariak gidoiak egiten dituenean, ondo atondu behar du premiazkoa daukan musika, albistegia erakargarriago egitearren. Dena den, kontuan hartu beharra dago, musika larregi jartzea kaltegarria izan daitekeela.

Irrati-lanetan, musika honako kasu hauetan erabili ohi da, eszenak nolabait bereiztearren (Romo, 1991, 53):

1. Gortina: bi eszena bereizteko erabiltzen den musika-tarte laburra. Eskuarki 10 segundo baino gutxiago iraun ohi du eta irratsaio-motaren arabera hautatzen da.

2. Zubia: gortinak baino garrantzi handiagoa duen musika-tartea da. Zubia luzeagoa da gortina baino, normalean 20 segundo iraun ohi baitu. Eszenen arteko denbora-tarte luzea iradokitzeko erabiltzen da.

3. Errafaga edo musika-bolada: zenbait segundo dirauen musika-tarte gogor eta dramatikoa da. Entzuleen arreta erakartzeko xedez baliatzen da errafaga.

4. Fanfarea: banda-doinuak dira, hots, perkusiozko eta metalezko musika-tresnek sortzen dituzten doinuak, festa-eszenetan erabil daitezkeenak, baita heroien eszenetan ere.

5. Identifikazio, sarrera eta amaierarako musika-tarteak: musikak edozein irratsaiotan dauzkan funtzio garrantzizkoak dira.

2.4. ISILALDIA

Askotan ahanzten dugun elementua da isilaldia. Hots-, zarata-, musika- eta mintzo-eza da, hau da, pausaldia iradoki dezakeena, entzuleari gogo-atsedena eman diezaiokeena. Halaber, gogoeta egiteko baliabidea dugu isilaldia, edo intrigan suspentsea iradokitzeko une gorenaren isla ere izan daiteke. Isiluneak gehiegi badira, irrati-lanak xarma gal dezake erraz-erraz, batez ere isilaldia errakuntza, zalantza edo nahasmenduaren erruz jazotzen denean. Hortaz, informazioaren alorreko irratilari berriemaileei isiluneei itzurtzeko esan ohi zaie, adierazkorrak ez diren isiluneei hain zuzen ere.

Irratiko isilaldi adierazkorra egiteko, honako baliabide hauek erabili ohi dira: zeugma, elipsia, erretizentzia eta asindetoia (Merayo, 1992, 139). Zeugma darabilgunean, esaldiaren zenbait unitate ezabatzen dira, elementu sintaktiko komuna dutenak; adibidez, “azken gertaeren berri eduki nahi baduzu…, beste hedabideek kontatzen ez dutena…, zuri interesa-

tzen zaizuna… eta albisteen gaineko gogoeta egin…, sintoniza gaitzazu, zure informazio--egarria asetzeko gaude-eta". Elipsiaren baliabidea publizitatearen alorrean ikusten dugu maiz: "Euskadi Irratia… esan eta izan"; ikus daitekeenez, beharrezkoa ez den elementua ezabatzen da, isilaldiak ordezkatua izateko. Erretizentzian zenbait ideia edo esaldi amaitzeke lagatzen dira, isilaldia abiaraziz; testuinguruak aditzen ematen du eliptiko uzten den elementua, eta esatariak ahalegindu egin behar du eten-puntuetan dagoena iradokitzen; esaterako: "itsasoetan zehar…, mendietan gora…, abenturazaletasunaren etxetik…, noranahi eta bidaide… hauxe duzu ibiltarien irratsaioa". Asindetoia deritzon baliabidean juntaginak ezabatu egiten dira eta isilaldiak dagi juntaginen funtzioa: maitasuna… begikotasuna… laguntasuna… gaueko irratilariok maitasuna eskatzen dugu… geuk ere badugu zure premia… zure aholkuak… zure istorioak… zure laguntasuna… zure maitasuna".

2.5. HOTSAK ETA ZARATAK

Oso autore gutxik erreparatu diote irratibidearen elementu honi; apika, batek baino gehiagok zarata traba baino ez dela pentsatu du inoiz, adierazkortasunik ez daramala. Ezbairik gabe, horixe izan behar izan da arrazoia. Mariano Cebrián irakasleak, ostera, sakon aztertu du zarataren funtzioa, irratian eduki ohi duena, eta maisukiro aztertu ditu zaratak dituen aukerak eta posibilitateak. Nik hemen bere lanetik (Cebrián, 1983) ateratako ideak azalduko ditut, maisu honek inork baino hobeto esplikatu baitu zaratak informazioan daukan eragina.

Zarata hiru aldetatik interesatzen zaigu: informazioaren oztopo modura, errealitatearen audio-dokumentu modura eta ideia edo gertaeren interpretazio edo aburuen adierazpen modura.

Lehenbiziko funtzioari dagokionez, zarata, irratilariak nahi ez duen traba da. Zarata ordenamenduaren eraldatze-elementua da, traba, eragozpena, oztopoa, desartikulatua den zerbait, giza hautematearen berezko mugak gainditzen dituen zerbait eta, beraz, irismen--mailaren arabera alor fisikoan eta psikologian eraginik eduki dezakeen zerbait. Ikuspegi anti-informatiboa da. Kontuan hartzeko modukoa da bere ahalbide anti-informatiboengatik, hots, informazioa trabatzeko helburuarekin egiten denean. Alde horretatik zenbait zientziak estudiatzen dute zarata edo hotsa: fisika akustikoak, informazioaren teoriak, zibernetikak eta abarrek. Ondoren, zientzia horien emari batzuk —kontzeptu honi buruzkoak— ikusiko ditugu, aportazio horiek irratiaren ikuspuntutik eginak izanik.

Irratian osagarri gisa topatzen ditugun elementuak musika, hitzak, isiluneak eta hots positiboak (komunikatzeko helburuarekin erabiltzen direnak) dira; horiez gainera, hots negatiboak ere topa ditzakegu (trabatzeko xedez erabiltzen direnak).

Mariano Cebrián (1983) lehenik linguistikaren bidetik abiatzen da zarata aztertzen, eta horretarako hiztegira jotzen du. Hiztegiak honako definizioa ematen digu zaratari buruz: "artikulatu gabea den soinua, nahasgarria eta gutxi gorabehera ozena" (Espainieraren Errege--Akademia). Definizio horretatik Mariano Cebrián-ek (1983, 29) ateratzen dituen ondorioak honako hauek dira: a) Zarata lengoaia artikulatuarekin kontrajartzen da, gizakiaren lengoaia naturalaren kontrakoa da, gaur egungo linguistikan hain konplexua den artikulazioen arazoa aipatuz. b) Musikaren argitasun pertzeptibo eta harmonikoari kontrajartzen zaio; horrekin beste arazo bat ukitzen da: musika klasikoan sartu diren musika konkretuaren eta elektronikoaren arazoa hain zuzen ere. c) Hirugarren elementua aspektu fisikoari dagokio "neurri handian zein txikian" edo "gutxi gorabehera" esaten dugunean, zein entzule bakoitzaren subjektibitatearen araberakoa baita.

Lehenbiziko bi elementuak arlo linguistikoari dagozkio. Artikulatu gabeko soinuarekin hitzik sortzen ez duten ahots-soinuez ari gara. Hiztegian agertzen denez, artikulazioa hauxe da: "hitzen ebakera argi eta bereizgarria. Bokal edo kontsonanteak ebakitzeko ahots-organuen jarrera eta higidura". Hau da, alde batetik, hitzik sortzen ez duen soinua litzateke zarata: karruskatze edo murtxikapen, zistu, ibili, kirrizkatze (hortzez eginiko soinua) eta beste egintza batzuetatik sortzen diren soinu edo oihuak. Eta bestetik, hitzak sortzen dituzten arren, argitasun fonetiko barik egiten diren soinuak. Hauek ezin dira besteetatik bereizi. Soinu linguistiko guztien lehenbiziko eta behar-beharrezko eskabidea argitasuna edo bereizgarritasuna da. Nahasgarritasuna, soinu-mataza, nahaste-borraste edo anabasaren kontzeptuari dagokio. Hori dela-eta, ezin da errealitatea ondo jaso edo hauteman; bi gauza desberdin edo gehiagoren arteko nahasketa gertatzen denez, argitasuna galdu egiten da. Lehenbiziko giza komunikazioa artikulatu gabeak diren soinu naturalak sortuz egiten da: negarra, barrea eta abar. Giza lengoaiaren sorrera hotsetan edo keinuetan oinarritzea alde batera utzita, egia esan, lengoaia artikulatua sortu aurrez, bazen oihuz osaturiko aurrelengoaia bat. Animaliak, basapiztiak uxatzeko edo erakartzeko nahiz beste gizakiekin komunikatzeko kodea zen.

Mintzoa identifikatzeko orduan, artikulazio bikoitza azpimarratzen du linguistikak. Guri, atal honetan, artikulazioan argi ez dagoen guztia interesatzen zaigu. Gogora dezagun badela paralinguistika fonetikoa, intentsitatea, tonua eta tinbrea alegia, zeinaren bidez hitzak ebakitzen dituen pertsonaren ahotsa nabaritzen eta jasotzen baitugu. Soinu baten intentsifikazioa dela bide, soinu hori zarata bihurtzera hel daiteke, esaterako, "golllllla!" oihua, kirol-irratilariek egin ohi dutena (Cebrián, 1983, 30).

Halaber, bada zarata emititzeko saialdi bat lengoaia artikulatuan. Naturalitate baten bilaketaz ari gara, onomatopeia, interjekzio, aliterazio eta abarrez. Interjekzioetan dago adibiderik argiena. Bat-bateko edo ustegabeko sentipen edo zirrara dela-eta, soinu bat supituki botatzea da interjekzioa. Mariano Cebrián-ek dioen bezala, interjekzioek soinuen onomatopeikotasuna bilatu ohi dute. Nolabaiteko baliokidetasuna egon ohi da hizkuntza desberdinetako interjekzioen artean. Aldatzen den bakarra, sistema fonetikorako egokitzapena

da. Aditza, izen eta aditzondoak interjekzio modura erabiltzean, hitz horiek errealitate batekin duten lotura zuzenaz edota indarraz baliatzen da. Lengoaiak audio-ikonizitatearen sesgo bat hartzen du, eta, beraz, baita naturalitate-kutsua ere; ez ordea, konbentzionaltasunik.

Mariano Cebrián-ek (1983, 31) Gregorio Marañon-en hitzak aipatzen ditu oihuei bakarrik ez erreparatzeko aholkatzeko, audio-ikonizitatea lortzeko garrantzitsua baita giza ahotsean inflexio eta adierak egitea, hasperen, negar, barre eta abarrekin ustegabeko gogo-energia bat lortzen laguntzen baitigute. Kontua ez da ateak higitzean gertatzen den zarata edo oin-hotsak nabarmentzea bakarrik, giza ahotsaren bidez ere egiten baitira zaratak.

Informazio-teoriaren ikuspegitik, zarata ondokoa da: "seinale zakar batzuk, txikiak zein handiak, edonola, edozein ordenatan, inolako erritmo barik eta lehentasunik gabe aurkezten direnak. Seinaleak kanalean dituen anplitude edo zabaltasun ahalgarri guztiak aldi berean edo simultaneoki daude present, imajina ditzakegun erritmo guztietan; hots, zaratak ez dauka erritmorik" (Moles, 1975, 617).

Pedro Orive-k (1980) eta Mariano Cebrián-ek (1983) egiten duten bezala, bi zarata-mota bereiziko ditugu informazioaren teoriari dagokionez: teknikoak, erabilitako ekipotatik nahiz seinale eroalearen perturbazioetatik datozenak, eta semantikoak, zeinuen nahasketa dela bide sorturikoak. Batak eta besteak mezuaren entzungarritasunaren aurka doaz.

A. Zarata semantikoak:

Erabilitako zeinuen esanguraren deskodifikazio edo kodifikazio txarra dela bide sortzen dira. Ezin gatzaizkio alde linguistikoari bakarrik lotu, eta irrati-lengoaiaren osagai guztiak izan behar ditugu kontuan: hitzak, musika, efektuak, isiluneak eta horien konbinaketa eta nahaskuntza. Mezua ez dago argi eta garbi kodifikaturik, zenbait konnotazio sorrarazten baitizkigu, oso konplexua delako, edo informazio gehiegiz josita dagoelako… Zarata semantiko hauek emisore kodifikatzaileagan zein jasoleagan sor daitezke. Lehenengoan, emisoreak ideia argirik ez edukitzeagatik edo entzungarritasunaren kodifikakuntza kaskarragatik; eta bigarrenarengan, jasolearen baitan deskodifikatzeko prestakuntza ezagatik edo ulertzeko hitz-urritasunagatik.

Kodifikazioan bertan gerta daiteke zarata, beste mezuekiko konnotazioetan, testuinguruan, herri bakoitzak egiten duen hitz-erabileran, mezuaren gehiegizko abiadan, kontzeptu konplexu eta zail bat azaltzeko denbora-ezean, kontzeptu gehiegi izatean edo aukeraturiko soinuen kalitate txarrean.

Irratiaren ikuspegitik, zarata-mota hauek erronka bilakatzen dira irratilarientzat, mezuen audio-elaborazioan, argitasuna, xehetasuna eta zehaztasuna bilatzeko, entzuleei informazioa helarazteko xedez.

B. Zarata teknikoak:

Informazio-seinale eroalean sortutako hotsei buruz ari gara. Zarata hauek alteratu eta ostendu edo maskaratu egiten dute seinalea. Zarata hauek beste izen batez ere ezagutzen dira: zarata bizkarroiak. Uhin eroalea kanpoko elementu arrotzek erasotua da. Bi motatakoak dira:

B1. Kanpoko zaratak (zarata koloreztatuak):

B1a. Atmosferikoak: udan agertu ohi dira, eguraldia aldatzen denean, ekaitz-egunetan.

B1b. Heterodinazio-txistuak: frekuentzia berdinean zein desberdinean dauden irrati-emandegi bi edo gehiago bata bestetik hurbil egoteagatik sortzen direnak.

B1c. Zarata bizkarroiak: tramankulu elektronikoen interferentziek sortzen dituztenak, edo aparatuak sare berean lotzean sortutakoak.

B2. Zarata zuriak (audio-tresnei datxezkienak): tresna igorle, hedagailu edo hargailuen egoera txarrak edo aparatuen fabrikazio-akatsek sortzen dituztenak.

Bestalde, dokumentu- edo lekukotasun-funtzioa betetzen duen hotsari buruz ere zerbait aipatzea merezi du. Zarata-mota hori argia eta garbia da, entzuleari errealitateak sortzen duen soinua helarazten diona. Irrati-zarata hauek ez dira arlo profesionalean "efektu bereziak" eta "giroko soinuak" deitu ohi direnak. Irrati-zarata mezu baten hedapenean sortzen den oztopo izan ahal izateaz gain, sistema adierazkorra ere izan daiteke, ahots-sistema, isiltasun-sistema edo sistema musikala bezala.

Gure giza entzumena askotan hotsez josita izaten dugu kaleko zaratak edo gure inguruetakoak direla-eta. Ia zarata gehienei ez diegu arretarik ematen, interes berezia sortzen digutenean izan ezik.

Irratiak agerian uzten ditu zarataren balio eta ahalbide adierazkorrak. Hots batzuk jaso eta beste batzuk uxatu egiten ditu. Hortaz, oso aintzakotzat hartzeko moduko bitartekotza gertatzen da, batez ere informazio-ikuspegitik eta hotsaren balio dokumentaletik. Teknikak ez du errealitatea den bezala islatzen, zenbait aldakuntzaren bidez baizik, zeintzuei, nahita egiten diren manipulazioetatik bereizteko, "naturalak" dei diezaiekegun.

Mariano Cebrián-ek (1983, 39-45) hots dokumentalen tipologia aztertu du, honakoak bereiziz:

1. Naturako hotsak:

Esparru fisiko-geografikoko hotsez gain, gizakiek sortutako tresna edo aparatuetatikoak (aldakuntzak eginez sortuak barne) ere sartzen ditugu multzo honetan. Geografiatik datozkigun hotsak eta bere erliebe eta mugak transformatzen dituen kulturatik sortzen dira.

2. Hots mimetikoak:

Gizaki eta animalien imitazioak dira (enda batzuek erabiliak beste batzuen planta egiteko asmoz, ehizarako asmakariak bezala); esaterako, eperrarena imitatuz ehiztariak egiten duen hotsa. Sail honetan, generadore eta sintetizagailu berriek sortutako hotsak (musika konkretua) ere sartu ahal ditugu. Hots hauek guztiak hiru sailetan bana ditzakegu: mimesi naturalen bidezko hotsak, mimesi artifizialen bidezkoak eta mimesi mistokoak.

3. Zarata teknikoa edo teknifikatua:

Irrati-estazioko audio-tresnetako zaratak dira. "Irratikoa ematen duen hotsa" da, esan ohi den lez. Present dagoen audio-errealitatetik jasotzen den soinua iragazia da, irratiko aparatuen teknikak berak aldatua edo transformatua. Aparatu horien bidez nahasketak, iragazketa edo filtrazioak, oihartzunak, modulazioak eta abar lortzen dira. Ezaugarri nagusia fidelitatea da, sartzean soinuak zeukan kalitatea irtetean ere emateko. Honela hiru maila bereizten ditu Mariano Cebrián-ek (1983):

1. Irratiak, sistema tekniko modura, funtzio mimetikoa betetzen du, mikrofonoaren inguruan sortzen diren soinu guztiak (jatorrizko iturria edozein izanik) erreproduzitzen saiatzen delarik. Beraz, ezaugarririk garrantzitsuena errealitatearekiko analogia da.

2. Audio-tresnen ezaugarri propioak direla-eta, transformakuntza teknikoak burutzen dira. Barne-hotsak, iragazpen, oihartzun, modulazio eta abarren bidez egindakoak. Irratiak burutzen duen bitartekotza-funtzioa alegia.

3. Zarata bizkarroiak, sistema kanalizakorretik landa sortzen direnak: interferentziak, txistuak eta abar.

Izan ere, hotsa, irratiaren audio-munduko sistema adierazkorra den aldetik, hiru mailaren menpean dago:

a) Sortzen den errealitateko audio-barrutiaren menpean.

b) Bere elaborazioan irrati-sistema teknikoak sortzen duen transformazioaren menpean.

c) Sartzen den audio-barruti berriaren menpean, bai beste sistemekiko (hitz, musika, isilaldi edo beste hotsekin) aldiberekotasun-dimentsioari dagokionez, bai jarraitasun-dimentsioari dagokionez: audio-jarraitasun narratiboa.

Iturriei dagokienez, ondoko bereizketa hauek egin ditzakegu:

a) Iturri sortzailetik gorago aipaturiko edozein puntutan zuzenki jasotako hotsak. Errealitatetik zerbait hartzen da, zuzenean zein diferituan emititzeko. Hautakuntza bat gertatzen da, hots batzuk gehiago edo gutxiago nabarmentzeko. Horretarako mikrofonoak egokiro ezarri behar dira.

b) Artxibotik ateratako hotsak. Euren balio dokumentalagatik artxibatzen diren hotsak. Balio informatiboa duten arren, girotzeko hots modura ere erabil daitezke (bozak, mintzaldiak, narrazioak…). Artxiboan gordetzen dira eta saio berezietarako erabiltzen dira hondo-, kontraste- edo kontrapuntu-funtzioarekin.

c) Kanpoko iturrietatik jasotako hotsak, aurretiaz disko, zinta eta abarretan grabaturikoak. Sarri askotan erabiltzen dira, eta kalitate ona izan ohi dute.

d) Simulazio bidez sortutako hots mugatuak; mikrofonoetatik jasotako hots errealen antza dute eta egiazkoak bailiran igor daitezke. Fonotekak eta audio-erregistroak gorabehera, beti izaten da beharrezkoa noizbait hots berriak sortzea, bai egoerak hala eskatzen duelako, bai denbora eta erritmo zehatzetara egokitzeagatik. Horretarako, espezialista edo adituak behar dira.

Irrati-estazio bakoitzean, espezialista bakoitzak bere sekretuak ditu efektu bereziak sortzeko. Irratilariek hots-mota hauek darabiltzate errealitate jakin bat zehazteko edo egoerak girotzeko. Irratian, alde batetik, errealitatetik zuzenean jasotako hotsak ditugu (hots diagetikoak), eta bestetik, irrati-estazioetan sortutakoak eta errealitateari ez datxezkionak (hots extradiagetikoak). Hots diagetikoek errealismo-inpresioa azentuatzeko balio duten bitartean, hots extradiagetikoek medio honen edozein funtzio adierazkor bete dezakete: giroak, misterioak eta abar. Hots diagetikoak, egoera naturalean dagoen errealitatearen jasoketa zuzenetik sortzen dira; extradiagetikoak, errealitate hori zehazteko sorkuntza artifizialetik. Bien helburua honako hau da: errealitatera hurreratzea soinuaren bidez, batak bide naturaletik eta besteak artifizialetik. Lehenbizikoak informazioaren arloari dagozkio; bigarrenak, fikzioarenari.

2.6. AUDIO-EFEKTUAK

Efektu bereziak ezinbesteko elementuak dira zenbait irrati-lanetan. Informazio-saioetan erabiltzen ez diren arren, behar-beharrezkoak ditugu irratsaio dramatikoetan. Audio-efektuek egoerak girotzeko balio dute, jazoerak ilustratzeko eta osatzeko era berean. Audio-efektuei erreparatzen die entzuleak, eta horrela irudimena lantzen du: audio-irudiak egiten ditu bere buruan, eszenak hobeto irudikatuz. Gizakiak soinuak entzuten dituenean, irudiak sortzen ditu, bere esperientzian oinarriturik. Hortaz, audio-efektuek ederto finka dezakete lekua, baita eszena, denbora eta giro psikologikoa ere (Romo, 1991, 54).

Audio-efektuak ondo erabiltzen jakin behar da; horretarako, lehenbizi sortu eta hautatu egin behar dira, eta ondoren baliatu. Irratsaioak behar duen errealismoa eta atera dakiokeen etekina kontuan hartuta erabiliko ditugu efektu horiek. Cristina Romo-k dioen bezala, kontua ez da eszena batean dauden soinu guztiak erabiltzea, entzulea zer gertatzen den eta zer ebokatzen duten kontura dadin beharrezkoak direnak baizik.

"Efektu bereziak" lokuzioak adierazten duena azaldu behar da lehenik. Efektu-mota horiek definitzeko, honako hau esan dezakegu: bere egia-itxuragatik hots original baten efektu bera, sugestio bera, soinu-konbentzionaltasun bera ebokatzen digun irrati-hots bat artifizialki sortzea. Kontua ez da termino bat beste batez ordezkatzea, errealitatea egilearen ikuspegitik matizatzea baizik. Audio-efektuak egia-itxurarekin daude erlazionaturik.

Audio-efektuak hotsak dira, adierazkortasun-ahalbideak dituzten elementu modura erabiltzen direnak, mezuak transmititzeko ahalmena dutelarik. Profesionalki, "efektu bereziak" lokuzioa nahiago da "hotsak" hitza baino. Lokuzio hau erabiltzeko joera, zarata dokumentalarekin bereizi nahi izatetik dator; azkeneko hori errealitate edo gertaera partikular baten jasotzetik sortzen delarik.

Ondoren, "audio-efektu" eta "giro-soinu"aren arteko desberdintasuna aipatu behar dugu. Lehenbizikoa, soinu bat edo gehiago isolaturik erabiltzeari dagokio. Bigarrena, eszenatoki, leku edo egoera baten ebokatzeari, honetarako aipatutakoak karakterizatzen dituzten soinuez baliatzen garela. Azken hauek giro bat ematen dute aditzera. Beti, beharbada, ez dute errealitate baten irudi konkretua ematen, baina testuingurua iradokitzen dute, egintza bat gertatzen deneko giroaren parte dira. Batzuetan, lehen planoan ere ager daitezke, sakonetik irtenez. Izan ere, elementu erabilgarriak dira irrati-sorkuntzarako.

Bukatzeko, hotsen adierazkortasuna honako puntu hauetan laburbil daiteke (Cebrián, 1994, 303):

1. Gertaera edo egoera dramatiko bateko giroa narratzea.

2. Informazio edo narrazio bateko laguntasun-funtzioa (*función de fondo*) betetzea.

3. Informazio bihurtzea, audio-dokumentua.

4. Egintza, deklarazio edo gertaera bat azpimarratzea edo lagungarri gisa erabiltzea.

5. Hitza zein musika erredundantziaz baloratzea. Esaterako, hegazkin bati buruz hitz egiten da, eta, lehen, gero edo batera, hegazkinak sortzen duen zarata entzuten da.

6. Behar denean, hitza ordezkatzea. Publizitatean sarritan erabiltzen da. Adibidez, "La (kanpai-hotsa)… de Elgorriaga".

7. Musika, isilaldi eta hitzak kontrapunteatzea.

8. Egoera bat intentsifikatzea, nahi den giroa lortu ahal izateko. Beste zarata batzuen barrutian sartzen den zarata, bere efektu bat nabarmenarazteko. Zarataren barruko zarata da.

9. Egoera, diskurtsoa… zehaztea eta finkatzea.

2.7. IRAKURGAIA

Armand Balsebre irakasle katalanak honako testu adieragarri hau utzi digu *El lenguaje radiofónico* izeneko liburuan (1994, 15-16), atal honen bukaeran gogoeta eragiteko balio ahal diguna. A. Balsebre-k irrati-lengoaiaren adierazkortasuna eta horretan informazioak egiten duen traba ditu aipagai, baita ahozkotasunean oinarrituriko gizarteen oztopoa (Euskal Herriko gizartearentzat oso aproposa dena, berton ahozkotasunaren tradizioa aspaldikoa baita):

> Irratia batik bat informazio-igorle dela uste duen irratilari profesionala ere bada izan irrati-lengoaiaren arerioa, nahi gabe bada ere; irratibidearen molde adierazgarriak lengoaia propioaz ezagutuak izan daitezkeela ukatzen ohi du. Hedabide desberdinen kazeta-funtzioak erkatzeko testuinguruan, irratia da albisteak azkarren igortzen dituen hedabidea. Funtzionalista baino ez den kontzepzio horrek, irratibidea definitzeko orduan, azterketa kategoria adierazkor eta sortzaileagoa garatzea eragozten du. Zentzu honetan, gaur egun irrati-programazioetan informazio-*talk show* eta musika-formatuak nonahi nagusitzeak, ez die lagundu komunikazioaren alorreko teoriko eta profesionalei, irratia adierazpidetzat har dezaten beren mentalitatea aldaraziz. Irratia, berriemaileen etengabeko mintzoaren bitartez burutzen den albiste-hedagailu bilakaturik, edo elkarte diskografikoek beren berrikuntzak uhinetaratzeko erabiltzen duten

aparatu gisa kontsideratuta, ez da harritzekoa batzuek uste izatea, irratiaren existentziaren zioa bere funtzio teknikoan dagoela, mintzo-albiste edo disko-musikaren kanal igorle modura duen funtzio teknikoan, alegia.

Isaac Asimov-ek funtzio estetikoa aldarrikatzen du Zientziarentzat, funtzio ez-utilitarioa, hasiera eta amaiera kuriositatearen asetzean dauzkana; eta nik, irratiarentzat funtzio estetiko-komunikatiboa errebindikatzen dut, soinuen edertasunean hasi eta igorle eta jasotzailearen arteko elkarreragin komunikatiboan amaitzen den funtzioa…

Irrati-lengoaiaren ikasketak soinuen mundua hobeto uler dezadan eragin dit, baita Gutenberg-en aurreko gizarteek formen edertasuna ahoz nola adierazten zuten konpreni dezadan ere. Nahiz eta, irratia hitzaren inflexioa itzultzen lagundu digula esaten zuenean mcluhanismoak arrazoia eduki, erratu egin da, ahozko tradizioaren menpean dauden gizarteen eta inprimategien kulturari dagozkionen artean dauden diferentziak txikiesten. Irratiak eta telebistak ez dute oraindik lortu egintza komunikatibo orotan testuak duen eragina gainditzea.

2.8. ERREFERENTZIAK

Balsebre, Armand. *El lenguaje radiofónico*. Madril: Cátedra, 1994.

Cebrián, Mariano. *La información audiovisual, un servicio a la sociedad*. Madril: Forja, 1983.

Cebrián, Mariano. "Componentes sonoros de la radio" in *Información radiofónica. Mediación técnica, tratamiento y programación*. Madril: Síntesis, 1994.

Merayo, Arturo. "El mensaje radiofónico" in *Para entender la radio*. Salamanca: Universidad Pontificia, 1992, 123-145 orr.

Moles, Abraham. *La comunicación*. Bilbao: Mensajero, 1975.

Orive, Pedro. *Diagnóstico sobre la información*. Madril: Tecnos, 1980.

Romo Gil, María Cristina. *Introducción al conocimiento y práctica de la radio*. Mexiko: Diana, 1991.

3. GIZA AHOTSA ETA EBAKERA

3.1. SOINUAK ETA GIZA AHOTSA

Lehenik aipa dezadan, gai honetako terminologian sakontzeko kontsultatu egin daitekeela UZEIk argitaraturiko Musika Hiztegia. Hor aurki ditzake irakurleak zalantza terminologikoak uxatzeko bidea, soinu, ahots eta musikaren esparruan ager daitezkeen problemei itzurtzekoa alegia.

Gure entzumenak jasotzen dituen uhinek soinuak osatzen dituzte. Soinu hauek gogorrak/ahulak, baxuak/zorrotzak eta harmoniadunak edo harmoniabakoak izan ahal dira. Soinuak jasotzeko orduan, mailak hartu behar dira aintzakotzat; ondoko taulan ikusten ditugunak erreferentziatzat har daitezke (dB: dezibel. Fisikan soinu-intentsitatea adierazteko erabiltzen den unitatea).

AUDIO-MAILAK. ADIBIDEAK.

0 dB . . . . . .Entzuketa-atalasea. Eltxoen zarata bi metrotara.

20 dB . . . . . .Grabaziotegiaren barruan.

40 dB . . . . . .Elkarrizketa arrunta.

60 dB . . . . . .Elkarrizketa ozena.

80 dB . . . . . .Kale zaratatsua.

100 dB . . . . . .Mailu pneumatikoa 2 metrotara.

120 dB . . . . . .Hegazkinaren erreaktorea 10 metrotara.

130 dB-etik 140 dB-era . . . . . .Minaren atalasea.

Soinuaren ezaugarri edo kualitateak intentsitatea, tonua eta tinbrea dira.

Soinuaren intentsitatea neurtzeko, soinu horren gogortasun- edo ahulezi-maila neurtu behar da; intentsitatea audio-energiaren jarioaldiaren araberakoa da, hots, molekulen desplazamenduaren anplitudearen araberakoa, zeina aire-presioaren bariazioarekin erlazionaturik baitago. Soinu baten tonua adierazteko, grabea (baxua) edo zorrotza (altua) dela esan ohi dugu; tonua, audio-oszilazioen maiztasun edo frekuentziek xedatzen dute: behe-frekuentzia izanez gero, soinu baxuak ditugu; aitzitik, goi-frekuentziei soinu zorrotzak dagozkie; frekuentzia entzungarrien multzoa 20 Hz eta 20 kHz artean mugatzen da. Tinbrea, bestalde, soinuen pertsonalitatea da; nota berean finduriko bi musika-tresna desberdinek ez dute audio-sentsazio bera sortzen; harmonikoen presentziarekin dago erlazionaturik tinbrea; harmonikoak ondokoak dira: emititzen den oinarrizko frekuentziaren frekuentzia multiploak; soinua osotzen duten frekuentzien espektroa, hots, harmonikoen maila eta anplitudea, “tinbre” deitzen diogunaren ezaugarriak ditugu.

Ahotsa, irrati-elementu nagusia da, gizakiek daukaten ezaugarri bereziena hitza baita, ideiaren kodifikazioa, entzuleei transmititu nahi dieguna, alegia.

Euskararako Hiztegiak (1986) definizio hau ematen digu ahotsaz: "gizakiaren laringean sortuz, ahoko hutsunean moldea hartzen duen boza”. Definizio honetan ahots berbaren baliokide bat erabili zen (boza), oso egokia ez dena. Bestalde, Euskal Hiztegian (1996) Ibon Sarasolak definizio hau dakarkigu: “zintzurreko hariak dardaratzen direnean sortzen den hotsa”. Horra hor, beraz, labur eta zehatz, ahotsaren azalpena.

Izan ere, definizioan sakonduz, ahots-kordek airean sortzen duten soinua da, biriketatik irtetean laringeko korden bibrazioaren efektua anplifikatzen duen airearen eraginez sorturikoa hain zuzen, burmuinak laringeko kordak ibilian ipintzen dituelarik.

Gizakiaren fonazio-sistema 3 aparatu desberdinetan bana daiteke; hirurek bat eginez gero, giza ahotsa sortzen da.


a) Arnas aparatuak airea ematen digu, zeina bibrazioan ipiniz gero, soinu entzungarri bihurtuko den.

b) Fonazio-aparatua, soinua kanpoan entzungarri egiteko edo bihurtzeko gauza den airearen bibrazioa sortzen duena.

c) Erresonantzia-aparatua edo durundi-aparatua, sorturiko soinua aldatu eta finkatzen duena.

3.2. FONAZIO-APARATUA

Bere organorik garrantzitsuena laringea da; onil edo inbutu baten itxura du laringeak. Bere zulo nagusia, faringearekin komunikatzen da goialdean. Eta zulorik txikiena, trakeaz edo zintzurresteaz, behealdean. Laringea zintzurresteko goiko bi oboen diferentziaziotik sortzen da. Faringearekin komunikatzen den zabalgunea epiglotis deitzen denaren bidez ixten da degluzioa egitean. Honen azpian estugune bat dago, zeinean goiko ahots-kordak dauden. Beheraxeago beste bi toles gehiago, bata bestetik oso hurbil, beheko ahots-kordak deitzen direnak, hiru ertzeko zulo baten mugakide (glotisa).



Artikulazio-organoak

3.3. GIZA AHOTSAREN TIPOLOGIA

Giza ahotsaren tipologian sei mota desberdin topa ditzakegu:

1. Baxua: gizonezkoen ahots grabea.
2. Baritonoa: tenore eta baxuaren arteko ahotsa.
3. Tenorea: erdiko ahotsa, kontraltuaren eta baritonoaren artekoa.
4. Kontraltua: ahots ertaina, emakumeen ahotsen artean baxuena da.
5. Mezzoa: soprano eta kontraltuaren artean dagoen ahotsa.
6. Sopranoa: giza ahotsik zorrotzena edo altuena.

Mota hauez gain, badira beste bitarteko gama batzuk. Kontrabaxua ere sar daiteke sailkapen honetan, ahots hau ohiko baxuarena baino ahots grabe eta sakonagoa delarik.

Historian zehar, modak eta gustu estetikoen garapenak izan direla-eta, ahots-mota batzuk potentziatu dira besteen kaltean.

Giza ahots onak hiru eskala eduki ahal ditu. Kontatzen denez, Felipe V.ari penak arintzeko abestiak kantatzen zizkion Carlo Broschi (1737) hiru eskala eta erdira heltzen zen.

Baina, ahotsak beste modu batez ere sailka daitezke, ahotsaren kualitatea eta inflexio eta intentzioa kontuan hartuz:

1) Ahots estentoreoa edo trumoi-ahotsa: ahots gogor eta indartsua. Ahots mardula da espazio akustiko osoa betetzen duena eta eszenan nagusi dena.

2) Ezkila-ahotsa: ahots energiko eta maiestuosoa. Norberak duen konfidantza adierazteko erabili ohi da. Abenturazale eta jende ibiltari jakintsuendako erabiltzen da.

3) Ahots argentinarra: argia eta ozena. Tinbre atseginekoa eta metalikoa. Heroiarentzat erabiltzen ohi da. Galan edo jende dotorearendako erabili ohi da.

4) Ahots beroa: melodiatsua, harmoniatsua eta meloso edo eztitsua da. Bere baitarik asko komunikatzen duen ahotsa da. Emakume fribolo eta sentsualentzat erabiltzen da, baita gizonezko andrekoi eta seduktoreentzat ere.

5) Ahots gozoa: aurrekoarekin nahas daiteke. Honek, ordea, lotsa, ingenuitatea eta maitasuna adierazteko balio du. Suabea da, erregutzen duen pertsonarena bezalakoa. Gizonezko lotsatientzat ere erabiltzen da.

6) Ahots zakarra: ahots opakoa da, indarrik eta sonoritaterik ez duena. Agure-atsoentzat erabiltzen da.

7) Patar-ahotsa: ez da batere harmoniatsua. Mozkorti eta biziotsuek dutena bezalakoa da.

8) Maritxu-ahotsa: ozena, deigarria, txutxu-mutxuka aritzen direnena bezalakoa, baita maritxuena ere.

9) Ahots zuria: haurren ahotsa da.

3.4. HEDADURA ETA TESITURA

Gizaki guztiok daukagu nota-kopuru bat, errazki emititzen ditugunak eta gure ahotsaren hedadura osatzen dutenak.

Bestalde, tesitura izenekoa ahots bati ondoen doakion soinu-multzoa da. Hezi gabeko ahotsean tesitura askoz laburragoa da ahal den gehienezko hedadura baino.

Ahotsak aldatu egiten dira urteen poderioz, baita pisu, egoera fisiko eta abarren poderioz ere, giharren distentsioa dela-eta lasaitzeko joera dutelarik, hau da, grabe edo baxu bihurtzeko joera.

3.5. ARNASKETA ETA ARNASKETA-MOTAK

Mikrofono batetik mintzatzeko gauzarik garrantzitsuena, arnasketa ondo egitea da. Ezinbestekoa da sudurretik aire asko hartzea, berba egiten hasi aurretik. Cristina Romo-k dioskun bezala (1987, 51), arnasketa giltzarria da aire-jarioa menperatzeko eta horrela airearen botatzea era batera edo bestera izan dadin. Arnasketa ez da nabaritu behar, egiten ditugun etenaldiak aprobetxatuz egintza hori burutzeko. Beti ere sudurraz egin behar dugu arnasa sartzea, sartutakoan airea gordez, zeren aire-erreserbarik gabe geratzen bagara, mikrofonotik esandako azken silabak itzali egiten baitira; indarrik gabeko hitz bilakatzen ditugu, alegia.

Arnas mugimenduak bular-kaiolaren dilatazio eta uzkurduren bidez sorturiko egintza da arnasketa, dilatazioa eta uzkurdura elkarren segidakoak direlarik. Mugimendu bakoitza denboraldi bitan deskonposatzen da:

— Arnas hartzea edo aspirazioa: airea biriketan sartzen da.

— Arnas botatzea edo espirazioa: biriketan metaturiko airearen parte bat irtetea.

Hiru arnasketa-mota daude:

a) Toraxaren goialdeaz egiten dena (bular-arnasketa). Europan nahiko ohikoa da; andrazkoek egin ohi dutena, baita beren irudia ondo gorde behar duten pertsonena ere: faxadun exekutiboena edo arropa estua daramatenena.

b) Behe-sabelaldeaz egiten dena. Abdomina edo ziborraldea handitu edo zabaldu egiten da, bularra higitu barik. Antzerki-eskoletan oso erabilia.

c) Arnasketa osoa edo diafragmatikoa. Aipaturiko bi aldeez egina. Sabelaldearen arnasaldia nagusitu egiten da. Higienikoena eta funtzionalena da. Umeek eta animaliek egin ohi dute. Izan ere, era hau naturala da, besteek jatorri kulturala duten bitartean.

Bistakoa denez, fonazioak airea behar du. Airea mintzatzeko edo kantatzeko lehengaia da. Irratitik mintzatzea eta mikrofonoa itzalita mintzatze soila, ez dira gauza bera. Gure ahotsa uhinetatik doala jabetzean, "irratia bizitzen ari zarela" esan ohi da; honek bihotzaren taupadak azkartzea dakar, burmuinera doan odola areagotu egiten da eta "tentsioa" sortzen da irratiko esatariarengan. Hortaz, oxigeno gehiago erretzen da irratitik mintzatzen garenean. Adrenalina gehiago jariotzen zaigu, arrisku-sentsazio bat nagusitzen da gutaz (txarto aterako ote? galdetzen diogu geure buruari). Urduri edo artega jartzen garenean, arnasketa diafragmatikoa ondo egitea kostatu egiten zaigu; orduan bular-kaiolaz egiten den arnasketa da erabiltzen duguna, eta konturatu gabe lepoak eta bularreko giharreak jasotzen ditugu, arnasa egiteko daukagun ahalmen osoa martxan ipintzen ez dugularik.

Egia esan, ezin da arau finkorik eman arnasa egiteko modu onena zein den erabakitzeko; pertsona bakoitzak berea dauka. Esate baterako, andrazkoek gehiago garatu dute bularreko arnasketa. Irratian, kirol-emanaldietan edo hondamendiak jazotzen direnean, kontrolaezinezkoak dira zirrarak. Kasu honetan, irratilariak ahaleginak egin behar ditu arnasketa osoa edo diafragmatikoa egiteko. Hitz egitean arnasaren bolumen osoa erabiltzea komeni da, eta honetarako arnasketa diafragmatikoa egin behar dugu. Behean etzanik eta esku bat sabelean eta bestea bularrean ditugula, ariketa ona izaten da konprobatzea nola, arnasa hartzean, lehenbizi sabeleko eskua altxatzen den, eta jarraian bularrekoa (dena fase bakar batean egin behar da). Hatha-yogaren bidez hagitz ongi ikasi ahal da arnasketa hau egiten.

3.6. FONOLOGIA ETA FONETIKA

Irratilariak hitzak eta soinuak ditu lankide egunero. Takean-potean ahoskatu behar ditu aldez edo moldez, maiz letra eta soinuen esparru teoriko-praktikoaz zalantza-malantzetan egon eta ideia handirik izan ez arren. Hori hastapenetik kontzeptu batzuk argi ez dituelako gertatu ohi da horrela. Teoriari gagozkiola, eta lehenbiziko urrats modura, ongarria da fonologia eta fonetika bereiztea. Euskal fonologiaz gehiago sakontzeko, Txillardegi irakasleak egindako lana da erreferentzia nahitaezkoa (1982).

Jakina denez, letrak ikur grafikoak dira, hizkuntzek dituzten fonemak idatziz adierazi ahal izateko. Letren kopurua eta hizkuntzek dituzten soinuen kopuruak ez dira zertan berdinak izan, bistan denez. Badira letra batzuk, fonema bat baino gehiago errepresentatzeko balio dutenak. Horrela, esaterako, g kontsonanteak hiru fonema eman ditzake euskaldun peto eta diglosikoen artean (hala ere, euskal alfabetoan "ge" izendapena daukan letra honek

maileguzkoak eta arrotzak ez diren hitzetan soinu horixe, besterik ez du eman behar, "gu gara" hitzetan dagoena hain zuzen ere). Izan ere, fonemak fonologiari atxikitzen zaizkio eta George Yule-k (1996, 66) definitu bezala, "hizkuntzan esangurak bereizten dituzten soinuak dira". Hortaz, fonologia hizkuntzen soinuen sistema eta ereduen deskripzioa da. Fonologian soinu-ereduak aztertzen dira. Jakintza honek izaera teorikoa dauka eta lengoaiaren aspektu mental edo abstraktuen gainekoa da, ez inola ere hizkeraren soinuen artikulazio fisiko zehatzaren gainekoa, azken horretarako fonetika baitugu. Fonemak barra makurren artean idazten dira.

Fonemak unitate abstrakuak dira eta fonetikan, aldiz, soinu ez-abstraktuak aztertzen dira. Errealitatera daramagunean, fonemak soinu desberdinak ematen ditu. Soinuen bertsio horiei fono izena ematen diegu eta kortxete artean idazten dira. Fono-multzo bat daukagunean, fonema baten bertsioak alegia, alofono hitza darabilgu. Beraz, fonetikak hizkeraren soinuen ezaugarrien estudio orokorra egiten du. Fonetikak zenbait adar ditu (akustikoa, auditiboa…) eta guri adar horietatik interesatzen zaiguna, kazetarientzat ongarri delako eta praktikotasunaren esparruan lagundu ahal digulako, fonetika artikulatorioa da. Fonetika artikulatorioan hizkerako soinuak nola egiten diren erakusten da, irratilari eta telebistako berriemaileentzat ezinbestekoa dena, informazioak ikusentzuteko hedabideetatik taxuz eta egokiro aurkeztu ahal izateko.

3.7. EBAKERA ETA AZENTUAZIOA

Lehenik, ikus dezagun zenbat adiera dituen hitz horrek. Hiztegiak honako adiera hauek dakartza ahoskera, ebakera edo dikzioaz (azken hau latinezko *dictio* berbatik dator): 1. Hitza edo soinu-multzoa, ideia bat adierazten duena / 2. Mintzatzeko edo izkiriatzeko era, hitz eta perpausen erabilera zuzena edo okerra / 3. Ahoskatzeko era ("dikzio argia dauka horrek", esaterako). Bigarren esangura kontuan hartzen badugu, argiro esan behar da, mintzatzeko erak erlazio zuzena daukala idazteko moldearekin. Ebakera-problemak hortixek etorri ohi dira. Alfabeto-, esaldi- eta soinu-transkribaketena, mintzaldiaren esparruko gai garrantzitsua da. George A. Miller-ek (1989, 73) zuzen dioskunez,

> "Hizkuntza alfabetiko batez irakurtzen eta idazten dakiten pertsonek idazten den bezala mintzatzen dela uste ohi dute, hots, hizkera sortzen duen aparatuak hitzezko soinu indibidualak eta aldagaitzak sortzen dituela, idazmakinak letrak banan-banan eta aldaketarik gabe inprimatzen dituen bezalaxe. Pertsona horien hizkuntza ingelesa bada, jakingo dute bai, ebakeraren eta ortografiaren arteko egokitzapena ez dela inola ere bikaina. Dena den, kostatu egiten zaigu, hizkeran segmentu beregain eta aldagaitzik ez dagoela uste izatea."

Aparatu elektro-akustikoen bidez eginiko azterketek erakutsi dutenez, soinu berbera era desberdinez ahoskatzen da aldi bakoitzean.

Soinu bokalikoak ahots-kordetan sortzen dira; kontsonantikoak, ostera, faringean eta aho-sudurraldean. Ezberdintasunak hortz, ezpain, mihi eta alboko tabikeen jarreragatik sortzen dira. Aho-aldearen tamaina eta forma, mihiaren eraginez aldatzen dira. Ezpainak higitu gabe ditugularik, bost bokaleak ebaki ahal ditugu mihiak bokal bakoitzari dagokion jarrera hartzen badu. Mihia garrantzizko giharrea da dikzio ona egiteko. Mihiaren abileziari eta arintasunari esker, ahoskera argia lortzen dugu.

Dikzioa hobetzeko, gimnasia-ariketak egin behar dira mihiaz. Ahoko giharre hau sendotzeak asko laguntzen digu hitzak hobeto ahoskatzen. Ariketak maiztasunez egiteak on egiten die irrati-telebistako esatariei. Hortaz, ariketa horietariko batzuk aipatzea, egokia izan daiteke oso:

1. Mihia ateratzea eta gordetzea, ahalik eta arinen.

2. Mihia atera eta gogor eta zorrotz jartzea.

3. Mihia nasai uztea, hots, bigun eta lasai.

4. Mihia ahoaren eskuineko eta ezkerreko aldetik ateratzea.

5. Mihia zeharo atera eta, behin hori eginez gero, ahoaren mutur batetik bestera higitzea, ezpainak zabal-zabalik ditugularik.

6. Ezpainak itxita, mihia ateratzen ahalegintzea.

7. Mihia sudurrerantz eta kokotserantz eramatea.

8. Boligrafoa mihiaren eta goiko ezpainaren artean oratzea.

9. Boligrafoa haginekin oratuta daukagula, edozein testu ahots goraz irakurtzea.

Soinu batzuk ebakitzea asko kostatzen bazaigu, hots, ia ezinezko bihurtzen bazaizkigu; horrelakoetan, onena “hurbileko soinuetara” jotzea izaten da, ezpainak, mihia eta abar egokiro kokatzen saiatuz. Irratilari-telebistalariek exotoponimoak ebakitzeko orduan hartu behar dute kontseilu hori gogoan. Euskal Herritik kanpoko izenak ahoskatu baino lehen, aldez aurretik aurki ditzakegun problemen jakitun egotea eta traba horiek uxatzeko ariketak burutzea, ez da batere desegokia.

Euskaltzaindiak arau berriak eman ditu euskara batuaren ahoskeraz. Aitor Gorostizak (1999) egokiro aipatzen du arau horiek hizkera jasorako erabili behar direla, maila formalean alegia, eta euskara batuaren ebakera zainduak ez dituela ordezkatzen herri-mailako

ahoskerak, euskalki eta azpieuskalkietan topa ditzakegunak. Beren garrantziagatik, albistegietako irratilariek eskuarki euskara batuaren maila jaso hori erabili behar dutelako, interesgarria da arazo hori hona ekartzea; arauak ikusi aurrez, dena dela, euskal alfabetoaren letren izenak –Euskaltzaindiak 1994ko azaroan onetsiak– ere jarriko ditut, hitzen ebakeretan eragina baitute:

Alfabetoaren letren izenak (euskarari dagozkionak):

a (a), b (be), c (ze), d (de), e (e), f (efe), g (ge), h (hatxe), i (i), j (jota), k (ka), l (ele), m (eme), n (ene), ñ (eñe), o (o), p (pe), q (ku), r (erre), s (ese), t (te), u (u), v (uve), w (uve bikoitza), x (ixa), y (i grekoa), z (zeta).

Gogora dezagun g letra ez dela ebaki behar gaztelaniak daukan fonemaren bitartez, euskal hizkuntzak berezko g letra baitauka, soinu propioa ematen duena, “gu”, “gara” edo “gosari” hitzetan egiten dugun soinua hain zuzen ere.

Bokalak nola ahoskatu:

I. <a, e, i, o, u> idatzi bezala ahoskatu. Iparraldeko euskalkietako <ü>ren bi ahoskera onartzen dira, horrela eskatzen duten berbetan, euskalkiaren erabilera zainduan.

Bokal-elkarteak nola ahoskatu:

II. Bokalak bokalen ondoan daudenean ere idatzi bezala ahoskatu behar dira hizkeraren maila zainduetan: telefonoa, mendia, burua. Hala ere, bestelako ahoskerak egoki eta zuzen dira gainerako hizkera-mailetan: telefonua, mendiya, mendixa, mendi, mendie, buruba, burue, buru…

III. Bokal bi elkarren segidan daudenean, lehenbizikoa <i> edo <u> bada, bi silabatan ahoskatzen dira: abi-an, sozi-ala, zi-ur… Dena dela, badira batzuetan ui diptongoak ere. Bokal-elkarte horiek diptongoan (silaba bakarrean) ahoskatzen dituzten Ekialde eta Iparraldeko euskalkietako hiztunengan hizkera zaindutzat hartuko da ahoskera hori.

IV. Bokal biren arteko <h> letra, hizkera-maila zainduan bokal bakoitza silaba batean ahoskatuko dute <h> ahoskatzen ez duten hiztunek ere: za-harra, na-hi, bihurturik, a-hula, be-hi…

Kontsonanteak nola ahoskatu

V. Idatzi bezala ahoskatu, hizkera zainduan, <b, d, f, g, k, l, ll, m, n, ñ, p, r, rr, s t, ts, tx, tz, z>.

<g>: <e> eta <i> bokalen aurrean, beste bokalen aurrean bezalaxe, ahoskera zainduan behintzat (geologia). Mailegu berrietan banan-banan markatuko dira salbuespenak (gin).

<s, z> eta <ts, tz>: pare hauek bereiztea hobetsiko da. Bestalde, <z> zistukaria da beti; beraz, gaitzetsi egin behar da gaztelaniazko ahoskera hortzartekoa (gaztelaniazko *zapato*). Beraz, eskizofrenia, soziologia…

<b, d, g, r>: bokalen artean daudenean, ahoskatu egin behar dira. Gainerako hizkera mailetan, egoki eta bidezkoak dira horien desagerpena edo aldaketa (horiek → hoiek, egon → eon).

<r, rr>: gaitzetsi egin behar da frantsesezko ahoskera ubularra (frantsesezko *rue* bezalakoa).

VI. <h> letra hau hostuna den Iparraldeko euskalkietako hiztunek idatzi bezala ahoskatuko dute hizkera zainduan ere. Letra hoskabea den Hegoaldeko euskalkietako hiztunen ahoskera zainduan ez da ahoskatuko. Salbuespen bakarra; zihoan, zihoazen… (gaztelaniazko <j> bezala).

VII. <il, in>: bustikuntza hauek <ill> eta <iñ> (milla, mallua, biña, baño) egiten diren euskalkietako hiztunengan bustikuntza horiek egoki dira ahoskera zainduan ere. Baina, adi: bustidura <ll> da (milla) eta ez <miya>. Bustikuntza egiten ez den euskalkietako hiztunengan, bustidurarik gabe izango da ahoskera zaindua ere (mila, mailua, bina, baino).

VIII. <j> letra, ahoskera zainduan, <y> bezala hobetsiko da (jateko → yateko, jokalariak → yokalariak…). Hala ere, badira gaztelaniazko <j> bezala ahoska daitezkeen hitzak, baina gutxi dira horiek. Bestalde, garaje eta ijito bezalako hitzetan onartzen dira gaztelaniazko *jamón* eta frantsesezko *jambon* hitzen ahoskerak ere.

IX. <x>: letra honek ahoskera sabaikaria du, lehengo euskal hitzetan (Xabier). Maileguetan, bokalarteko <ks> ahoskatzea hobesten da hizkera zainduan (sexo→ → seksua, taxia → taksia, faxez → faksez…).

Kontsonante-elkarteak nola ahoskatu:

X. <zb, zd, zg>: ahoskera zaindurako ere *ez* adberbioaren ondorengo <d, b, g> (adizkien hasierakoa) ahoskabe ebaki behar dira: ez da = ezta, ez gara = ezkara, ez bada = ezpada). Hortik kanpo <z> eta <b, d, g> biltzen diren guztietan ahoskabetzea onargarria da maila zainduan ere.

XI. <zz>: ahoskera zaindurako ere *ez* adberbioa eta ondorengo <z> (aditza fonema) batera ebaki behar dira, <tz> eginez; esaterako, ez zara = etzara, ez zuen = etzuen…

XII. <nz, lz, rz> eta <ns, ls, rs> bilkuretako <z, s> letrak <tz, ts> egin ohi dira euskaraz (Frantzia, unibertsitate, faltsua). Elkarren ondoko hitzetan ere egiten duten euskaretan onartzen da ahoskera zainduan: esan zuen = esantzuen, eman zion = emantzion.

XIII. <zn, zl, zh>: Ahoskera zaindutzat hartuko da *ez* adberbioa ondorengo aditz formetako <n, l, h> letrekin elkartzean <z> ahoskatzea zein ez ahoskatzea; adibidez, ez naiz = eznaiz edo enaiz, ez luke = ez luke edo eluke.

Ebakera eta azentuazioa elkarrekin loturik dauden gaiak dira. Euskal azentuaren esparruan, fonologiarenean bezalatsu, Txillardegi irakaslea da erreferentzia garrantzitsua (1984). Azentuazioa, bistakoa denez, hitz-pareetan hartu behar da kontu handiz, batez ere. Patxi Altuna akademikoak (1984) zerrenda interesgarria egin zuen euskarazko hitz-pareak bilduz. Gogora dezagun, ondoko hitz hauetarik asko direla, irratilariek maiz mikrofonotik ahoskatu behar dituztenak noiz edo behin. Dakartzagun hona aipaturiko zerrendatik zenbait pare, adibide gisa:

agíria / agiría, á(h)aria / haría, áldea / aldéa, (t)ártea / artéa, bálio / balío, básoa / basóa, báziren / bazíren, bérak / berák, héltzea / eltzéa, égia / hegía, étziren / etzíren, éztena / ezténa, gáinera / gainéra, hástea / astéa, jáioa / iaióa, kále (egin) / kaléa, leíhoa / Leióa, pílotari / pilotári, prézioa / presióa, txistúa / txístua, zúena / zuéna…

3.8. IRAKURGAIA

Ondoko irakurgaia doinueraren gainekoa da. Manu Arrasate-k (1992, 151-152) doinuera kazetarientzat zein garrantzizkoa den adierazten digu honako lerro hauetan, adibide egokiak erakutsiz.

Doinuera

1. Monotonia da, batez ere irakurtzean, baina baita hitz egitean ere, ager daitekeen beste akatsetako bat. Zerikusi handia du honetan esaldien antolaketak, denak egitura eta neurri berberaz sortuak izanez gero, askoz errazagoa baita monotonian erortzea. Arreta handia, beraz, idatzizko testua taxutzerakoan, bizitasunak eta arintasunak testuaren ezinbesteko ezaugarri izan behar baitute hasieratik.

2. Idatzizko testu egoki batean oinarriturik, mintzaldi bizia lor genezake behar bezalako doinuera erabiliz. Tono-aldaketak izango du orduan, beste baliabide batzuekin batera, garrantzirik handienetakoa, horrela bereiziko baititugu esaldi arruntak, azalpenak, harridurak eta galderak; esaldi nagusi eta mendekoak; eta hauen artean mendekotasun-mota: baldintzak, helburuak, zergatiak, denbora, modua…

   Tonua indartuz azpimarratuko dugu esaldiaren barnean garrantzitsuentzat jotzen duguna, galdegaia besteak beste, interesguneak ageriago eta inguruko datu osagarriak atzeko planoan jarriaz. Aholkuok denak teorikoak izanik eta entzuteko moduko adibiderik idazterik ez dagoenez, baliteke baten batek oker ulertua, hobe beharrez monotoniaren bestealdeko muturrera jo eta gehiegikerietan erortzea. Horrelakoetan, artifizialkeria alde batera utzita, naturaltasunez egindako artifizialtasunera joko dugu, ahozko hizkuntza eta eredutzat hartutako hizlari-esatariak begien bistatik (edo hobeto esanda, belarrien entzumenetik) kendu gabe.

3. Etenaldiak dira doinueraz ari garela kontuan hartu beharreko beste osagai batzuk. Etenaldi eta tono-aldaketen bitartez, esaldiak elkarrengandik bereizi eta esaldi barneko osagarriak azpimarra eta indar daitezke. Behar den tokietan behar bezalako etenaldiak eginez osatzen da esaldi-andanaren ahozko antolaketa.

   Teoria-azalpen hutsetatik argibide konkretuetara joaz, pare bat adibide jarriko dugu. Galdegaiari dagokionez, ondorengo bi esaldiok bereizteko etenak (azentu eta doinuerarekin batera) duen garrantzia ikusiko dugu:

   — “Proposamena onartu dute” (Jarraian eta “proposamena” indartuz)

   — “Proposamena / onartu egin dute” (Etenaldi txikia osagai eta aditzaren artean eta onartu azpimarratuta.

   Esanahiak bereizteko ere erabilgarri dela esan dugu. Esaterako:

   — “Hiruretan bakarrik / etorri dira”. (Jarraian, etenik gabe “hiruretan baino ez”, “hiruretan soilik” esanahia luke).

   — “Hiruretan / bakarrik etorri da”. (Etena eginda eta “bakarrik” indartuta “Hiruretan nola etorri da? galderari erantzungo lioke).

   Idatzizko testuetan, puntuak, komak eta harridura-ikurrak izango dira, besteak beste, ahoz gauzatu behar dugunaren adierazgarri zehatzak…

4. Jakina da arinegi irakurtzeak ez diona irakurketari mesede egiten. Fonema guztiak ondo eta garbi ahoskatu eta etenaldiak behar bezala egiteko astia izan behar du kazetariak. Askotan baina, kazetariak zer esan asko izaten du eta ezin ordea, aldez aurretik agindutako bideo-iraupena luzatu. Orduan, dagokion denboran ahalik eta daturik gehien sartzen ahalegintzen da zenbaitetan, irakurketaren abiada behar baino arinagoa izanik. Txarra litzateke, denbora laburregian datu gehiegi sartu nahian, azkenean mezu osoa entzulearengana ez heltzea. Ondo egokitu behar zaio, beraz, denbora esan beharrekoari, irakurketaren abiada behar bezalakoa izan dadin.

3.9. ERREFERENTZIAK

Altuna, Patxi. "Hitz pareak" in *Ahoskera Jarnunaldiak*, Bilbao: Euskaltzaindia, 1994-V-27.

Arrasate, Manu. "Ahoskera" in *Euskarazko albistegietarako esku-liburua*. Bilbao: EITB, 1992, 145-163 orr.

Bensoussan, D. *Reproducción del sonido*. Madril: IORTV, 1984.

Gorostiza, Aitor. "Euskaltzaindiaren arau berriak: euskara batuaren ahoskera" in *Administrazioa euskaraz aldizkaria*. Gasteiz: IVAP/HAEE, 24. zb., 1999.

Hills, George. "La inteligibilidad de lo que sale del altavoz (radio y televisión)" in *Los informativos en radio y televisión*. Madril: IORTV, 1983[2].

Miller, George A. *Lenguaje y habla*. Madril: Alianza, 1989.

Palazio, Gorka J. "Exotoponimiazko problemak kazetagintzan" in *Uztaro*, VII. zbk., Bilbao: UEU, 1993, 77-98 orr.

Romo, María Cristina. *Introducción al conocimiento y práctica de la radio*. Mexiko: Diana, 1987.

Txillardegi. *Euskal Fonologia*. Donostia: Ediciones Vascas, 1982.

Txillardegi. *Euskal azentuaz*. Donostia: Elkar, 1984.

UZEI. *Musika hiztegia*. Donostia: Elkar argitaletxea, Donostia, 1986.

Yule, George. *El lenguaje*. Madril: Cambridge University Press, 1996[2].

ZZAA."Fonetika eta fonologia" in *Lur entziklopedia tematikoa. Euskal hizkuntza eta literatura*. Bilbao: Lur, 1997, 167-170.

4. INFORMAZIO-ITURRIAK IRRATIBIDEAN

4.1. ATARIKOA: ITURRI KONTZEPTUAREN DEFINIZIOA ETA DELIMITAZIOA

Zalantzarik ez dago gai garrantzitsua eta gogoeta asko egitekoa dela ondoren jorratuko duguna. Irrati-emandegi batek albisteak nondik jasotzen dituen jakiteak eta kanal horiek aztertzeak asko adierazi ahal digu irratiaren ezaugarriez, irratilari-kopuruaz eta irratiaren joera ideologikoaz. Hedabidearen eta iturriaren artean sinbiosia egon ohi delako gertatzen da hori. Iturriek eta hedabideek elkarren beharra dute. Elkarrekiko dependentzian daude. Hain zuzen, José M. Caminos irakasleak (1995) honetantxe dakusa kazetarien jardueraren koxka: "iturriek kazetariak behar dituzte, konfidentziak entzuleengana hel daitezen; eta kazetariek iturriak behar dituzte, informazio onena eman ahal izateko. Izan ere, informazio-iturria kazetarien jardueraren gai garrantzizkoa bilakatzen da".

Manuel López-ek (1995, 29) gogoeta eragiten die irakurle eta irratilarigaiei, informazio--iturria zer izan daitekeen adieraziz: "Kazetariak ez du albisterik asmatzen. Kazetaria beti ezin da izan notizia bilaka daitezkeen gertaeren lekuko. Kazetaria lekukotasunetan oinarritu behar da berriak emateko. Albiste orok du atzean lekukotasuna. Lekukotasun hauei *informazio-iturriak* izena ematen diegu. Maltzurrak eta onestak daude…". Hortaz, iturriaren gaiak erlazio zuzena dauka irratilarien langintzarekin, eta informazioa baldintzatzen du era batera edo bestera. David Randall-ek (1999, 77) Associated Press agentziako Mort Rosenblum kazetariaren hitzak bere egiten ditu, langintza horren garrantzia eta, beraz, informazio-iturriena, azaltzeko: "suhiltzaileak gauerdian sute-abisua jasotzen duenean, prakak janzteko eta sua amatatzeko baino ez du denborarik. Berriemaileak makina bat pertsonari azaldu behar dio nork edo zerk eragin zuen sutea eta zergatik".

Nolanahi dela, sarrera honetan informazio-iturria sakonago definitu beharra dago, irratietan erabiltzen direnak aipatu aurretik. Egia esan, *iturri* kontzeptua oso anbiguoa da Blumler eta Gurevitch (1986) autoreek ere adierazi bezala, zeren eta iturria bera ordezkatzen duten erakunde, gizatalde eta gizabanakoei ere aplikatu baitzaie.

Abraham Moles-ek ematen duen definizioarekin hasiko gara, autore honek nahiko ondo azaltzen baitu iturriaren kontzeptua. Moles-ek *jario* eta *putzu* berbak darabiltza iturriaren

adiera azaltzeko. A. Moles-en aburuz iturria "mezu-jarioa datorreneko lekua" da, eta putzua, "mezu-jarioa jasotzen deneko lekua". Apika, hobe genuke *leku* hitzaz gain, beste hitz batzuk erabiltzea, zeren, toki fisikoa adierazteaz aparte, iturria pertsonak edo erakundeak ere izan baitaitezke. Nolanahi ere, Villafañé eta besteekin bat etorriz (1987), definizio ona da Moles-ena, komunikazio-prozesu bati baitagokio:

> Moles-en definizioa osatuena da agian, zeren iturri kontzeptuak *putzu* eta komunikazio-prozesu baten erreferentzia egiten baitu. Komunikazio-prozesu hau ez da sinplea baina. Kate luzea dela esan genezake, elkarren ondoko iturri eta putzuz osatua; eta katemaila bakoitzak bitartekotza-prozesurako funtzioa eduki dezake. Sistemen Teoria Orokorreko *kutxa beltz*-en antzekoa da, bere *input* eta *output*-ekin (Villafañé et alt., 1987).

Bestalde, Mariano Cebrián-ek (1981) honako definizio hau eman du iturri (*fuente)* kontzeptuaz: "komunikazioaren teorian, komunikazioa sortzen duen eta mezuak igortzen dituen erakunde oro". Definizio orokorra eta baliagarria, kazetaritza ikertzen dugunontzat. Bide beretik, López Zuazo-k (1985) *notizia baten datu-etorki* modura definitzen du informazio-iturria. Definizio zabal honetan, gertakariaren protagonistatik hasi eta ospitale edo aireporturaino, hainbat informazio-iturri sartzen dira, ikerketak egiteko orduan kasuistika larregizkoan jaus gaitezkeelarik. Bide bertsutik doa Vázquez Montalbán-ek emandako definizioa (1973): "Informazio-iturriak, egia esan, gertakariak beraiek dira, edo gertakarietako protagonistak". Azken hau ere hagitz zabala izan arren, zer pentsatu eman behar digu, edozein kazetarik beti eduki behar baitu gogoan protagonisten hitzak lortzea, protagonista bera elkarrizketatzea edota gertakariak izan diren lekuaren irudiak eta argazkiak kausitzea; zeregin hau guztiz garrantzizkoa da, era horretan informazioa gertu-gertutik eskaintzen baitiegu entzuleei.

Informazio-iturriaren kontzeptua ur-sorburu modura errepresenta daiteke (Palazio, 1997, 155). Ura datu informatiboak dira, informazio-ekaia alegia, eta irratilariak datu horiek zenbat eta beheragotik harrapatu, hainbat eta handiagoa da informazioa kalitate eskasagokoa izateko posibilitatea.

Izan ere, informazio-iturriak kazetariari informazioa edo datu informatiboak igortzen dizkioten pertsona, erakunde edo zerbitzuak dira; informazio osoa, hau da, asko aldatu gabe transmititzeko eran dagoena, edo datu informatiboak, kazetariaren esku informazioa osatzeko balio dutenak. Definizio honetan, bistan denez, argitalpenak eta dokumentazio--zerbitzuak ere iturritzat jotzen dira.

Dena den, iturri ororen atzean gizakiak daude. Gizabanakoaren eraginez hornitzen da informazioz iturri edo putzua. Horren arabera, gizakiek igorria da erakunde- edo zerbitzu--iturri desberdinetatik datorren informazioa. Benetako kontzepzioa hori izan arren, erakunde eta zerbitzuen baitan ere jartzen dugu *iturri* terminoa, Angel Faus irakasleak (1981)

ere egin duen bezala. Horrela, adibidez, iturria teletestua dela diogunean, teletestuaren zerbitzua eskaintzen duten kazetariengan pentsatu behar dugu; edo albiste-agentzia dela diogunean, erakunde informatibo horren atzean dauden berriemaileengan.

Moles-engana (1975) itzuliz, eduki-analisia aplikatzen zaien mezu guztiek bi alde dituztela aipatu behar da. Mezu denotatiboa (esaten dena) eta mezu konnotatiboa (esaten den era) elkarrekin datoz iturrietarik heltzen zaizkigun informazio guztietan. Alde semantikoaz eta alde estetikoaz ari naiz; adieren alorrean murgiltzen den errealitatea alde batetik, eta adierazteko moduekin eta estetikarekin erlazionaturiko alorra bestetik. Bi errealitate edo alor hauek aintzakotzat hartzekoak dira albistea sortzen denetik uhineratu edo papereratu arteko komunikazio-prozesu osoan zehar. Iturrietatik beraietatik garatzen dira bi alor hauek, eta bitartekoak zenbat eta gehiago izan, hainbat eta fidagarritasun txikiagoa eman behar diegu informazioei. Kazetariek ongisko dakite zeinen garrantzitsua den hori, eta horregatik eduki behar dute hasieratik argi zer-nolako iturriak nahi eta behar dituzten.

4.2. INFORMAZIO-ITURRIEN SAILKAPENAK

Lehenengo eta behin, esan dezagun bi bide segitu ohi direla informazioa erdiesteko: alde batetik, hedabideak berak bilatutakoan aurkitzen den informazioa dago; eta bestetik, gizarteko erakunde, pertsona zein elkarteek komunikabideetara bidaltzen dutena, interesak eraginda. Mar Fontcuberta-k (1993) dioen bezala, bi bide hauetan barna abiatzea eta beraietan gertatzen direnak —hedabide eta iturrien arteko harremanak— aztertzea, albisteen ekoizte-prozesuan jazotzen den zeregin konplexuena eta oinarrizkoenetarikoa da. Beraz, prozesua, ezin daiteke ongi azter, iturrien sailkapena egiten saiatu ezean.

Lan exhaustiborik eta nekezik egiteko asmorik gabe, ondorengo lerroetan iturrien zenbait sailkapen interesgarri jarri nahi ditut, irratilariek informazio-biltze lanean dauden hutsuneak, okerrak eta iturri batzuekiko gehiegizko menpekotasuna ikus ditzaten.

Josep Mª Casasús-ek (1988) hiru multzo handitan banatzen ditu kazeta-albisteak lortzeko metodoak: 1) Baliabide pertsonalak eta kazetariaren beraren iturriak; 2) ohiko iturriak, hots, konbentzionalak direnak; eta 3) informazioaren iturri espezifikoak eta noiz-behinkakoak. Baten batek pentsa dezake, hiru multzo horietako bakar batek ematen dizkigun errekurtsoak nahiko izan daitezkeela informazioa lortzeko. Hala ere, eskuragarri ditugun baliabide eta iturri guztiak dira baliagarriak gure informazioa gorpuzteko. Casasús irakasle katalanak dioskun bezala, informazio-lan baten bikaintasuna iturri eta baliabideetan jartzen diren eginahalei esker kausitzen da. Baina jar dezagun ondorengo laukian Casasús-ek egindako albiste-iturrien sailkapen osoa:

1. Baliabide pertsonalak eta kazetariaren beraren iturriak

a) Pasiboak: behaketa zuzena edo ustegabekoa, entzunaldi ez-sistematikoa eta irakurketa kontingentea.

b) Aktiboak: ikerkuntzaren, elkarrizketa teknikoen eta dokumentazioaren bitartez lortzen direnak.

c) Pertsonalak: kazetariaren hezkuntza akademiko eta kulturala, bere oroimen profesionala, kazetariaren agenda profesionala eta harreman publikoak, eta fitxategi eta artxibo pertsonalak.

2. Ohiko iturriak

Iturri antolatuak direnak: albiste-agentziak, prentsa-kabineteak, kazeta, aldizkari, buletin eta liburuen hustuketa metodikoa eta irrati eta gainerako ikusentzunezkoen entzunaldi edo behaketa sistematikoa.

3. Informazioaren iturri espezifikoak eta noiz-behinkakoak

Gertakariaren protagonistak, lekukoak, erakunde publikoak, alderdi politikoak, sindikatuak, gizarteko elkarte desberdinak, enpresak eta gizartean eragina daukaten pertsonak.

Bestalde, Villafañé, Bustamante eta Prado irakasleek (1987) honako iturri hauek bereizi zituzten irrati-telebistako lan-ohiturak aztertu zituztenean:

1. Zentro erregionalak.
2. Berriemaileak eta erreportariak.
3. Dokumentazioa eta hedabideko agenda.
4. Gobernu-iturriak.
5. Patronalak eta enpresari-elkarteak.
6. Sindikatuak.
7. Alderdi politikoak.
8. Erakunde sozialak.
9. Adituak.
10. Testigantzak.
11. Albiste-agentziak.
12. Beste informazio-hedabide batzuk.
13. Bestelakoak.

Beste autore batzuk exhaustiboagoak dira —David Dary (1970) eta Javier Muñoz (1994), kasurako— hainbat *news beat*, sektore edo iturritegi aipatuz: erabaki-zentroak, hezkuntza-zentroak, bidaiak, kirol-esparruak, sektore baztertuak… Gogora dezagun David Dary-k ondokoa adierazteko darabilela *news beat* hitza: "a beat is the news source or sources for which a certain newsman is responsible, and in a large community there may be several new beats".

Sailkapena informazioaren eskuragarritasun-mailaren arabera egingo bagenu, *lehendarra*, *bigarrendarra*… eran bereiz genitzake iturriak; horrela, irratilari berriemailea gertakariaren lekuko zuzena balitz, *lehendarra* edo primarioa genuke iturria: bitartekari gehiago egonen balira, *bigarrendarra* (sekundarioa), *hirugarrendarra* (tertziarioa) eta abar genituzke.

Albiste batzuk *esklusibaz* ematen dira zenbaitetan. Hori gertatzen denean, iturri lehendarrari egiten diogu erreferentzia, hots, kazetariari berari; edota iturri bigarrendar edo hirugarrendar bati, informazio pribilegiatua ematen digunari preseski. Iturri *pribilegiatu* horiei Mar Fontcuberta-k (1993) *fuentes exclusivas* deritze. Izaera desberdina dute, ordea, iturri *konpartituek*, hau da, irrati-estazioari albiste-kopuru jakin bat igortzen diotenak, informazio-zerbitzuen eguneroko lana erraztearren.

Bestalde, interesgarri deritzot José Martínez de Sousa-k (1992[2]) iturriak nola sailkatzen dituen azaltzeari. Gaztelaniaz iturri kontzeptuari jarri ohi zaizkion adjektiboak baliatuz, iturrien tipologia zabala egin du, prentsa idatzirako bezala ikusentzunezkoetarako ere balio duena:

1. **Iturri ahalduna** (edo baimendua). Aipa ezin daitekeen iturri ofiziala.

2. **Ongi informatutako iturria** edo **iturri ona**. Zehaztu ezin daitekeen iturria, baina informazioa berma dezakeena.

3. **Kontsulta-iturria**. Kazetariari lagungarri zaizkion liburu eta lan intelektualek osatzen dutena (hiztegiak, urtekariak, entziklopediak, artikuluak…)

4. **Iturri dokumentala**. Argitalpen baten kontsulta-elementuek osatzen dutena; hala nola, argazki-artxiboa, ebakiak, agiri egiaztatuak, gutunak, dekretuak, legeak eta arautegiak, fitxa biografikoak etab.

5. **Atzerriko iturria**. Atzerrian dagoen iturria eta nazioarteko informazioa igortzen duena.

6. **Iturri indibiduala**. Berriemaile, korrespontsal edo kazetaria.

7. **Erakunde-iturria** edo **iturri instituzionala**. Pribatua zein publikoa den erakunde baten prentsa-kabinetea edo harreman publikoetarako bulegoa.

8. **Iturri lokala**. Hedabidea dagoen eskualdean kokaturik, noizean behin zein maiztasunez informazio interesgarria eman dezaketenak. Besteak beste, polizia, ospitaleak, suhiltzaileak, erakunde zibikoak etab.

9. **Iturri nazionala**. Interes nazionaleko informazioak datozeneko guneak.

10. **Iturri ofiziala**. Gobernuaren edo beraren erakundeen izenean informazioa igortzen duen gunea.

11. **Iturri ofiziosoa**. Bere izenean, eta ez daukan karguaren izenean, informazioa igortzen duena.

12. **Iturri partikular** edo **pribatua**. Bere izenean informazioa igortzen duena.

4.3. IRRATIETAKO INFORMAZIO-ITURRI NAGUSIAK

Ondoren, gaur egun irratietan informazio-iturri nagusi ditugunak ikusiko ditugu banan-banan, bakoitza apur bat azalduz. Iturri hauek ohikoak diren arren, irratien tipologian gorabehera handiak ikusten dira beraiek erabiltzeko orduan. Irrati desberdinak asko dira eta aurrekontua dela, kokapen geografikoa dela, joera ideologikoa dela, iturriak aski desberdinak izan daitezke irrati batetik bestera.

4.3.1. Albiste-agentziak

Informazio-agentziek albistez hornitzen dituzte hedabideak. Irrati-estazioetan kokaturiko teletipoak ia desagertuak dira dagoeneko herri garatuetan, baina oraindik ere badiraute albiste-zerbitzuek. Lehen despatxoen bitartez eta orain konputagailuen terminalez, irratilariek azken uneko albisteak kausitzen dituzte. Informazio-agentzien zerbitzua eguneko 24 orduetan dabil eta mundu osoko edozein herritatiko albiste-unitateak jartzen ditu eskura.

Informazio-sorburu ditugunez gero, irratilari berriemaileek beti eduki behar dute gogoan albiste-agentziak informazioaren oinarri eta hastapena direla. Abiaburu direnez gero, informazio horiek janztea ere komeni da apur bat baino ez bada ere. John Hasling-ek (1980, 143) hitz egiten digu honetaz: “The discriminating newsperson will use the wire service as a fundation, but add to it her or his own stories and local angles on national events”.

Beraz, irratilariak kasu egin behar dio Hasling-en esaldi horri, eta anglosaxoien munduan esaten den bezala, *rewrite* edo berridatzi egin behar da despatxoa, irratilari berriemaileak datu gehiago lortuz edo datuak kontrastatuz, salbu eta, apika, azken orduko *flash*en kasuan, informazio labur hauek berehala eman behar izaten baitira mikrofonotik. Teletipotik zein konputagailuaren terminaletik datorkigun albistea dagoen-dagoenean emateko tentazioa handiegia izaten da sarri, eta irratilariak errazegi ahanzten du, informazio-datu berriak eta audio-lekukotasunak bilatzea bere langintzako zeregin garrantzitsua dela.

Irrati libreak alde batera utzita, hauek —albiste-agentziak alegia— kanalik garrantzitsuena osatzen dute irrati-albisteak uhinez aireratzeko orduan; eta kanal nagusia dela diogu, zeren beronek dauzkan hiru abantailak aintzakotzat hartzekoak baitira: arintasuna, eguneko edo orduko ematen duen albiste-kopurua (zenbatasuna) eta ustezko kalitatea (kazetari profesionalak aritzen dira bertan).

Lehenago, informazioen alor semantikoaz eta estetikoaz izkiriatu dudanean, aipatu gabe geratu da Moles-ek (1975) gogora dakarkiguna: albiste-agentziak dira alor semantikoan eragin izugarria dutenak. Gai informatibo gordinak igortzen dizkigute, albisteak hautatuz, sailkatuz eta hedatuz. Nolabait esateko, informazio-katean hedabideak gatibu geratzen dira sarri askotan albiste-agentzia handien atzaparretan. Eta hau hirugarren munduko estatuek dakite ongi asko.

Euskal Herrira etorriz, esan dezagun irratilari euskaldunek lan extra egin behar izaten dutela erdal agentzietatik datozkien albisteak euskaratuz. Era horretan, irratilaria itzultzaile bihurtzen da ezinbestean. Beraz, paradoxa, horretantxe dago, unibertsitatean ezer gutxi irakasten baita itzulpengintzaz.

Tamalez, azken urteotan, Hego zein Ipar Euskal Herrian, agentzia gutxik eman dute zerbitzu hau. Garai batean Vasco Press-ek itzulpen-kabinete bat osatu zuen euskarazko albisteak bere bezeroei helarazteko. Zerbitzu hori 1.987ko urtarrilaren 22an jarri zuten abian. Orotara 3 kazetari euskaldunek egunean sei orduz lan egiten zuten, batez beste eguneko 25 albiste (hiruen artean) euskarara itzuliz. Egia esan, zerbitzu hau eskaintzeko ideia Eusko Jaurlaritzarena izan zen, zerbitzua ustiatzeko enkantea eginez. 1991eko abenduaren 31z geroztik, ostera, horrelako euskarazko zerbitzurik ez da egon, harik eta Europa Press-ek euskarazko informazioa plazaratu duen arte.

Zenbait herrialdetan albiste-agentziek, prentsa idatzirako bidaltzen dituzten berriez gain, irratirako espreski idatziriko albiste-zerbitzua ere eskaintzen dute; emititzeko gerturik dauden albisteak dira, zeinen bidez agentziek beren zerbitzupean dauden irrati-emandegien linea ideologikoa hobeto kontrolatu ahal baitute. Horrela, UPI agentziak 1968. urtean sortu zuen *UPI Audio* izeneko zerbitzua, irratiak albistez hornitzeko asmoz. APk sei urte geroago sortu zuen asmo berberarekin *AP Radio* izenekoa. Zerbitzu honetan publizitaterik ez dago, eta Estatu Batuetako herrialdeei buruzko informazioa ere emititzen dute. David

Dary-k (1970) aipatu zuenez, egunero 70-75 albiste (hauetariko erdiak erreportaiak) igortzen zituen *AP Radio*-k eta albiste bakoitzaren batez besteko iraupena 45 segundokoa zen; gaur egun ere lanean dirau AP agentziaren zerbitzu honek.

Beraz, irratilari-eskasia dela-eta, irrati batzuk zerbitzu horretaz (irratirako albiste prestatuez) baliatzen dira. Albistegi labur edo buletinetarako material prestatua igortzen dute (5etik 10 minututara), irratiko kazetariek ahotsa (erreportaia aurkezteko) ipini besterik egiten ez dutelarik. Zerbitzu berezi hau egon ezean, irratilariek, ahotsa ipini, albisteak hautatu eta berauek baloratzeaz gain, beste zeregin bat ere badute: albisteak irratitik emateko eran idatzi behar dituzte.

Atal honen azterketa bukatzeko, ekar ditzagun hona teletipoen erabilerari buruz RNEko irratilarientzako eskuliburuak (1980 , 64) ematen dituen hiru gomendioak:

> **59**. Teletipoa ahalik eta gehien saihestu behar da. Eta erabiltzen denean, berriz izkiriatu eta berregin behar da beti, lehen lerrokada baino ez kopiatzera mugatuz. Fotokopiagailuek hori berori egiten dute eta askoz arinago gainera.
>
> Informazioek propioak izan behar dute. Horretarako ditugu erreportariak, probintzietako idazlaritzak, atzerriko berriemaileak eta bereziki bidalitako irratilariak.
>
> **60**. Ez fidatu itsuki teletipoez.
>
> Ez ditugu zertan onartu teletipoek dauzkaten errakuntzak.
>
> Efe, Europa Press, Logos, France Press edo Reuter ez dira Radio Nacional baino infalibleagoak.
>
> **61**. Irakur ezazue osoro teletipoa.
>
> Maiz, amaieran dator garrantzitsuena.

4.3.2. Irratiko berriemaileak

Irratilariek erronka handia dute, askotan beraiek emandako informazioa kazetek eta telebistek jasoa izaten delako. Azken orduko informazioaren jasotzaile izateak lan franko dakarkie irratilariei. Irratiek ongi zaindu behar dituzte informazio-zerbitzuak, albisteen biltze--lanetan eraginkor izanak eta orain eta gero hurbilaren aiduru egonik. Atal honetan, horiei buruz, hots, informazio-emaileez eta informazio-zerbitzuek erabiltzen dituzten informazio--iturriez arituko gara. Hasteko, esan dezagun irratietako informazio-zerbitzuek berriemaile diferenteak dituztela.

Irrati-estazio bateko idazlaritzan berriemaileak eta erredaktoreak edo idazlariak ditugu, eta hauez gain badira korrespontsalak (*stringers*) eta noiz-behinkako berriemaileak (*tipsters*). Baina horiez guztiez gain, irratietako informazio-departamentuak iturri konfidentzialak eta itunpekoak (*interns*) ere baliatzen ditu albisteak biltzeko.

Irratietako berriemaileek albisteak hautatzen dituzte lehenik, beren ustez garrantzitsuak direnak. Albiste-unitateak beraiek sortuak edo aurretik emandakoak izan daitezke. Bigarren kasu horretan berriemaileak ez dira iturri edo sorburu; lehenengoan aldiz, informazioak berriemaileek berek landuak eta hastapenetik eginak direnean, iturri bilakatzen dira.

Nolanahi den ere, irrati txikietan berriemaileak irratiaren oinarri ez diren arren, zalantzarik ez dago informazio-zerbitzuen elementu nagusia direla oraindik ere gaur egunean. Etorkizun hurbilean, irratilariek informazio-autobideak baliatuko dituztenean, garrantzi txikiagoko elementuak izango dira, ziur asko.

Irrati-estazioko erredaktoreez gain, irrati dirutsuetan badira beste informatzaile batzuk (korrespontsalak), atzerrian, lurraldeetan edo eskualdeetan lan egiten dutenak. Bai bat zuek, bai besteek, informazio-iturri bat osatzen dute. Kalean zein idazgelan albisteak lortzen dituzte, horretarako telefonoaz edo grabagailauaz baliatuz. Irrati-informazioaren ezaugarrietako bat berehalakotasuna denez gero, bistakoa da korrespontsalek hedabide honetan jokatzen duten paperaren garrantzia.

Korrespontsalak igortzen digun informazioak ezaugarri berezi bat dauka: errealitatearekiko harremana zuzenagoa da, eta ondorioz, giro-soinuak eta informatzailearen ahotsak bertaratu egiten gaitu, sinesgarritasun handiagoa ematen digu, jazoera biziarazten digu. Askotan korrespontsal hauek idazgelara heldu ez diren albisteen berri ematen digute, agentziek jaso ez dituzten albisteen berri, alegia.

Iturri hau garatzea, azken buruan, irrati libreek bere egin zuten joerarekin bat egitea da, hau da, informazioa gertakarietan parte hartzen duten pertsonekin berekin batera ematea. Informazio-bitartekarien eskusartzeari itzurtzea da kontua, informazioaren kontrola berriemailearengan berarengan edo irratiaz arduratzen den gizataldearen baitan ipiniz. Joera hau,

gaur egun, paradoxikoa bada ere, batetik irrati estatal eta nazionaletan eta bestetik irrati libreetan igar daiteke aldez edo moldez.

Bestalde, esan dezagun irrati gehienetan tokiko informazioa, hots, lokala dena, askoz garrantzitsuagoa dela internazionala edo nazionala baino, eta sarri askotan informazio lokal hori eskuragaitza dela. Autore batzuek, Cristina Romo-k adibidez (1991, 80-81), informazio-mota honetantxe —lokalean— ikusten zuten irratiaren geroa orain zenbait urte; era horretan, erreportari berriemaileak izan beharko luke informazio-iturri nagusia, irrati libreen mugimenduan ikusi zen bezala. Informazio-iturri fidagarria bilakatzeko, berriemaileak izan beharko lituzkeen ezaugarriak honako hauek dira C. Romo-ren ustez:

1. Behatzeko eta ikertzeko gaitasuna izatea

2. Pazientzia eta diligentzia, albisteak ez baitaude itxaroten; hots, guk geuk abiatu behar dugu albiste bila.

3. Etikoki lan egitea, hau da, zentzua eduki informazio baten balioaz jabetzeko, eta informazio hori emateko edo baztertzeko deliberamenduaz gogoeta egiteko gauza izan.

4. Oroimen ona izatea.

5. Entzuleei errespetua edukitzea, baita informatzaileei ere.

6. Gertakariak jazo bezala emateko zehaztasuna eta objektibitatea edukitzea.

7. Arintasuna izatea, hots, hainbat arinen informatzea.

Beraz, iturrien fidagarritasuna lortzea ezinbestekoa dela aldarrikatu behar dugu. Baina fidagarritasun hori lortzeko aurrerapauso modura, bada irratilari informatzaileak aurre egin beharreko beste erabaki garrantzitsu bat: albiste-hautakuntza. Hau egiteko, irratilariak ahalik eta gehien jakin behar luke bere entzuleez eta irratiaren izaeraz. John Hasling-ek (1980) aipatu duen bezala, programazio-departamentuak lerro informatibo nagusi egokiak zein izan daitezkeen esan behar dio iturriari, berriemaileari kasu honetan, irratiemandegiaren entzuleria zelakoa den kontuan harturik. Izan ere, berriemaileak hainbat informazio jaso dezake, informazio-unitateak hautatu aurrez edo hautatze prozesuan. Albiste-agentziak ez dauka hain harreman zuzenik bezeroarekin, nola berriemaileak bere nagusia den irratiarekin, eta horrexek ere ematen dio abantaila iturri honi, irratilari informatzaileari, alegia. Ezbairik gabe, honek hobeto egiten du hautakuntza. Eta hautatze hori, oro har, nolakoa izan daitekeen ikusteko, John Hasling-ek (1980, 142) jarritako adibidea aipatuko dugu:

> "If the station is playing "middle of the road" (MOR) music and is appealing to a mature, educated audience between 35 and 50 years of age and enjoying some economic affluence, you will probably offer stock market reports and financial news. If you are playing *contemporary rock* music for a younger audience, your news features would probably include sports and entertainment. The progressive rock stations would offer features such as drug reports and news about the latest occult fad…"

Berriemailea iturri bihurtzen dela esan berri dugu; eta hori informazioa sortzen eta egiten duenean gertatzen da hain zuzen ere. Baina apika ez da argi geratu nolako iturria den *newsmaking*-aren prozesuan, berriemaileak beste iturri primario batzuk erabil baititzake. Irratilari berriemaileak egunero baino, orduero eta minutuero bilatu behar ditu albiste bihur daitezkeen gertakariak. Horretarako, zerrenda bat egin behar du eta agendan apuntatu, berarentzat informazio-iturri primarioak izan daitezkeen jende eta erakundeen helbideak eskuragarri edukitzeko. Telefonoak, posta-elektronikoaren zenbakia eta helbidea zein diren jakitea mesedegarri izanen zaigu, eta denboraren poderioz altxor txikia bihurtu ere bai. Iturri primario batzuk honako erakunde hauetako langileak izan daitezke: Ertzaintza, auzitegiak, suhiltzaileak, ospitaleak…

Bada idatzi berri dugunaren beste aldaki baliotsu bat, Estatu Batuetako irrati ertain eta txikietan egin ohi dena. Ingelesez *contact map* deitzen diote (euskaraz, *harremanetarako mapa*), irratilari berriemaileak harremanetarako telefonoak-eta apuntatuta dauzkan mapari. Mapan zenbait puntu interesgarri markatzen dira, maiztasun handiagoz albiste bilakatzeko toki geografikoei dagozkien telefonoak jarriz, etorkizunean baliatzeko. Esaterako, auto-istripuak gertatzeko arriskua dagoen bihurgune edo eskualdea markatuko genuke *harremanetarako mapan*, eta bertan, eskualde horretan edo hortik hurbil bizi den pertsona baten telefono-zenbakia eta izena. Beste adibide bat, alderdi politikoen egoitzarena izan daiteke; gure mapan markatutakoan, erraz lor genezake lekuko baten informazioa zuzenean, atentatu bat balego adibidez.

Martínez de Sousa-k (1992) berriemaileengan ikusten du informazio-iturri independenteena, teorian behintzat; horrela dela uste du, nahiz eta jarraian irratilaria zenbait kontrolen menpe dagoela aitortu (kontrol juridikoa eta produzkio-harremanena). Ni, ordea, ez nintzateke hori esaten ausartuko, kontrol horien eragina hagitz handia baita; baina mesfidantza gutxien sortu ohi duen iturria dela esango nuke. Ikerketek askotan erakutsi duten bezala, irratia beste hedabideen aurretik doa sinesgarritasun-mailan eta irratilari berriemaileen irudia eta horiez dagoen aburua aski onak dira gizartean.

Bukatzeko, frankotiratzaile edo *freelancer*-ak ere aipatu behar ditugu. Mundu lehiakor batean bizi garenez gero, irratigintzan eta beste komunikabideetan ere islatzen da libretik doan kazetariaren figura, azken urteotan beren kasa lan egiten duten eta independenteak diren kazetariak gero eta gehiago izanik. Batzuek nahiago izaten dute beren kabuz irrati-erreportaiak, albisteak eta abar egitea, irrati jakin edo konkretu baten menpean egotea

baino. Hala ere, Euskal Herrian, oraindik albiste-iturri honek oso pisu txikia du erlatiboki, kopuruz. Egiten den lanaren arabera kobratzen da, eta, askoren aburuz, horrek abantailak ditu, irratietako idazgeletako berriemaile ez-berritzaile eta funtzionarioarekin betiko amaitzeko. Euskadi Irratian, esaterako, atzerriko korrespontsalak izaten dira era honetan lan egiten dutenak.

4.3.3. Entzunaldiak

Albiste-iturri hau, tamalez, nahiko bazterturik dago hainbat irratitan. Beste irratiek ematen dituzten albisteak jasotzea, konpetentziak zer dioen jakitea, irratilari profesional guztien gogoan izan beharko litzatekeen arren, erredaktore askok ukatu egiten dute hedabide lehiakideak informazio-iturri izan daitezkeenik. Hala ere, argi dago irratilaria ezin dela uneoro gertakari guztien gainean informaturik egon, beti egongo baita zerbait itzuriko zaiona. Horrexegatik da baliagarria, nolabait esateko, beste hedabideen ahotsaz jabetzea. Hau esateak, alta, ez du kentzen, John eta Denise Bittner-ek (1977) egiten duten bezala, zerbitzu honek eduki dezakeen arriskuaz ohartaraz dezagun: "In no way whatsover should this be used as a substitute for good investigative journalism".

Zerbitzu hau osatzeko pertsona-talde bat behar da (pertsona bakar bat gutxiegi litzateke), beren zeregina munduko edo nazioko irrati-emandegiek ematen dituzten albisteak entzun, hautatu, baloratu eta irrati-eran idaztea delarik. Prentsa idatzia ere albiste-iturri da; beraz, pentsatzekoa da irratian, lehen aipaturiko berehalakotasuna dela-eta, oso albiste-iturri garrantzitsua izan ahal dela. Angel Faus (1981, 249) irakasle espainiarrak argiro agertzen digu zerbitzu honen abantailarik handiena zein izan daitekeen:

> Entzunaldien zerbitzuaren eraginkortasuna benetan handia da ondo planifikaturik dagoenean. Izan ere, oso irrati-emandegi ezagunek albiste-agentziek baino arinago eman ahal izan zituzten Pearl Harbour-ko bonbardaketa edo Nasser presidente egiptoarraren heriotza gertatu izanaren albiste garrantzitsuak.

Konpetentzian dauden edo lehiakide diren irratiak entzuteaz gain, telebistako kanal ezberdinetatik zeren berri ematen den jakitea ere garrantzitsua izan daiteke irratilarientzat. Sarri askotan *ikusleen kutxa* deritzonaz baliatu behar dugu ezinbestez, albiste batzuk eman ahal izateko edo horien segimendua egiteko. Honexegatik ona da, zalantza gaberik, behar hauek burutu ahal izateko telebista-aparatu bat gutxienez edukitzea. Gaur egun, antena parabolikoen bidez, telebista-aparatuak piztuz, gaurkotasunezko hainbat notizia jaso dezakegu. *Astra* eta *Eurostat* sateliteen bidezko irrati-hedapenari esker, gure telebista-aparatuek ehundik gora kanal jaso ditzakete, horietako asko dohainik jaso ere. Asko emendatu dira aukerak Mendebaldeko herrietan, eta ez bakarrik entretenimenduaren alorrean, informazioan espezializaturik dauden estazioak ere baitira. Sky News edo CNN bezalako tele-

emandegiek oso sare hedatua dute munduko hainbat estatutan zehar albisteak gertatzen diren une bertsuan eman ahal izateko. Tele-informazioaren alorrean CNN da egun *leader*ra (munduko berrehun estatu baino gehiagotatik sintoniza daiteke). Hau esanda, ez da bat ere harrigarria, tele-emandegi hauek sintonizatzen dituzten irratilariak gero eta gehiago izatea.

Entzunaldi hauei esker audio-dokumentuak ere lor daitezke, norberaren irratitik eman ahal izateko; hori bai, baimena eskatu beharra dago, deklarazio horiek edo dena delako hori zuk baino lehenago emititu duenaren izena esan behar delarik.

Entzunaldiak egiteko irratilari-talde bat izatea garestia izan arren, emaitzak on-onak izan daitezke. Gainera, zerbitzu honetaz baliatzeak irrati baten profesionaltasuna adierazten digu; nork ez ote die benetako profesional deitu, beste irratiek edo telebistek oraintxe bertan zer dioten jakin nahi duten irratilariei. Hori gorabehera, entzunaldiak maizegi egiten badira, paranoiak sor daitezke irratilariengan. Hedabide honetako berriemaileek argi eduki behar dute, askotan ezin direla lehenak izan informazioak ematen, eta ez dutela zertan eman hedabide lehiakideek ematen duten guztia.

Bukatzeko, aipa dezagun entzunaldiek garrantzi berezia har dezaketela aski isolaturik dauden herri eta nazioetan.

4.3.4. Aldizkari, argitalpen ofizial eta kazetak

Orain arte ikusitako berri-iturriez irrati txiki asko oso urri horniturik badaude ere, kazeta eta aldizkarien kanalaz nahiko horniturik agertzen zaizkigu irrati guztiak, handiak zein txikiak. Honen arrazoia, irratilari gehienak kazeta-irakurzale izatetik etor liteke, edota argitalpenena albisteak lortzeko bide merke eta ona dela uste izatetik; baina sarritan gertatzen dena hauxe da: gehiegi erabiltzen da kanal hau, irratirako nahiko zaharkiturik aurki daitekeen medioa dela konturatu gabe.

Irratilariak eguneroko kazetak eta aldizkaririk garrantzitsuenak irakurtzeko ohitura izan ohi du. Beraietatik orainaldiko albisteak gutxitan jaso arren, gaurkotasun txikiagoko gaiak jaso daitezke, zenbait informazio-zerbitzutan sartu ahal direnak, beraietan sakonduz. Gogora dezagun irratiak kazeten informazio-iturrietatik edan duela sortu zenetik. Irratiaren hastapenean informazioa kazetetatik hartzen zen gero mikrofonoetatik uhinetaratzeko. "Artazi-irratia" izena eman zioten XX. mendearen hasierako irrati-mota hari. Garai hartan irratiak kazeten informazio-esparrua bete nahi izan zuen, harik eta prentsa idatziak eta albiste-agentziek boikota egin zioten arte. Orduz geroztik, teorikoki irrati-informazioa eta prentsarena desberdinak direla argi geratu arren, irratilariek maizegi jotzen dute kazetetara informazio bila. Alta, honek ez du esan nahi prentsako albisteak irakur ezin daitezkeenik, kopiatzea eta mimetismo hutsa alde batera utzi behar direla baizik.

Diru nahikoa edukiz gero, gobernuak edo gobernuko departamentuek ateratzen dituzten argitalpen guztiak jaso behar lituzkete irratiek. Hauetariko asko dohainik jaso ahal dira. Aldizkari ofizial hauetan datu zehatzak eta interesgarriak aurki daitezke, baita albisteen osagarriak ere, irratilarien ikutuaz irratitik emateko eran egon daitezkeenak. Haatik, kontuz ibili beharra dago, agiri hauetan zama ideologiko handia egon ohi baita.

4.3.5. Artxiboak

Irratiemandegi handiak artxibo onak edukitzen ahalegintzen dira, irratien esparru lehiakor honetan kalitatea eta informazio edo dokumentazio-zerbitzua aski uztarturik baitaude. Audio eta letra-artxibo onen jabe izateak datu askoren jabe egiten gaitu berehala. Artxiboan kontsulta egin eta horrela ez dugu zertan itxaron, zertan orduak eman informazioen *background*ak bilatzen; dena erraz-erraz aurkitu ahal dugu, dokumentazio-zerbitzua ondo antolaturik egonez gero.

Artxiboen garrantzia bikoitza da. Alde batetik, irrati-lanen osagarri izan daitezke. Eta bestetik, batzuetan, informazio-iturri bilakatzen dira. Batez ere, bigarren arrazoi honexegatik eratu behar dira artxiboak irratietan, iraganeko gertakariak *orainaldiko albiste* bihur daitezkeelako, alegia.

Irratilariak ohi baino gehiagotan baliatu behar luke zerbitzu hau. Berriemaileak karpeta tematikoetan, hemerotekan edo audio-artxiboan maiz kontsultatzen badu, gaurkotasunezko gertakari izan daitezkeen ospakizun eta data adierazkorren bila jar daiteke, baita gertaeren aurrikuspenen egiaztatze bidean eta gertakari garrantzitsuen hari narratiboen arrastoen atzetik abiarazi ere; hala nola, gertakarien ondorioak orainaldian zein diren, iraganeko proiektuak zertan diren etab.

Baina iturri hauen barruan bada aipatzea merezi duen beste atal bat, geroko albisteen aurrikuspenen alorrean ereiteko balioko diguna: *etorkizunerako artxiboa*. Artxibo-atal honetan, Muñoz-ek eta Gil-ek dioskuten bezala (1986), karpeta edo fitxategia antolatu behar da aurrikuspenak biltzeko, geroan albiste bilaka daitezkeen aurreikuspen horiek kronologikoki atonduz. Carl N. Warren-ek ere (1979[2]), kazetarien jardunerako erraminta baliotsua dela esateaz gain, definizio zehatza ematen du artxibo-mota honen gainean: ebaki, aurreikuspen, memorandum eta oroigarriak, kronologikoki, urteka, hilabeteka eta egunkako karpetetan bilduak. Agenda edo artxibo hauek parada ematen diote erredaktoretza-buruari erredaktore bakoitzari eguneko informazioak banatzeko. Zerbitzu hau hobetuz, ez da ideia txarra, esaterako, urtekari eta almanakeetatik plastikatutako fitxa iraunkorrak egitea, hondatu gabe baliatuak izateko.

4.3.6. Beste informazio-iturri garrantzitsu batzuk

Bostgarren atal honetan hiru iturri gehiago aipatu behar ditugu: komunikazio-kabineteak, entzuleak eta teletestua/Internet.

Zentro ofizialek beren prentsa-kabineteak eta kazetari edo berriemaile propioak izaten dituzte. Irratilariek kontu handiz jaso behar dituzte albiste hauek, ondo filtratuz edo iragaziz, zeren komunikatuak zama ideologikoz beterik atera ohi baitira. Dena den, erakunde publiko eta ofizialak diren aldetik, jakitun daude irratilariak, albiste asko etor daitezkeela beraietatik.

Ramirez-ek dioen bezala (1995), batzuentzat propaganda-aparatu hutsak direnak, beste batzuentzat informazio-iturri ezinbestekoak dira, nahiz eta guztiak bat datozen bulego hauek hedabideetako kazetarien lana baldintzatzeko ahalmena ezagutzeko orduan. Autore honek komunikazio-kabineteei buruzko datu adierazgarri batzuk eman dizkigu, baita ondorio interesgarri batzuen berri eman ere. Hona hemen:

* 1991. urtean 4.000 kazetarik lan egiten zuten prentsa-kabineteetan Estatu espainiar osoan eta urte bat geroago gobernu zentralak ia 2.000 milioi pezeta inbertitu zituen Bozeramalearen Ministerioan, hirurehun bat tekniko eta kazetariri lana emanez.

* 1992. urtean informazio politikoen %52 heltzen zen prentsa-kabineteen bitartez. 1978an, aldiz, portzentaia hau %30ekoa baino ez zen (datu hauek prentsa izkiriatuari soilik dagozkio).

* Kabineteen ekoizpena ederki datorkie enpresa informatiboei. Diru-aurreztea ia %25era hel daiteke zenbait hedabidetan.

* Prentsa-kabineteen ekoizpenak eragin handia du hedabideen ezuste-faktorean, aurreikuste-indizea emendatuz.

* Hedabideekin gertatzen den bezala, informazioa ere, konzentratuago ageri zaigu prentsa-kabineteen eraginez.

Izan ere, erakunde publiko eta pribatuetatik datozkigun informazioak gero eta gehiago izateaz gain, eta beraien eragina oso aztertuta ez dagoen arren, daukaten eragina bistakoa da. Engoitik, irakasle eta ikertzaile batzuek, iturri hau kazetarien lana kontrolatzeko neurri biguntzat jotzen dute. Eta neurri biguna diogu, zeren hemen ez baita inolako agindu edo betebehar derrigorrezkorik. Kontua hauxe da: erakundeek informazioak igortzen dituzte eta kazetariek, nolabaiteko informazio-eskuragarritasun errazak harrapatuta, beren lanari uko egiten diote, edo uko ez bada, alboratuta uzten dute, konturatu gabe; eta ez dezagun ahantz

kazetariek berriak bilatu, aurkitu, hautatu eta burutu egin behar dituztela. Carlos Soria-k (1991) honela oharrarazten gaitu iturri honek izan dezakeen arriskuaz:

> Egia izanen ote da informazio ofizialaren jasotze errazegia informaziobideak kontrolatzeko beste neurri bigun bat baino ez dela?
> Bai horixe.
> Iturri ofizialeko sistema erabilgarria izan daiteke edo beharkizuna izateraino hel daiteke. Baina, zalantzarik gabe, sistemak informazio asko galarazten ditu, gertatzen ari diren beste gauza batzuen kaltetan…
> Harreman publiko ofizialen ugaritasunak, eta kasurik hoberenean, informazio ofizialaren ugaritasunak oso errazten ditu gauzak, nahiz eta epe ertainera informazio-lana errazegi eta sinpleegi bilakatzen duen: esan liteke, karikatura moduan-edo, berriemaileak elkarren segidako prentsaurrekoetara joatea eta beraietan bere denbora gehiena ematea baino ez duela…"

Autore batzuek, José J. Muñoz-ek eta César Gil-ek adibidez, prentsaurrekoak ere kontsideratzen dituzte iturritzat, nahiz eta hau eztabaidagarria izan daitekeen, zeren eta prentsaurrekoetarako deiak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak ere jo baitaitezke horrela. Nolanahi dela, era orokor batean, iturriak diren aldetik, irratilariak honi buruzko argitasun eta jakingarri batzuen berri eduki behar du. Lehenengo eta behin, esan dezagun azken urteetan gero eta prentsaurreko edo informazio-zita gehiago eduki dituztela irratilariek, beste hedabideetako lankideek bezala. Muñoz-ek eta Gil-ek (1986) aipatzen duten bezala, askotan horrelako deialdiak zaparradaka heltzen dira erredakzioetara (*llueven sobre las redacciones* diote); hots, irratilariari kosta egiten zaio batzuetan prentsaurreko baten hautua egitea. Prentsaurreko batzuk kazetariak iturrien atzaparretan eror daitezen antolatuak dira, aditu askok salatu duten moduan. Irratilariak jakitun egon behar du, lantzean behin erakargailu propagandistiko hutsa bilakaturiko prentsaurrekoetara joanen dela. Eta horrelako kasuetan, etikoki jokatzea izan daiteke aholku bakarra; gainera, kasura helduta, irratilariak beti dauka aukera, iturri engainagarri horretatik lortutako informazioa ez emateko.

Prentsaurrekoetarako aholku praktikoetara joz, diogun ezen audioak problema franko sortzen dituela, iturri honetatik zuzeneko deklarazioak hartzen ditugunean. Mikrofonoak ondo kokatu behar dira, prentsaurrekoaren berri nola eman nahi dugun kontuan harturik, desberdina baita zuzenean dena erretransmititzea ala informazioa laburbiltzearren estudioan pasarte batzuk hartuz muntaia egitea.

Bada beste iturri bat, entzuleek osatzen dutena alegia. Albiste eta komunikatuak beren ahotsez igorritako entzuleez ari gara, militantismoz egiten dutenak edo beren ustez zerbait garrantzitsua denaren berri emateari ondo irizten dioten pertsonak. Irratilariek, albiste hauek jaso ostean, ongi konprobatu behar dute egiazkoak eta garrantzizkoak direnentz, toxikazio informatiboa hortixek etor bailiteke.

Teletestua ere aukera ona eta merkea izaten da informazioa jasotzeko, informazio gaurkotua eta askotan baliagarria izan daitekeena. Gaur egun, telebista-aparatu berriak teletestudunak dira eta informazio-kantitate handirik igorri ez arren, autore batzuk albiste-agentzia haundien lehiakide izan daitezkeela kontsideratzen dute.

Apika, teletestua ez genuke hedabidetzat jo behar, telebistaren zerbitzutzat baizik. Dena dela, telebistatiko entzunaldien barruan sartu ez dudanez (ezin sartu gainera, teletestua irakurria baita), ondo deritzot kazetarientzako iturri sekundario honi buruzko zenbait aipamen egiteari. Eta iturri sekundarioa dela diot, zeren eta zerbitzu honetan lan egiten duten kazetariek ondoko iturri hauetatik jasotzen baitute informazioa terminalen bidez: France Press, Reuter, Efe, Europa Press, Serveimedia (gorrentzat), AP (telex bidez) eta faxaren bidez beste erakundetatik jasotzen dena.

Hego Euskal Herrian hartzen diren telebista nazional eta estatal guztiek jarri zuten teletestu-zerbitzua III. milurtekoaren atarian. Lehenbizikoa Espainiako telebista publikoak finkatu zuen. Zerbitzu hura 1987ko maiatzean hasi zen emititzen. Teletestuaren norma edo arau legala 1986ko abenduaren 6an argitaratu zen. Antonio Tortosa ingeniariak izkiriatu zuen arau espainiarra, 128 zeinu ortografiko dituena (Estatu espainiarreko hizkuntzen zeinu guztiak jasotzen dituena). Gorrentzat sortutako teletestua denboraren poderioz familientzako zerbitzu bilakatu zen. 1994. urtean Espainiako familien %33 teletestudun telebista-aparatuaren jabe ziren (4 milioi inguru).

Teletestua merkea da, beraz, eta hain zuzen ere horrek eragin du zenbait irrati estaziotan zerbitzu hau baliatzen hastea agentziak bazter utzita. Azken buruan, kostu-problema baino ez da, eta teletestuak kopuru txikiagoz igorrita ere, oso informazio orduko eta momentukoa ematen du, Internetek ematen dituen beste zerbitzu askorekin gertatzen den antzera.

Irratilariek baliabide onak dituzte Mundu Zabaleko Sarean (WWW) notiziei buruzko datu berriak eta lekukotasunak lortzeko. Ekai informatiboak ikertzen eta iturriak bilatzen, bilatzaile eta meta-bilatzaileekin hasi ohi da irratiko berriemailea. Onenen artean bi aipatuko ditugu, eskarmentuak eta estatistikak aholkaturik: www.nlsearch.com eta www.metacrawler.com (Northern Light eta Metacrawler).

4.4. ITURRIEN ERABILERA ETA IRRATILARIEN PROFESIONALTASUNA

Irratietan, kazetetan bezalatsu, primiziak lortzeko grina dago. Informazioz aserik ez dauden kazetariak irratiko idazlaritzetan ere topatzen ditugu. Gaur egun afera guztiei buruz iruzkintzen denez gero, badirudi iturrien kontuak gero eta garrantzitsuago izan behar duela. Eta *badirudi* diogu, zeren informazio-iturririk eta inolako datutegitan kontsulta egin gabe ere egiten baita irratigintza (informatiboa eta iruzkintzekoa). Irrati-mahainguruetako partaideek, edozein gaitan adituak bailiran, aburuak eta aieruak plazaratzen dituzte, sarritan gaiaren *background*az ahantzirik eta argudiatzeko egitura kaskarrak erabiliz. Informazioan *background*a aintzakotzat hartu behar da beti, nahiz eta batzuetan mikrofonotik islatu ez eta buruan gorde. Eta iturri guztiak ez dira berdinak, gertakarien inguruko datuak emateko orduan. Batzuek ia sistematikoki ahanzten dute albisteen parte garrantzitsu hau. Horrexegatik, irratilariak datutegi garrantzitsuak ukan behar ditu eskueran, beharrezkoa denean, hau da, denborak eta albistegiaren egiturak traba egiten ez digutenean, informazioen barne-muinak uhinetara ateratzeko. Datutegi batzuk aipatzearren, entziklopedietan, almanakeetan eta Internet sarean, datu interesgarriak aurki daitezke, gure albisteen hari narratiboak hobeto ulertuak izan daitezen. Kontua ez da albiste guztiak larregizko datuz betetzea, albisteak ematean profesionaltasun eta sinesgarritasun handiagoa lortzea baizik.

Irratilariak iturriak aintzat hartu behar ditu; hala hartu ere, batzuetan iturriek irratilaria hartzen duten era berean. Eta azken honetan ikerketa gutxi egin bada ere, argi dago etikaren atalase-maila gainditzen duten ekintzak burutzen dituztela lantzean behin iturri boteretsuek. Horrela, zenbait irratilari ospetsuk bat egiten dute iturriekin aspektu orotan, iturriekiko ezkontzak bikain funtzionatzen duelarik.

Kazetaritza-eskoletan esaten zen esamolde bat parafraseatuz, *irratilariak zenbat balio, nola beraren agendak zenbat pisu*; hau da, irratilari berriemaile edo iruzkingilearen balioa iturriekiko erlazioan dago. Eta honi hertsiki lotzeak bide arriskutsu batera eraman gaitzake, zeren iturrien nolabaiteko menpekotasuna agerian gera baitaiteke. Esaterako, irratilari profesionala ezin da inoiz iturri bakar baten menpekotasunean geratu, iturri desberdinetatik etor daitekeen informazioa kontrastatu egin beharra baitago.

Iturri batzuek tratu berezia ematen diete gizartean eraginik gehien daukaten irratilariei. Horrela, Diezhandino-k (1994) aipatu duen bezala, entzuleentzat ezagunenak diren kazetari-irratilariak dira gobernu, erakunde ofizial eta enpresa handien informazio-iturriei sarrera errazen bideratzen dietenak. Iturriek irratilariak tentatzen dituzte eta askotan kazetariak konturatzeke lerratzen dira interes partikularren alde. Carlos Soria-k honako pasarte argigarri hau dakarkigu (1991, 26) zutabegile estatubatuarrek iturriekin batzuetan dituzten harremanei buruz:

> Zutabegile ospetsuenek —iruzkintzen du Peters-ek Estatu Batuak aipatuz— beren iturrien manipulazio-saialdiak pairatzen dituzte. Batzuetan, astean zenbait zutabe argitaratu behar

> dituztenez, hamaika elkarrizketatan oinarrituak izan behar diren iruzkinak idazteko denborarik ez dute. Horregatik dute erraz, ustez guztia dakien goi-agintari baten bidez informatzea. Baina primizia-mota horrek zutabegilearen harrokeria harrotzen du; horrela, kategoria baxuagoko berriemaileei muzin egiten diete, nahiz eta horiek zinez interesgarriak diren datuak ematen dituzten pertsonak izan.

Izan ere, informazioaren profesionalak heziketa ona eduki izan du, iturri desberdinetatik lortzen dituen datuak kontrastatzeko ezezik, iturri nagusi edo boteretsu batzuen menpe ez geratzeko. Argiro bereizi behar ditu zurrumurruak, egiazko datuak, informazio ofiziosoak eta abar. Heziketa on horrek lagundu behar dio irratilariari lortutako datuak testuinguru batean jartzen, eta era batean edo bestean interpretatzen. Gainera honi ere ematen dio garrantzia kazetariak. Diezhandino-k eta bestek (1994) egindako ikertsaioan ageri denez, irratilari askok uste dute iturrien kalitateak ez daukala lehen ematen zitzaion adina garrantzirik. Dena dela, Euskal Herriko irratietan argi ikusten da, oraindik *faxean* oinarritutako sistema informatiboari eusten diogula. Kosta egiten zaigu erakunde ofizialekin informazio-segimendu etengabea egitea, horrela geure artxiboak hobetzeko eta informatzeko unea heltzen denean zehatzagoak izateko eta jakitunago egoteko.

Bestalde, batzuetan irratilariak ezin aipa dezake iturria, hau da, ezin du esan mikrofonotik informazioa nondik lortu duen, sekretu profesionala dela aipatuz. Kasu hauetan irratilariak "iturri onetik", edo "iturri ofizialetik jakin dugunez…" edo antzeko beste aipu bat egin ohi du, iturria zein izan den ostenduz.

Iturri anonimoen erabilerak zer pentsa eman die kazetari profesional askori. Erabilera hori salatua ere izan da inoiz. Ohio-ko unibertsitateko kazetaritza-irakaslea den Hugh Culbertson-ek egindako ikerketa batek agerian utzi zituen, orain hogei urte Estatu Batuetan jada puri-purian zegoen arazo honen gaineko kezkak. Culbertson-ek kontsultaturiko informazio-profesionalek kolokan jarri zuten iturri hauen sinesgarritasuna (Shepard, 1994): "*most said competition forced them to use unnamed sources, even though 81 per cent considered them inherently less believable*". Nola edo hala kazetari alferren makulutzat (*a crutch for lazy reporters*) jotzen zuten askok praktika hori.

Estilo-liburuek hedabidearen profesionaltasun-maila erakusten badute ere, beraietan ez da zabal eta sakon agertzen informazio-iturrien kontua. Estilo-liburu batzuetan agertu ere ez da egiten gai hau. Dena dela, argi dago irratilari xeheek zein *gatekeep* deritzenek ere gogoeta egin behar dutela egunero eta uneoro jasotzen duten ekai informatiboaren sorburu eta iturriei buruz.

4.5. LABURPEN GISAKO AZKEN HITZAK

Bukatu aurretik, eta berriz ere informazio-iturrien afera hagitz garrantzitsua dela aipatuz, iturrien hautua egiteak orduz geroztiko lan guztia baldintzatuko baitu, ekar ditzagun hona irratiko estilo-liburu batean ematen diguten aholkua, kazetarigai eta kazetari profesional guztiek aintzakotzat har dezaten (De Maeseneer, 1989, 27):

> The great crime in news is inaccuracy. We should be very careful and sure about our news. Be suspicious! Even a government minister or an executive can be wrong sometimes. **If in doubt, double check**. If you can´t find it, leave it out altogether. Do not accept any information as infallible."

Orain zenbait urte Euskal Herriko zenbait irratitan ikerlana egin zen irratibideko iturriak zein ziren ikertzeko (Palazio, 1997); egindako ikerlanetik ezin esan irratilariak informazio-iturri desberdinetara jotzen duenik. Tamalez, informazioa txekeatzeko ohiturarik ia-ia ez dago irratietan. Baieztapen honek parada ematen digu lehen ondorioa ateratzeko. Zenbat eta lokalagoa izan, hainbat eta joera handiagoa dago informazioa informazio-iturri bakarretik jasotzeko. Euskal Herriko irrati nazionalean, ostera, berriemaileak denboraren atzaparretatik itzuri ezinik dabiltzanean izan ezik, albistegietako notizia nagusien informazio-datuetan sakontzeko eta iturri desberdinek igortzen dutenaz jabetzeko ahaleginak ikusten dira sarri. Haatik, informazio-iturri ofizialetatik edateko ohitura aski erroturik dago. Azken finean, irratietako idazgelak, egunkarietakoak bezala, lehengai informatibo fidagarri, iragarkor eta programakorra lortzeko beharrean daude, irratiek ere horrelako produktuak plazaratzen dituztelako, ekoizkin informatibo estandarrak direnak. Mark Fishman-ek (1980) aipatzen duen *kidetasun burokratikoko printzipioaren* egiaztatzea baino ez da. Iturri instituzionalek eta agentziek hedabideen antolakera burokratiko antzekoa dute eta beraien arteko, hots, iturri instituzional/agentzien eta hedabideen arteko dependentzia izugarria dago. Esaterako, irratilari orok dakien bezala, asteburuetan informazio-jarioa hagitz baxua da, erakundeak hertsita daudelako. Horrexegatik, beharbada, irratiek behar bezala ez zaintzea asteburuetako informazio-programazioa.

Bigarren ondorio bat atereaz, Euskal Herriko irratietan ikerkuntza-kazetaritza eskasa egiten dela esan dezakegu. Irratilaria estu eta larri ibiltzen da denboraren mugak direla-eta, eta gogoa eta atsedena falta zaizkio informazio-iturriekin harreman iraunkorra sortzeko; zer esanik ez, hori ikerkuntza-kazetaritzaren garapen urrian islatzen da. Gainera, ez dirudi geroan kazetaritza-mota honek arrakasta handirik edukitzeko aukerarik duenik. Irratiak hedabide pobrea izaten dirau, hedabide pobrea telebista eta prentsa izkiriatuarekin erkatuz gero; eta honek eragiten du ikerkuntza bazterturik egotea. Salbuespen modura, irrati estatal pribatuek noiz-behinka egiten dituzten saioak aipa ditzakegu, nahiz eta sarritan irratilariak kasu horietan interes politikoen lagun agertzen diren, benetako ikerkuntza landu ordean.

Hirugarren ondorio modura, entzunaldi eta prentsaren arteko lehian, biak informazio--iturritzat jota, goizetan prentsa izkiriatuaren nagusitasuna nabaria dela aipatu behar da. Entzunaldiei dagokienez, aurkitu dut kazetaririk, entzunaldiak bazter uzten dituenik, salbu eta kasu berezietan.

Iturrien estudioan manipulazioarena beti nahitaez agertzen den gaia da. Horrexegatik, okerkuntzak eta manipulazioa saihestu nahi ditugulako, iturri sinesgarrietara jotzea komeni da. Eta kontuan izan ezen irratilaria albiste-sorburutik zenbat eta hurbilago egon, hainbat eta gertuago egonen dela informazio-ematearen eredu onetik. Beraz, datuak iturri primarioetatik edo beste autore batzuek albiste-fokua edo *foco de la noticia* deitutakotik ateratzen baditugu, bitartekaririk gabe atera ere, berriemailea aserik eta pozik geratzen da egindako lanaz. Hala ere, informazio-iturrien menpe larregi egon ez arren eta geure lanarekin konforme gertatu arren, dena alferrikoa izan daiteke, irratilariak bere lana etikoki eta profesionalki bete ezean.

Ez dezagun ahantz iturri batzuek mekanismo gaizto eta bigunak dauzkatela, zer eman eta nola eman behar den kontrolatzeko. Eta kontrola iturrietan sortu ohi da. Hori saihesteko, ez legoke gaizki, Ramírez-ek (1995) proposatzen duen bezala, hain boteretsuak ez diren iturriei aukera gehiago ematea edo gehiagotan aintzakotzat hartzea, baita hedabideei kontseilua ematea ere, zeinek norberaren agenda tematikoa eduki dezan.

4.6. IRAKURGAIA

Ondoren irakurriko duzun testua Paul de Maeseneer-ek editaturiko liburu bikain batetik hartua da, irratilarientzat espreski egindako *Here´s the News - A Radio News Manual* deritzonetik hain zuzen ere. Lerro hauetan iturrien aipamen edo atribuzio egokiak egiteko aholku baliagarriak daude (1989, 71-72). Ozeano Bareko eta Asiako irratilari ingelesdunentzat egindakoa da; ingelesez, beraz. Irakurri ostean, egizu gogoeta eta begira ea dena aplikagarria den irratilari euskaldunen hizkuntzaren kasuan.

> For everything you write, quote an authority wherever possible. Stories gain strenght and are more acceptable if the authority is quoted.
>
> But too much attribution in radio slows the action and makes copy dull.
>
> **Attribution must precede all statements that imply blame, express opinions, are of doubtful validity, come from a dubious source that may be disputed**. Attribution must be at the start of a sentence, so there can be no doubt that what follows is the viewpoint of someone else, not the broadcaster´s.

Newspaper stories can delay their attribution. The eye can see the quotation marks on paper. But we have to turn it around. We must put the source first, then the statement.

Example *The spokesman for the opposition says the economy is in a bad shape.*

Simple facts may be written directly. It does not require the authority for a statement to be included immediately. In other words don´t start all your stories with a credit. The factual news comes in the first sentence, without naming the person who said it. The name can come in the next sentence.

Example *A Thai cultural group will go to Malaysia to present four performances in different parts of the country.*

Student grants are to be doubled. The Education Minister announced this last night at a dinner…

In factual statements made by government officials we can often dispense with attribution of source altogether. We can take such statements as matters of fact. But beware of some statements which are basically political, but presented as facts. Never end a sentence with a clause "a government spokesman said". That´s print media style…

Avoid use of such phrases as: "It is believed", "It is understood", "It is estimated", "observers said"…. Try to find an authoritative person or organisation that can be quoted as the source of the statement.

Direct quotations: The listener can´t see the quotation marks; so you should use direct quotations only in exceptional cases.

It is not necessary to start and end a quotation with the verbal quotation marks "quote" and "unquote". You can use attributing phrases:

Example *He critizised the plan, calling it…, that would be, as he expressed it…, as he said…, in his words…, what he described as…, what is called…*

Avoid direct quotations that ramble on for three or four sentences. For the listener, it´s confusing. He doesn´t know where the words of the person being quoted stop and the broadcaster´s own words begin. Try instead to have and audio-insert, if it´s really a good statement.

4.7. ERREFERENTZIAK

Bittner, John R. eta Bittner, Denise A. *Radio Journalism*. New Jersey (EEBB): De Paw University, 1977.

Blumler, J. eta Gurevitch, M. "Journalists´ orientations to political institutions: The case of parliamentary broadcasting" in P. Golding, G. Murdock eta P. Schelisnger (ed.) *Communicationg politics: Mass communications and the political process*. New York: Holmes & Meier, 1986.

Caminos, José M. "Las fuentes de información y la investigación periodística" in autore beraren *Manual de periodismo de investigación*. (1995, argitaratu gabe), 125-153 orr.

Casasús, Josep Mª. *Iniciación a la periodística*. Bartzelona: Teide, 1988.

Cebrián, Mariano. *Diccionario de radio y televisión*. Madril: Alhambra, 1981.

Cesareo, Giovanni. *Es noticia. Fuentes, procesos, tecnologías y temas en el aparato informativo*. Bartzelona: Mitre, 1986.

Dary, David. "Sources of News" in *Radio News Handbook*. Estatu Batuak: TAB books, 1970[2], 53-74 orr.

Diezhandino, M. Pilar, Bezunartea, Ofa eta Coca, César. *La élite de los periodistas*. Bilbao: EHU, 1994.

Faus Belau, Angel. *La radio: introducción a un medio desconocido*. Madril: Latina Universitaria, 1981, 248-250 orr.

Fishman, Mark. *Manufacturing the news*. EEBB: The University of Texas Press, 1980.

Fontcuberta, Mar. *La noticia. Pistas para percibir el mundo*. Bartzelona: Paidós, 1993, 57-65 orr.

Hasling, John. *Fundamentals of Radio Broadcasting*. New York: McGraw-Hill, 1980, 140-163 orr.

López, Manuel. *Cómo se fabrican las noticias. Fuentes, selección y planificación*. Bartzelona: Paidós Ibérica, 1995.

López Zuazo, Antonio. *Diccionario del periodismo*. Madril: Pirámide, 1985[4].

Martínez de Sousa, José. *Diccionario de información, comunicación y periodismo*. Madril: Paraninfo, 1992[2].

Maeseneer, Paul de (ed.) *Here´s the News. A Radio News Manual.* Belgika: Asia-Pacific Institute for Broadcasting Development (AIBD), 1989.

Moles Abraham et al. *La comunicación y los mass media.* Bilbao: Mensajero, 1975.

Muñoz, J. Javier eta Gil, César (1986). *La radio. Teoría y práctica.* Madril: IORTV. 86-97 orr.

Muñoz, José Javier. "Los abastecedores de la información" in J. J. MUÑOZ *Redacción periodística.* Salamanca: Librería Cervantes, 1994², 71-83 orr.

Palazio, Gorka Jakobe. "Basque Radio Networks. News sources in Basque Radio Stations" in *Zer*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1997, 2. zkia., 147-166.

Ramirez, Txema. *La influencia de los gabinetes de prensa. Las rutinas periodísticas al servicio del poder*. Madril: TELOS aldizkaria, 1995, 40 zbk., 47-56 orr.

Randall, David. "Fuentes" in *El periodista universal.* Madril: Siglo XXI, 1999, 77-99 orr.

Romo, Cristina. *Introducción al conocimiento y práctica de la radio*. Mexiko: Diana, 1987.

RTVE-Radio Nacional de España. *Manual de estilo para informadores de radio.* Madril: RTVE, 1980.

Shepard, Alice C. *Anonymous Sources*. American Journalism Review. EEBB: University of Maryland, 1994.

Soria, Carlos. *La hora de la ética informativa.* Bartzelona: Mitre, 1991.

Vázquez Montalbán, M. *Las noticias y la información*. Bartzelona: Salvat, 1975.

Villafañé J., Bustamante E. eta Prado E. *Fabricar noticias. Las rutinas productivas en radio y televisión*. Bartzelona: Mitre, 1987.

Warren, Carl N. *Géneros periodísticos informativos*. Bartzelona: ATE, 1979².

Wolf, Mauro. *La investigación de la comunicación de masas. Críticas y perspectivas*. Bartzelona: Paidós, 1987.

5. ALBISTEA ETA IRRATI-IDAZKUNTZA

5.1. IRRATIBIDEAREN ETA IRRATI-IDAZKUNTZAREN BEREZITASUNA

Kazetetako albisteak eta ikusentzunezkoetakoak desberdinak dira idazteko moldeari dagokionez. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Prentsa idatzian agertzen den albistea, agertu eta gero, edozein unetan irakur daiteke; gainera, ulertu ezean, berriz irakurtzeko aukera daukagu. Hau, jakina denez, irratigintzan ez da gertatzen, zeren komunikabide honetan albistearen jasotzea une jakinean gertatzen baita; entzulearen arreta nahiko erlatiboa izan ohi da, errepikatzeko ia aukera gabe (garrantzi handiko kasuetan izan ezik). Hiru ezugarri horiei entzuleriaren kultur maila eta berriegileena desberdinak izaten direla gehitzen badiegu, argiro ikus dezakegu irrati-idazkuntzak berezia izan behar duela.

Beraz, idazkuntza honen berezitasuna, irratibidearen izaera linealak eta atzeraezinezkotasunak sortzen dute, baita irratia sintonizatzen duen entzulearen egoerak eta arretak ere. Entzuleriaren heterogeneotasuna eta bere maila sozio-kultural desberdinak kontutan hartzekoak dira.

Irrati-idazkuntzak argia behar du izan (soinu aldetik informazio-jarioak izan behar duen bezala), kondizio berezitan jasotzen den mezuaren laburtasuna dela-eta. Irratitik mintzatzeko orduan, ezinbestekoa da klartasuna, baita klartasun teknikoa ere. Ez dugu ahantzi behar, irratian, komunikatzeko ia baliabide guztiak giza ahotsean daudela. Entzuleak ezin ditu okerkuntza mekanikoak irudiaren bitartez birkonpondu (ezpainen mugimenduaz edo gain-inpresioen bidez, alegia). Entzuleari heltzen zaion informazio guztia soinuaren bitartezkoa da, ahalik eta perfektuena izan behar duen soinuaren bidezkoa alegia.

Ikus ditzagun, laburki bada ere, irratibideak dituen propietate hauek zer adierazten duten:

> *Izaera lineala:* entzuleak ezin du hautatu, ezin du orria pasatu kazetetan egiten den bezala, ezin du ekonomiari buruzko informaziotik kirol informaziorako jauzirik egin. Albiste-jarioaldia lineala da.

Atzeraezinezkotasuna: informazioa ezin da berriz irakurri. Honexegatik izan behar du *argia* eta *erabatekoa,* eta *nahikotu* egin behar gaitu irakurri arau.

Hurbiltasun sentsitiboa: entzule jakin bati mintzatzen zaio, ez audientziari. Mezua pertsonala eta ez-publikoa izaten da gehienetan.

Heterogeneotasuna: idazkuntza hau entzuleria ez-espezializatuari zuzendua da. Entzuleriak maila sozio-kultural desberdinak ditu, ulerkuntza-mailak ere desberdinak direlarik.

Informazio ikuspuntutik irratibidea, telebistaren parean ipini ohi da, nahiz eta bien artean zenbait berezitasun topatzen diren. Gaur egun, telebista-kanal informatibo eta tematikoen aniztasuna dela-eta, berezitasun batzuk zalantzan jartzekoak dira. Hori gorabehera, irrati-telebista analogikoaren garaian ondoko diferentziak nabarmen daitezke (Madinaveitia, 1989, 67):

IRRATIA	TELEBISTA
• Jariotasun informatiboa	• Moteltasun eta atzeratasuna
• Berritasuna	• Baieztapena
• Hurbiltasuna eta partehartzea	• Urruntzea eta inkomunikazioa
• Lokalismoa	• Kosmopolitismoa
• Espezializazioa	• Orokortasuna
• Aniztasun ideologikoa	• Zuzentze ideologikoa
• Komunikazio erabatekoa	• Erritu-errepresentazioa
• Hizlari pertsonalizatuak	• Hizlari inpertsonalak

Ondoren, irrati-albistearen datu-egituraketara pasatuko gara. Prentsa idatzian albisteak *lead*a eta *corpus*a ditu, eta gainera interes-jarioa beheranzka doa. Irratian, ostera, notiziaren datu interesgarriak eta arreta pizten dutenak apurka-apurka agertu behar dira. Autore batzuen ustez (Prado, Haye), irratitiko albisteen egiturak ez du zerikusirik prentsa idatzikoaren alderantzizko piramidearekin. Emili Prado-ren (1985, 49) ikusmoldea hona ekarriz, normalean ondoko eskemari jarraitu ohi zaio irrati-albistea burutzeko orduan:

Sarrera:

– datu bi, –erakargarrienak.

A paragrafoa:

–datu berri bat edo bi, –aipatutako datu bat.

B paragrafoa:

–datu berri bat, –aipatutako datu bat, –beste datu berri bat.

C, D… paragrafoak:

–eskema berdina segitzen da, datuak agortu arte.

Amaiera:

–gertaera mugatzen laguntzen du(t)en datua(k).

–interesak iraun dezan lagungarri gisa jartzen dira datu horiek.

Eskema horren bidez erritmoa eta tentsioa albiste osoan zehar mantentzea da helburua. Azken finean, Victoriano Fernández Asís irakasleak (1986, 233) irratiko berriemaile hizlariari ematen dion langintza, horretantxe oinarritzen da: a) arreta piztea, b) arretak iraun dezan saiatzea, eta c) entzuleen oroimenean finka dadin ahalegintzea, bai mezuaren izaeragatik beragatik, zein apur bat errepikakorra den adieraz-teknika baliatuz.

Beste autore batzuek alderantzizko piramidearen eskema aplikatzen dute irrati-albisteetan eta honela ikusten dute garapena (de Maeseneer, 1989, 49):



Ikus daitekeenez, garapen hori idazkera literarioan izan ohi denaren kontrakoa da, azken honetan literatura klasikoan agertu ohi den piramidearen eskema erabiltzen baita, hots:



Irratian, zenbait datu garrantzitsu errepikatuz lortzen da entzulearen arreta piztea. Hori dela-eta, irrati-idazkuntzaren helburua, esan bezala eta Angel Faus Belaus (1981, 255) irakaslearen hitzak aipatuz, "albistea birrintzea" ("*machacar la noticia*" gaztelaniaz) da, hau da, entzuleen buruan datuak ongi finkatzea, hedabide honetan *denbora* faktoreak entzulea behin eta berriz estuasun edo aztoratasun psikologikoan jartzen baitu. Hori gerta ez dadin, irratilariek gogoan eduki behar dute Paul White-k esan ohi zuena: "Esan entzuleari esango diozuna, eta berriro esan, esan diozuna". Beraz, errepikakortasuna "iheskorra den eta denboran izkiriaturik dagoen mezuaren alde egiteagatik" (Haye, 1995, 92) da zilegi.

Hortaz, irrati-informazioa idazteko orduan, pentsa dezagun belarrirako idazten dugula, gure bezeroak entzumenaz jasoko duela informazioa. Tamalez, irratigintzan hasten diren kazetari gazteei asko kostatzen zaie beren lengoaia idatzia aldatzea, jaso duten hezkuntzan ikusmenerako idazten irakatsi baitiete. Bruce Garrison-ek (1990, 184) dioskun bezala, irrati-idazkerak ahozko elkarrizketaren antza dauka, transkripzioa-edo izanik:

> Broadcast news writing, because it is written to be heard, is often like a transcript of a conversation. In this way, of course, the broadcast journalist and the audience become involved in a one-on-one, but one-way, conversation. It is a simple case of you, the broadcast reporter, telling the audience member, what you know. And this is best done in a conversational style, not in the same manner as you would write for a newspaper or magazine."

Irratilari gazteak aproba egin dezake, prentsa idatziko albistearen eta irratitik emititzen den albiste berberaren artean zer-nolako aldea dagoen ikusteko, biak ahots goraz irakurriz. Ozenki irakurtzeak agerian jartzen dizkigu bi testu horien estilo-ezaugarriak, belarrirako idaztea zer den jabetuz.

5.2. IRRATI-ALBISTEAREN DEFINIZIOA ETA EGITURA

Irrati-albistea honako hau da: irratitik ematen den informazioaren gutxieneko unitate estrukturala, zeina laburra, xehea eta formalki neutroa baita. Albistea informazioaren oinarrizko generoa da eta nahiz eta telebistako eta prentsa idatziko albistearekin ezaugarri komunak eduki (egiatasuna, berritasuna, gaurkotasuna eta interes orokorra), egitura desberdina dauka, segidan ikusiko dugun bezala. Bestalde, komeni da argi uztea, notizia informazioa dela beti, baina informazio oro ez dela beti albistez janzten (Merayo, 1992, 177).

Notiziaren oinarrian edo muinean honako ezaugarri hauek egon ohi dira (Garrison, 1990, 27-28):

1. Puntualtasuna: garaiz idatzi eta heldu behar dira albisteak. Irratigintzan minutuak izan ohi dira, datu informatiboak igortzeko kontuan hartu behar diren denbora--unitateak.

2. Eragina: jende askorengan eragina duen gertaera hartu ohi du notiziak. Eragina txikia baldin bada, albiste bihurtzeko aukera gutxi dago.

3. Hurbiltasuna: nahiz eta mundu-mailan gertatzen diren jazoerak jendearen interesekoak izan, ekintza edo gertakizuna zenbat eta entzuleengandik hurbilago egon, hainbat eta handiagoa da interesa, salbuespenak gorabehera. Gertaera Japonian gertatzeak ala gure herrian bertan izan dela jakiteak interes-maila desberdinak sor ditzake. Hurbiltasuna ez da faktore nagusia, oso kontuan hartzekoa da baina.

4. Interesa: irrati-albisteek giza interesa eduki behar dute. Albisteetako protagonista jendea denean, benetako interes eragingarria sortzen da. Demagun asmakari bat dagoela informazioaren oinarrian; asmakari horren atzean dagoen pertsonari buruzko datuak ematen baditugu, interesa areagotu egiten da.

5. Drama: sarritan notiziak dramarekin egoten dira erlazionaturik. Istripuak, atentatuak, hilketak, gerrak, lurrikarak eta abar jendearen gogoaren pizgarri izaten dira. Hortaz, esan dezagun dramatik etortzen dela albistea.

6. Entzutetsutasuna: askotan albisteen protagonistak aski ezagunak dira entzuleentzat. Ingelesez esaten den bezala, *well-known names make bigger news*, hau da, izen entzutetsuek nabarmendu egiten dute albistea. Protagonistak edo lekukoak sonatuak izatea, jendeak aski ezagunak izatea alegia, albistea gailentzeko faktorea izan daiteke.

7. Gatazka: gure gizartean dauden indar kontrajarriak albisteen iturri izan daitezke. Direla alderdi politikoak, direla auzokide borrokalariak, direla maitale jeloskorrak, edozein gatazkatatik atera daitezke datu informatibo interesgarriak notiziak burutzeko. Beraz, gatazka albistegile bilakatzen da.

8. Oreka: albistearen emankizuna prestatzen dugunean, gertaerako protagonista guztien ikuspuntuak jasotzea lortu behar dugu, oreka mantentzearren. Orekarik gabe, sinesgarritasuna gal daiteke.

9. Objektibotasuna: oreka edukitzeaz gain, eta horrekin batera, albisteak neutrala izan behar du. Objektibotasun-maila gora iristea garrantzitsua da oso. Izan diren bezala kontatu behar ditugu egintzak mikrofonoetatik, ez gure ikuspuntuak sartuz. Ez dezagun errepika, SER eta RNE irrati-kateetan lan egin duen irratilari ospetsu hark euskal politikari abertzaleek egindako deklarazioak uhinetaratutakoan sarri aipatzen zuen "dejemos a un lado estas declaraciones salidas de tono…" kalaka.

10. Ezohikotasuna: ohiz kanpokoa den albistea errazago gogoratu ohi da. Irratilariak horrelako ekintza edo gertaeren bila abiatu behar du, albisteen balioa hortik ere etor daiteke-eta.

11. Analitikotasuna: albisteetan diren datuak eta kontaketen aurrekariak esplikatzeko joera ere sartu da irratigintzan, nahiz eta irratibidea ez izan oso egokia notiziak sakonki aztertzeko. Horra hor tertulien arrakasta, sarritan solaskideak analitikoak izan beharrean iritzi-emaile soilak edo ezjakinak baino ez diren arren.

12. Irudizkotasuna: gaur egun irudien gizartean bizi gara, telebistaren hedatze eta arrakastari esker neurri handi batez. Albisteek dimentsio hori ere hartzen dute eta irratigintzan ezinbestekoa da hausnarketa egitea, irudiak gure diskurtsoetatik —berben bidez alegia— sortu behar ditugula ahantzi gabe.

13. Entzuleria: entzuleak eduki behar ditugu gogoan albisteak egiteko orduan, nork entzungo dituen alegia.

Albiste bakoitza (mezua) elkarren segidako emisio-unitatea da, iraunkorra ez dena, orainaldian bakarrik jasotzen dena eta iraganean jasotzeko zaila dena. Albiste bakoitzak hasiera bat eta bukaera bat izan behar ditu. Notizia ondo egituratu behar da, baina egituraketa irratsaioaren barruko unitate bat izan dadin burutu behar da, hau da, goiko unitate baten barruan egon dadin (albistegia, albistegiaren atalak).

Luzaro aipatu da irratitiko albisteak aditzen dituzten pertsonek eskuarki ez dutela irakurtzeko ohitura handirik. Hortaz, irrati-albistegiak hainbat jenderen bitarteko ia bakarra izan dira informaturik egoteko, eta horrelaxe dira oraindik ere.

Nolanahi dela, irratian ez da ezer suposatutzat eman behar. Irrati-informazioan autoaskitasuna (funtsean osatua) gertatu behar da.

Irratigintzan kontuan hartzen diren bi faktoreak "denbora" eta "gertaera" dira. Eta faktore hauek aintzakotzat hartzen ditu irratilariak albisteen antolaketa eta egituraketa burutzean. Albistearen egituraketan aldaketatxoak egin daitezke faktore hauek eraginda. *Zer* eta *noiz* galdegileei esker, notiziaren iraupena, idazkuntza eta albistegian izango duen garrantzia edo kokapena era batekoa edo bestekoa izango da.

Baina ekin diezaiogun irrati-notiziaren atalak aztertzeari, irrati-idazkuntzaren nolakotasuna hobeto ulertzeko.

Albisteak hasiera-hasieratik sortu behar du interesa, gero, arreta finkatu, eta azkenik egitura bat eduki behar du, entzuleari mezuaren ehunekotasun nahikoa birkonpontzen uzten diona.

Jakina denez eta lehen aipatu bezala, kazetetan informazioak honako egitura hau dauka: leada eta corpusa (garapen beheranzkoa). Irratian, ostera, oinarrizko egitura honako hau izan liteke: abiatzea, leada, narrazioa eta amaiera edo errepikapena. Hala ere, badira batzuk, araurik ez dagoela aipatzen dutenak. Dena dela, aipaturiko eskema hau positiboa izan daiteke, zeren, bistakoa denez, irrati-informazioan lehenbizi entzulearen arreta gureganatu behar baita, gero albistea kontatuz eta badaezpada errepikatuz, entzulearen arreta gehiago finkatzeko asmoz.

Jarraian, urrats horiek aztertuko ditugu, Angel Faus irakasleak (1981, 255-261) emandako irizpideei jarraituz.

5.2.1. Abiatzea

Era iradokor eta erakargarri batez hasi behar ditugu albisteak, entzuleen arreta gureganatzea helmugatzat hartuz. Abiatze onak lortzeko, honako hiru elementu hauek erabili behar ditugu:

a) Audio-*gag*ak: hitz ez diren audio-iturriak, hau da, musika eta efektu bereziak.

a´) Musika: arreta erakartzeko orduan garrantzitsua da albiste-blokeak edo atalak banatzeko musika-boladak erabiltzea. Albiste guztien ondoan jarri behar ez diren arren, beren momentuan sartuz gero, asko laguntzen diote entzuleari albisteen ordenaketa burutzen.

a´´) Efektu bereziak: zintan edo diskoan grabaturiko soinuak dira. Esaterako, Luxemburg-eko Irratiak luzaz erabili zuen telegrafoaren soinua. Efektu hauek ondo egokitu behar zaizkie albisteei, eta arreta erakarri behar digute, jarraian albistearen kontaketa datorrela abisatuz.

b) Iturri mistoak: musika, efektu bereziak eta hitza batera erabiltzen dituztenak. Elementu hauek albiste solteetan erabiltzea aski zaila den arren, oso egokiak dira albistegia hasteko eta amaitzeko. Irratsaioa babesturik dagoenean, publizitatea bota eta gero taket laburrak egitea komeni izaten da, irratsaioa bereiztearren.

c) Hitz mintzatua: abiatze hauek hizkune edo kalaka bihurtzen dira, behin eta berriro erabili ohi baititugu: "nazioarte-mailan…"; "Euskal Herriko albisteei dagokienez…"; "ondoren, gatozen Euskal Komunitate Autonomora…"; "albiste txarrak nekazarientzat…". Batzuetan objektibotasuna gal daiteke: "ikaraldia goizeko atentatuan…", "dezepzionagarria euskaldunen arteko partida…"… Beste batzuetan hitz mintzatua grabaketekin konbina daiteke, abiatze erakargarriagoak egitekotan: esaterako, demagun Lionel Jospin-ek deklarazio garrantzitsuak egin dituela.

Kontrola: JOSPINEN AHOTSA LPRA eta LAGUNTZEN

Hizlaria: hauxek dira Lionel Jospin-en hitzak

Hau esandakoan, eta Jospin-ek frantsesez egiten duenez, entzuleei jakinmina iratzarri diegu. Orduan, irratilariak abagunea aprobetxatu behar du eta ondoko bigarren musika-bolada sartu eta gero albistea hasi.

Kontrola: JOSPINEN AHOTSA LPRA ETA KENDU

Hala ere, albiste hauek ez dira beti gertatzen eta normalagoa izaten da lehen aipaturiko hizkune horietarikoren bat erabiltzea. Izan ere, monotonian erortzeko arriskua eduki arren, hizlariak hitz mintzatuak ere baliatzen ditu albisteak abiarazteko.

Paul White-k, CBSko informazio-zerbitzuetako zuzendari-ohiak formula hau proposatu zuen albisteen abiatzeak burutzeko: "kontatuko dena esan", hots, albisteari sarrera bat egitea, albistean berean oinarrituz:

"Boris Jieltzin-ek deklarazio garrantzitsuak egin ditu gaur goizean…"
"Ekialde hurbilean gertatu den albiste batek zirrara sortu du mundu osoan…"

Beste batzuetan honako abiatze hauek ere egin ahal ditugu:

"Hau da hau lehortea…"
"Gosea Euskal Herrian, oraindik gosea…"
"Sarraskiaren handia…"

Beraz, albistearen hasiera edo aurkezpena dilatatzeko balio duten abiatzeek xede argi bat dute: entzuleen arreta erakartzea. Dena dela, kazetari serio askok ez dituzte sarritan erabiltzen, ikusi ahal izan dugunez, askotan objektibotasunetik desbideratzen baikaituzte.

5.2.2. Leada

Hasteko esan dezagun, irrati-leadean albistearen gakoa doala: gertaera laburbildua. Hori dela-eta, **arina** eta **erabatekoa** izan behar da. Prentsa idatzian ez bezala, leada ez da osoa, hau da, ez die bost galdera famatuei erantzuten.

Leada laburra eta argia izan behar da, bertan albistearen datu garrantzitsu guztiak egon ez arren. Egia esan, prentsako informazio-titularren antz handia dauka:

"Bill Clinton-ek Irak-en aurkako neurri gogorrak iragarri ditu gaur goizean"
"Zortzi pertsona hil dira Paris-en, orain dela bi ordu gertatu den tren-istripuan"

Izan ere, irrati-leadak bi galderari bakarrik erantzuten die, galdera hauen konbinaketa posiblea hau delarik:

- zer-nor edo nor-zer
- non-zer edo zer-non.

Ikus daitekeenez, egintzari erantzuten dio batez ere (zer?), beraren ondoan *nor* eta *non* elementu oinarrizkoak joaten direlarik. Gainera, derrigorrezko galdera erantsi behar zaio irrati-leadari: *noiz*. Azkeneko honek berehalakotasuna eman behar dio informazioari, hots, orain dela gutxi gertatu dela esanarazi behar dio: "gaur goizean", "orain dela hiru ordu", "une hauetan… "; baina ez: "atzo", "herenegun" edo "orain hiru egun", iraganeko egintzari buruzko informaziorik, alegia.

Beraz, "zer" eta "noiz" galderak leadeko elementu finkoak diren bitartean, "nor" eta "non" aldakorrak dira. Galdegile hauen ordena protagonista eta egintzaren araberakoa da.

Laburki esanik, irrati-leadak honako ezaugarri nagusi hauek ditu:

1. Egintza eta denbora (*zer* eta *noiz*) elementu finkoak dira.
2. Bigarrenik doa albistearen idazkuntzan.
3. Aditz-eraren denbora, hauetako bat izan daiteke: lehentxoagoko aldia, orainaldia eta geroaldia. Aditzaldiaren hautatzeak erlazio zuzena izan behar du notiziaren gaurkotzearekin.

5.2.3. Narrazioa

Behin abiatzean entzulearen arreta gureganaturik eta leadaren bidez albistearen laburpena eginik, *flasha* dugu eginda. José J. Muñoz-ek eta César Gil-ek (1986, 66) era honetara definitzen dute flasha: "albistearen aurrerapena da; gertaeraz dakizkigun lehenbiziko xehetasunak, datuak heldu arau geroago sakonago tratatuko direnak…". Flasharekin informazioa burutzen dugu, albistegi laburretan emititzeko. Horrela gutxienekoa daukagu eginda, buletinetan munduan zehar gertatutakoak kontatzeko; ez ordea albistegi luzeetan, albistegitzarretan emateko, zeren eta flashean ez baita istorio osoa kontatzen; albistegi horietan datu gehiago esan behar dira. Beraz, informazioaren corpusa osatu behar dugu. Hurrengo urrats honetan informazioaren interesaren ordena beherantz doa. Irratigintzan, albistearen interesak (berau amaitu arte) entzuleriarengan iraun dezan lortu behar dugu. Alegia, interesaren banaketa egin behar da, narrazioaren hasieran zein amaieran interesa sortzen duten datuak aurkitu behar baititugu. Hitz gutxitan esanda, tentsioa mantendu behar dugu.

Izan ere, narrazioak leadean sartu ez ziren galderei erantzungo die: "nola", "zergatik" eta bi aldakinei: "nor" edo "non". Narrazioa idaztean, kontuan izan behar dugu argia eta zuzena izan behar dela. Hogeita hamar hitz baino gehiagoko esaldiak luzeegiak dira. Hortaz, une egokian erritmo-aldaketak egitea ere ona izan daiteke, albiste luzeetan batez ere, ulergarritasunik handiena lortzeko asmoz.

Narrazioaren garapenean zilegi da zenbait datu errepikatzea: protagonista nor den eta egintza non gertatu den esaten digutenak hain zuzen. Narrazioaren azken esaldiak bidea utzi behar digu amaiera burutzeko.

5.2.4. Amaiera

Informazioaren lehen leadaren antzekoa da. Xedea, albistea laburbiltzea da. Amaiera ez da beti beharrezkoa, baina egitea komeni da, albistea oso luzea denean. Amaierak elementu finko bat eduki behar du (zer) eta bestea aldakorra izan behar da (nor edo non), noiz galdegilea bazterturik, hots, aipatu gabe utzi ahal dugularik.

Albisteak biribiltzeko, askotan egokia da amaiera egitea; honela, entzulearen arretak atseden hartzen du une batzuez, jarraian hurrengo albistearen abiatzeak berriro ere beregana tzeko.

5.3. IRRATI-ALBISTEEN TAXUKETA ETA GAURKOTZEA

Oro har, irratitik ematen diren informazio guztietan, beharrezkoa da datuen aurkezpen taxutua, baita aburuen azalpen metodikoa eta argumentuen aurkezpen logikoa ere. Autodiziplina honen bidez, entzuleari bere zentzuna piztu ahalko diogu, zeren eta entzulearen arrazoibidea ere horrelakoa baita: ordenatua, metodikoa eta logikoa.

Ezagunetik ezezagunera, orokorretik partikularrera, handitik txikira, horixe da araua, idazteko orduan ERRAZTASUNA eta ERREPIKAPENA ere kontuan hartzekoak direlarik.

Teletipoetatik-eta heltzen diren albisteak gaurkotzea oso lan garrantzitsua da. Kazetaritza-ikasleen artean joera nabaria dago albisteak kazeta-eran idazteko, irratiak idazkuntza berezia behar duela ahantziz. Gaurkotzea ez da bakarrik orain edo une hauetan gertatzen ari denari buruz hitz egitea, zeren askotan, gertaturik egon arren, oraindik interesa mantentzen duten datuak ere gehitu behar baitizkiogu albisteari. Gaurkotze honek berritasuna ematen die notiziei. Esaterako:

> "Bart atentatu bat izan zen Madrilgo Velazquez kalean jeneral baten kontra"

Irratilariari jada ez zaio inporta atzo gertatu zena, atzoko atentatuari buruz une hauetan esan daitekeena baizik. Beraz, albiste hori, apika, era honetara eman zitekeen gaurkoturik:

> "Oraindik ez dakite nor den bart gaueko atentatuan Madrilen zauritu zuten jenerala"

5.4. ALBISTE-ITURRIEN AIPAMENA

Irrati-albistegietan nahiko normala izaten da notizien iturria ez aipatzea. Hala ere, komenigarria da iturriak aipatzea. Sinesgarritasuna lortzeko edo entzule askok iturriak zeintzuk diren jakin nahi dutelako, kazetarioi ez zaigu ezer kostatzen iturria zein den esatea. Ordueroko albistegi laburretan, buletinetan, hasieran edo amaieran aipatu ahal da iturria. Gehienetan teletipoetatiko albisteak direnez gero, hauxe esan daiteke:

> "Ondoren, Europa Press prentsa-agentziak bidali dizkigun albiste nagusiak irakurriko dizkizuegu".

edo

> "Europa Press agentziak bidali dizkigun albisteetatik ondokoak aukeratu ditugu ondorengo minutuetan zuenganatzeko".

Ondoren iradokizun batzuk jarriko ditugu, informazio-iturriak aipatzeko orduan gogoan izan behar ditugunak:

- Ahalgarri denean, iturria leadean aipatu.
- Pasarte edo esaldiaren amaieran iturria ez aipatzen saiatu.
- Ahalgarria bada, iturria esaldiaren hasieran aipatu.

5.5. AIPUDUN ALBISTEAK EDO "IN VOCE" MOTAKOAK

Edozein albistek izan dezakeen egitura bezalakoa da albiste hauek daukatena, non datu batzuk albistearen protagonistaren ahotsaren bitartez aipatuak baitira. Sinesgarritasuna handitu egiten da, entzuleak partikulartasun-sentsazioa jasotzen du eta entzun daitekeen interes handiko eragingarri batez baliatzen garelarik, irakurketak sor dezakeen monotonia txikitzen da. Aipuak hiru eratara egin daitezke:

A. Testuan tartekaturik, kontaketa konpartituz. Adibidez:

Esatariaren ahotsa ___ ___ ___ ____

Aipaturiko ahotsa ____- ____ ____

Kontaketa_____➤

Molde hau oso egokia da kontakizuneko partaideen ikuspuntu desberdinak azaltzeko. Ingelesez *wrap* edo *package* berbak erabiltzen dira ahots-ebaki hauek izendatzeko. Chantler eta Harris (1997, 31) ondoko eran definitzen du: "the wrap cosists of at least one cut surrounded by a reporter´s voice. It can be short -a single cut of 10 seconds inserted in 20 seconds of reporter´s voice to make 30 seconds. Alternatively a wrap can run three minutes or more for use in a news programme".

B Informazio baten laburpen modura, berriemailearen ahotsaz ematen den albiste baten amaiera modura.

Esatariaren ahotsa_____

Aipaturiko ahotsa ____

Kontaketa _____➤

C Informazioan errepikapenaren funtzioa betetzen dutenean: soinudun albistea, zeinean soinuak ilustratzeko edo girotzeko funtzioa betetzen baitu, (hau da, erredundantzia denean).

Hizlariaren ahotsa_____

Aipaturiko ahotsa ____- _____

Kontaketa _____➤

5.6. ELKARRIZKETADUN ALBISTEA

Elkarrizketadun albisteak bestelako egitura dauka aurrekoekin konparatuz. Sarrera erakargarria izaten du, zeinean NOR galdetzaileari ihardetsiko zaion, eta seguraski "zer" galdetzaileari ere bai.

Sarrera, irratitiko albisterako sarrera arrunta egiten zen kondizio berdinetan egin daiteke hemen ere. Iturriak edo protagonistak dauzkan datuak agertuko ditu; hauek aski ez balira, irratilariak osatu egin beharko lituzke, aipaturiko eskemari jarraikiz. Gogora dezagun ihardesten duenak ez duela zertan kazeta-teknikarik ezagutu. Izan ere, kazetaria bera izan behar da eragozpen ahalgarri hauek gainditu behar dituena. Horretarako, erredundantzia erabilgarriez balia daiteke, informazioa laburtuz edo dena delakoa eginez, edukiak erraztu ahal izateko.

Irratsaioa gainegitura da, osagarri dituen informazioak antolatzean sortzen dena. Titularraren, "aurkezle gidariaren" sarreratxoaren, laburpenaren eta abarren funtzioa, adi ez dauden entzuleen arreta birlortzea da. Saioaren edukiak une horretan dagoen audientziaren mailara, programazio orokorrera eta emitzitzeko ordura egokitu behar dira.

Prentsako albisteetan informazio gehien kargatzen den partea *leada* bada, irratiko albisteetan interes-jarioak konstantea behar du izan, informazio-elementu berriak apurka-apurka agertuz doazelarik.

Albistegian, albistea zenbat eta nabarmenkiago agertu eta hedapen handiagoa eduki, hainbat eta garrantzitsuagoa da. Albiste bat nabarmentzen edo azpimarratzen duten enfasi--elementuak, soinu-laguntzak, "ebakiak", lekukotasunak eta ahots-aldaketak dira.

5.7. PUNTUAZIOA

Idazteko ohiturak aldatzea zaila bada ere, irratiko idazkuntzak aldaketa bat eskatzen dio idazlariari. Eta aldaketa hau lortzeko, idazteko orduan, hitz egiteko testu bat idazten gaudela pentsatu behar dugu behin eta berriro.

Emili Prado-k (1985, 25) ondo esaten duen bezala, "puntuazioak azalduriko ideia bere soinu-unitatearekin erlazionatzeko balio du; beraz, unitate fonikoak adierazteko eta ez unitate gramatikalak adierazteko, kultura inpresoan egin ohi den bezala". Aipaturiko irakasle honen ustez, irratian aski izan behar genuke kakotx eta puntuarekin. Kakotxa, etenaldi labur eta logikoak egiteko (ez da beharrezkoa irakurketan, denbora oso luzea ez bada). Eta puntua (segidakoa edo apartekoa) unitate fonikoak bereizteko edo amaitzeko.

Gidoiek eta makoek hausnarketa eragiten digute diskurtso orokorraren barruan, informazioan komenigarria ez den dramatizazioa alegia. Irrati-idazkuntzan komenigarria da aparteko bi esaldi edo perpaus egitea, esaldi bakoitza bere balioarekin doalarik. Deskodifikazioa bat-batekoa dela kontuan hartzen badugu, entzuleari ahalegintxo bat eskatuko genioke, entzuleak beti emango ez digun mesedea, alegia. Beste erremediorik ez badago, ondorengoa eduki behar dugu gogoan: "zenbat eta hitz gutxiago, hobeto".

Komillak ezin erabil daitezke, zeren bestela, ahotsa aldatzen ondo jakiteko, sabel-hiztunak izan beharko baikinateke, beste pertsona baten esaldi bat esan nahi dugunean. Irratian letra-mota ezin alda daiteke, ezta era kurtsiban edo beltxean ipini ere. Hala ere, badugu zerbait hoberik: ebakiak edo lekukotzak. Hauek ez baleude, gure errekurtsoa "zeharkako estiloa" litzateke. Adibidez: ".....(e)la esan zuen". Esaldiak oso ezagunak badira, bestela: "Kalea nirea da" esan zuen Fragak.

Beste pertsona baten zerbait aipatzen denean, aipuaren hasiera eta amaiera argiro uzten dituzten hitzezko errekurtsoak erabili behar ditugu. Esaterako: "..... hau guztia izan da Txekoslovakiako presidenteak esan duena". "..... hauexek dira Legebiltzarreko presidenteak gaur goizeko prentsaurrekoan esan dituen hitzak."

Irakurketa ondo taxutzeko arnasketa-ahalbideak hartu behar ditugu aintzakotzat eta baita irakurketari eman nahi diogun intentzioa ere, jakina. Ondoren hiru aholku jarriko ditugu:

1. Askotan mekanikoki irakurtzen duguna, bestela irakurtzeko, beste intentzio bat emateko, testuan ebakiak egin ditzakegu, horrela irakurtzea komeni zaiguneko esaldiak hobeto esateko. Hau egiteko honako marra hauek erabil ditzekegu: / / edo // //.

2. Esangura berezia duten hitzak azpimarratzea. Esaldian, eragin komunikatibo gehien duten hitzak dira azpimarratu behar ditugunak.

3. Esaldi laburrak eta luzeak egin, irakurtzerakoan arritmia sortzen dutenak.

5.8. IZENAK ETA KARGUAK

Gertaeretako protagonisten izen-deiturak albistearen parte garrantzitsua dira. Izenek pertsonalizatu egiten dute gertaera, eta sinesgarritasuna ematen diote albisteari. Hau dela eta, pertsonaia nahiko ezaguna ez denean, izen-deiturak esatea komeni da.

Protagonistak oso ezagunak direnean, albistearen hasieran aipatzea komeni da, zeren horrela entzuleen arreta lehen unetik gurekin edukiko baitugu, izenek interes handia sortzen baitute.

Izen-deiturak ebakitzeko zailak direnean, mako edo parentesi artean ebakera zuzena jartzea komeni da.

Bestalde, protagonistak kargu bat baldin badu, kargua aipatu behar dugu izena baino lehenago. Baina pertsonaia oso ezaguna denean, ez da beharrezkoa kargua aipatzea, ezta izena ere, deiturarekin nahikoa baitugu.

Izena ahoskatzeko oso zaila bada eta pertsonaiak kargu bat badu, hobe da kargua aipatzea, izena baino.

5.9. HITZ-LABURTZAPENAK

Arau orokorrak dioenez, ezin daiteke siglarik edo laburkinik erabil. Laburdurak saihestu egin behar dira, baita gidoitik kendu ere, eta hori horrela izan behar da laburdurak oso ezagunak izan arren (jn., and., dr. eta abar). Argi dago, letra guztiak jarriz gero, irakurketa erraztu egiten dela.

Asko dira irratitik noizbait esan edo aipatu beharko ditugun siglak: FBI, CIA, NATO… Batzuetan sigla ezagunak eta beste batzuetan hain ezagunak ez direnak topatuko ditugu. Horrelakoetan, akronimoaren esangura argiro esatea komeni da. Adibidez: "ABE delakoak, Afrikar Batasunaren Erakundeak alegia, bakea lortzeko negoziazioa egin dezaten eskatu die…".

Bestalde, oraindik, euskaran baditugu zenbait akronimo ospetsu baina gutxitan entzuten eta ikusten ditugunak, hala nola NBE (Nazio Batuen Erakundea), NATO etab. Kazetariak erronka handia du praktikan, laburkin hauek emekiro ezagutarazteko.

Behin laburkin hauen esangura azaldu eta gero, ulergarriago suertatzen zaigu, sigla hutsa esanda albistea segitu ahal izatea.

Gaur egun, munduko lehen potentziaren laburdura sarriro aipatzen da. Euskaran, EEBB (AEB) laburtzapena ezin da azalpena eman gabe esan, nahasgarria baita. Gutxienez *Estatu Batuak* irakurri beharko genuke, laburkina deletreatu barik noski.

Badaude zenbait sigla, esateko orduan onar daitezkeenak: AEG, BBC, BMW, CIA, DDT, EH, ELA, ETA, FBI, GAL, IBM, laser, LSD, NATO, PSOE, radar, RENFE, REPSOL, SER, TNT, UNESCO, UNICEF…

Ez da komeni, bestalde,"7gn.", "7." eta honelakoak idaztea ("zazpigarren" jarri behar da).

5.10. ZENBAKIAK ETA KOPURUAK

Bistakoa denez, zenbakiak nahiko zailak dira geure buruan finkatzeko; gogoratzeko problemak ematen dizkigute, alegia. Hortaz, irratitik ematen ditugun kopuru gehienak biribilak izan behar dira, zehatzak izan ordez. Kontua ez da zenbaki guztiak aipatzea, zeren horrek lan asko eragingo bailioke entzulearen buruari. Gakoa kopuruen ondoko ohiko esamoldeetan datza, hala nola: "gutxi gorabehera", " -(r)en bat", "-tik gora" …

Zenbakiak eta kopuruak topatzen ditugunean edo baliatu behar ditugunean, zenbait arau hartu beharko genituzke aintzat:

1. Ez erabili zenbaki-zerrendarik. Albiste bakoitzean, saia zaitez ahalik eta zenbaki gutxien idazten. Albiste baten barruan batzuk badaude, guztiak pilatu eta esan, baina beren arteko diferentzia emanez edo batuketa aipatuz.

2. Albistea ez da hasi behar inoiz zenbaki edo kopuru zehatz batekin, batez ere, kopurua hiru zifra baino gehiagokoa bada. Albistearen mamia kopuruan badatza, biribiltzeko joerarekin eman behar da zenbakia.

3. Kopuruen biribiltze hori, esan bezala, 3 zifra baino gehiago dituzten zenbakiekin gertatzen da. Hori egiteko orduan, honako esamolde hauek erabil ditzakegu:

   "….inguru"
   " … gutxi gorabehera"
   " …-(r)en bat"

4. Zifra bat edo bi dituzten zenbakiak zifrak erabiliz idatz daitezke, irakurtzeko errazak baitira. Baina hiru zifra baino gehiagokoak badira, letraz edo hizkiz idaztea komeni da. 1 eta 11 zenbakiak letraz idatzi ohi dira, baita pasartearen hasieran agertzen den edozein zenbaki ere.

5. Frakzioak edo zatikiak idatzi egiten dira. Ezin daiteke zeinu aritmetikorik erabil: 1/6, 3/8, etab.

6. Ez da komeni % zeinua erabiltzea, horren ordez "ehuneko" hitza jarri behar dugularik.

7. Orduak jartzeko orduan, letrak erabili behar ditugu: "arratsaldeko bost t´erdietan hasiera eman zaie euskarari buruzko topaketei".

8. Datak zenbakiz edo zifraz jarri behar dira, baina dagozkien deklinabide kasuak ipiniz. Adibidez: " 1988ko otsailaren 12an…"

9. Zenbaki ordinalak letraz idatzi behar dira: lehenengo, zortzigarren, hogeita zazpigarren…

10. Telefono-zenbakiak banan-banan edo binaka jarri behar ditugu (zifrak erabiliz), baita horrelaxe ahoskatu ere (Euskaraz aipatzean, hobe da banan-banan adieraztea)

    Adibidez: 4-6-4-9-4-3-6 edo 4. 64. 94. 36 idatzi. Baina lau-sei-lau-bederatzi--lau-hiru-sei eran esan.

11. "Milioi" eta "bilioi" hitzekin nahastea suerta lekioke entzuleriari, zeren eta "b" eta "m" soinuak ez baitira ondo bereizten aditzeko orduan. Nahaste hori gerta ez dadin "bilioi" hitza idazten dugunean, komenigarria da "b-z, bai" errepika ipintzea, geroago mikrofonoz esateko. Adibidez: "Bi bilioikoa da, b-z bai, datorren urterako CIA inteligentzia-agentzia iparramerikarrak omen duen aurrekontua".

12. Hau guztia horrela idatzi behar da, albistearen mamia edo gakoa kopuruan ez badago. Esaterako, Everest tontorraren altuera edo loteriaren zenbakia denean salbu.

5.11. HITZAK

Logikoa denez, irrati-estiloaren printzipio nagusia ondokoa da: "ulergarritasunik handiena entzulearentzat". Horixe da lortu behar duguna. Horretarako, ahozko estiloa behar dugu erabili (erraz irakurri ahal izateko estilo idatzia), eta gogoan izan behar dugu argia eta xehea izatea.

Berriemaleak edo hizlariak argi eta garbi esan behar dio entzuleari gertatu dena, estilo kolokiala erabiliz. Estilo hau ez da inola ere inprobisatua, oso erredundantea eta zatarra izan behar, ohikoa, kolokiala eta ulergarria baizik.

Irratian diharduten kazetariek hitz laburrak eta xeheak erabili behar dituzte. Honen zioa oso sinplea da: hitzak laburrak izan behar dira, zeren silaba bateko edo bikoak askoz ulergarriagoak baitira hiru silaba dituztenak baino; eta xeheak ere izan behar dira, edonork ulertzeko modukoak, irratiak ez baitu audientzia diskriminatzen (etxekoandreak, unibertsitarioak, nekazariak..). Esaterako, "behiala" hitza erabili ordez (Ipar Euskal Herriko hitza izan eta literatur arloan oso hedatuta egon arren) "behinola", "aspaldi" edo "antzina" esatea ulergarriagoa litzateke; dena den, nahiago bada "behiala" esan, jarraian baliokideren bat esatea komeni da.

Bestalde, hitzek jatorrak behar dute izan, hots, euskaldun hiritar eta herritarrek erabiliak.

5.11.1. Adjektiboak

Adjektiboak askotan ez dira beharrezkoak. Adjektiboz beteriko estiloa, edo estilo loretutzat ezagutzen duguna, irratian erabili behar den estiloaren aurka doa. Gainera, adjektiboak, kazetariek eduki behar duten objektibitatea galaraz edo oztopa dezakete.

Adjektiboak, behar-beharrezkoak direnean edo ideiak eta albisteak zehazten laguntzen dutenean soil-soilik idatz daitezke; osterantzean, ez.

* "Deklarazio garrantzitsuak" *deklarazioak* besterik ez dira izan behar.

* "Atentatu higuingarria" *atentatua* besterik ez da.

5.11.2. Aditzondoak

Adjektiboekin gertatzen den bezala, aditzondoak, zerbait argitzeko edo adierazteko edo albistea hobeto ulertzeko balio badute, orduan bai, erabil daitezke; bestela, ez.

5.11.3. Aditzak

Pertsonen arteko komunikazioak eta ahozko lengoaiak berriki gertatu diren jazoerak ematen dituzte aditzera normalean. Hori dela-eta, oso erabiliak dira orain eta geroko denborak, orainaldia eta geroaldia alegia. Prentsa idatzian, ostera, idatziriko kontaketak iraganaldiko eta orainaldi jarraitu eta historikoko elementuak dauzka. Kazetaritzan esan ohi den bezala: "albisteak egun bakar batean zahartzen dira prentsan, zenbait ordutan telebistan eta minututan irratian".

Aditzaren arlo honetan argiro eduki behar dugu era zuzena edo aktiboa hobea dela pasiboa baino. Hala ere, honek ez du esan nahi era pasiboa erabili behar ez denik. Erlatibozko esaldiak ere beharrezkoak dira, datu errepikatzearen funtzioa bete ahal izateko, batez ere.

Bi esaldi hauen artean, bigarrena aukeratu behar dugu, askoz ulergarriagoa eta sinpleagoa baita:

*Gaur goizean, Juan Karlosek Iruñean emandako prentsaurrekoan komunikabidee tako jendeari eginiko deklarazioetan argiro geratu da Nafarroaren espainoltasuna.

*Gaur goizean Juan Karlosek prentsaurreko bat eman du Iruñean. Errege espainiarrak bere deklarazioetan argiro agertu du Nafarroaren espainoltasuna.

Ikus dezagun beste adibide bat:

*Biharko, manifestazio bat izan da konbokatua, Euskadiko Erkidego Autonomoko sindikatuek antolatua.

*Euskadiko Erkidego Autonomoko sindikatuek manifestazio bat konbokatu dute biharko.

Azkeneko adibide honetan ere, bigarren aukera da onetsi beharrekoa.

Bestalde, irratigintzan, *esan* aditza oso aipatua denez gero, komenigarria litzateke noizean behin aditz baliokideak jartzea:

* Eusko Jaurlaritzako bozeramaleak esan duenez
" " "
(aditzera eman duenez, agertu duenez, azaldu duenez, adierazi duenez).

5.11.4. ATZO eta GAUR kontzeptuak

Jakina denez, "berehalakotasuna" irratiaren ezaugarri garrantzitsua da. "Atzo" jazo ziren albisteak zaharrak ei dira irratiz emateko. Irratitik ezin da "atzo" aditzondoaz hasten den albisterik eman. Modua bilatu behar dugu, "atzo" gertaturiko albiste hori orainaldian ipintzeko. Gaurkotu egin behar dugu.

Adibidez:

* Atzo zabaldu zen Muskiztik Castro Urdiales-eraino doan autobide-zatia…

Albiste hau, berau, baina gaurkoturik honela gera liteke:

* Lau mila ibilgailu baino gehiago pasatu dira gaur goizean, atzo zabaldu zen Muskiztik Castrora doan autobide-zati berritik…

5.11.5. NI eta GU izenordeak

Lehenik esan dezadan "ni" izenordea ezin dela erabili. Irratian, iruzkingileak edo komentaristak bakarrik mintza daitezke lehenengo pertsonan. Beraz, irratian "ni(k)" izenordea baztertu egin behar dugu. Bestalde, iruzkingileen artean, hobe da "nire ustez" egitura erabiltzea, "nik uste….(e)la" egitura baino.

"Gu" izenordeak irrati-estazioa inplikatzen du, eta horrexegatik ere baztertu behar dugu, bistakoa denez.

Bestalde, korrespontsalek bidaltzen dituzten albiste edo kroniketan hobe da "gu" izenordea erabiltzea "ni" baino. Esaterako:

* "Alkateak esan berri didanez, …"

* "Alkateak esan berri digunez, …" (hobeto)

5.11.6. Juntaginak

Juntagin kopulatiboek luzatu egiten dute perpausa edo esaldia, eta hori saihestu egin behar da irratian. Batzuetan kendu egin ahal ditugu, juntaginen ordez elkarren ondoko esaldi desberdinak eginez. Horrela, estiloa sinpletu egiten da, irratirako komeni zaigun legez.

Bestalde, adbersatiboekin ere kontu handiz ibili behar dugu, korapilatu egiten baitute adiera, beti beharrezkoa ez dena.

5.11.7. Interjekzioak

Interjekzioa, gramatikak dioskunez, berak bakarrik esaldi eliptikoa osatzen duen hitza da (edo hitzak, pluralean), gogoratzen, desiratzen, sentitzen, usaintzen edo entzuten dugunak gure gogoan eragiten diguna supituki adierazteko erabilia dena. Interjekzioak apelatiboak (iup, ixo…), adierazkorrak (ai, kontxo, ene…) eta errepresentatiboak izan daitezke (pum, zas, zaplast…). Hitz asko dira interjekzio modura erabil daitezkeenak: gora!, eta kito!, bai zera!, bai horixe!, hara!, pikutara! etab.

Albistegietan ez da interjekziorik esan behar. Harridurazko esaldiek animo edo gogoaren egoera adierazten dutenez, tamalgarria litzateke albistegietan erabiltzea, objektibitateari eta neutraltasunari on gutxi egingo bailiekete.

5.12. ESALDIAK

Irratiko idazkuntzarako, esaldi laburrak eta egitura gramatikal xehea duten esaldiak egin behar ditugu. Izan ere, esaldi logikoak izan behar dira, eta "subjektua-osagarria-aditza" egitura eraman behar dute.

Esaldi bakoitzean 18-20 hitz egon behar dira gehienez (bi lerro). Luzeagoak izango balira, ahalegin handia erangingo ligukete gogoan edukitzeko, eta, beraz, gorago esan dugunaren aurka lihoazke.

Bestalde, esaldiaren barruan doazen hitzak ere xeheak izan behar dira, bi silaba dituztenak lau silabakoak baino erretenigarriagoak izanik. Hitz teknikoekin ere kontuz ibili behar dugu, oharkabetzeko elementuak izan baitaitezke.

5.13. ESPAZIOAK, KRONOMETRAIA, ZUZENKETAK ETA BERRIRAKURKETAK

Angel Faus irakasleak ikusi ahal izan duenez, irrati-gidoia kontuan harturik, badirudi testua lerroko 65 pultsaziotara idatzi behar dela. Arau honi segituz gero, berehala kontura gaitezke idatziriko informazioaren iraupenaz. Lerro bakoitzean 65 pultsazio edo joalditara idazten badugu, minutu batean hizlari normal batek 16 lerro irakurriko ditu. Zifra hauekin ideia orokor bat izan dezakegu kronometraia egin gabe. Dena dela, gogoan izan behar dugu hizlari bakoitzak bere erritmoa duela. Horrez gain, komenigarria da lerrotarte hirukoitzaz idaztea, zeren, era horretara eginez gero, zuzenketak egiteko espazio gehiago izango baitugu. Zuriz izango dugun hutsune horretan, kontrolerako oharrak ipin daitezke.

Lerro baten amaieran ez dugu hitzik ebaki behar; amaierako hitza osorik egon behar da, horrela irakurketa errazten baita. Esaldiak ere ezin dira moztu orrialdearen behealdean hurrengo orrira pasatzeko. Informazioak hurrengo orrialdean segitzen badu, gezi bat jarri behar dugu, irakurtzen duenak informazioa orri horretan amaitzen ez dela argiro jakin dezan.

Behin albiste osoa idatziz gero, normala denez, irakurketa bat egiten da, badaezpada, zuzenketaren bat egin behar ote den ikusteko. Lehen zuzenketa hauek egin ostean, ahal denean zenbait minutuz uztea komeni da, bost edo hamar minutu horiek pasa eta gero beste irakurketa bat egiteko. Bigarren irakurketa horretan, albistearen "orrazketa" egiten da, testua mikrofonotik esateko eran utziz. Aliterazioak eta soinu nahasgarriak bilatzen eta saihesten aritu behar dugu, den-dena ondo gera dakigun arte. Askotan zuzendu edo aldatu behar diren era batzuk ondokoak dira:

- Bait- + da, dit, dago… = baita, baitit, baitago… (azken hauek ondo ahoskatzen laguntzen baitigute)

  Ez + zaio, zihoazen, zioten… = /etzaio/, /etzihoazen/, /etzioten/… (horrelaxe ahoskatu behar dira, idaztean aldaketarik egin gabe…)
  Ez + gara, goaz, gindoazen… = /ezkara/, /ezkoaz/, /ezkindoazen/…
  Ebakiz gero, eginez gero, lortuz gero… = /ebaki (e)zkero/, /egin ezkero/, /lortu ezkero/ (idaztarauen aurka joanagatik, komenigarria da irratiko albistegintzan ezkero-dun erak idaztea, ondo ahoskatzeko).

- Aditz laguntzaile tiletgabekoak tiletdun bihurtu behar dira:

  "Errusiar Errepublikari erosi dioten armamentua punta-puntakoa da"

  "Oso itxaropentsu agertu da lehen ministro irakiarra, atzo Tony Blair-ek egin zituèn deklarazioak entzun ondoan".

Erlatibozko esaldietan oso lagungarriak izaten dira tilet hauek, argiro adierazten baitigute nola ebaki edo ahoskatu behar diren esaldiak, klarki adierazten baitigute aditz trinko edo laguntzailearen eta atzean daraman hitzaren arteko elkarren segidako kolpe fonikoa.

5.14. IRAKURGAIA

Ondoko pasartea ere Paul de Maeseneer-ek (1989, 38-43) argitaraturiko irrati-eskuliburutik dago aterata. Guztira bost printzipio aipatzen zaizkigu, irrati-idazkuntzan gogoan eduki beharrekoak. Irratibidean belarrirako idazten dugunez, hitz egingo genukeen moduan idatzi behar da, edo, hobeto esanda, guri entzutea gustatuko litzaigukeen bezala. Testua irakurriz, laugarren atal honen laburpenaz jabetuko zara.

Writing for the ear: Five principles

There are five key principles you should always remember about any radio programme.

A) It is SPOKEN

It´s not written literature, it is TALK. So, be natural and use only words you know the meaning of and which are in your spoken vocabulary… Use the spoken words of everyday speech. Don´t be afraid to use the same word twice or three times, if it is the right word. The broadcast style must be natural, not invented…

B) It´s IMMEDIATE

Radio is the “now”-medium!

The greatest advantage over newspapers is immediacy, and this can be emphasized by **using the present tense**. Wherever possible, use the present tense rather that reported speech…

C) It´s PERSON to PERSON

Writing for radio is not great oratory, it must be informal, it´s YOU and ME. There may be thousands of others listening at the same time, but each of them is listening on his own, or in a small group.

However, in news programmes, the styles can be slightly more formal than ordinary conversation, yet certainly not as rigid as that of a newspaper. It must be easy to listen to without sounding casual.

Although radio must give news straight, remember that it is also an entertainment medium. Try not to be dull and too formal in your style. Try to avoid bureaucratic language… Radio must become a friend, whom the listener will believe. And when we broadcast, we should talk as to a friend.

D) It´s HEARD ONLY ONCE

The broadcast, once made, is gone and the listener has no means of referring to what was said. If the audience has to think twice, to disentangle some cumbersome clause, what you say is lost forever. **Clarity has top priority**. Use simple, declarative short sentences. When a sentence is too long, it can easily be split up into two or three simple sentences. Don´t cram all the information in one sentence… **The enemy is confusion**. Leave out superfluous information. The problem of comprehension is not only a question of simple language. The idea that is conveyed in a news item must also be easily grasped. You have only one chance! A most useful technique is to put only one idea in one sentence.

E) It´s SOUND ONLY

Words are the bridge between the newswriter and the listener. Words are the tools of our trade.

Don´t be vague or ambigous. Use words that convey concrete images. Be exact and concise. Explain complex and abstract concepts. If you can´t, avoid them…

Punctuation is absolutely vital. When eyes see a mark on a page, the brain reacts in a certain way. A large percentage of reading is automatic. Therefore, if the newsreader´s brain is suddenly confronted with something unusual, it will cause some hesitation. No matter how momentary, the hesitation will be noticed by the listener. So, remember that you are writing a script to be read aloud. Your punctuation must be correct. Newsreaders expect properly written material…

5.15. ERREFERENTZIAK

Chantler Paul eta Harris Sim. *Local Radio Journalism*. Oxford (Erresuma Batua): Focal Press, 1977.

Faus, Angel. *La radio. Introducción a un medio desconocido*. Madril: Latina Universitaria, 1981.

Fernández Asís, Victoriano. *Radio-televisión: información y programas. Las incógnitas de los medios electrónicos*. Madril: RTVE, 1986.

Garrison, Bruce. "Broadcast writing style" in *Professional News Writing*. New Jersey (EEBB): Lawrence Erlbaum Associates, 1990, 183-206 orr.

Haye, Ricardo M. *Hacia una nueva radio*. Buenos Aires: Paidós, 1995.

Madinaveitia, Eduardo. "Audiencias de radio: nuevas investigaciones" in *Mensajes y medios*. Madril, 1989, abuztua-iraila, 6. zkia., 64-67 orr.

Maeseneer, Paul de. *Here´s the News. A Radio News Manual*. Belgika: Asia-Pacific Institute for Broadcasting Development (AIBD), 1989.

Merayo, Arturo. *Para entender la radio. Estructura del proceso informativo radiofónico*. Salamanca: Universidad Pontificia, 1992.

Muñoz, José Javier eta Gil, César. *La radio. Teoría y práctica*. Madril: IORTV, 1986.

Prado, Emili. *Estructura de la información radiofónica*. Bartzelona: Mitre, 1985.

6. IRRATIKO INFORMAZIO-GENEROAK

6.1. GENEROAREN KONTZEPTUAZ

Literaturaren esparruan bezala, generoak gero eta gehiagotan aztertzen ari dira ikusentzuteko komunikabideetan. Nahiz eta komunikazio-zientzietan kazeta-generoaren kontzeptua aski berria izan, azken bolada honetan azterketa onak egin dituzte Espainia aldean irrati-telebistako generoak mugatzeko, erreferentzia nagusitzat jo daitezkeen azterketak hain zuzen ere. Ikerlan nagusia Mariano Cebrián-en *Géneros Informativos Audiovisuales* izeneko liburua da, zalantzarik gabe.

Antzina, kazetaritza literatura-azpigenero bezala izan zen joa. Baina, urteak joan urteak etorri, kazetagintza aro modernoko adierazpide heldua bilakatu da. Kazetagintza inprimatutik agertu ziren genero batzuk irrati-telebistara pasatu dira eta ikusentzunezkoen garapenak irentsiak izan dira, komunikabide hauetan bizitasun eta adierazkortasun berria hartu dutelarik.

Jakina denez, literaturaren teoriari gainbegiratu bat eman behar zaio, irratiko informazio-generoen etorkia zein den jakin nahi izanez gero. Literaturan honela ulertzen da *genero* kontzeptua (Gran Diccionario Enciclopédico Ilustrado de Selecciones del Reader´s Digest): "sormen-lanetan ageri diren aldakiak, lan horiek duten helburua, tratatzen duten gaia, gaiaren erabilera eta abar kontuan hartuta."

Orokorki, hiru multzo handitan bereizi dira literatura-generoak: *dramatikoak*, zeinetan sentimentu, desira eta ideien elkar-topatzeen agerpena nagusitzen baita; *lirikoak*, zeinetan autorearen ideia, gogoeta eta sentimenduen adierazpen subjektiboa nagusitzen baita; eta *narratiboak*, zeinetan autorearengandik landa dauden gertakari eta egintzen azalpena nagusi agertzen baita. Kazetaritza azken multzo honen barruan jarri dute adituek. Dena den, azken urteotan ezin uka daiteke, informazio-kazetagintzan narrazioa ezezik bestelakoak ere erabiltzen direla.

Martínez Albertos (1974, 70) irakasle espainiarraren ustez, argi geratzen da kazeta-generoaren kontzeptua eta literatura uztarturik daudela: kazeta-generoak "literatura--kreazioaren modalitate desberdinak dira, edozein hedabidek plazaratuko dituenak".

Honela, literaturatik abiatu eta ikusentzunezkoetan erroak bota arte, irratiko informazio-generoak gutxi aztertuak izan dira. Santamaría irakasleak komentatzen digunez, kazeta-generoaren kontzeptua 60 urteen hastapenean hasi zen aipatzen, helburu didaktiko batek bultzatuta. Hasieran, prentsa izkiriatuak marka utzi zien ikusentzunezko informazio-generoei, gehienetan mimetismo hutsa erabiltzen zelarik informazio-generoak komunikabide batean zein bestean tratatzeko orduan. Haatik, denboraren poderioz, eta ikusentzunezkoen adierazpidea aztertu ahala, sistematizazio hobea burutu da, irratigintzan erabiltzen diren generoak aztertzea egin beharreko jarduera bihurtu delarik.

Beraz, laburbilduz, Mariano Cebrián-ek (1992, 12) ongisko aipatzen duen bezala: "literaturak generoak sustatu ditu eta prentsak informazioaren antolakuntza eta sistematizazioa finkatu ditu, ikusentzunezkoen historiak tratamendu desberdinak, haziera-adarrak eta generoen zabalkundea bere egin ditu".

Genero kontzeptua aztertuz, zenbait autore berba hau definitzen saiatu dira. Francisco Abad-ek (1981, 21) aurretik eginiko lanaren erreferentzia dakarkigu gogora *género* berba aztertzerakoan: "generoa egiten da, idazten ari den testurako egitura-eredu modura lehenaldiko idazlan baten eredua hartzen denean".

Izan ere, ez da gaia generoa determinatzen duena, molde batez edo bestez erabiltzen diren literatura-kategoriak edo funtzioak baizik. Bestalde, kategoria horiek aldatuz doaz denbora zehar, garai historiko zehatz batean ageri direlarik.

6.2. GENEROEN SAILKAPENA

Irratiko informazio-generoak sailkatzeko, kazetaritza inprimatuan erabili diren sailkapen--irizpideak baliatu dituzte. Argi dago prentsa inprimatuak eragin handia izan duela ikusentzuteko hedabideetan, nahiz eta prentsan, irratian eta telebistan kontaketak ezaugarri propio eta bereizgarriak dituen.

Arturo Merayo irakasleak (1992, 175), sailkapena egin aurrez, ondoko ezaugarri hauek aipatzen ditu irratiaren izaera mugatzeko:

a) Giza ahotsaren partehartzea (zama subjektibo saihestezina daraman lokuzioa; hizlarien konnotazio dramatikoak).

b) Izkiriatuarena baino askoz semantika korapilotsuagoa daukan ahozko komunikazioaren erabilera, zeinean interpretatzeko zailak diren esamolde eta formula kolokialak sortzen baitira sarri.

c) Irrati-mezuaren izaera itzulgarria edo atzeragarria dela-eta, mikrofonotik esaten denak prentsa izkiriatuan idazten denak baino garrantzi txikiagoa eta ondorio arinagoak dituela uste izan daiteke.

d) Irratiak ez du erraztasunik ematen egintzak eta aburuak bereizteko. Prentsa izkiriatuan errekurtso ugari daude, begitik sartzen zaizkigunak, bereizketa hau egiteko (tipografia, infografia, tramak…). Irratian audio-elementu arbitrarioak erabili beharra dago, entzulearentzat ikasteko, interpretatzeko eta gogoratzeko zailagoak direnak (soinuaren iheskortasunagatik).

e) Irrati-mezuaren elementu paralinguistikoek (musika, efektuak eta isiluneak) oso osagai baloratiboak sartzen dituzte narrazioan, beren izaera akustikoagatik hagitz zirrarazkoak diren errekurtsoak.

Arturo Merayo-k egiten duen bezala, generoak sailkatzeko orduan, sei parametro erabil ditzakegu: alde batetik, egintzak, egintzak eta aburuak, eta aburuak, hau da, generoen tratamenduan egintza edo gertakarien berri ematea edo aburuak tartekatzea kontuan harturik; eta beste alde batetik, bakarrizketa- eta elkarrizketa-generoak ala genero mistoak direnak.

Dena dela, garrantzitsuena autoreak testu edo obraren bidez lortu nahi duen helburua da, hau da, molde hori eta ez besterik erabiltzeko hautua eragin duen asmoa. Horrela, hiru jarrera ditugu nagusi, informazio-generoen ezaugarri direnak, eta berauek hiru multzotan sailkatzea ahalbidetuko digutenak: adierazkorrak, erreferentzialak eta apelatiboak.

Mariano Cebrián-ek (1992) hiru multzo hauetan ondoko generoak aipatzen ditu: adierazkor eta testigantzakoen artean, editoriala, iruzkina, kritika eta kronika; erreferentzialen artean, albistea, erreportaia, txostena, dokumentala eta dokudrama; dialogiko edo apelatiboen artean, elkarrizketa, inkesta, prentsaurrekoa eta estudioko gurpil informatiboa, genero kolokialak eta eztabaidakoak; eta azkenik, entzuleen partehartze dialogikorako generoak.

Ondoren, garrantzitsuenak diren generoak aipatuko ditugu banan-banan, bakoitza zertan oinarritzen den esanez.

6.3. IRRATI-ALBISTEA

Irrati-albistearen bidez irratilariak gertakariak kontatzen ditu. Errealitatetik zenbait jazoera hautatzen ditu mikrofonoetatik esateko. Hautatze-prozesu horretan irratilariaren ideologia isla daiteke jada; hala ere, hautatzearen ondorengo kontaketan notiziak datu informatiboen adierazte objektiboan oinarritu behar du. Teun Van Dijk-ek adierazi bezala (1990), albistea errealitatean agerturiko egintza eta aburuen kontaketa hutsa eta errealista da. Hortaz, genero modura, albisteak erreferentera garamatza zuzenean.

Informazioaren oinarrizko genero honek ezaugarri bereziak ditu irratigintzan. Prentsa idatzian eta telebistan bezala, egiatasuna, berritasuna, gaurkotasuna eta interes orokorra ditu ezaugarri. Irratitik ematen den albistean, badaude kontuan hartu beharreko beste ezaugarri batzuk, zehazki, ondorengo galdetzaileak: nor?, zer?, noiz?, non?, nola? eta zergatik?

Dena dela, albistearen egitura aldatu egiten da ondoko faktoreen eraginez (Muñoz eta Gil, 1986, 65-66):

A. *Denbora:* berehalakotasuna da nagusi; azken orduan, azken unean gertatu dena da garrantzitsuena. Oraintxe gertatu eta zuzenean ematen den garrantzi erdiko jazoera bat, nagusitu egiten zaio, orain zenbait ordu eman den garrantzi handiagoko gertaerari.
Gaurkotasunaren arabera, albiste batek bere luzera eta zabalera alda ditzake.

B. *Lengoaia:* esaldi laburrak eta ulergarriak. Irratigintzan orainaldia nahiago da iragana baino. Era berean era aktiboa pasiboaren kaltetan, eta kontaketa azalpena baino areago. Berresateak zilegi dira. Albistea oso luzea baldin bada, lead-a laburtuta errepika daiteke. Lead-a albiste baten hasiera edo sarreratxoa da, informazio baten daturik garrantzitsuenek osatzen dutena.

C. *Ahotsa:* albiste hutsak idazkuntza despersonalizatua eskatzen du. Dena den, irratian, hizlariaren ahotsak elementu pertsonal eta bereizgarri baten funtzioa betetzen du. Ahotsari esker, irakurketan enfasiak, etenaldiak eta erritmo-aldaketak egin ditzakegu. Ahotsaren barruan elementu paralinguistikoak ere aurki ditzakegu.

D. *Soinu osagarriak:*

— Audio-baliabideak: musika eta doinu-boladak (neutroak eta laburrak)

— Protagonisten zein lekukoen deklarazioak.

Bestalde, irrati-albisteetan esamesak eta hizkimizkiak eta egiaztatuak ez diren sasidatu informatiboak ere agertu ohi dira. Hizkimizkia, dena den, egungo kazetaritzaren oinarria

da pentsatzen badugu giza-komunikazioaren era bat dela (Crook, 1998, 42). Irrati-albisteetan, ingelesdunek "gossip" hitza darabilte hori adierazteko, objektibotasunari eta zuzentasunari traba ipintzen diena. Eta hizkimizkia, hein batez, Europako juduek yiddishez esan ohi duten bezala, arrazismoaren parekoa da. Norberak ez daki hizkimizkia nora joango den, zertan amaituko den, eta ezin da jada berriz lortu.

Hizkimizkiena albo batera utzita, orekaren problematika ere garrantzi handikoa da, bakanka topatzen baititugu informazio-gaietan neutraltasuna ageri-agerian uzten duten berriak. Euskal Herrian, biolentzia-egoera kontutan hartuta, zailagoa omen da gertakizunak irratiz objektibotasunez kontatzea. Bertoko, Frantziako eta Espainiako irratilari askori zere pentsa eman behar lieke Tim Crook britainiarrak (1998, 41) idatzitako pasarte honek albisteak hobeto kontatzearren:

Can you have a fair-minded approach to reporting the views and actions of an IRA activist if there is a clear distinction between you and the subject according to the catch-phrase them and us?

> The news media readily report actions by the IRA in Britain as acts of terrorism. However, there are many members of the Irish Republican community in Northern Ireland who would not use the word terrorist, but speak in terms of military action, freedom fighting, fighting for the cause. Equally, there are many Catholics in Ireland who are politically republican, but are bitterly opossed to the IRA and its tactics of arguing with the bomb and the bullet instead of the ballot box. The shades of opinion in the modern State of Israel are similarly complex. You can be a Zionist and implacably opposed to occupying Palestinian territories on the West Bank.

Egiari zor zaion errespetua balerabilte hainbat irratilarik berriak egiteko orduan, albistegintza polito hobetuko litzateke.

6.3.1. Flasha

Komunikabide guztietan ezagutzen den hitz hau ingelesetik dator, hizkuntza honetan *oinaztargi* edo *distira* esan gura duelarik. Flasha albiste baten aurrerapen laburtua da; jazoera batetik ezagutzen diren lehenbiziko xehetasunen adieraztea. Gero, datu berriak jakin ahala, behar den bezala, aipatuko da albistea. Datu horiek eskuratu arte, albistearen laburpena egin behar dugu, flasha alegia. Hori dela-eta, batzuetan zalantzak sortzen dira igortzeko unean. Irratilari zuhurra ahalegindu egiten da datu guztiak egiaztatzen, posiblea ez den kasuetan maiz bazter utziz.

Irrati-flasha, albistearen azpigeneroa da, zeinari esker, jazoera baten berri berehala ematen baitugu. Muñoz-ek eta Gil-ek (1986, 66) aholkatzen diguten bezala, bistakoa denez,

flashak zuzenean emititu behar dira, eta beharrezkoa balitz, zuzenean den irratsaioa eten egin behar genuke flasha emateko (hau albistearen garrantziaren araberakoa da). Mariano Cebrián-ek albistearen aldakitzat jotzen du.

6.4. KRONIKA

José J. Muñoz eta César Gil autoreek definitu duten bezala, kronika "egileak ematen dizkion elementu formal edo literarioak dauzkan informazio garatua" da. Kronikaren oinarrian notizia bat egon daiteke, edo notizia-sorta bat, beren denbora-koinzidentziak zein etorkiak zein tematikak lotzen dituzten notiziek osatzen dutena.

Informazio hutsaren eta kazetagintza interpretatiboaren artean dago. Ez dugu ahantzi behar, datu gaurkotuak edukitzeaz gainera (informazio hutsa), kazetariak bere erara molda ditzakeela datuak. Izan ere, zilegi da albisteetan baino hiztegi aberatsagoa erabiltzea, baita xehetasun anekdotikoak edo garrantzi gutxiagokoak sartzea ere. Irratilariak bere ikusmiratik atontzen ditu datuak kronikan sartzeko.

Kronikan "sarrera" edo "lehen pasarteak" ez du zertan albistearen gaiaren laburpena izan, notizian jazotzen den bezala.

Alde batetik, estilo-malgutasuna onartzen da, eta bestetik, egokitu egin daiteke albistegi bateko notizien eta bloke edo atalen arabera. Zuzenean zein grabaturik, kronista hizlari-aurkezlearekin edo albistegiko gidariarekin gera daiteke aurretiaz, hasiera edo sarrera kolokiala egiteko, irratsaioari bizkortasuna eta gorpuztasuna-edo emateko asmoz.

Gaiari gagozkiola, kronikak mota honetakoak izan daitezke: legebiltzarretiko kronika, kronika beltza (edo gertaera-kronika), kirol kronika, zezenei buruzko kronika…

Prozedentzia edo etorkiari dagokionez, normalenak ondokoak dira: korrespontsal edo berriemaleek bidaltzen dituztenak eta "bereziki igorritako kazetariek" bidalitakoak.

Korrespontsala, leku jakin batean dagoen informatzailea da, berari dagokion eskualde zein herri zein nazioan sortzen diren albisteak jasotzeaz arduratzen dena. Behin albisteak jasoz gero, irrati-emandegira bidaltzen ditu bere ahots propioaz. Irrati gutxi dira atzerrian berriemale asko eduki ditzaketenak, diru asko balio izatearen aitzakia aipatzen ohi delarik. Eskuarki, irratiak laguntzaileez baliatzen dira eskualdeko kronistak edukitzeko.

Izan ere, iruzkin-mota hauek jarraikortasuna sortu ohi dute. Irrati-emandegiko nagusien agindupean, "igorritako kazetaria" garrantzi handiko jazoera baten berri emateko gertaera suertatu den lekura joan ohi da informatzaile. Eta hau horrela izango da, irratiak leku

horretan korrespontsalik ez duelako edo gaiaren garrantziak horrela eskatzen duelako, agentzien eta korrespontsalen lana gutxi izan daitekeelakoan.

6.5. IRUZKINA

Hasteko, diogun ezen badela irratian bakanka egiten den iruzkin-mota bat: *iruzkin editoriala*. Editoriala enpresaren jarrera ideologikoa azaltzean datza, eta autore batzuek, Mariano Cebrián-ek kasu, bereizi egiten dute editoriala iruzkinetik. Cebrián-ek (1992, 66) honakoan dakusa desberdintasuna: "editorialetik bereiziz, iruzkinak ez du jarrera bat finkatu nahi, hots, egintzak edo gertaerak direla-eta aukera bati atxiki nahi, gauzak argitu eta gertaerak azaltzeko esplikazioa eman baizik".

Hala ere, ohiko generoa dugu gaurkotasun-iruzkina; beronetan irrati-emandegiak ez du hitz egiten, egileak edo komentaristak baino.

Mariano Cebrián-ek (1992, 65-66) ondokoan jartzen du genero honen oinarria: "informazioa lantzen den tokitik hedatzen diren egintza konkretuen eta egoera orokorren analisi eta interpretazioan". Eta hauxe eransten du M. Cebrián irakasleak: "gaian aditua den espezialistak egina eta aurkeztua delarik". Beraz, bistan da aburuzko generoa dela iruzkina. Eta genero honetan lau egintza nagusi burutu ohi dira: interpretazioa, argitzea, esplikazioa eta kritika.

Iruzkina sortze-lana denez gero, ezin daiteke bere egiturari buruzko formula zehatzik eman. Esan dezakegun gauza bakarra ondokoa da: elementu azalgarri eta narratiboak, interpretazioa eta ondorioak dauzkan hitzaldi taxutua da iruzkina. Bestela esanda, irrati-iruzkina, kazetariak edo hizlariak komunikatzen duen kritika baloratiboa edo interpretazio dokumentatua da.

Gaur egunean, komentarista iruzkinaren egilea bera da, bere testua irakurriko duena. Beste garai batekoa da artikulugile edo informatzaile ospetsuak idazten zuenekoa, gero, hizlari batek irakurria izan zedin.

Testuaren intentzioaren arabera, iruzkina honako sail hauetan sailka dezakegu:

A. *Kritikoa:* gizarteko egintzen eta portaeren balorazioa egiten denean, bai alde agertzeko, bai aurka egiteko.

B. *Azalgarria:* jazoera edo albiste baten zergatiaren azaltzearen enfasia edo tonu didaktikoa nagusitzen denean.

C. *Interpretagarria:* egiaren "beste aldea" bilatzen denean, iruzkintzen diren gertaeren alde izkutuak interpretatzen saiatzen denean.

D. *Induktiboa:* entzulearen senari, sentimenduei edo interesei eragiten diena, entzuleriaren gogoa bideratzeko asmoz egiten dena, alegia.

Gaurkotasuna duen iruzkina egiteko orduan, Muñoz eta Gil autoreek (1986, 68-69) honako ohar hauek gogoan edukitzea aholkatzen digute:

1. Iruzkingilearen ikuspuntua dela argiro azaltzea, honetarako bere izen-deiturak edo goitizena aipatu behar ditugularik.

2. Aurreitzirik eza. Demagogiari, manikeismoari, baliabide errazei eta topiko etniko eta moralei ez diegu tokirik eman behar.

3. Irizpide-independentzia.

4. Bokantza edo komunikazio-indarra, zeinek irratian aipatzen den gaiaren ezagueraekin eta gai horren planteamenduaren egiazaletasunarekin zerikusia baitu.

6.6. TXOSTENA

Orain dela gutxi azpigenero modura izan zen joa, lehenago zenbait albiste nagusi osatzeko datu-bilketa hutsa baino ez zelarik.

Gaur egun, kazetagintza azalgarritik sortua den irrati-txostenak estilo inpertsonala dauka eta ez du inprobisaziorik onartzen.

Bi modalitate ditu: zehazpen-txostena eta iker-txostena.

Zehazpen-txostena garrantzizko jazoera bat osatzen, esplikatzen eta garatzen duten datuen erabileran oinarritzen da. Albiste zientifiko eta ekonomikoak osatzeko erabili ohi da. Hala ere, beste zenbait albiste-motarekin ere erabil dezakegu txostena; adibidez, sukaldaritza eta politikazko berriekin. Albistea pertsonalitate bati buruzkoa baldin bada, oinarriak laburpen biografikoa izan behar du. Gainerako kasuetan, elementu erkagarriak, kronologikoak, estadistikoak eta dokumentalak dauzka. Audio-dokumentuen sartzea ontzat ematen da. Txostenak ondo burutzeko, behar beharrezkoak dira fonoteka eta artxibategia.

Iker-txostena "aldizkari zirraragarri edo sentsazionalistetatik" sortu zen, geroago, "salaketa-aldizkariekin" garatu, eta ondoren, egunkarietara pasatu zen. Gaur egun apurka-apurka irratigintzan ere sartua da. Gai sozialak eta politikoak ikutzen ditu, honetarako gaurkotasun

luzatua duten gaiez baliatzen delarik. Esaterako, negozio eta finantzen puntu ilunen zergatia edo nola suertatu diren aztertzea; edo politikaren munduan murgiltzea, gizartearen martxan zerikusirik duten pertsonak nor diren jakiteko; etab. Ikerketa zaila eta geldoa izaten da. Informazio-mota hau, sarritan, entrepresetako buruek edo politikari eta parlamentariek ematen dituzten datuei esker lortzen da. Honexegatik, komenigarria izaten da istorio errazak eta frogatu gabeko datuak pasatzen dizkigutenean mesfidantza edukitzea.

Txostena ez da erreportaiarekin zertan nahastu. Elementu komunak ukan arren, zenbait desberdintasun badituzte:

* Txostenean linealitatea nagusitzen da egintzen kaltetan.

* Txosteneko lengoaia despertsonalizatua izan behar da, egilearen protagonismoa azaldu barik.

* Muntaiak ere desberdinak dira.

6.7. ELKARRIZKETA

Elkarrizketa aurrez aurre egiten den hizketa da, bi pertsonaren artekoa, zeinean interesgarriak diren datuak esaten baitira. Robert McLeish-ek (1985, 39) dioen bezala, elkarrizketak helburu argia dauka: "elkarrizketatuaren beraren hitzen bidez gai jakin bati buruzko egintzak, arrazoiak eta iritziak azaltzea, entzuleak elkarrizketatua esaten ari denaz ondorioren bat irits dezan".

Hizketatzaileak elkarrizketaren pauta markatzen du, hizketatuagandik erregimen komunikatiborik handiena lortzeko asmoz. Hala ere, erritmoa markatzeak ez du esan nahi, elkarrizketatzaileak behin eta berriro iruzkinak egin behar dituenik, elkarrizketaren pertsonaia nagusia bera bilakatuz. Sasibizkorrak eta erasokorrak diren horrelako elkarrizketatzaileek beren handinahikeria eta orojakituriarekin entzuleen gorroto eta ukazioa sor dezakete.

Ortiz eta Marchamalo autoreek (1994, 98) bi elkarrizketa-mota aipatzen dituzte: gaurkotasunezkoak eta pertsonalak. Lehenbizikoetan, elkarrizketatuak bere iritzia azaltzen du; bigarrenetan, galdetegia erabili ordez hizketaren bidez datu pertsonalak lortzea da xedea, pertsonaia elkarrizketatua hobeto ezagutzeko, bere psikologia edo izaera agerian uzteko. Bestalde, elkarrizketak hiru motatan sailka ditzakegu, Muñoz eta Gil autoreek (1986) egiten duten bezala:

6.7.1. Pertsonaia-elkarrizketa

Elkarrizketa hauetan aintzakotzat hartzen den lehenbiziko faktorea hizketatuaren figura da eta ez gaiaren mamia. Eskuarki, irratsaio entretenigarrietan eta mistoetan izaten du kabida. Pertsonaia-elkarrizketa hauen artean bi talde egin ditzakegu: pertsonalitatekoak eta deklaraziodunak.

6.7.1.1. Pertsonalitatekoak

Elkarrizketaren xedea hizketatua bera denean, honek duen edozein fazetatan pertsonalitate-elkarrizketak hiru modalitate ditu:

A1. *Erretratua*: kazetaria mikrofonoaz baliatzen da, pintzel bat balitz bezala hizketatuaren irudia ahalik eta ondoen pintatzeko. Honetarako nahiko garrantzitsua da hizketatzaile eta hizketatuaren artean konfiantza-klima sortzea.

A2. *Biografikoa*: kasu honetan elkarrizketaren helburua pertsonaiaren bizitza kontatzea da, bere oroitzapenak eta pasadizoak hizketatuaren beraren ahotsean entzuten saiatzen garelarik, eta ez hizketatzailearen ahotsean. Nolanahi dela, hizketatzaileak erreferentzia batzuk ere aipa ditzake (data garrantzitsuak, gertaera historikoak etab.), hizketatuari hari narratiboa gogorarazteko.

A3. *Psikologikoa*: argumentu tematikorik ez duten galdera laburretan oinarritzen den itaunketa da, test psikoanalitikoekin gertatzen den antzera. Batzuetan hizketatuak ganoragabeko galderen aurrean zer-nolako erreakzioak dituen ikustea garrantzitsuagoa da, erantzunetatik sortzen diren datuak entzutea baino. Elkarrizketa-mota hau puri-purian egon zen EEBBetan berrogeiko hamarkadan, geroago Europara pasatzeko.

6.7.1.2. Deklaraziodunak

Elkarrizketa hizketatuaren nortasunari begira egiten denean, hizketatuaren ospea kontuan hartzen delarik; baina elkarrizketa ez da bere pertsonalitateari buruzkoa, bestelako kontu batzuei buruzkoa baizik. Bi modalitate ditu:

B1. *Denborapasatzekoak*: entretenigarriak; elkarrizketa luzeak eta azalekoak, entretenitzeko asmoz eginak.

B2. *Momentukoak*: hizketatuari bere aburua eta ikuspuntua eskatzen zaio interes orokorra sortzen duten gertaerei buruz, eta ez ezinbestez bere jarduerari dagozkion gaiei buruz.

6.7.1.2. Gaurkotasun-elkarrizketa

Elkarrizketaren pizgarri edo bultzagailua, ezagutzen den informazio edo albiste baten bilaketa da. Gaurkotasun informatiboa duen gai batekin zerikusia duten pertsonaiak elkarrizketatzen dira: atentatu bateko lekukoak, gai batean adituak direnak etab. Oso komenigarria da jendearen manifestazioak "*in situ*" hartzea, baita hainbat arinen hartzea ere.

6.7.2. Aburu-elkarrizketa

Aburu publikoa delakoa zertan dagoen jakitearren-edo, gizatalde bateko zenbait kideri edo elkarrizketako protagonistari itaunketa egiten zaionean, bere aburuak edo iritziak eman ditzan.

Aburu-elkarrizketak honako aldaki hauek izan ditzake:

* Kolokioa: entzuleek eta hizketatzaileak galderak egiten dizkiote pertsona bati; entzuleak dei telefonikoez baliatzen dira.

* Mahaingurua: interes publikoa duen gai bat aztertzeko pertsona kualifikatu edo adituekin dugun hizketa.

* Eztabaida: aburu desberdinen azaltzea. Partehartzaileek eztabaidak egiten dituzte beren aburu eta jarrera ideologikoak konfrontatuz, galdera-erantzunen formula erabili ordez.

  Aipatutako hiru aldaki hauetan kazetariak moderatzailearena egiten du, elkarrizketa gidatzen duelarik.

* Ikerraldi edo sondeoa: gaurkotasuna duen gertaera edo arazo bati buruzko informazioa jasotzeko, afektaturik dauden pertsonei itaunak egiten zaizkienean.

* Inkesta: galdera batzuk prestatzen dira, berdinak hizketatu guztientzat; hizketatuak kolektibitate bateko ordezkariak dira eta beren erantzunen bidez aburu publikoaren egoera zein den jakin nahi da. Denbora- eta teknika-arrazoiak direla-eta, irrati-inkestak ez du zertan inkesta soziologikoko zehaztasunez beteta egon. Hala ere, laginketa zabala egiten saiatu behar dugu (errepresentatiboa izan behar da, noski). Galderen planteamendua argia eta zuzena izan behar da.

Aburuaren esparruan sarturik, mahainguruan antolatzen diren tertuliak puri-purian daude Hego Euskal Herriko irrati-estazioetan. Espainian, arrakasta handia lortu zuen SER irratikateak 1984an uhinetaratu zuen *La Trastienda* izeneko tertuliak, eduki politikoak jorratu zituen lehenbiziko irrati-tertulia espainiarrak; baina denboraldi bat baino ez zuen iraun (Toral, 1997, 72). *Talk Show* formatuan horrenbeste ugaldu diren tertuliak Euskal Autonomi Erkidegoko irrati publikoan ere errotu dira entzunaldi zabalena lortzen den ordutegian.

6.7.3. Genero honi buruzko oharkizun praktikoak

Hona hemen Muñoz-ek eta Gil-ek (1986) elkarrizketak ongi eta zuzen egiteko ematen dizkiguten aholkuak:

1. Elkarrizketaren edozein modalitatetan jendea aurrez aurre egon dadin saiatu behar dugu. Denbora nahikoa badago eta protagonista gugandik hurbil badago, askoz hobea da estudiora eramatea, elkarrizketa zuzenean egiteko, bere etxean edo kalean grabatu ordez. Bere presentzia fisikoak kalitatea aportatzen dio grabaketari, eta entzuleak eskertu egiten du hori.

2. Elkarrizketa batean interes duena hizketatuak dioena da, eta ez guk kazetariok dioguna.

3. Pertsona batzuek jazarzaletasuna eta ausarkeria nahastu ohi dituzte. Elkarrizketa ez da jarraituzko borroka bat izan behar, kazetaria pixka bat jazarzale izatea ona den arren. Bestalde, lausengu eta balaku asko egitea, morrokokeria bezain txarra izan daiteke.

4. Hizketatzaile trebeak ondo daki bere lengoaia egoera bakoitzari egokitzen. Eragozpenik handiena izan bide liteke, aldi berean gure mezua eskolagabe bati eta jakitun bati ulerraraztea.

5. Aipatzen den gaia menperatu ezik, funts gabeko galderak egin genitzake. Itaunketa prestatzeko behar den dokumentazioa lortu behar dugu. Elkarrizketa aurrera joan ahala, galderen ordena alda daiteke edo argumentuak aldatu hizketatuaren hitzen arabera.

6. Oso inpresio kaskarra uzten du pertsonaiaren izena ahazten duen hizketatzaileak. Elkarrizketa hasi aurretik, izen-deiturak, jaioterria edo bestelako datu oinarrizkoak galdetzen zaizkio hizketatuari.

7. Mikrofonoak mahai gainean egonez gero, mahaian kolperik ez egiteko eskatuko zaie gonbidatuei, eta paperak ez higitzeko erregutu ere; horrela ez baita zaratarik egongo. Mikrofonoak portatilak edo eramatekoak badira, eskuz ez ikutzeko esango zaie.

8. Komenigarria da hizketatuaren hitzak ez "zapaltzea", erantzun eta galderen artean isilunetxo bat utzi behar dugularik; era honetan, mozketak eta lotzeak edo enpalmeak errazago egingo ditugu.

9. Ikerraldien (zundaketa) eta inkesten grabaketetan, galderak behin bakarrik esaten dira, jarraian erantzun guztiak ipintzen ditugularik.

6.8. IRRATI-ERREPORTAIA

Irratiak aukera asko eskaintzen du informazio-genero hau lantzeko. Erreportaia-generorik aberatsena da, zeren beronetan gainontzeko generoak erabil baititzakegu, audio-dokumentuak ere sartuz. Angel Faus-ek (1981, 264) dioenaren arabera, "genero malgutzat jotzen da, lengoaia aldetik aberatsa, zuzen burutzen bada oso eragin handikoa, eta entzuleek atsegin dutena".

Fikziozko erreportaiak egin daitezke edo historikoak edo dramatizatuak, baina, eskuarki, erreportaiak daukan arlorik nagusiena gaurkotasun-informazioarena da. Gaurkotasuna puntuala, berehalakoa edo denboran luzatua izan daiteke. Badaude bat-bateko edo berehalako gaiak, eta baita gaurkotasun iraunkorrekoak ere. Hauek guztiak izan daitezke erreportaian ikutzekoak.

Irrati-erreportaiak honako elementu hauek dauzka:

a. Informazio lineala.

b. Giroa.

c. Egintza.

d. Lekukotasunak.

e. Ilustrazioak.

f. Errealizazioa edota muntaia.

6.9. IRRATI-DOKUMENTALAK

Dokumentala genero erreferentziala da. Berau burutzeko zenbait pauso eman behar dira; laburki esateko, dokumentalak egiteko prozesuan ondo zaindu beharreko arloak, ikerkuntza, planteamendua eta ekoizpena dira.

Aipaturiko lehenbiziko bi pausoetan, ikerkuntzan eta planteamenduan alegia, bost zeregin garrantzitsu sartuko genituzke:

1. Adituei kontsulta egin, kazetetatiko ebakiak prestatu, testu-liburuak eta entziklopediak kontsultatu, etab.

2. Kontaktuak bilatu eta egin, oinarrizko informazioa biltzeko.

3. Saioaren linea orokorrak zehaztu eta ezarri.

4. Artxiboko audio-materiala aukeratu (iruzkinak, mintzaldiak…).

5. Musika egokia duten diskoak bilatu (baita audio-efektuak dituztenak ere).

6.9.1 Dokumentalaren ekoizpena

Elkarrizketak eta sintoniak grabatu ondoren, ekoizteko prozesuan egin behar den lehenbiziko urratsa hauxe da: lorturiko material guztia aditzea (oharrak hartuz, jakina).

Ondoren ordena edo taxuketa bat ezartzen da. Fase honetan kendu egiten da ezabatu behar den materiala, balio ez diguna. Grabaketa guztien parte erabilgarriak bildu egiten dira, honetarako beren ordena zuzen eta zehatzean kopiatzen direlarik. Bai musika, bai diskoko audio-efektuak, bai estudiotiko partehartzeak, hobe da horiek guztiak geroago sartzea. Zintako partehartze guztiak bata bestetik aldenduta edo bereizirik geratzen dira, honetarako *baliogabeko zinta-zatitxo* bana ipintzen dugularik.

Behin partehartze guztiak aurretiaz erabakitako ordenan bildu eta gero, muntaia-lan korapilatsuago bati ekin behar diogu (txolarte luzeegiak ezabatu, etab.). Honez gero saioaren iraupenari buruzko ideia bat eduki dezakegu. Azkenik, nahasketa egiten da, eta zintako sekuentziei diskoak edo estudiotiko loturak (une egokian eta gidoiaz bat) gainezartzen zaizkie, hau guztia bigarren zinta batean grabatuz. Garrantzitsua da egiten diren okerkuntzak (teknikoak zein ahozkoak) apuntatzea eta gero zuzentzea.

6.9.2. Dokumentalaren narrazioa

Dokumentala gaurkotasunezko erreportaiaren aldakia da. Genero informatibo honetan irratilariarentzat iraunkorra dena da inportantea. Erreportaian gertaeren denboralitatea eta iragankortasuna narratzen da; dokumentala, ostera, "errealitatean sartzen da ezaguera orokorragoa eta iraunkorragoa eduki dezagun" (Cebrián, 1992, 218). Horren kariaz, behin baino gehiagotan errepika daiteke dokumentalen emankizuna, entzuleak beti aurkitu ohi baititu aspektu berriak.

Irrati-dokumentalak narraziodunak zein narraziobakoak izan daitezke. Teknika eznarratiboek elkarrizketatzailearen galderak ezabatzea dakarte, elkarrizketatuaren erantzunak bakarrik erabiltzen direlarik. Narrazioa estudioko lotura batek egin dezake, sekuentzia guztiak bildutakoan, edo grabaturik egon daiteke elkarrizketa bakoitza egin den garaian. Elkarrizketako jazoeretako soinu errealek eta musika egokiak loturak edo enlatzeak ezartzen laguntzen dute, askotan narratzailearen ondorengo iruzkinik gabe.

Bukatzeko, jar ditzagun dokumentala burutzeko egin beharreko urratsak: 1. Ikerkuntza. 2. Kontaktuen planifikazioa. 3. Gaur-eguneko gaiei buruzko elkarrizketak eta grabaketak. 4. Audio-materiala prestatzea (musika, soinu-efektuak…). 5. Materialaren aditzea, aukera eginez. 6. Muntaia. 7. Nahasketa eta grabaketa.

6.10. IRAKURGAIA

Atal honetako irakurgaira Ricardo M. Haye-ren berbak (1995, 83-84) dakartzagu, *genero* eta *formatu* kontzeptuak hobeto uler ditzagun, elkarrekin nahas ez ditzagun. Irakasle eta irratilari argentinarrak, testua bukatzeko, formatuen zuhaitz genealogiko argigarria dakarkigu.

Aintzat hartzeko zenbait gauza

Irratiz igortzen diren mezu desberdinen artean generokako partiketa propioa egin ohi dugu. Hiru bereizten ditugu: a) informatiboa; b) interpretatiboa eta iritzizkoa, eta c) dibertimenduzkoa.


Pentsamendu kontzeptuala aintzakotzar hartuta finkatzen ditugu genero horiek. Edukietatik abiatuz, baina baita formaren aldetik ere, badira batzuk, zenbait predikazio-prozedurari *genero* izena ematen dietenak: eduki deskriptibo, narratibo eta argudiakorrari, hain zuzen. Ikuspuntu horretatik formari dagozkion arazoak tratatuko ditugu ekoizpen- edo produkzio-egitura batzuk baliatuz (*formatu* izenaz ere ezagunak).

Aurkezten ditugunak ez dira egitura ahalgarri guztiak, ezta formatu itxi eta aldaezinak ere. Proposamen zurrunak egiteari muzin egiten diogu, zeren uste baitugu formatuek gure zerbitzuan egon behar dutela, gure mezuaren alde, helburu eta entzuleriaren soslaiaren alde edozer egin nahi izanda ere. Izaera erabilgarria daukatela-eta, nahastu egin ahal dira eta ekoizkin berriak sortu, guk horren behar edo premia izanez gero.

Formatuak ez dira izan behar postulatu normatibo eta zurrunen emaitza. Beti berdinak diren arau kristalizatuak egon ordez, irrati bidezko komunikazioan entzuleriaren eta irratibidearen arteko erlazioko mekanismo konplexuak daude. Harreman horiek interes, nahi, eta ahalbideetan oinarritzen dira, baita bilaketa/eskaintza eta beharrak/proposamenak bezalako ardatzetan.

Analisi edo produkzio-irizpide horrek "…beharra dago" esaldi taxatiboa uxatzeko joera du, bigunagoa den "…izan daiteke" horren faboretan.

Autore askoren idazlanak formatu bidezko produkzioan oinarritu ziren. Errealizazioaren aspektu instrumentala oso erabilia denez, larregizkoa izan daiteke originalak izateko gutizia…



Linguistikaren alorretik datozen predikazio-prozeduren eta komunikazioaren esparrukoak diren irrati-generoen artean zenbait baliokidetza topatzen ditugu, marra eten horizontalen bidez agertzen direnak. Argitu beharra dago, baliokidetza horiek ez dituz-

tela baztertzen egon daitezkeen erlazio gurutzatuak. Adibidez, dibertimenduzkoa den irrati-generoaren barruan erraza da elementu deskriptibo batzuk aurkitzea. Hala ere, goitik beherako erlazioak gehiago arduratzen gaitu, zeren formatuekiko menpekotasunak eta atxikimenduak finkatzen baititu, kategoria nagusiekikoak —generoekikoak— direnak.

6.11. ERREFERENTZIAK

Abad Nebot, Francisco. *Géneros literarios*. Bartzelona: Salvat, 1981.

Cebrián Herreros, Mariano. *Géneros informativos audiovisuales*. Madril: Ciencia 3 Distribución, 1992.

Crook, Tim. *Internacional Radio Journalism. History, theoy and practice*. Londres: Routledge, 1998.

Faus Belau, Angel. "Géneros informativos en radio" in *La radio. Introducción a un medio desconocido*. Madril: Latina, 1981, 245-300 orr.

Gargurevich, Juan. *Géneros periodísticos*. Quito: Ciespal, 1982.

Haye, Ricardo M. *Hacia una nueva radio*. Buenos Aires: Paidós, 1995.

Martínez Albertos, José Luis. *Redacción periodística: los estilos y los géneros en la prensa escrita*. Bartzelona: ATE, 1974.

McLeish, Robert. *Técnicas de creación y realización en radio*. Madril: IORTV, 1985.

Muñoz José J. eta Gil César. "Los géneros informativos de radio" in *La radio: teoría y práctica.* Madril: Instituto Oficial de Radiotelevisión, 1986[1], 1984[2].

Ortiz Miguel Angel & Marchamalo Jesús. *Técnicas de comunicación en radio. La realización radiofónica*. Bartzelona: Paidós, 1994.

Toral Madariaga, Gotzon. *Las tertulias de la radio. La Linterna: análisis de un modelo*. Bilbo: EHU, 1997.

Van Dijk, Teun. *La noticia como discurso. Comprensión, estructura y producción de la información*. Bartzelona: Paidós, 1990.

7. ENTZULERIA ETA AUDIENTZIA

7.1. IRRATI-ENTZULERIARI BURUZKO KONTZEPTUAK

Euskal hizkuntzan hitz bat baino gehiago erabili behar ditugu gaztelaniazko edo frantsesezko *audiencia/audience* hitzen bidez adieraz daitezkeen esangurak geure egiteko. Alde batetik, *entzule-indizea* edo *entzuleria* berbak darabiltzagu euskaraz honako hau adierazteko: hedabideen mezuak jasotzen dituen entzule-kopurua. Bi horiez gain, *entzule-kopuru* hitz elkartua ere balia dezakegu kontzeptu hori aditzen emateko. Baina, batzuetan *audiencia/audience* hitza beste hau adierazteko ere erabili ohi da erdaraz: "difusión o impacto de un mensaje" (Martínez de Sousa, 1992, 57), "mezu baten inpaktua, hedapena edo arrakasta", alegia. Kasu horretan, euskaraz *audientzia* hitza erabiltzen dugu. Beraz, dela egintza, dela kopuru edo indizea, euskaraz ez dugu zertan beti hitz berbera (audientzia) erabili, erdaraz ele bakarraz erabiltzen diren kontzeptuak adierazteko.

Arturo Merayo-k (1992, 150) *audientzia* kontzeptuari emandako definizio osatua aintzat hartzea merezi du: "irrati-estazioko audientzia erlazio bat da —entzuketaren zenbatasunari dagokiona—, denbora jakin batez estazioak hedatzen duen irrati-ekoizkin baten edo batzuen eta horrelako mezuak jasotzen dituzten jasotzaile kolektibo (etxekoak) zein indibidual, heterogeneo, sakabanatu, aldakor eta anonimoen artean gertatzen dena".

Ikus ditzagun normalean erabiltzen diren kontzeptuak, entzuleriari buruzkoak direnak, Martínez de Sousa (1992) eta Muñoz eta Gil (1986) autoreei segituz. Entzuleriaren esangura arruntaz hasiko gara:

a) Entzuleria: irrati-estazioek igorritako mezuak jasotzeko eran dauden entzule guztiak.

b) Entzuleria potentziala: irratiaren kasuan, komunikabideek igorritako soinua jaso dezaketenak; irrati-emandegiaren uhinak heltzen diren eskualde batean bizi eta hargailua eskueran duten pertsona- edo entzule-kopurua litzateke.

c) Egiazko entzuleria (Abraham Moles-en arabera "audientzia netoa"): komunikabide baten edo batzuen bidez, mezu bat behin gutxienez jaso duten entzuleen kopuru osoa.

d) Entzuleria espezifikoa: irratsaio edo irrati-estazio jakin batetiko mezuak jaso edo jasotzen dituzten pertsona guztiak. Gogora dezagun espezifizitateak edo mezuen berezitzeak biltze-faktorea areagotzen duela.

e) Audientzia erabilgarria: entzuleria espezifikoaren partea, zeinari mezua doakion. Publizitatearen kasuan, esaterako, gurpil-marka bati buruzko iragarki baten entzuleria, ibilgailua duten eta merkataritza-mezu hori jasotzen duten pertsona guztiek osatzen dute.

f) Entzuleria bikoiztua: komunikabide desberdinetatik mezu bera jaso duten entzule guztiak.

g) Entzuleria metatua: hedabide edo bitarteko berdinetik mezu bera (errepikatuz edo elkarren ondoko emisioak eginez) jasotzen duten pertsonak.

h) Auditorioa: une zehatz eta jakin batean irrati-emanaldiari darraikion entzuleria efektiboa (edo egiazko entzuleriaren partea).

i) Entzuleria aktiboa: irratsaio jakin batean parte hartzen duten entzuleak, *feed-back* delakoa burutzen dutenak.

J) Helburu-entzuleria (*target audience*): John Haslings-ek esaten digun bezala (1980, 93), helburu-entzuleria entzule modura iritsi edo atxiki nahi ditugun pertsonak dira. Irratibidean lehiakortasun handia dagoenez, kontzeptu hau puri-purian dago; gainera, helburu-entzuleriak eragin handia dauka irrati-estazioak dituen edo eduki di-tzakeen iragarleengan eta beren ekoizkinen salmentetan.

7.2. IRRATI-ENTZULEEN ADIALDIA

Lehenbizi *entzun* zer den esan behar dugu eta *aditu* aditzarekin erkatu, Euskal Herriko herritar askorentzat hitz baliokide hutsak dira-eta. *Entzutea* ondokoa da: irrati-mezuak jasotzeko prest egotea; hots, irratitik uhinetaratzen den soinuaren jasotze fisikoari gagozkio.

Entzulearen interesaren eta giroko gorabeheren arabera, adialdia ez da beti berdina izaten, eta, beraz, ez dugu gogaldi berdina mezu guztien aurrean.

Hiztegian *entzun* eta *aditu* kontzeptuak honela azaltzen dira:

- **Entzun**: soinua sentitu (entzumenez soinuak jaso) entzumenaren bidez sumatu.

- **Aditu**: esaten denaz jabetu (*ezentzun egin badu ere, ongi aditu du*), ulertu.

Horren arabera, adialdia eta entzunaldia bereiz ditzakegu:

1. Entzunaldia: mezuak arreta berezirik gabe jasotzen direnean. Jakitunek diotenez "arreta" pasiboa gerta daiteke, zeren eta ahalgarri baita irakurtzea, gidatzea, etxeko lanak egitea etab., musika, albisteak edo publizitate-mezuak entzunez. Izan ere, egunean zehar eta zenbait irratsaiotan arreta gabeko uneak gertatzen dira.

2. Adialdi aktiboa edo iraunkorra: irratsaio batean interesaturik dauden entzuleena. Entzuleek, beraiek nahita, arreta mantentzen dute. Adialdi-mota hau irratsaio berezituetakoa izaten da (kultur irratsaioetakoa adibidez); ez da nahastu behar adialdi pasiboan gertatzen diren noizbehinkako arreta-uneekin.

7.3. IRRATI-ENTZULERIAREN EZAUGARRIAK

Irratiko komunikazio-prozesuan parte hartzen duten elementuen artean gutxien ezagutzen dena da entzuleria. Irratian, masa-audientziatik taldeen audientziara pasatu gara, eta horrexek eragin du audientzia-azterketa hobeak egin behar izana.

Gaur egun, teknikari esker ahalgarri da jakitea, irrati-emandegi batek une jakin batean dituen entzuleak zenbat diren; horretarako detektagailu elektroniko sofistikatuak erabiltzen dira. Eta aparatu horien bitartez lortutako kopuruak direla-eta, irratia aztertzen dutenek honako ondorio hau atera dute: honez gero ezin da irratia masa-fenomenotzat jo, kalitatea, estazioen orientabidea eta irratsaioen edukiak garrantzitsuagoak diren bitartekotzat baizik. Irratibidean zenbatasunak gero eta axola txikiagoa dauka.

Egia da komunikazio-enpresa gehienek entzule asko berenganatzea dutela helburu. Zenbatasunari lehentasuna emateko joera hau areagotu egiten da enpresek problema ekonomikoak dituztenean, publizitatearen menpean daudenean alegia (publizitate gehiago = entzule gehiago = diru gehiago). Hala ere, iruzkindu berri dudan entzuleriaren fragmentazio progresiboaren aurka doa joera hori. Beraz, masa-audientziaren kontzeptua kolokan jarri da, ia aho batez.

George Hills-ek orain hogei bat urte aurresan zuen irratiaren talde-audientzia, eta gaur egun oso jende gutxik jartzen du zalantzan.

Nolanahi dela, entzuleria arakatu baino lehen, zenbait tasun edo kualitate hartu behar ditugu aintzakotzat (Muñoz eta Gil, 1986):

A. Hurbiltasuna

Irratitik ematen den komunikazioa, pertsonen arteko komunikazioarekin antzik handiena daukana da. Emisore eta hartzailearen arteko bitartekoek ia-ia ez dute ezer aldatzen mezuen aurkezpena: hitza, mintzatzen dena, irrati-aparatua dagoen tokian balego bezala heltzen da irrati-entzulearen belarrietara. Honexegatik esaten da irratia komunikabide beroa dela. Askok diotenez, irratia masa-komunikabideetako intimoena da. Stephen Hearst-ek (BBCko 3. programako zuzendaria) zioenez, hauxe da irratiaren zioa: pertsona bat, bi edo hiru, mikrofono baten aurrean, irrati-aparatuaren ondoan dagoen bati, biri edo hiru pertsonari zuzentzea.

Baina berotasun hori ez da aldebakarrekoa, konpartitua baizik. Telebistan lan egiten duten irrati-profesionalek ondotxo dakite irratigintzan hurbilago sentitzen dela entzuleen presentzia.

Eta irratiaren hurbiltasunaz batera, irratiaren laguntasun-funtzioa ere aipatu behar da. Irratiak lagundu egiten du, konpainia ematen du. Funtzio horren bidez bakartasuna saihesten dugu, inkomunikazio pertsonala nagusitu den mundu honetan.

Bestalde, edukiak hurbil egoteak ere mesede egiten dio hurbiltasun-funtzio honi, eta horrela, irrati-estazio lokalak lotuago agertzen dira beren entzuleekin, zeren haien mezuek interes handiagoa sortzen baitiete.

B. Aldakortasuna

Irrati-entzulea ez da batere kontserbadorea, beste medio bateko entzuleekin konparatuz gero. Irratiak daukan entzuleria potentziala nahiko aldakorra izaten da, honen zioak honako hauek direlarik:

1. Zabaltze-funtzioaren lehentasuna: komunikabide kolektiboek hiru funtzio dituzte:

   1.1. Bitartekoa izatearena: igorlea eta hartzailea gogo-elkartze sentsorialean jartzea, alegia.

   1.2. Euste-funtzioa: mezua kontserbatzen dute eta baita eraman ere.

1.3. Zabaltze-funtzioa: mezuaren ibiltzea eta biderkatzea gertatzen denean. Luis Nuñez Ladevez-en ustez, azken funtzio honi esker irratibideak iraunkorra ez den kontaktua manten dezake iraunkorra ez den entzuleriarekin.

2. Sinpletasun teknikoa: irrati-aparatua piztea zein itzaltzea, uhinez eta frekuentziaz aldatzea, denak oso operazio edo eragiketa errazak eta arinak dira.

3. Eskaintzaren anizkuntasuna bandetan: irrati-kanalen kopurua askoz handiagoa da telebistaren esparrukoa baino. Entzuleak ondo daki diala apurtxo bat higituz gero aukera asko dituela nahi duen irratsaioa entzuteko, eta hau, aparatua oso potentea ez den arren. Gainera, eskaintza erdibiturik ageri da, bi banda nagusi baititugu: UE (Uhin Ertaina) eta FM (Frekuentzia Modulatua). Azken hamabost urteetan batean eta bestean izandako entzule-kopuruak aldakorrak izan dira, joera FMko estazioen irratsaioak entzutearen aldekoa izanik. Euskal Autonomi Erkidegoan, esaterako, honako entzule-indizeak eduki ditugu 1984tik aurrera, CIES enpresak (1999, 7) egindako azterketen arabera (urtez urte eta milaka zenbatuta):

	1984	1985	1987	1988	1989	1990	1992	1996	1997	1998
UE	634	712	573	504	438	407	376	445	431	428
FM	501	425	510	553	658	686	730	853	860	851

Nafarroari dagokionez, CIESek antzeko bilakaera igarri du, bi bandetako entzule-indizeen artean, hau da, FMren gorakada eta UEren beherakada (CIES, 1999, 7):

	1985	1987	1988	1989	1990	1992	1995	1996	1997	1998
UE	132	121	103	99	110	102	60	88	87	79
FM	99	142	145	142	127	135	168	196	194	192

4. Jarduera konpartitua: irratia, beste edozer egiten den bitartean entzun eta adi daiteke. Egia esan, entzule askok, lan egiten edo estudiatzen edo bidaiatzen duten bitartean entzuten dute irratia. Adialdia moztua izan daiteke, adibidez, etxekoandrea irratia duen lekutik irteten denean, beste zerbait egiteko.

5. Urtaroei dagozkien faktoreak: irratibidea da audientzia-indizearen aldaketa edo gorabehera gehien ikusten deneko hedabidea (Zufia, 1990, 213). Jendearen ohiturak eta bizi den herrialdearen klimatologia faktore garrantzitsuak dira entzule-indizeak neurtzeko orduan. Esaterako, orain zenbait urte egindako ikerketa batean, Montecarlo Irratiak udaberrian %63ko indizea izan zuen, baina udazkenean indize hori %54era jaitsi zen. Hortaz, turismoa eta irrati-estazioa dagoen eskualdea direla-eta, entzuleen kopuruek gorabeherak izaten dituzte.

6. Gizakien higikortasuna: nazio atzeratuetan lekualdaketak eskualde mortuetatik eta herrietatik hirigune handietara egiten dira. Nazio garatuetan, aldiz, jendea hiritzarretatik ingurualdeetara joaten da. Datu bat aipatzearren, esan dezagun Estatu Batuetan 5 urteko denboraldian bost amerikarretatik bi lekuz aldatu zirela (%40) 80ko hamarkadan. Horrek esan gura du, irrati-estazioek ezin dutela entzule fidelekin kontatu; hori dela-eta, irratien arteko lehia handia dago entzule berriak lortzeko.

7. Faktore kronologikoak: asteko egunen araberako zundaketek edo azterketek entzule-kopuru desberdinak adierazten dizkigute. Estatu espainiarrean, esaterako, astelehen eta ostirala bitartean oszilazio gutxi egon ohi da; jaiegunetan, aldiz, jaiste nabaria gertatzen da. Estatu espainiarrean entzuleria goizean metatzen da batez ere. Goizeko 10etatik 12ak arte bikoiztu egiten da entzuleen kopurua arratsaldekoarekin konparatuz. Ordu-atalei dagokienez, 1997. urtean, goizeko 11.30etan, arratsaldeko 18.30etan eta gaueko 12.30etan izaten dira entzule-kopuru handieneko momentuak edo "audientzia-gailurrak" (Díaz Nosty, 1998, 195). Nafarroa eta Euskal Autonomi Erkidegoari dagokienez, esan dezagun goizeko 6.00etatik eguerdiko 12.00etarako atalean metatzen dela entzulerik gehien. Argiago ikusteko, ekar ditzagun hona CIES enpresak (1999, 7) emandako datuak, entzule-kopuruak milaka zenbatuta:

	GOIZA(6-12)	EGUERDIA	ARRATSALDEA	GAUA
NAFARROA	141	78	68	71
EAE	659	394	270	333

C. Fragmentatua eta progresiboki selektiboa.

Gaur egun, irratiaren arloan, aurkakoak diren bi joera daude: zentralizazioa eta sakabanaketa. Sakabanaketa dela-eta, progresiboki diferentziatuak diren gizataldeen interesen

arabera, emandegi eta irratsaioen demandak edo eskariak interes politikoen erresistentziarekin egiten du topo (mezu bat zenbat eta gehiago zabaldu, hainbat eta sartze gehiago gizartean) eta baita interes ekonomikoekin ere (merkataritza-publizitatearen oinarria eskarien aniztea da).

Giuseppe Richari-k Madrilen 1.984ean simposium batean argiro azaldu zuenez, irrati-emandegi publikoen kinka larria ez da zergati ekonomikoengatik bakarrik sortu; horrez gain, beste zergati bat gehiago egon da: gero eta fragmentatuagoa den entzuleriaren interesei ez egokitzea, alegia.

Azken urteotan egin diren ikerketek argiro erakutsi dutenez, entzuleria bere gustu eta interes partikularren arabera dibertsifikatzeko joera dago. Fragmentazioa irrati-estazioen anizteagatik sortu da. Bestalde, entzule edo entzuleria espezializatuek espezializazioa (bai estiloan, bai edukietan) ekarri dute. Izan ere, entzuleria sakabanatuei zuzendu behar zaiela dirudi.

Hego Euskal Herrian entzuketa-indizeak nahiko altuak dira Espainiako erkidego batzuekin erkatuz gero. Ondorengo grafikoan —iturria EGM/AIMC da—, entzuleek egunero irratia entzuten ematen duten batezbesteko denbora agertzen da (Díaz Nosty, 1998, 194):

Postua/ Auton. erkid.	1. Murtzia	2. Katalunia	3. Errioxa	4. Asturias	5. Euskal A.E.	7. Nafarroa	8. Balearrak
Minutuak eguneko	119	114	113	111	111	103	82

7.4. IRRATI-ENTZULERIAREN ZATIKATZE-FAKTOREAK

Muñoz eta Gil autoreei segituz (1986), aipatu berri dugun sakabanaketa hau eragin duten faktoreen artean honako hauek daude:

a) Geografikoak: irrati-estazio lokalek garrantzia hartu dute. Jorge Xifra-k (Giza Zientzien Institutuko zuzendaria eta irakaslea kazetaritzan) dioenez: “beren irrati-estalduran duten eskualdeari buruzko informazio hautatua ematen dute, hizkuntza autoktonoen zabaltze-garaian edo susperraldian bultzada ematen dute, irrati-estazio estatalen albisteen kontrapisua izan daitezke, eta hiritar zein herritarren partehartzea sustatzen dute, funtzionario, politikari eta buruzagi lokaleekin harremanetan jarriz”.

Iragarleentzat faktore geografikoa oso garrantzitsua da zeren irratiari esker herrialde bateko entzuleengana, hiri multzo batera edo hiri bakarrera hel baitaiteke (González eta Carrero, 1999, 158).

Azken buruan, mezuen hurbiltasunaren eraginaren konstatazio praktikoa da. Katalunian, esaterako, irrati lokalek garrantzi handia dute aspalditik. Gogora dezagun, erkidego horretan baimendutako 95 irrati-estazio daudela; Madril-go erkidegoan, aldiz, 57 baino ez daude (Díaz Nosty, 1998, 212). Galizian ere, Katalunian gertatzen den antzera, estazio asko daude (102) eta nagusiki faktore geografikoak eragiten du hori. Audientziari dagokionez eta Hego Euskal Herriko herrialdeak aztergaitzat hartuz, honako bilakaera gertatu da azken urteotan (CIES, 1999, 6):

	1984	**1985**	**1987**	**1988**	**1989**	**1990**	**1992**	**1996**	**1997**	**1998**
ARABA	58	65	60	59	61	60	60	57	56	59
BIZKAIA	66	65	59	57	63	60	61	59	58	56
GIPUZKOA	62	63	64	60	57	58	58	54	55	56
NAFARROA	64	53	59	57	55	55	54	50	49	49

b) Adina: estadistikek diotenez, jendearen adina beheraka joan arau, FMren aditzea goraka doa; aldiz, jende nagusiak UEa (Uhin Ertaina) nahiago omen du. Informazioan espezializaturik dauden irratiei dagokienez (Catalunya Informació, France Info, Radio 5/Todo Noticias…), adina faktore nagusia dugu, entzule-indizeetan faktore hori ageri baitzaigu nabarmen: zenbat eta zaharrago, hainbat eta irrati-mota honetarako atxikimendu handiagoa dago (Díaz Nosty, 1998, 192). Eguneroko audientziari gagozkiola eta entzuleen adina kontuan hartuta, Euskal Autonomi Erkidegoan ez dago diferentzia handirik adin-taldeen artean. 1998. urtean, esaterako, audientzia-portzentaia horizontalean emanda, 36-45 adin-taldean %61ekoa da, gero 21-25 urte bitarteko taldea dator puntu bat gutxiagorekin (%60) eta azken postuan zaharren adin-taldea (65+) dugu, %48ko portzentaiarekin (CIES, 1999, 6). Nafarroan ere azken talde hori (65+) dugu azken postuan %40ko portzentaiarekin; lehenbiziko postuan, alta, 21-25 urte bitartekoena %54ko portzentaiaz (CIES, 1999, 6).

c) Sexua: Concha Fagoaga eta Petra María Secanella kazetariek Espainiako prentsa idatzian egindako ikerketa baten arabera, irratian gizonezkoen zortzi izen esaten diren bitartean, andrazkoen izen bat bakarra aipatzen da. Hau nahikoa izan daiteke andrazkoek irratiarekiko duten lehentasuna eta zaletasuna azaltzeko. Andrazkoak gehiago identifikatzen dira irratiarekin beste komunikabideekin baino. Gainera, zenbait estaziotan andrazkoei zuzenduriko irratsaioei bultzada handia eman zaie. 1984ko otsailean, kasu, Bartzelonan etxekoandreei bakarrik zuzenduriko irrati-estazio bat sortu zen; beraren izena: Radio Corazón. Irrati horren programazioan musikaren nagusitasuna oso nabaria zen; osasun- eta edertasun-aholkuak ere ematen zituzten. Gainera, nola ez, "goi-gizarteko" hizkirimiriak eta sukaldaritza-kontseiluak ere zabaltzen ziren. Irrati hartako langile guztiak andrazkoak ziren. Bestalde, entzuleen sexuari dagokionez, aipa dezadan 1978an oraindik entzule andrazkoak gizonezkoak baino gehiago zirela, baina hurrengo urtean portzentaiak gizonezkoen alde aldatu zirela. Hamar urte geroago, 1988. urtean hain zuzen, entzule gizonezkoen kopuruak berdindu egiten zuen andrazkoena, gutxi gorabehera (Madinaveitia, 1989, 67). Espainia mailako datuekin segituz, 1997. urtean diferentzia apaldu egin zen Díaz Nosty-k (1998, 178) emandako datuetan ikus daitekeen bezala (entzule-indizea sexu eta programazio-hautuen araberakoa da):

	Populazioa	UE	FM	Konbentzionala	Irrati-formula	Guztira
Gizonezkoak	48,7	57,9	52,7	58,2	49,3	53,3
Andrazkoak	51,3	42,1	47,3	41,8	50,7	46,7

Hego Euskal Herriko erkidegoei dagokienez, aipatzeko da andrazkoen eta gizonezkoen parekatzerantz azken urteetan izan den bilakaera, CIESek (1999, 6) emandako datuei erreparatuz gero (eguneroko audientziaren portzentaiak). Euskal Autonomi Erkidegoan sexuen araberako audientzia era honetara geratzen da:

	1984	1985	1987	1988	1989	1990	1992	1996	1997	1998
Gizonezkoak	62	63	59	58	60	58	60	60	57	57
Andrazkoak	66	67	63	59	61	60	59	54	57	56

CIESen datuekin segituz baina Nafarroako Erkidegoari dagokionez (1999, 6), gizonezkoen eta andrazkoen arteko aldea handitu egin da azken urteotan:

	1984	1985	1987	1988	1989	1990	1992	1996	1997	1998
Gizonezkoak	59	49	60	59	55	57	57	52	52	51
Andrazkoak	69	57	59	55	55	53	50	47	47	46

d) Hezkuntza: arlo honetan, ikasgai desberdinetan hezteko saioez gainera, entzuleen gradu edukazionalaren araberako selekzio-irizpideak ezartzen laguntzen duten saioak ere baditugu. Esaterako, horra hor, unibertsitateetan sortzen diren estazioak, hezteko helburua dutenak. Mallorcako Palma-ko RCEk Frekuentzia Modulatuan zeukan estazioak aireratzen zuen "Onda Universitaria" izeneko irratsaioa. Saio haren helburua ondokoa zen: "ez dugu nahi irakasleek eta katedradunek bakarrik hitz egiterik. Garrantzitsuena ikasleen ahotsa entzutea da. Denboraren poderioz, unibertsitatetik bertatik mintzatuko da irrati hau, eta unibertsitarioak izango dira saioa egingo dutenak. Gure xedea: jostagarri eta irri-eragile suertatzea, saioak dirauen bitartean (60′) aspertzeko une bat ere ez egotea".

e) Faktore kulturalak: bere adierazpide nagusia hirugarren programak dira, hots, kultura zabaltzeari lotutakoak, apurka-apurka hainbat estatutatik desagertuz joan direnak. Euskal Herrian, kultura eta hizkuntza propioa erabat berreskuratzeko xedez, hainbat irratsaio eta irrati-estazio sortu dira Franco-ren garaiaren akaberaz geroztik.

f) Hizkuntz faktoreak: irratietan, telebistan ez bezala, hizkuntz komunitate txikiak aintzakotzat hartzeko joera dago. Hala ere, oraindik asko falta da gutxiengoek ere beren ahots propioa entzunarazteko, gehien entzuten diren irrati-emandegietan batez ere. Horra hor Ipar Euskadiko irratiak: "Gure Irratia", Irulegi Irratia" eta "Xiberoko Botza". Irrati hauek zeregin eta helburu garrantzitsua eduki arren, aurrera tiratzeko problema franko dute, laguntza ofizialaren ezagatik. Izan ere, euskalkien erabilera dela-eta, segmentazio-faktore garrantzitsua dugu.

g) Sozialak: gizartean dauden klase eta taldeek segmentu jakinak eta zehatzak osatzen dituzte; hala nola, erbesteratuak, 3. adinekoak, erretiratuak, gaixorik daudenak, gaztetxeen inguruan dabilen jendea, yupiak, etab.

h) Laboralak: lana puntako faktorea dugu gizataldeen erakuntzan. Irratien espezializazioak, lanbide eta jardueren arabera, gehiegizko atomizazioa ekarriko luke. Halarik ere, ahalgarri da lan-kolektibo handiei zuzentzea, SER kateak "Onda pesquera" saioarekin egiten duen bezala.

i) Erabilgarritasun-faktorea: Bayerischer Rundfunk-ek (Bavariako irrati-katea), 1973. urtean, bere 3. programa sortu zuen: Bayern 3 (etengabeko emisiokoa). Programa horretan xede zehatza dago: auto-gidarientzat erabilgarri izatea. Musika eta orduroko albistegi laburrez aparte, auto-gidariei interesatzen zaizkien albisteak ere ematen dira: istripuei buruzko datuak, lainoguneen berri etab.; beharrezkoa bada, al-bistegietan etenak egiten dituzte, auto-gidariei interesa dakizkiekeen berriak emateko. Izan ere, begi bistakoa da programaren erabilgarritasuna. Kasu honetan, eduki zehatz hauek direla-eta, entzule-kopurua aldakorra da, audientzia erreala aldatu egiten baita. Antza denez, Bayern 3 sintonizatzen duten gehienak, bidaiatzeko asmotan edo bidaia egiten dabiltzanak izaten dira. Beraz, ez da batere iraunkorra eta homogeneoa entzuleen kopurua egun desberdinetako ordu berean, ezta egun bereko ordu desberdinetan ere.

7.5. ENTZULE-INDIZEEN EMENDATZEAZ

Irrati-mezuen jasotzaileen gaineko datuak aztertzea eta ezagutzea ez da bat ere erraza. Arturo Merayo-k (1992, 147-148) bi faktore aipatzen ditu zailtasun hori azaltzeko: a) Irratibidearen egitura enpresarial korapilotsua (irrati-estazio asko, kateekiko menpekotasuna edo ez, edukien aniztasuna…); b) neurtzeko zailak diren faktoreak agertzen dira irrati--hedapenaren jasotzea dela-eta (laguntasuna edukitzeagatik entzun daiteke irratia, beste jarduera batzuk egiten diren bitartean entzun daiteke, arreta osoz, bidaietan eta autoz ere entzun daiteke…); c) maiz entzuleek ez dute gogoratzen zer punturaino entzun duten irratia orokorrean, eta ez dira gauza zer irratsaio entzun duten zehazteko. Hortaz, entzuleen indizeak eta gainerako datuak lortzea langintza gogorra izan ohi da. Dena den, zenbait datu edukitzea ezinbestekoa da entzule-indizeak emendatu nahi izatekotan.

Eremu handia hartzen duten kateek (estatalek eta komertzialek) audientzia lokala, audientzia espezifikoa eta talde-audientzia, handia, heterogeneoa eta geografikoki zabala den entzuleriarekin bateragarri egin behar dituzte.

Entzuleria potentzial handiei zuzenduriko programek entzuleria horren berezitasunak hartu behar dituzte aintzakotzat, dibertsitate horretan aglutinazio edo biltze-faktoreak bilatuz, eta ez alderantziz, hots, desintegrazioari eraginez.

Bestalde, oso garrantzitsua da irratiak partehartze sozialerako bitarteko-funtzioa betetzea, zeren irratia, komunikabide kolektibo demokratikoena izateaz gain, hurbiltzeko errazena eta erdiesgarriena baita.

Irrati-kateek kontu berezia eduki behar dute akulturazio-fenomenoarekin (beste talde edo kultura batekin harremanetan jartzen denean gizatalde batean suertatzen diren aldake-

tak, batez ere goi-mailako gizatalde txikiari nagusitzen zaionean). Ikur, ezaugarri eta sinbolo kolektiboak alde batetik, eta berezitasun kulturalak bestetik (hizkuntza barne, noski) onetsiak izan behar dira.

Azken puntu horiek kontuan hartuta eta esandakoa errespetatuta, irratiak nahi bezainbeste ahalegin egin dezake bere entzuleria handitzeko. Hori bai, produktu edo irratsaio onak lortzea ezinbestekoa dela aurretiaz jakinik; halaber, irrati-estazioetako arduradunek jakitun egon behar dute entzuleen nahiak eta ohiturak ongi ezagutu behar direla.

Informazio-irratietan entzuleen indizeak emendatzeko, ezinbestekoa da albistearen zikloa aintzat hartzea. Notizien jarioa egiteko orduan, gogoan eduki behar da ziklo informatiboa. CIMOP izeneko enpresak RTVErentzat orain zenbait urte egindako ikerketan argiro azaltzen da zein den ziklo hori (Madinaveitia, 1989, 66):

Albistearen eguneroko zikloa

Esnatzeko ordua	berriro sintonizatzea	irratia	albiste freskoak
Jardunaldiaren hasiera	sakontzea	prentsa	albisteen balorazioa
Egunean zehar	gaurkotzea	irratia	berehalako albisteak
Jardunaldiaren amaieran	egiaztatzea	telebista	albiste egiaztatuak
Oheratzeko ordua	proiekzioa	irratia	albiste metatuak

Hortik abiatuta eta irratia informazioa jasotzeko bitarteko egokia dela gogoan edukirik, informazioaren alorrean etengabeko gaurkotzea dateke metodo garrantzitsuena, informazio-egarri dauden entzuleen fideltasuna lortzeko.

Irratiaren entzuketa-indizea, oro har, apur bat beheraka joan da azken hamarkadan. Carlos Zufia-k (1990, 213) azaldu zuen bezala, Euskal Autonomi Erkidegoan irratiak 1989an zeukan audientzia %62koa zen (EGMren arabera 57,2koa zen 1990ean) eta Nafarroan %57koa (1989. urtean). 1999. urtean audientzia %56ra jaitsi da CIESen arabera. Irrati digitalaren aroan sartuak garenez, gogoeta egin beharko da irratiaren bide berriak urratuz entzuleen fideltasuna ez galtzeko eta, ahal dela, indizeak emendatzeko.

7.5.1. Entzule baztertuak

Ezberdintasun handia dago herri-gizarteko eta hiri-gizarteko kulturen artean. Zenbait pentsalarik "hiri-zibilizazioa" herrietako kulturaren aurka jartzen dute. Spengler-en ustez, esaterako, zibilizazioak "goi-gizakiak hel daitezkeeneko egoera artifizialenak eta kanpokoenak dira"; kultura, berriz, "bizitza, bat-batekotasuna, jazoerak, arima kolektiboaren umezaroa".

Aintzinako ekanduak, jarduerak eta baloreak desagertu egin dira hiritik. Hirialdean adierazpide eta balore berriak garatzen dira.

Irratia gaur egungo bizitzaren hiri-kontzeptuaren fruitua da. Horregatik, herriaren mundua ere egon behar da irratilarien gogoan.

Irratiak jaramon gutxi egiten dion beste arlo bat, umeena da. Umeentzako irratsaioak gutxi dira, eta irrati-estazio komertzialetan saihestu ezinezko oztopo bat dago: errentagarritasuna (publizitaterik eza). Gazteei zuzenduriko albisteak, esaterako, ez dira inon aurkitzen, nahiz eta III. milurtekoan irrati-estazio tematikoen aroan sartu garen.

7.5.2. Entzuleriaren nahiak

Miamiko Unibertsitateko irakaslea den Bruce Garrison-ek (1990, 28) egokiro azaldu du irratilarien zeregin garrantzitsua zein den: "*a broadcaster who knows the demographics of his or her market at a particular day and time may be able to select news better than a competitor who does not*"; hau da, informazioaren esparruan ere ezagutu behar ditugu geure entzuleen ohiturak eta nahiak irratian arrakastatsuak izateko, hala informazioaren esparruan, nola gainontzekoetan ere. Maiz, irratilaria entzuleen gaineko ia daturik gabe abiatzen da, ordea.

Giza portaeren arloan egiten diren sinplifikazio gehienak ez dira zehatzak. Entzule bakoitzak irrati bat eta ez besterik zergatik aukeratzen duen edo irrati zehatz bat sintonizatzea zerk eragiten dion jakiteak, azterketa on eta sakona egitea dakar ezinbestez.

Azterketa horretan entzulearen soslai psikologiko eta soziologikoa, bere egoera biosoziala, bere giroko zirkunstantziak eta bere estimuluak agertu behar dira. Beraz, aldaki edo bariante guztien eskematizazioa egin behar dugu, entzuleriaren nahiei buruz nolabaiteko ideia edukitzeko. Muñoz eta Gil autoreek (1986) entzuleen nahi eta zioei buruzko galderak egiten dituzte:

*Zergatik aukeratzen da irrati-estazio jakin bat?

Erantzuna ondoko lau arrazonamenduetan sinpletu ahal da:

1.- Joera programatiko eta estiloarekiko identifikazioagatik (serioa, egiazalea, musika asko ematen du…)

2.- Audio-jasotzea ona delako (oso klarki entzuten da, interferentziarik gabe jarrai dezaket emisioa autoko irrati-aparatuaz).

3.- Inertziagatik, aurretiaz beste edozergatik onartua izandakoan (ohitura, erosotasuna, alfertasuna..).

4.- Halabeharrez (diala higitzean suertatzen den frekuentzia).

*Zergatik aukeratzen da irratsaio jakin bat?

1.- Bere edukiengatik (interesgarria da, asko ikasten dut…)

2.- Bere tratamenduagatik (sakona, bizkorra, entretenigarria…)

3.-Irratsaio horretako aurkezle edo hizlariekiko identifikazioagatik (atseginak direlako, edo gauzak ondo azaltzen dituztelako, ahots polita daukatelako…).

*Zer bilatzen du entzuleak irratian?

1.- Laguntasuna (pertsonen arteko erlazio-sentimendua).

2.- Informazioa (albisteak aditzea).

3.- Orientazioa (eguneroko jardueren garapen hoberako).

4.- Erne egotea (gizarteko egoera arriskutsuen aurrean).

5.- Hezkuntza edo aberaste kulturala (beste ideia eta mundu batzuen ezagupena).

6.- Afianzamendu pertsonala (auto-onespena, geure ikuspuntuen errefortzua).

7.- Entretenimendua.

8.- Musika eta elearen gozatze estetikoa.

9.- Iritzi pertsonalaren adierazpena (partehartze-irratsaioetan).

7.5.3. Feed-backa edo atzeratransmisioa

Hitz hau zibernetikatik datorkigu; psikologian erabilia izatera pasatu zen, eta gaur egun komunikazio sozialean ere erabiltzen da.

Informazioaren teoriaren arauera, *feed-back*a (berrelikadura, alegia) mezu bat jasotzen duen hartzaileak mezu horren emaileari igortzen dion erantzuna da. Nabari den oihartzuna da, erreakzioa —aldekoa zein kontrakoa—, komunikazio publikoaren prozesu konbentzionalaren kontrako noranzkoan doana. Erantzuna, medio edo kanal beretik egin daiteke, edota beste batetik (gutunez, kaleko manifestazio baten bidez…).

Irratitik ematen den komunikazioak daukan hurbiltasun-kualitatea (emaile eta hartzailearen arteko distantzia imaginarioa) dela-eta, komunikabide honek duen entzuleriak erantzuteko joera du, mezuei buruzko bere iritziak emateko. Bretainia Handiko irratiak (BBC) bikoiztu egiten du bertako telebistak jasotzen dituen gutunen kopuru osoa. Gutun gehienetan entzuleek beren kexak agertzen dituzte irratilarien lengoaia iraingarri eta kaskarra dela-eta, baita gai eztabaidatsuen tratamenduagatik ere. Suitzako lagunek edo hiritarrek bide demokratiko bat dute bertako telebista eta irrati federalen aurka joateko. Helvetiar herrian, botere politikoaren menean ez dagoen Epaimahai bat dago, non jendearen protestak entzun eta aztertzen diren. Kontseilu honetan ez dago funtzionario bat ere ez, ezta parlamentaririk edo irrati-telebistako pertsonarik ere.

7.5.4. Entzulearen partehartzea

Ondorengo testua Bertolt Brecht-ena da: “distribuzio-aparatu izatetik komunikazio-aparatu izatera pasatu behar dugu irratia. Kanalizazio-sistema ikaragarria izango litzateke, bizitza publikorako imagina daitekeen aparaturik hoberena, eta are hobea litzateke, emititzeaz gain, jaso ere jasoko balu, entzuleei adi egonarazteaz gain, hitz eragin ere eragingo balie; ez entzuleak baztertu, baizik, harremanetan jarri. Honetarako beharrezkoa litzateke irratsaioa egiteko orduan entzuleekin beraiekin kontatzea”. Dakusakegunez, ez da berria irratiaren komunikazioa bere esangura horizontalean ulertzea (ez goitik behera agindua). Honela irratia interaktibo bihurtzen da. Izan ere, bere ezaugarriengatik, komunikabide hau partehartzea bultzatzeko hoberena da. Entzuleak parte hartzeko erak, honako bide hauetatik joan daitezke (Muñoz eta Gil, 1986, 175-176):

* Entzuleriarekin harremanetan jarri, programazioari buruzko erabakiak hartzen laguntzeko. Honetarako, entzuleen elkarteek, aholkulariek edota gobernuek zein alderdi politikoek ipintzen dituzten aholkulariez baliatzen dira irratilariak.

* Entzuleekin kontaktu egin irratsaioen parte modura. Entzuleen partehartze honetarako era asko daude, praktikan jartzen direnak. Jakina denez, erabilienetarikoa,

dei telefonikoena da. Alejo Garcia-k dioenez: "irratilaria egunero egoten da jendearekin. Herria, herriko jendea, txalo egiteko baino ez da irteten telebistan; eta egunkarietan, gertaera-orrietan bakarrik agertzen da. Baina irratian herria protagonista da, parte hartzen du, galde egiten du, eta eguneko 24 orduetan zabalik ditu ateak. Jendea gehiago identifikatzen da irratiarekin beste komunikabideekin baino. Komunikatzeko lekurik herrikoiena da irratia".

* Entzuleriarekin harremanetan jarri, irratsaioen balorazioa egiteko audientzia ikerketak eginez. BBC delakoak, esaterako, bi eratara egiten ditu ikerketak. Batetik, "nork" aditzen duen eta "zer nolako" irratsaioa aditzen duen jakiteko. Eta bestetik, informazioa panelen bitartez (irratsaioen edukiei buruz) banatuz, irratsaio horiek zergatik diren onartuak ala ez jakiteko. Ikerketa-zerbitzu horiek, datu kuantitatiboez gain, datu kualitatitatiboak ere eman behar dituzte.

7.6. ENTZULE-INDIZEAK NEURTZEKO MOLDEAK

Entzule-indizeak azaltzeko bi era erabiltzen dira eskuarki: alde batetik, portzentaiak ditugu (*ratings*), eta bestetik, kopuru absolutuak (zenbat etxetan, zenbat gizabanako irrati-entzule…).

Gaur egun, audientzia ezagutzeko erabiltzen diren moldeak hiru dira:

1.-Zundaketak edo laginketak: metodorik onena entzuleari buruzko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak ezagutzeko. Aukeratutako pertsonek "lagina" osotzen dute. Laginketaz egiten den inkestak daukan problema errepresentatibitatearena izaten da.

2.-Detektagailu elektronikoak: irratiari edo telebistari atxekitzen zaizkien aparatu elektroniko txikiak dira. Aparatu hauek, tarteka, konektaturik dauden ala ez iragartzen dute, baita une bakoitzean sintonizatzen diren kanalak edo irrati-emandegiak zein diren ere.

3.-Entzuleen bat-bateko nahiz organizaturiko komunikazioei esker (dei telefonikoak eta gutunak, adibidez).

Hego Euskal Herriko audientziak neurtzeko, CIES enpresa sortu zen 1984. urtean. Euskal Autonomi Erkidegoko eta Nafarroako iragarle eta publizitate-adituek lehenago maiz eskatuta, egoitza Nafarroan daukan CIES izeneko ekimena gauzatu ahal izan zen. Sustatzaileak hedabideak, aurrezki-kutxak, iragarleak, publizitate-agentziak, Eusko Jaurlaritzako Publizitate Saila eta Nafarroako Gobernua izan ziren (Zufia, 1990, 209).

CIES enpresaren metodologia, Espainian Estudio General de Medios (EGM) deritzonak egiten duen bezala, *atzo egindakoa gogoratzean* oinarritzen da. Metodo horri lagunduz eta sinesgarritasun handiagoa lortu nahian, entzuleen ohiturak eta datu metatuak ere erabiltzen dituzte. CIESek elkarrizketa pertsonalak burutuz eta aurretik 14 urtez gorako pertsonen laginak hautatuz, XX. mendearen azken urteetan hainbat datu plazaratu ditu, "olatuetan" neurtuz. Elkarrizketatuei irratia entzun zutenentz galdetzen zaie, baita zer estazio sintonizatu zuten eta zer ordutan ere.

Lehenengo urteetan, urtean olatu bat baino ez zuen egiten CIESek. Gaur egun, aldiz, bi olatu ematen dituzte argitara, udaberrian eta udazkenean. Guztira, 3.750 elkarrizketa egiten dituzte olatu bakoitzean (7.500 elkarrizketa urtean) lau herrialdeetan (900 elkarrizketa inguru herrialde bakoitzean) eta bigarren olatuan emaitza metatuaren berri ere ematen dute. CIESen lanak herrialdekako ikerketen esparrua betetzen du batez ere, Hego Euskal Herriko bi erkidego politikoen mailarako EGM enpresak ere datu errepresentatiboak ematen baititu.

Dena den, EGM elkartearen galdetegietako emaitzak irrati-estazio handien esparrurako dira fidagarriak, zehaztasuna galtzen baita hiritarrari galdetzen badiogu zer sintonizatu duen galdetegia egin aurreko hogeita hamar egunetako 24 orduetan. Bistan da zehaztasuna txikia dela estazio txikien kontuan eta datuak orokorrak eta irratibideari berari zein estazio nagusiei dagozkiela batez ere (González eta Carrero, 1999, 157)

7.7. IRAKURGAIA

Ondoren, Alberto Díaz Mancisidor zenak (1984, 274-275) idatzitako testua agertzen da. Lankide, aditu eta irratizale amorratua izan zen Díaz Mancisidor-en gomuta ekartzeaz gain —izan bedi bere ohoretan—, atal honen gakoa den entzule-indizeen neurtzeaz gaztelaniaz idatzi den apurra euskarara itzulita ekarri nahi izan dut lerro hauetara. Testua aspaldikoa izan arren, argigarri izan dakiguke entzuleriaren neurketaren gai honetan gehiago sakontzeko.

Irratiko entzule-indizearen neurketa

Hastapenetik sentitu zuen irratiak entzule-indizeak neurtzeko beharra. Entzuleen gutunen bidez jakin zen lehenengoz irrati-estazioek zenbateko entzule-indizeak zituzten. Halarik ere, laster konturatu ziren pertsona horiek ez zirela entzule-indizeen elementu errepresentatiboa. Hedabide berriaren inpaktua desagertzen hasia zenean, irrati-estazioak opariak eta sariak eskaintzen hasi ziren gogo-pizgarri gisa entzuleek estazioetara gutunak bidal zitzaten. 1930. urtean, Crosley-k "Cooperative Analysis of Broadcasting" (CAB) izeneko elkartea sortu zuen dei telefonikoak eginez entzule-indizeei buruzko datuak lortzeko. 1934an, Hooper bigarren metodoa burutzen hasi zen, elkarrizketa telefonikoa baliatuz, irratsaioa antenan ari zen une berean egindako elkarrizketa telefonikoa preseski. Irratiaren industria berehala konturatu zen analisi horiek

salmenta-tresna garrantzitsuak zirela, baita entzuleek informatzeko eta dibertitzeko zituzten desira eta interesen alde egiteko mekanismo hobea ere. Emisioaz batera egindako elkarrizketaren ostean, Nielsen-en metodo elektronikoa etorri zen ("*audimeter*" deitu ohi zitzaiona)…

Hirurogeiko hamarkadaz geroztik, publizitatearen munduak arreta handiagoa ipini zuen entzuleriaren gaineko datuetan entzuleen zenbatze hutsean baino. Horren kariaz, entzule-indizeak ematen zituzten elkarteak entzuleen datu kualitatiboak ematen hasi ziren, *informazio demografikoak* izen orokorraz bataiatu direnak… Irratian, ezaugarri demografiko garrantzitsuenak ondokoak dira: sexua, adina, hezkuntza, lana, arraza, sarrera ekonomikoak eta bizilekua). Entzuleriak dibertsifikatzean, iragarleek informazio komertzialaren eraginkortasuna handitu ahal dute.

Entzule-indizeen neurketen konstante demografikoek programazioan eragin zuzena edukitzeaz gain, irrati-estazioaren salmenta-politikan ere badute inpaktua. Irratsaioek entzuleria zehatz bati zuzenduak izan behar dute. Adibidez, 1970ean CBS kateak bere programazioaren filosofia aldatu zuen (irratian eta telebistan) katearentzat eta iragarleentzat errentagarriagoa zen entzuleria-mota bat erakartzeagatik.

7.8. ERREFERENTZIAK

CIES. *Estudio de audiencia de medios de la Comunidad Autónoma de Euskadi. 15 años de Investigación de Audiencias (1984-1998).* Iruñea: CIES, 1999.

CIES. *Estudio de audiencia de medios en Navarra. 15 años de Investigación de Audiencias (1984-1998).* Iruñea: CIES, 1999.

Díaz Mancisidor, Alberto. "Proyección económica de la medición de audiencias" in *La empresa de radio en USA*. Iruñea: EUNSA, 1984, 269-312 orr.

Díaz Nosty, Bernardo. "Radio: ser o no ser de una expansión" in *Informe anual de la comunicación 1997-1998*. Bartzelona: Grupo Zeta, 1998, 169-219.

Garrison, Bruce. "News values" in *Professional News Writing*. New Jersey: Lawrence Erlbaum Associates (LEA), 1990, 25-46 orr.

González Mª Angeles eta Carrero Enrique. "Radio" in *Manual de planificación de Medios*. Madril: ESIC, 1999, 156-160 orr.

Hasling, John. “The target audience” in *Fundamentals of Radiobroadcasting*. New York: McGraw-Hill, 1980, 93 orr.

Madinaveitia, Eduardo. “Audiencias de radio: nuevas investigaciones” in *Mensajes y medios*. Madril, 1989, 6. zkia. (abuztua-iraila), 64-67 orr.

Martínez de Sousa. José. “Audiencia” in *Diccionario de información, comunicación y periodismo*. Madril: Paraninfo, 1992².

Merayo, Arturo. “El sujeto receptor de la comunicación radiofónica” in *Para entender la radio*. Salamanca: Universidad Pontificia, 1992, 147-170 orr.

Muñoz, José Javier eta Gil, César. “La audiencia” in *La radio. Teoría y práctica*. Madril: IORTV, 1986.

Zufia, Carlos. “La investigación de audiencias en Euskadi” in Peñafiel, Carmen et al. (ed.) *El Periodismo audiovisual ante el año 2000*. Bilbao: EHU, 1990.

8. IRRATI-PROGRAMAZIOA

8.1. KONTZEPTUA

Ondoko eran definitu ahal dugu irratiko programazioa: irrati-estazioko irratsaioen antolakera edo aurrikuspena denbora-unitate batean. Angel Faus irakasleak (1981) denbora-unitate hori zehaztu egiten du, 24 ordutara mugatuz, hots, programazioaren kontzeptua eguneroko programazioarenarekin parekatuz; eta Ignacio H. de la Mota-k (1988) irrati-estazioen sareetako —pluralean— irratsaioen planifikazioa ere aipatzen du programazioa definitzeko orduan.

Nolanahi den, badira autore batzuk, Mariano Cebrián kasurako (1994, 419), irratiko programazioaren kontzeptuaren barreneraino heldu direnak, era egokian definituz: "irrati-enpresaren eta entzuleriaren arteko erlazio komunikatiboaren planifikazioa, horretarako edukiak sistematizatu eta multzo harmonikoan atontzen direlarik, hautatze-, dosifikatze- eta ordenamendu-irizpide batzuen arabera; edukiak iraupen eta ordutegiak aintzat harturik lantzen dira eta giza, ekonomia- eta teknika-baliabideek baldintzaturik daude, denbora zehatz baterako emitituak izateko aurreikusiak direlarik".

Beraz, irrati-estazio batez zein irrati-kate batez transmititu nahi denaren antolamendua eta aurreikuspena da programazioa. Planifikazioa ez zaio zertan atxiki programazioan agertzen diren eduki eta programen emanaldi hertsi edo zorrotzari. Gaur egun honek garrantzi handia dauka, lehiakortasunak azken uneko aldaketak egitera bultzatzen baitu sarritan, lehiakideak diren programatzaileen lanari eraso eginez. Programazioa saioen antolakuntza koherentea da, zentzuz egina, eta irrati-estazioak edo irrati-kateak jartzen dituen baldintzak kontuan harturik. Izan ere, emisorearen helburuak programazioan islatu behar dira, entzuleriaren ezaugarriak ere ongi egokitu behar zaizkiolarik antolakera horri.

Irratsaioen ordenaketatik eta planifikaziotik egitura sortzen da, hau da, saioen arteko erlazioa, hemen aztertzen ari garen programazioaren kontzeptuari izaera ematen diona. Programatzaile edo emisoreak egiten dituen zenbait galderatatik sortzen da programazioa,

hau da, lan honek dakartzan itaun batzuetatik. Fernández Asís-ek aipatzen duen bezala (1986, 31), aintzat hartu behar diren galderak honako hauek dira:

Nork programatzen du?

Denbora eta espazioa: non?

Forma emanez: nola?

Edukia emanez: zer?

Bitarteko batzuk erabiliz: zeintzuk?

Helburu edo xede bat gogoan: zertarako?

Target edo jomuga bati zuzenduta: norentzat?

8.2. PROGRAMAZIOA: IRRATI-ESTAZIOAREN IDENTITATE-AGIRIA

Irratia luzaro —20. hamarkadatik 50.era gutxi gorabehera— prometan oinarritutako hedabidea izan zen. Entzuleek programak sintonizatzen zituzten eta ez zitzaien asko axola zer estaziok uhinetaratzen zituen. Baina, 50. hamarkadan, telebista agertu zenean, hedabide berriak hartu zuen ordurarte irratiak zeukan ezaugarri hori. Horren kariaz "irratia —irudirik gabeko hedabidea—, gainbeheraka joan zen azkar entzule-kopuruari dagokionez eta bideoak ordezkatu zuen" (Norberg, 1998,1).

Hortaz, irratiak formatu arrakastatsuak bilatu behar zituen lehian iraun ahal izateko. Eta lehenbizikoa, Nebraskan burutu zuten jendeari oso atsegin zitzaizkion kantak behin eta berriz errepikatuz.

Irrati eta telebisten ezaugarriak, izan ere, dauzkaten programazioek finkatzen dituzte hein handian. Horrela dagokio irratia bere programazioari, nola programazioa bere estazioari. Irratia duen programazioagatik ezagutzen da, eta programazioaren arabera sailkatu ohi da. Hortaz, programazioa irratiaren muina edo arima dela esan genezake, orduero, egunero, astero uhinetara eramaten diren ekoizkin edo produktu programatiko desberdinen entzunaldiaren ostean nabaritzen dena. Programazioak estazioaren edo katearen norabidea markatzen du eta inoren —entzuleen— iritzia —irrati-lanei buruzkoa— sustengatzen.

Programazioa irrati-estazioaren estiloarekin lotuta doa, gehienetan biak batera doazelarik. Estiloan, programaziotik at dauden ezaugarriak ditugu: irratilarien aurkezpen-motak,

musika-mota, *jingle* edo doinuen maiztasuna, albistegien tankera eta abar. Sarritan, estiloa albo batera uzten edo ahanzten den gauza da, garrantzi handikoa izan arren. Programazioa finkatzen denean, estiloa ere finkatu ohi da. Wilby-k eta Conroy-k azaldu duten bezala, estiloari ongi erreparatu behar diogu: "*the manner of presentation is as important, if not more important, than programme content and that considerable thought and planning lie behing the overall "sound" of a station*" (1994, 25). Marketinaren alorrera pasatuz, ezbairik gabe, estazioaren izaera edo marka estiloaren finkatzean datza.

Argi dago, ez dagoela programazio bakarrik estazio guztietarako balio dezakeenik, estazioen sortze-zio edo arrazoiak desberdinak baitira. Gauzak horrela, garrantzizkoa da estazioaren jabearen eta programatzaile profesionalaren arteko harremanak onak izatea, hots, beraien arteko "ezkontza" zoriontsua izatea. Arturo Merayo-k (1992: 43-44) programazio--buruaren figura zer den azaltzen digu, beraren zeregina zehaztuz: "gauza izan behar du irratsaioak planifikatzeko eta koordinatzeko, hitz mintzatu edo idatziaren bitartez, edozein motatako saioa izanik ere —dela informatiboa, dela ez-informatiboa—. Programazio-burua izateko, COPEk irratibidea ondo ezagutzea, eta ezaguera literarioak eta artistikoak edukitzea eskatzen du, programazio orokorraren eskemak sortu, zuzendu eta egiteko xedez...".

Muñoz eta Gil autoreek (1986) diotenez, programazioetan aldaketak sartu ohi dira beren denbora-unitateetan zehar. Beraz, programazioa irratsaio-aurreikuspena da. Eta horrexek, aurreikuspen-izaera horrek, ematen dio garrantzi handia entzuleak lortzeko orduan.

Programazio komertzial ona izatea oinarrizkoa da irrati-estazioen antolamenduan; hatz edo marka uzten duena da, edo, bestela esanda, estazioaren joera programatikoa finkatuko duena, horren bidez izango baita ezaguna. Hala ere, zio lukratiboa daukan programazio horrek ez du zertan edukietan kalitate hobekoa izan, entzuleria espezifikoei zuzendua den programazioak baino (alegia, kalitate bila doan programazioak baino hobea).

Euskal Herrian programazio-teknikak ezezagunak izan dira edo bazter utziak luzaro, harik eta gaur egun telebista-estazio edo neurri txikiagoan irrati-emandegi bateko programatzaileek sona eduki eta ikusentzuteko hedabideetako lanbideetan goi-kotizazioa hartu duten arte. Hedabideak ez ziren asko arduratu programazio-teknikez, eta horrela intuizioak eta irratsaioen kopia hutsak ateak itxi zizkieten asmamenari, berriztapenari eta ikerkuntzari. Bide malkartsua arrakasta programatikoa lortzeko, ezbairik gabe.

Urteak joan, urteak etorri, 80ko hamarkadan aldaketa handia gertatu zen Hego Euskal Herriko irratietan. Telebistan, aldiz, estazio pribatu espainiarren heldu eta 90ko hamarkadako lehiakortasuna iritsi arte, ez zen aldatu estazio-jabeen jarrera programazioaren antolakuntzari zegokionez. Ipar Euskal Herriko irratietan, alta, ikusentzuteko hedabideen merkatuaren izaerak azkarrago eragin zuen irratiak eta telebistak programatzeko langintzari garrantzi handiagoa ematea, estazioen helburuak lortzeko teknika egokiak bilatu zituztelarik.

Espainiar Estatuan irratiak arrakasta handia izan du *izarren* sistemari esker, hots, Iñaki Gabilondo edo Luis del Olmo bezalako irratilari ospetsu eta dirudunei esker, eta horrek nola edo hala onerako eragina eduki du irrati-programatzailearen langintzan. Telebistan beste horrenbeste jazo da, kate pribatuek telebista publikoari entzule asko kentzen joan direnetik, Franco jenerala hilez geroztik RTVE jaun eta nagusi baitzen.

Kategoria bereko hedabideen arteko lehiakortasunaz gain, sistemen arteko lehia ere gertatu da azken urteotan; hau da, teletestua, bideotestua eta telebista bera ere lehian dira alor programatikoan. Beraz, irratia eta telebista berrikitan garatu diren hedabideekiko lehian dabiltza, hala nola, sareen sarearekin, eta gorago aipatutakoekin. Horrek eragin zuzena eduki behar luke, irrati-estazio bakoitzak programazioan edo horren inguruko langintzan diru gehiago inbertitzeko edo baliabide gehiago jartzeko orduan.

Irrati-estazioak ahalegindu egiten dira identitate-marka iraunkorrak ezartzen, programazio original eta ustekabekoaren bitartez emandegiak oinarrian etengabe entzuleria-kuota garaiak eduki ditzan, horrela entzuleriaren rakingetan present egon ahal izateko. Panorama honetan bistakoa da lehenbizi ondo ezagutu behar dela irratiaren alorra, erradiografia zehatza eginez, estazioari ondoen dagokion programazioa testatuz, eta era horretan irratsaio eta unitate komertzial desberdinen arrakasta zein den finkatuz, baremoa sortuz.

Programatzaileak gogor borrokatu behar du bere estazioa jitoan gera ez dadin, hedabide lehiakideek egiten dizkioten erasoei itzuriz eta beste irratikideen beraien erasoei ere zirkin eginez, azken hauen estrategia programazioen diferentziazioan eta ustekabetasunean datzalarik, gero eta nabariago.

8.3. PROGRAMAZIO-MOTAK

José Javier Muñoz-ek eta César Gil-ek (1986) ondoko sailkapena egin dute programazio desberdinak sortzeko zioak kontuan harturik:

1. Urtaro edo denboraldiaren arabera: finkatzeko programazioa (emititzen hasten denean), ohikoa, udakoa, zubiarena egiten duena (bata besteari lotzeko erabiltzen dena; esaterako, udakoa eta ohikoa elkartzekoa).

2. Ordutegiaren arabera: goizekoa, eguerdikoa, arratsaldekoa, gauekoa...

3. Edukien arabera: konbentzionala edo tradizionala (irratsaio desberdinak dituena), berezitua edo irrati-formula (eduki antzekotsuak ordu guztietan zehar)

4. Generoka: informatiboa, musikala etab.

5. Jasotzailearen arabera: gazteentzat, andrazkoentzat etab.

6. Maiztasunaren arabera: egunerokoa, asteburukoa, noiz-behinkakoa (gertakari bereziengatik).

7. *Entzuleek edukien berri eduki ala ez* faktorearen araberakoak: ohikoa (iragarria izan dena) eta ustekabekoa (estazioak mezurik bidaltzen ez duenean).

8. Egituraren arabera: mosaikoa (ohikoa, elkarrengandik aldendutako irratsaioak dituena) eta atalkakoa (iraupen luzeko irratsaioak dituena).

9. Egokitzapenaren arabera: harmonikoa (estazioari eta entzuleriari egokiro egokitutakoa) eta anarkikoa (desordenamendua gertatzen denean; aurrikuspenik ez dagoenean; batzuetan, iragarleek agindutako irratsaioak onartu beharrean daude).

10. Hedapenaren arabera: nazionala, erregionala, lokala, auzo-mailakoa.

11. Noren arabera den egina: bertikala (ohikoa: enpresak edo estazioak egina) eta horizontala (entzuleriarena; bakanka egiten da horrela, Erdialdeko Amerikan sarritan esperimentatu den formula izan arren).

Denbora-faktorea kontuan hartzen badugu, programazioa epe labur, ertain eta luzera burutu daiteke. Mariano Cebrián-ek (1994) egindako sailkapenean, astebeteko programazioak eta egunbetekoak epe laburrekotzat jotzen dira; epe ertainekoak denboraldikoak dira, lau urtaroei egokitutakoak alegia; eta azkenik, epe luzeko programazioa, kirol-gertakariak direla-eta egin ohi dena, ekoizpen-lan estrategikoa da, aldez aurretik eta luzaro egitea eskatzen duena.

Ikus daitekeenez, programazioari tinte asko eman dakizkioke, *programa-aurreikuspen* edo *programazio* kontzeptua mugatu nahi izatekotan.

Irrati-programazioan bi eredu bereiz daitezke erraz, irratsaioen edukiak kontuan hartuz gero. Bi ereduok, Josep M. Martí-k (1990) ongi aipatu bezala, bakoitza bere esparruan entzule gehiagoren bila abiatu diren irratiei dagokie: irrati konbentzionala, alde batetik, eta irrati berezitua, bestetik. Irratsaio desberdinak dituen irrati tradizionala dugu lehenbizikoa; emisio-ordu guztietan zehar eduki antzekotsuak dituzten irratsaioetan oinarritzen den irrati-formula bigarrena.

Bi irrati-eredu hauek nagusi diren aro honetan, egitura programatikoen sailkapen bat nabari da irrati konbentzionalaren barruan. Egitura irizpidetzat harturik, eredu programatiko hauek ageri zaizkigu: *mosaikoa* (programa isolatuak dira nagusi) eta *atalkakoa* (ohiko-

ak dauzka iraupen luzeko irratsaioak). Bi eredu hauez gainera, bada beste programazio-molde bat: garrantzitsuak diren gertakarien segimendua egiten duena, hots, jarraituzko programazioa. Programazio honetan "berehalako informazioa eta iraunkorra dena, hau da, kanpotik datorrena edo estazioak berak eragindakoa, programazioaren elementu gidatzailea bihurtzen da" (M. Cebrián, 1994, 427).

Telebista den bezala, irratia bitarteko egokia da gaurkotasunaren berri eman ahal izateko eta jazo berri diren gertakariei jarraitzeko, informazio-iturriek edo irratilariek beren kriterioez ikusitako errealitatearen partearen iragazle bihurtzen delarik; eta honek eragin handia du finkatu behar diren programazio-ereduetan. Eredu horietan formakuntza, entretenimendua eta informazioa uztartu behar dira programatzaileen helburuekin, entzuleei —edo entzuleriei— eskaintza programatiko erakargarria egiteko. Puntu horietan sakontzeko, irrati-estazioen irratsaioen edukiak kontutan harturik, eredu konbentzionala eta berezitua aztertuko ditugu ondoren.

8.3.1. Programazio konbentzional edo orokorra

Amerikako Estatu Batuetan irrati berezituak irentsi egin du irrati konbentzionala; Europan, berriz, bi eredu programatikoek elkarrekin diraute.

Nahiz eta aspaldidanik esan duten espezializazioaren moda estatubatuarra irrati orokorrari zeharo nagusituko zitzaiola, egia esan, joera horren geldotasuna ezin ukatuzkoa da, berezitasun programatikoa iragartzen duten zenbait faktore ageri diren arren. Faktore horien artean, eskaintzaren aniztasuna eta teknologiaren bilakaera aipa daitezke.

Irrati orokor europar honen ezaugarri nagusia, ezbairik gabe, tartekatzen diren eduki eta generoen dibertsifikazioa da. Josep M. Martí-k (1990) programazio orokor hauen kontzeptualizazioan sakondu du, ondokoa aditzera emanik: "aste eta egunero irratsaio desberdinak eskaintzen ditu, entzuleria desberdinak erakarriz, entzuleria hauetako bakoitzak irratsaio bat edo gehiago entzun dezakeelarik". Horren bidez, *target audience* (jomuga-audientzia, alegia) delakoa argiro esan nahi da dibertsifikaturik geratzen dela. Xedea hauxe da: irratsaio desberdinen ingurura biltzen diren kontsumitzaile mediatiko desberdinak egotea. Horrexegatik, programatzaileak prospekzio soziologikoak egin behar ditu, entzulerien gustu eta joeren berri edukitzeko ezezik, haien ekandu eta ohiturei buruzko informazioa (lan-ordutegia, urtaroak...) ere jasotzeko. Irrati orokorreko programatzaileen lan-unitateak ordu-segmentuak dira.

Josep M. Martí-k (1990) Espainiako irrati orokorraren ordu-segmentuak zein diren esan du, EGM delako erakundeak emandako audientzia-datuen gainean gogoeta egin ostean. Segmentu hauek sei dira eta banan-banan ikusten hasi aurrez, Estatu espainiarreko irrati-audientziaz atera daitezkeen bi ondorioak aipatuko ditugu. Lehenbizi, aipa dezadan goi-

zean metatzen dela entzulerik gehien irratietan. Bigarrenik, Martí katalanak (1990, 84) aipatu bezala, "nahiz eta irratiak 13.00 arte daukan batezbesteko mailara heldu ez, egunaren gainontzeko denboran kualitatiboki gailurrak diren bi une baino ez daude: 17.00 eta 19.00 bitarteko denbora eta gaueko 23.00etatik 1.00etara doana". Ondorio hauek lan-egunei dagozkie.

Jarraian, irrati konbentzionaletan horrenbesteko eragina duten sei aldi edo denbora-tarte horiek karakterizatzen saiatuko naiz.

a) Lehenbiziko tartea goizeko 7.00etatik 9.00etara doa. Garai honetan lehiakortasun handia dago ahalik eta entzulerik gehien harrapatzearren, tarte honetan entzuleriaren ezaugarri nagusietako bat entzunaldi laburrak egitea izanik. Informazio-egarri diren entzuleak izaten dira, lantokira abiatzen direnak eta Europako ordu-ohiturekin gero eta antz handiagoa duten hiritarrek osatuak direnak. Irratilariek 30 minutuko informazio-saioak egiten dituzte, ordu-segmentuan zehar errepikatuz, itzartzen diren entzuleengana heltzeko asmotan edo lantokirako bidean diren autogidariak harrapatzeko xedez.

b) Bigarren segmentua 9.00etatik eguerdiko 13.00etara zabaltzen da. Tarte honetan sartzen dira hainbat irrati orokorretan arrakasta lortu duten edukiontzi-irratsaio handiak, oro har, irratiek duten entzule-kopururik handiena biltzen dutenak. Magazine luzeak dira, zeinetan publizitatea eta entzuleak bereganatzen dituen hizlari-gidari ospetsua baitago.

c) Hirugarren segmentuaren ordutegia 13.00etatik 16.00etara doa. Garai honetara helduta, telebistak irratiari egiten dion konpetentzia oso handia da eta, beraz, audientzia-indizea jaitsi egiten da, irrati-kate handiek programazio lokala emititzen dutelarik. Informazioarekin batera, lehiaketak eta jolasak ere leku dute arratsaldeko parriletan.

d) Laugarren tartea 16.00etan hasten da eta 20.00etan bukatzen. Telebistetan ematen diren telesail estatubatuar eta iberoamerikarrekin lehian sartzea da kontua. Segmentu honen programazioan goizeko magazine handiaren antzeko formularen bat nagusi dela dirudi.

e) Bosgarren segmentua 20.00etatik 23.00etara doa. Nahiz eta Hego Euskal Herriko hiritarren ohiturek gero eta antz gehiago duten Europako beste hiritarrenekin, bistakoa da lan-egunaren bukaera-orduak oraindik lehengoan dirauela (Espainiako Estatuan beranduago amaitzen da). Horren eraginez, besteak beste, irrati-audientzia beheraka doa tarte honetan (nahiz eta Europan lehenago geratzen den hori), telebistaren lehiakortasunaren kariaz. Beraz, iluntzetik gaualdera iragateaz ari gara —Josep M. Martí-k dioen bezala—, orduan gerakin bihurtu diren entzuleentzako irratsaio informatiboak, kirolezkoak eta beste erretransmitizen direlarik.

f) Seigarren eta azken segmentua 23.00etatik 3.00etara doa. Datuek erakutsi bezala, Estatu espainiarrean audientzia handia dago Europako beste herriekin erkatuz gero. Albistegi, tertulia, kirolsaio eta laguntasunezko programen tartea da.

8.3.2. Programazio berezitua

Espezializazioa Estatu Batuetan sortu zen 60ko hamarkadan. Bertan *format radio* izenaz ezagutzen da. Britainia Handian ematen zaion izena *generic radio* da. Gaztelanian zenbait izen erabili dira irrati-mota hau izendatzeko: *nueva radio, radio fórmula, radio de formatos* (D. Mancisidor & Urrutia, 1986).

Irrati konbentzionalarekin duen desberdintasun gailena irratsaioen edukien homogeneotasunean datza —eta neurri handi batean, generoenean ere bai—; tradizionalean, aldiz, programazioa heterogeneoa da.

Garai batean irrati berezitua FMn zokoratuta geratu zen. Horretaz jabetzeko, irrati berezituak eta irrati-formulak ekarri zituena, banda horren sorrera izan zela gogoratzea baino ez dago.

8.4. PROGRAMAZIOA, EMISOREAREN ERRONKA

Irratiek zein telebistek erantzun egin behar diete programazio-sailek dakarzkieten kostuei, horren arrakastatsua den gaur egungo eskaintza programatikoaren menean erori nahi ez badute behintzat. Programen antolamendu eta aurrikuspenaren hobekuntza etengabea eta programazioaren azterketa eta berari buruzko ikerketa, nahitaezkoak dira gaur egun hedabide guztietan.

Arturo Merayo-k (1992, 335) programazioaren hobekuntza irrati espainiarraren hiru erronketatako bat dela kontsideratzen du, berorrekin batera, bide berriak urratuz, entzulerien dibertsifikazioa eta publizitatearen hobekuntza ere aipatzen dituela. A. Merayo-k honelaxe azaltzen du programazioaren prozesua:

> "Zenbat eta irrati-estazio gehiago egon, hainbat eta homogeneoago agertzen da beraien programazioa. Antza, ez dago ez denborarik ezta bitartekorik ere programazioak berriztatzeko, ekoizkin berriak eta estilo desberdinak esperimentatuz. Arrakastatsuak diren irratsaioak imitatzeko joera arriskutsua dago —ia ezer aldatu gabe—, epe laburreko etekinean baino ez baita pentsatzen. Estandarizazioak kaltetu egin dezake epe luzera irrati-hedapenaren prestigioa. Gizarteko beharrizanak eta gustuak aldatuz doaz denboraren joanean; programazioak eta irratsaioek, aldiz, formula finko eta aldagabeetan diraute".

Dagoeneko iritsia den irrati berriak, DAB edo *Digital Audio Broadcasting* delakoan oinarritzen denak, esperimentazio-fase aurreratua gainditu ostean, epe berriaren ateak zabalduko ditu hedabide txiroan, espezializazio-autobideak sortuko direlarik. Irratiaren historiaren bigarren iraultza honetan, programatzaileak aintzat hartu beharko ditu ondoko puntuak —Martí irakasleak (1996) aipatu bezala—, sare berriekin, euskarriekin eta eskaintza programatikoekin erlazionatuta daudenak:

1. Hedabidearen kontsumoa eta berarekiko kontaktua... Ahalgarri izango da entzunaldia terminal desberdinetan egitea: mikro-konputagailuen terminaletan, pantaila txiki mugikorrenetan eta abarretan. Entzulearekiko kontaktua erraztu eta hobetu egingo da.

2. Audientzietan segmentazio-prozesu esponentziala gertatuko da: horma-hilobien agertzea (*nitxoak*) deritzona. Euskarrien anizteak irrati-estazioek entzule-kopuru handiak edukitzeko posibilitatea gero eta mugatuagoa izan dadin eragingo du. Irrati-programazioak estazioek lortzen dituzten entzuleen kalitatearen arabera neurtuko dira, entzule-kopuruen arabera baino gehiago. Entzuleriaren horma-hilobia, bere osagaien oso osaketa homogeneoak definituta (adina, maila kulturala, maila ekonomikoa, gustuak, egoera profesionala etab.), irratiko merkatu primarioko marketing-adituek lan egin beharko duten kontzeptu berria izango da.

3. Eduki orokorrek leku emango diete eduki "hiperberezituei", eta programazioko horma-hilobiak agertuko dira. Euskarri berriek eskainiko dituzten programazioak ondoko irizpidearen arabera burutuko dira: bakoitzari bere intereseko zentroa edo bere mikro-preferentzia eman beharko zaio.

4. Irrati-lengoaia konbentzionala ez da hedabidearen diskurtsoen adierazpide bakarra. DABek hitz idatzia komunikazioaren elementu sustantzial edo osagarri modura agertzea ahalbidetuko du.

5. Entzulerien rol-aldaketak. Hainbat urtez aldarrikatu den norabidetasuna edo *feedback*a errealitate bihurtu ahalko da. Ahalbide asko eta handiak egongo dira: ekoizlekide edo ko-ekoizlea den entzulea —edukietan edo narrazioaren zuzendaritzan artez eraginez—, entzule programatzailea... eta baita, azkenik, estazioa bera kudeatzeko eta ekoizteko posibilitate desberdinak ere, Internet delakoaren kasua esaterako.

6. Zerbitzu erantsiak sortuko dira. Igorpen digitalak eskaintzen dituen posibilitateak zabaldu egingo dira datu-transmisioaren kariaz: digituz, letraz eta irudiz.

Etorkizun hurbileko entzule bakoitzak autoprogramazioa egin ahal izango du bere terminaletik. Hori dela-eta, irrati-programatzaileek egingo dituzten eskaintzen geroa, aurretik

proposatu diren *target* edo helburuei egokitu beharko zaie. Orokorra ez den entzuera eta telebistaren lehiakortasuna *handicap* garrantzitsuak bilakatuko dira, irrati-estazioen programen antolamendua eta ordutegiak edo parrilak finkatzeko orduan.

8.5. PROGRAMAZIOA IRRATI KOMERTZIAL ETA PUBLIKOETAN

Programazioaren esparruan oraindik egiten den galdera da, ea programazioa zeri egokitu behar zaion: enpresaren planteamenduei ala entzuleen eskaerari. Bestela esateko, entzuleak irrati-estazioek eta kateek egiten dioten eskaintzaren diktadurapean egon behar ote du ala irratilariek entzuleriak nahi duena eman behar ote diete entzuleei? Horri dagokionez, Mariano Cebrián-ek (1979, 69) argibide ona eman digu irrati komertzialen eta publikoen arteko polemikan sartuz:

> "Betiko biribilketa amaigabea da. Inoiz ez dugu jakingo zeinek egiten duen bere nahia arinago; ez dugu jakingo, entzuleriak zerbitzu jakin bat eskatzen dion irrati-estazioari egiten ote dion, aurretik eragin diolako, edo estazioak zerbitzu hori ematen ote dion manipulatzeko inolako asmorik gabe, entzuleriak jaso nahi duena horixe dela uste duelako.
>
> Ziur aski, irrati komertziala entzuleek zer dioten aiduru dago, zeren entzulerik ez balu desagertu egingo bailitzateke; eta hori nahi ez duen efektua da, bistan denez. Baina litekeena da, horrelako helburu ekonomikoak ez dituzten beste irrati batzuk (fondo publikoen bitartez finantzatzen direnak prezeski) beharrak eragin ahal izatea jendeari, premiei aurretik heltzea. Horren kariaz, irrati publikoak ausartagoak omen dira eskaintza programatikoetan."

Programazioa lehiakorra izan beharrean dago, nahitaez; lehiakorra irrati publikoetan, pribatuetan den bezalaxe. Mariano Cebrián-ek ere horrelaxe ikusten du irrati publikoaren programazioaren erronka. Irrati publikoak errentagarriak ez diren sektoreak baino hartzen ez baditu, bazterturik gera daiteke betiko eta zeharo subsidiarioa izateko arriskuan dago, komeni ez dena; are gutxiago, Euskal Herrian gizarte diglosikoan bizi garela kontuan izanik. Hortaz, Díaz Mancisidor-ek (1994), zeharbidez bada ere, irrati publikoei esleitu zien programazio-joeraren aurka (erabateko subsidiariotasunean murgiltzerainokoaren aldekoa zen), Euskal Irrati Publikoak orain arte eduki duen joera programatikoari ondo deritzot, entzuleria eskuratzeko lehian sartzea ezinbestekoa baita irrati publikoarentzat.

Irrati publikoen joera programatikoan bada gauza aipagarri bat, kazetaritza informatiboaren alorrari dagokiona: informazioaren espezializazioa. Hain justu, France Info, Radio5 /Todo Noticias eta antzeko estazioak puri-purian daude azken urteotan. Irrati-programazioaren joera hau irrati publikoek erakutsi dute eta Europan Radio France izan zen lehena informazioan oinarritutako irratirako formula-mota hau erabiltzen (1987. urtean). Ekintzak edo programak France Info izena hartu zuen, eta programazioa etengabeko infor-

mazioan zetzan. Sortu eta bi urte eta erdira, bi milioi entzule lortu zituen, arrakasta itzela izan zena (Remesal, 1990). Urte batzuk geroago esperientzia hori beste nazio batzuetara hedatu zen.

Irratirako formula modura musika ematen zuten estazioak hamarkadaren amaieran sortu ziren, diskoak ekoizten zituzten enpresek publizitatea egin zutenean, beren musika handika saltzeagatik eta jendea musikaren kontsumoan ohitzearren. Irrati komertzialetan jazo zen praktika horretatik ikasiz eta esperientzia hori informazioaren alorrera eraman zitekeela konbentziturik, albistea jainko bakartzat duten irrati-estazioak sortu dira. Programazio-arduradunek informazio-unitateen maiztasuna, iraupena, egokitasuna eta kadentzia atondu beharrean dira irrati-formula honetan; hau da, erabaki egin behar dute erreportaiak, kronikak, albiste trinkotuak eta gainerako informazio-generoak noiz sartu programazioan, informazio-jario hori entzuleen entzuketa-ohiturei eta entzuleen bizi ekanduei egokituz. Formula arrakastatsua lortu behar da, soziologoek emandako datuetan oinarrituz. Azken buruan, EEBBetako irrati komertzialetan aspalditik erabiltzen dituzten audientzia-ikersaioetatik ikasiz burutu behar da programazioa.

8.6. PROGRAMAZIOA IRRATI LOKALEAN

Irrati lokala hiritarrengandik hurbil dagoen mezubidea da. Batez ere musika eta informazioa oinarri duen hedabidea. Irrati lokalak Euskal Herrian hiri, herri, herriska eta eskualdeen estaldura egiten duten irratiak dira. Entzuleria potentzial handirik eduki ez arren, populazioaren zenbait atalentzat propio edo nahita emititzen duten hedabideak dira.

Irrati lokalek molde edo izaera desberdinak eduki ditzakete zenbait faktoreren arabera; horrela, gure herrialdeetan bi faktore nagusi hartu behar ditugu aintzakotzat: hizkuntza (irrati-estazio elebakarrak eta elebidunak) eta izaera (komertzial edo pribatuak, munizipal edo publikoak eta libre edo komunitarioak).

Orain zenbait urte Espainian joera bat nagusitu zen postmodernismoarekin batera: lokalismoari ateak itxi behar zitzaizkion; kosmopolitismoa omen zen modernitate eta etorkizuna. Joera hark irratia ere jo zuen. Urteak joan eta urteak etorri, lokalismo, tradizionalismo eta erregionalismoari gerra deklaratu zioten pertsonetariko asko damuturik-edo ikusten ditugu, oraindik ingelesez ere jakin gabe eta kazeta erregionalak erosten edota proiektu erregionaletan buru-belarri sartuta, Europaren eraikuntzan herrialde eta estatugabeko nazioek zer paper garrantzitsu jokatzen duten jabeturik. Bistakoa da globaltasuna eta lokaltasuna azken urteotan etengabe garatuz joan diren joerak direla. Horregatik hartu dute horrenbeste garrantzi argitalpen eta irrati lokalek.

Izan ere, Estatu Batuetan, Kanadan eta beste herri garatu batzuetan gertatu den bezala, ikusentzuteko komunikazioaren esparruko hedabide-sarea ongi osatzea garrantzitsua da. Katalunian udal-irratiek duten garrantzia ezin erka daiteke Euskal Herrikoek dutenarekin, baina, zalantzarik gabe, aldizkari lokalen arrakasta ikusita, sasoia izan daiteke irratibideari hain loturik egon den herri honek irrati-sare lokal garatuak eta hobetuak eduki ditzan.

Programazioari gagozkiolarik, kokapen geografikoa, hizkuntza eta ekoizpen-moldea faktore nagusiak dira estrategia programatikoak abian jartzeko orduan. Baina hiru horiek ez dira faktore bakarrak. Askotan ahantzi egiten dugu legeriaren markoa, irratiaren kasuan ere eragin handia daukana, nahiz eta ateetan dugun liberalizazioak eta teknologia berrien aplikazioak gobernuen murrizpen-legeei eta aginduei aurka egingo dieten. Erakunde edo ente lokalei zein erregionalei botere eta diru gehiago emateak ezinbestez ekarriko duke hedabide lokalen garapen hobea.

Espainiako irrati estatalak ere egiturak sorrarazi eta bilakatu ditu gaur egungo errealitatera hobeto moldatzeko. Horra hor Kataluniaren kasua eta bertako hizkuntzarekiko atxekimendua, orain dela gutxi arte lokalismo eta estatu edo "nazio" bakarraren artean beste bitarteko hedabide-sarerik ez baitzegoen.

Hedabide lokalek garrantzi handiagoa hartuko dukete etorkizun hurbilean, irrati eta telebista digitalaren aroan kanalen aniztasunarekin batera irrati-entzuleriaren barreiaketa handiagoa izango da-eta.

Europan ez bezala, Amerikako Estatu Batuetan, lokalismoa eta irratiak aspalditik izan ziren bultzatuak enpresa pribatuen moduan ulertuta, eta gaur egun irrati lokalak oso erroturik daude, entzuleriaren atal bakoitzak bere gustuko estazioa sintoniza dezan eskaintza programatiko handia dagoelarik. Etorkizuneko irratia segmentazio programatikoarena izatekotan, Estatu Batuak izango dira aitzindariak prozesu honetan, ezbairik gabe, mikropreferentzia edo mikronahien eredu horretatik bertan Europan baino gertuago baitaude.

Dena den, erronka heltzear dago, III. milurtekoaren lehen urteak irrati digitalarenak izango baitira. Ziur aski, erronka horretan entzuleen interesekoak diren eskaintza programatikoen aniztea eta edukien hobetzea izango dira abiaburuak.

Irrati lokalen tipologia egingo dugu ondoren; horretarako lehenik, Josep M. Martí-ren (1994) estazio-motak aipatuko ditugu. Martí katalanak honako irratiak ikusten ditu esparru lokaletan:

1 Errepikagailu-irratia: mota honetako irratietan ekoizpen propioa oso murritza da. Normalean irrati-kate estatal baten menpe daude edo kate batekiko elkarlan-ituna sinatu dute. Irrati hauek kate handiaren irudia baliatzen dute publizitatea eta en-

tzuleria handitzeko. Programazioari dagokionez, menpeko diren kateko generoak darabiltzate, eta beren gain ari direnean, deskonexio-denboren alorrean mugitzen dira; *prime-time* edo erpin-denboraren %30 baino gehiago inoiz ez.

2. Osagarria den irratia (zubi-irratia): autonomia-maila garaia du erabakiak hartzeko unean. Oinarria programazio lokalean dauka, eta programazioa osatzeko, informazio orokorreko irratsaioez, kirolsaioez edo emanaldi bereziren batez hornitzen da *prime-time*an emititzeko. Kanpoko ekoizpen hori bi eratara lor dezake: sindikazioaren bidez edo elkarteei zuzenean erosiz. Babesle lokalak bilatzen ditu.

3. Fotokopia-irratia: autonomoa dirudien irrati lokala da. Irrati-mota hau ez dago kateen menpe eta zerbitzu osagarririk ere ez du jasotzen. Hala ere, Estatu-mailan emititzen duten kateen estrategia programatikoetan oinarritzen da, berritasunik eskaini gabe. Soinu lokalik ia-ia ez du, edozein herrialdetan egonik ere berdin dirudielarik. Edukiek ez dute sustrai lokalik.

4. Garapen propioko irratia: programazioaren alorrean erabaki autonomoak hartzen dituzte irrati hauetan, batzuetan bide berriak urratuz. Beren ingurumarian gertatzen denari adi egon ohi dira, eta beharrezkoa bada, berehala aldatzen dira aldatu beharra dagoenean. Irrati kamaleonikoak dira, irratsaio eta esperientzia onak zein txarrak sor ditzaketenak. Esparru mediatikoa etsai dute irrati hauek, zeren eta darabiltzaten ekoizpen-moldeak eta finantzazio-bideak ez baitira nagusi.

Lokalismoak geure ingurumenera garamatza, eta ezaguna denetik hurbil egoteak gure arreta pizten du maiz. Informazio lokala soilik emateak, ostera, desabantailak ekarri ahal dizkigu, erreferente nazional, estatal edo kontinentalek ere beren aztarna uzten baitute jendearengan. Kontua ez da horrelako informazioa —lokala ez dena— alboratzea, informazio lokalarekin uztartzea baizik. Batak ez du bestea kentzen.

Sarritan esaten da irratia hedabide aproposa dela informazio eta musikarako. Esperientziak erakutsi du, bi alor hauetan eragina baduela; eta telebistak kendutako esparrua erabat berreskuratzea ezinezkoa den arren, ezbairik gabe, irratiak entzuleria mantentzea du erronka, baita entzuleria berezituentzako programazio desberdinak egitea ere. Informazioa eta musika programazioaren ardatz nagusi bilakaturiko irratietan, bost kategoria hartzen dira aintzat:

1. Mintzoa (informazioa, kirolak, eguraldia eta kanten aurkezpena).

2. Musika orokorra (*pop*a, *rock*a, dantzarako musika, *countrya*...).

3. Interes bereziko musika (*reggae*a, opera, *blues*a, *jazz*a...)

4. Ekoizpen musikala (identifikazio-doinuak, musika-boladak, zubiak...).

5. Publizitatea (iragarkiak, babesleen identifikazioak...).

Irrati lokaletan ere edukiak informazioan eta musikan oinarritu ohi dira, bestelako edukiak dituzten saioak ere entzun daitezkeelarik, esperimentaziorako irratsaioak hain zuzen. Irrati lokalek estazio haundi-maundientzat harrobi ezin hobeak izaten segituko dute; eta baliabideak lortzeko dirurik ematen ez bazaie, zail edukiko dute entzuleriaren kontuan irrati handiei nagusitzea.

Irrati lokal guztietan programazio desberdinak egiten dira, bakoitzak bere *target*a edo jomuga duelarik. Programazio lokalak burutzeko orduan programatzaileak aintzakotzat hartu behar dituen faktoreak zein diren ikustea da kontua.

Lehenik eta behin, esan beharra dago, programatzaileak ongi asko ezagutu behar duela irratiaren estaldurapean dagoen populazioa. Entzule eta entzulegai guztien ohituren gaineko datuak eduki behar ditu kontuan, estazioaren baliabide materialak eta giza alorrekoak ondo ezagutzeaz gain. Horrekin batera hedabideen kontsumoa eta lehiakide direnen estrategia programatikoei ere so egin behar die, bere burua hobeto kokatzeko. Programazioko irratsaio desberdinei jendeak zer erantzun ematen dien ikusteko, denbora-unitateak zehaztu behar ditu, beraietan irratsaio-egileei konfiantza emanez, harik eta aurretik zehazturiko epemuga hori —hiru hilabetekoa da gutxienezkoa— amaitzen den arte. Orduantxe heltzen da, estazioko zuzendariarekin batera emaitzak aztertzeko eta beharrezkoak diren erabakiak hartzeko garaia.

Ondoren Holanda edo Herbeheretako kasua aztertuko dugu apur bat, alde batetik, Europako estatu batean irrati lokalen programazioan zer-nolako ereduak diren nagusi ikusteko, eta bestetik, estazio hauek irratigintza osoan zer pisu duten ikusi eta telebista lokalekiko lehia zertan den jabe gaitezen. Datuak Internetetik hartu ditugu.

Batzuetan gobernuek arautzeko joera agertu dute, irrati lokalen sarearen helburuak eta edukiak bideratu nahirik. Horrela, esaterako, estatuaren dirua jasotzeko, programazioa zaindu beharra dute Holandan. 1992an onetsi zen araudiaren arabera, programazioaren %50 informazio-, kultura- edo hezkuntza-alorrekoa izan behar da. Herri horretan batez beste 9 orduko programazio edo emanaldia dute irrati-estazio lokalek. 1995ean 226 estazio lokal izan ziren baimenduak publizitatea uhinetaratzeko. Nolanahi den ere, publizitatea osagarria izan ohi da diru-sarreren kontuan. Hona hemen zenbait datu aipagarri:

- Holandan 600 herri baino gehiago daude, eta 450 irrati-estazio.

- Irrati lokal guztiak aintzat hartuta, 13 milioi bizilagunengana heltzen dira. Telebista lokalek, ostera, 7 milioi hiritarrengana baino ez dira iristen.

- Telebista-estazioek 80.000 biztanle baino gehiagoko hirietan transmititzen dute; irratiek, berriz, herrisketara ere heltzen dira.

- Komunitate txikietan sustengu sozialak edo entzunkideen diru-laguntzak eta lanak kontu ekonomikoak baino garrantzi handiagoa eduki ohi dute irrati lokalen arrakastan.

- Estazio lokaletan honako eduki eta saio hauek landu ohi dira arrakasta izateko: informazio lokala, politika, kultura eta komunitateko talde berezientzako saioak; baita dibertimendu-saioak ere.

- Herbeheretan estazio gehienak *middle of the road* tankerakoak dira.

Irrati-estazio lokalak Holandan:

	estazio-kopurua	publizitatedunak	portzentaia
1991	298	17	%6
1993	345	177	%51
1995(mai.)	372	226	%61

8.7. IRAKURGAIA

Atal honetako irakurgaia Mariano Cebrián irakaslearen testu batetik hartua da (1994, 423-424. orr.). Cebrián irakasleak programazio-zikloak ditu aipagai. Testua irakurritakoan, ideia nagusiak hartu eta zuregandik hurbil dagoen tokian tokiko irrati batera edo dena delako estaziora joan eta arduradunei zer-nolako programazio-zikloak egiten dituzten galdetu. Gero ikaskideekin informazioa trukatu.

Programazio-zikloak

Programazioa diseinatzeko orduan garai edo sasoiak hartzen dira kontuan. Maiztasuna programazioan dagoen berezitasun garrantzitsua da. Eskuarki bi aldaki ditugu programazioan, eguraldiaren gorabeherak (urtaroetan gertatzen direnak) eta entzuleen ohituren aldaketak direla-eta. Horrek hauxe dakar: batetik denboraldi luzeko programazioa egitea, udazkenetik udaberriaren amaiera arte; eta bestetik, laburra, uda-

rako baino ez dena. Lehenbizikoan, entzuleek, Gabonetako eta Aste Santuko periodo laburretan izan ezik, ia ez dituzte beren ohiturak aldatzen, lantokian, bidaiak egiten eta etxeko ekanduak burutzen pasatzen baitute beren denbora; hortaz, programazioak aldaketa gutxi eduki ohi du.

Hala ere, aldaketak ager daitezke irratsaioren batek huts egiten duenean, edo bukatutakoan beste batez ordezkatua izan behar denean; programazio horren barruan estazio batzuek hiru hilero egiten dituzte aldaketak, nahiz eta berritzea erabatekoa ez den, programa batzuen ordezkatzea baino ez da-eta. Azken buruan, irratsaio berrien promozio-planteamendua da, programazio-aldaketa baino gehiago.

Uda partean aldaketa handia jazo ohi da, entzuleriaren ohiturak asko aldatzen baitira. Urtaro horretan etxetik kanpo luzez egon ohi gara; opor-garaia da eta, oro har, hedabideekiko harremanak aldatzen ditugu, batez ere irrati eta telebistarekin. Hala ere, albistegi eta gainerako informazio-saioen programazioak bere horretan dirau, ordutegi-aldaketa batzuk gorabehera. Are gehiago, kirol-aroa izaten da kirol-informazio espezializatuaren emendatzea gertatu ohi baita, irrati-estazio batzuetan horixe eskaintza nagusia izanik...

Bada gaur egun zeharo finkatuta dagoen joera bat, ziklo laburragoetan programazio desberdinak egitekoa, asterokoa egiten den bezala. Ia irrati-estazio gehienek daukate asteko lanegunetako programazioa, asteburukoa duten bezalaxe; horren zergatia entzuleen ohituren aldaketan oinarritzen da, baita lanaren barne-antolaketan ere. Aldaketa hori informazio-zerbitzuetan igartzen da gehien. Profesionalen taldeak desberdinak dira, eta irrati-estazioaren beste ikuspegi bat ematen dute aditzera. Adibidez, asteburua kirol-informazioaren puntu gorena da, eta hori nabaritu egiten da programazioan. Horren kariaz, irrati-estazioek larunbat eta igande goizetan magazinak ipintzen dituzte eguneko gertaerei begira, eta arratsaldeetan kirol-informazioa uhinetaratzen dute nagusiki.

Denboraldi berri oro berba egiten da berregituraketaz, hitz hori berritze-garaiko hitz magikoa bailitzan; dena den, normalean, berregituraketak ordutegi-aldaketa txikiak baino ez dira izatez, edota pertsonen lanpostuen aldaketak. Antzeko zerbait gertatzen da irrati-estazioko zuzendari-taldearen aldaketekin. Egiten den lehenbizikoa programazioa berregituratzea da, taldearen aldaketa agerian uzteko, ezer gutxi aldatzen den arren.

8.8. ERREFERENTZIAK

Cebrián Herreros, Mariano. “La estrategia de las diferentes emisoras en materia de programación” in *Rencontres 79* (Irratiazko Ikasketen V. Nazioarteko Astea, Torremolinos, 1979). Madril: RNE, 1980.

Cebrián Herreros, Mariano. "Programación informativa radiofónica" in *Información radiofónica. Mediación técnica, tratamiento y programación.* Madril: Síntesis, 1994, 419-439 orr.

Díaz Mancisidor, Alberto eta Urrutia, Victor. *La nueva radio*. Bilbao: EHU, 1986.

Díaz Mancisidor, Alberto. "La radio subsidiaria" in *Tendencias 1994*. Madril: Fundesco, 1994, 241-246 orr.

Faus Belau, Angel. "Programación informativa y programación informativa diaria" in *La radio. Introducción a un medio desconocido.* Madril: Editorial Latina, 1981, 207-243 orr.

Fernández Asis, Victoriano. "Estructura de programas" in *Radio-televisión. Información y programas*. Madril: Radiotelevisión española, 1986, 23-33 orr.

H. De la Mota, Ignacio. "Programación, programación de bloques, programación puente" in *Diccionario de la comunicación*. Madril: Paraninfo, 1988, 216 or.

Martí i Martí, Josep M. *Modelos de programación radiofónica*. Barcelona: Feed-Back Ediciones, 1990.

Martí i Martí, Josep M. "La programación local en radio: formatos y tendencias" in Universidad Internacional Menéndez y Pelayo-ren mintegian: *La radio local en España. Tendencias*. Santander, 1994.

Martí i Martí, Josep M. "Nuevas redes: autopistas de especialización para la radio" in Universidad Internacional Menéndez y Pelayo-ren ikastaroan: *La radio española ante las nuevas redes de comunicación*. Santander, 1996.

Merayo Pérez, Arturo. "Mejorar la programación" in *Para entender la radio. Estructura del proceso informativo radiofónico.* Salamanca: Universidad Pontificia de Salamanca, 1992, 335-337 orr.

Muñoz, José Javier eta Gil, César. "Concepto y tipos de programación radiofónica" in *La radio. Teoría y práctica*. Madrid: IORTV, 1986, 46-47 orr.

Norberg, Eric G. *Programación radiofónica: estrategias y tácticas.* Madril: IORTV, 1998.

Remesal, Agustín. "France Info: la noticia total" in *Mensajes y Medios*. Madril, 1990, uztaila, 16. zkia., 14-19 orr.

Wilby, Pete eta Conroy, Andy. *Radio Handbook*. Londres: Routledge, 1994.

9. IRRATIAREN NORABIDE BERRIAK

9.1. IRRATIBIDEA DIGITALIZAZIOAREN AROAN

Irratia bigarren iraultzaren erdian dago sartuta jada, behin transistoreen eta FMren aroa iragan ostean. III. milurtekoaren hastapenean *ikusizko irrati* bihurtuko zaigu orain arteko entzunezko irratia, hedabide zaharra, hedabide pobrea omen dena. Irratia izango da oraindino, audioan oinarrituko baita, bere erroak gogorarazi behar izateaz gain; baina ikusizkoa izango da, zeren audioarekin batera ikusmena baliatzeko aukera emango baitigu. Infor-mazioa belarrietarik eta begietatik heltzen zaio gizakiari gero eta gehiagotan gure gizartean, eta etorkizun hurbileko plataforma multimediatikoetan gure sentimen guztiak erabili ahalko ditugu. Hala ere, bere horretan segituko duke irratiak, berehalako informazioa jasotzeko bitarteko bikaina den aldetik. Aldaturik eta teknologia berriei egokituz, baina gurekin eta gugandik hurbil, laguntasun-uneak eduki eta informazio arina jaso nahi dugunerako. Multimedia--sistemen heltzea, informatikaren aurrerakuntzak eta entzuleen eta merkatuen ohitura berriei egindako egokitzapenak atal berria sortzen ari dira irratibidearen historian. Atzean eta iraganean geratzen da *tezefa* —izen hori eman zitzaion Ipar Euskal Herrian luzaro irratiari— t.s.f. akronimotik, *télégraphie sans fil* delakotik, alegia. Behialako *harigabeko telegrafia* hura urrun geratzen zaigu dagoeneko. Lehenbiziko ehun urteak paseak dira, 1887ko uztailaren 2an Guglielmo Marconi italiarrak harigabeko telegrafia berriaren patente britainiarra lortu zuenetik. Ehun urtez eduki dugu dibertimendua, hezkuntza eta informazioa irrati bidez. III. milurtekoaren atalasean 2.100 milioi irrati-hargailu zeuden munduan eta telebistak egindako lehiakortasun bortitza gorabehera, irratiak burua makurtzeke dirau munduaren hiru eskualdeetan: garatuan, garabidekoan eta azpigaratu edo txiroan.

Izan ere, irratia hedabide bizia da eta hiritarrek estimatua, CD edo disko trinkoaren estandarra agertu zenetik, soinuaren kalitateari dagokionez zaharkiturik geratu dena. Gaur egun, soinuaren kalitatea asko hobetu da, eta goi-mailako fidelitate handiena lortu nahian, Estatu Batuetan Dolby Digital AC-3 izeneko sistema garatu da; Europan, kalitate eskasagokoa den Dolby Surround ProLogic deritzona ere asko hedatu da. Panorama horretan ez dirudi irrati analogikoaren soinuak bere horretan irauteko aukera handirik duenik. Digitalizazioaren aroa da gurea, eta irratiak ere egokitu beharko du aro honetara.

Digitalizazioak dakarkio irratiari aire freskoa. Soinuaren jasotzearekin erlazionaturik ez dauden irrati-prozesuetan errealitate bihurtu da digitalizazioa irrati-idazgela eta estazioetan; hala ere, oraindik beste pauso garrantzitsu hori ere eman behar du, soinuaren jasotze digitala orokortuz. Jasoketa digital horrek eragingo du irratiaren aldaketa, hedabide hori neurri handiz multimedia bihurtuz. Nahiz eta aro berri honetan orain arteko izena gorde ahal duen, jantzia aldatuko du irratiak, ikusgarri eta grafikoa bilakatuz, eta musika eta informazioaren alorrera gero eta gehiago mugatuz. Gaur egun Mendebaldeko Europan estatistikek dioskute entzuketa higikorraren indizea ehuneko 20 ingurukoa dela (Martínez-Costa, 1997, 84) eta espero izatekoa da datozen urteetan gure kontinente zaharrean kopuru horrek goraka egitea. Eta hori zenbait faktoreren eraginez gertatuko da; besteak beste, telebista digitalak eragina edukiko du populazioaren irrati eta telebista entzuketa-indizeetan, autoprogramatzeko aukera, programa-aniztasuna, *home cinema* eta horrelakoak jendearentzat oso erakargarriak bilakatuz. Gainera, ibilgailuetarako irrati-hargailuen prezioak ere behera egingo du, hainbat jenderi aukera emanez irrati digitalaren soinuak jasotzeko. Ikusentzunez-koen esparruan dagoen lehian, irratiak galtzeko aukerak ditu entretenimendu eta jasoketa estatikoen alorrean, azken boladan horrenbeste garatu diren Internet, bideo-jolasak eta dibertimenduarekin erlazionaturiko gainerako moduak direla-eta. Horiek guztiak orokortutakoan, ene ustez, irratiari informazio eta musikaren bidea baino ez zaio geratuko beste mende batez irauteko. Seinale multimediatikoak jasotzeko aparatu-aniztasuna ere garrantzitsua izango da, higikortasunaren aroan irratiak ere bere lekua eduki dezan. Genevan 1999ko urrian egindako Telecom azokan ikusi den bezala, jasoketa higikorrean egon daiteke irrati berriaren salbazioa, behin digitalizazioak ikusizkoaren esparruarekin bat egin ostean.

Orain arte irratia audioa baino ez da izan, eta gaur egun oraindik gogorra egiten zaigu irratibidea esparru horretatik harantzago ikustea, baita oraindik daukan izena ematea ere. Irratiak balore erantsiak edukiko ditu etorkizunean. Pantaila txikien bidez jasoko diren irudiak, mapak eta datu grafikoak irratiaren kontzepzio berrira garamatzate, multimedia den irratira hain zuzen ere. Antzeko prozesua ikusiko duke prensa idatziak ere, zeren Internet deritzon sareak idaztankera estatikoa ere aldatu baitu.



Irratia ere present dago ziberguneetan.

9.2. NORABIDE BERRIAK (I): DAB SISTEMA

Irrati digitala soinuaren igorketa eta jasoketa da, disko trinkoak erreproduzitzeko aparatuetan erabiltzen den teknologiaren parekoa baliatuz, audioa prozesatzen dugularik. Kalitatea soinua trinkotzeko teknika berezi batez lortzen da: MPEG 1 eta MPEG 2. Horrela, DAB edo Digital Audio Broadcasting izeneko sistemak gure entzumenak igartzen ez dituen soinuak baztertzen ditu, eta bat/zazpi erlazioaz datuak igortzen dizkigu jatorrizko soinutik eta kalitatea galtzeke.

Irrati digitalaren abantailak ikusten ari gara dagoeneko azken belaunaldiko irrati-aparatuetan, hots, pantaila digitalak dituztenetan. Gaur egun, irratia sintonizatzea errazagoa da, eragiketa berehalakoa bilakatu baita. Orain jada ez dugu diala higitu behar, botoiari birak emanez. Pioneer enpresak plazaratutako BSM motako sistemetan pentsatzea baino ez da: bilaketa automatikoa egiten digu aparatuak, irrati-seinalerik onenak harrapatuz. Baina, irrati digitalak beste onura handiagoak ekarriko dizkigu: irrati-estazioaren irratsaioen seinaleak nahi beste kilometroz sintonizaturik eduki ahal izatea, alde batetik; eta irrati-pantaila digitalari esker datu eta zerbitzu erantsiak jaso ahal izatea, bestetik.

Eureka 147 deritzon proiektuari esker, soinua jasotzeko DAB sistema errealitate bihurtzeko dago. DAB sistema sortu zutenek ondoko helburua zeukaten: irrati-hedatzaileek, sare-hornitzaileek, tresna-ekoizleek, profesionalek eta administrazioek forum egokia eduki behar zuten DABek ematen duen soinu-kalitate handiko sisteman oinarriak jartzeko eta soinu horren jasotze finkoa eta ibilkorra abiarazteko, horrela interferentzia eta *multipath* oihartzunei itzuriz.

José Luis Tejerina-k (1997) aipatu duen bezala, irrati digitalak erraztasun handiak emango dizkigu irrati analogikoekin erkatuz gero:

- Audioaren jasotze finko eta ibilkorrean kalitate handiagoa.
- Kanal irrati-elektrikoaren erabileran malgutasuna (programa-kopurua versus kalitatea).
- Programen eskaintza emendatzeko posibilitatea.
- Balore erantsiko zerbitzuak:
  - Programei atxikita edo kanpotik doazen datuak transmititzeko ahalbidea.
  - Irudi finkoen aurkezpena.

Izan ere, irrati digitalak informazioaren esparruan ere aldaketa ekarriko du, zeren posible izango baita albistegiei erantsitako datuak ematea, baita datutegi zehatzak (estadistikak, albiste tematikoak…) eta irudidun informazio meteorologikoa eskuratzea ere.

Atal honi bukaera emateko, esan dezagun 1997ko udazkenean DAB seinaleak Europan 100 milioiko populazioa hartua zuela.

9.3. NORABIDE BERRIAK (II): INTERNETEKO IRRATIGUNEAK

Interneteko audioaren alorrean murgilduz, historia egin beharra dago komunikatzeko kanal horretan audioaren bilakaeraz jabetu ahal izateko.

Behin MBONE izeneko teknologiak porrot egin eta gero (teknologia hori sareen sarearri audioa eta bideoa emateko erabili zen), 1995. urteko apirilean Seattle-ko enpresa batek *Real Audio 1* produktua merkaturatu zuen. Progressive Networks-ek sortutako algoritmo-kodifikatzaile horren bidez, zibernautak kalitate baxuko soinua jaso zezakeen, baldin eta 14,4 kbps-ko modema bazuen. Audio *streaming*-aren jasoketaren alorrean urrats nagusia zen hori. Urte berean, 1995eko udaberrian zehazki, Kalifornia-ko Silicon Valley-ko enpresa batek *Streamworks* ospetsua plazaratu zuen, *Real Audio 1*en kalitatea gaindituz. Lehiakortasuna hasia zen audioaren esparruan Interneten. 1995eko azaroan *Real Audio 2* agertu zen soinu monofonikoan, aurreko bertsioa erabat gaindituz, 28,8 kbps-ko modema erabil baitzitekeen. Orduz geroztik, *Real Audio* estandarra nagusitu da Interneten audioaren esparruan. 1996ko irailean jada 10 milioi telekargarekin Progressive Networks-en ekoizkinaren hirugarren bertsioa agertu zen, behin estereoaren estandarra lortzeko grina eduki eta Macromedia enpresaren *Shockwave* izeneko *plug-in*arekin lehia bizian egon ondoren. Gogora dezagun *Shockwave*-k soinu hobea zuela *Real Audio 2*k eta *Streamworks*-ek baino; gainera soinu esteroa garraia zezakeen *Shockwave*-k. Dena dela, hemendik internet-urte batzuetara, badirudi *Real Audio Video* sistema dela Sarean audioa eta bideoa inplementatzeko gehien erabiliko den estandarra. 1997ko abuztuan jadanik 692 irratigune zeuden erregistraturik *Timecast*-en (www.timecast.com), algoritmo horren laugarren bertsioaren erabiltzaile gisa (*Real Audio Video 4*). 1998. urtean ziber-entzuleak *Real Audio Player*-en bosgarren bertsioa lor zezakeen.

World Wide Web edo Mundu Zabaleko Sarean audioa jasotzeko programeria orokortu ahala, informatika-tresnen prezioa ere beheraka joan da, gero eta jende gehiagoren eskuetara helduz. Estandarrek gero eta RAM memoria gehiago eskatzen dute; halaber, mikroprozesatzaile arinagoak, eta programak eta dokumentu multimediatikoak gordetzeko gauza diren tresna egokiagoak. 1999ko neguan estandarrak RAM memorian 128 megabytetan edukitzea eta ipintzen diren disko gogorrak 17 megakoak izatea, zeharo ongarria da baliabide multimediatikoak baliatu ahal izateko. Horrez gain, gaur egun Interneten zehar

bidaiatzeko ditugun abiadurak (RDSIren aukera abiada hirukoizteko) eta sarearekiko lotura gehiago eta luzeagoak egiteko zabaldu diren tarifa telefonikoen aukerak kontuan izanik, erraz kontura gaitezke zeinen etorkizun itxaropentsua eduki dezakeen irratibideak —agian hobe genuke irratia esan ordez audioa esatea— kanal berri honetan.

Dagoeneko badira Interneten ahalbideetan irrati-estazioak kokatzeko konfiantza duten pertsonak. Pertsona bakarrak abiaraz dezake estazioa; horren adibidetzat hartu ohi dena, Radio Cable izenekoa dugu. Fernando Berlinen irratiak nazioarte-mailako ospea lortu du Microsoft enpresari esker, zeren, azken honen aburuz, baita Washington Post eta Wall Street Journal kazeten ustez ere, Sareko onenen artean egon baita 7 hilabetez.

Irrati-mota berri honen eta irrati konbentzional edo hertziarraren artean zer-nolako aldea dagoen argi ikusteko, pentsa dezagun Interneten jartzen den estazio edo guneak hiru datu-zirkulazio egitea posibilitatzen duela, dela soinu, dela irudi, dela testu soilaren zirkulazioa egiten dugunean, irrati hertziarrean kasuan lor ezin daitekeena. Lehenbiziko zirkulazioak *unicast* izena dauka. *Unicast* sistemaren bidez, jasotzaile bakoitzari datu-multzoen kopia desberdinak igor dakizkioke. Bestetik, *broadcast* sistema daukagu, hau da, irrati konbentzionalarena: informazio-multzoa ahalik eta jasotzailerik gehienengana igortzen da. Azken sistemak *multicast* izena dauka: igorleak bezero edo jasotzaile hautatuei igortzen dizkie datuak, hots, zerbitzu baten harpidedunei. Datuak zirkulatzeko hautu horien kariaz, argi dago *push* izeneko teknologia garatzeko bidean egongo dela, etorkizunean kartara egindako irrati-zerbitzu erakargarria izateko moduan.

Interneten World Wide Web (Mundu Zabaleko Sarea) deritzon sarea dugu, hipertestua, audioa eta irudiak garraiatzea posibilitatzen duena. Sareen Sarea deitu ohi dena, Interneten dauden eta egin daitezkeen zerbitzuetariko hedatuena da. Estatistikek Mundu Zabaleko Sarean zehar nabigatzen %75 ematen dela dioskute, beste %25 posta elektronikoa eta FTP edo fitxeroak ekartzen edo igortzen egiten delarik. Datu hori kontuan hartuta, Sareak ateak zabaltzen dizkie ziber-irratigunei, nabigatzaileen informazio egarria asetzeko. Eta informazioa diogu, zeren lehenbiziko irratiguneak informazioan oinarritu baitira, nahiz eta sustatzaileak jakitun egon, ziur aski, oraindik WWW sarea ez dela egokia azken momentuko albisteak jasotzeko (oraindik trasferentzia-abiadurak handiak ez direlako).

Sarean egoteak ez dakar diru-inbertsio handirik. Ziber-espazioko entzuleengana iristea edonoren esku dago, diru gutxi behar baita irratigunea muntatzeko. Baina zer bilatzen dute irrati-enpresek hedabide berri honetan? Hasieran presentzia instituzionala baino ez, hau da, enpresaren irudia present egotea kanal berrian. Garai horretan enpresari buruzko datu informatiboak eta bertan lan egiten duten irratilari ospetsuen gaineko datuak ipintzen dituzte. Gero, nahiko estatikoak diren datuei itzurtzen zaie, ziber-entzuleengana iristeko asmoz, eta irrati analogikoko edukiak ekartzen dira (Luis Rodríguez, 1997); hots, edukiei dagokienez, irrati analogikoekin parekatzea gertatzen da.

Irrati-hedatzaileak kontuan izan behar ditu, soinua Sarean ipintzeko dauden molde desberdinak. Mundu Zabaleko Sareak hiru aukera ematen dizkigu audioa agertzeko orduan:

- Fonotekakoa edo iraunkorra: telekargarako aurkezten den audioak luzaro dirau interesgarritasuna gordez (erreportaia bereziak, historikoak; deklarazio edo hitzaldi garrantzitsuak…).

- Iragankorra: zibergunean jartzen den audioa berehala iraungitzen da.

- Zuzenean: gertatu ahala igortzen da; hau da, artez edo zuzenean emititzen denean.

Irismen-aukerei gagozkiela, bi posibilitate desberdin ditugula aipatu behar da. Izan ere, autoprogramazioaren alorrean sartzeko aukera berria ageri zaigu. Zehazki, honako hauek dira posibilitateak:

- Teledeskarga: saretik jaisten dugu audio-artxiboa, nahi dugunean entzun ahal izateko.

- *Bit streaming*-a: teledeskarga egin arau, audio-informazioa erreproduzituz doa (*on-line*ko erreproduzioa, zuzenean egina alegia).

Sarean egoteaz batera, aplikazio berriak sortu dira irratigintzan. Irratiguneak izaera multimediatikoaz jabetzen dira; irudiak, datutegiak, animazioak, bideoa, testu dinamikoa… dena balia daiteke zibergune berrietan, irratia audiotik harantzago doalarik.

Interneteko irrati-zerbitzarietako informazioaren gaurkotasuna jada ez da problema *WebObjects* bezalako teknologiei esker. Apple eta Next enpresek sortu duten teknologia horren bidez, ziber-orrialdeek lotura dinamikoa dute erabiltzaileen aplikazioekin; era horretan sistema zentralean dagoen informazioa aldatzen denean, web-zerbitzaria gaurkotzen da momentuan. Izan ere, futboleko emaitzak berehala izan daitezke gaurkotuak. Teknologia horrek arrakasta lortu du zenbait irratigunetan. Londresko Capital Radio, esaterako, irratigune dinamikoa bilakatu da, sistema horrekin ziber-nabigatzaile asko bereganatuz.

Sarerako sarrerak kontrolatzeko sistemari dagokionez ere, ziber-irratilariek aukera asko eta handiak dituzte estatistikak lortzeko, zer-nolako ikustaldiak egiten diren, nondik egiten diren eta zenbat artxibo jaisten diren uneoro jakiteko. Mundu analogikoan soziologoek egiten ohi dituzten azterketak eta zundaketak ez daude faltan Interneten *software* edo programeriari esker. Horra hor *Analog*, *Access Watch* eta gainerako analisi-erremintak gure berezoez uneoro informaturik egoteko, eta horrela estrategiak markatu ahal izateko, entzuleria fideltzeko edo norabide berrietan zundatzeko. Azken buruan, Sareak berak ematen digu aukera entzuleen gaineko datuak geure menean edukitzeko.

Bestalde, Internet telekomunikazioekin ere erlazionatzen da artez, Sarean arrakasta edukitzeko transferentzia-abiadura azkartzea zeregin garrantzitsua baita. Norabide horretan *DirecPC* izeneko sistema merkatuan dago jadanik, Eutelsat 2-F3 satelitearen bitartez Internet arina eskuragarri edukitzeko. Hughes Network Systems enpresa estatubatuarrak sortutako *DirecPC*-k 6-12 Mbps-ko transferentzia-abiadura ahalbidetzen digu. Horrek oso atzean utziko ditu gaur egun ditugun abiadura arruntak (28,8 kbps telefonia konmutatuan eta 64 kbps telefonia digitalean).

TELEDESIC proiektua (www.teledesic.com) ere hor dago, telekomunikazioen alorra irauli nahian eta IRIDIUMekin lehian. TELEDESIC, Craig NcCaw ospetsuaren proiektua, Bill Gates-ek babestua da. 2002. urtean abian egon behar duen satelite-sistema hori 840 satelitek osatua da, munduaren edozein txokotatik Internetekiko lotura ahalbidetzeko. 1998ko otsailean lehenbiziko satelitea jaurtiki zuten test moduan, eta hilabete geroago Alwaleed printze arabiarrak 200 milioi dolar inbertitu zituen proiektuan.

Bukatzeko, ezin dugu albo batera utzi Hannover-ko azokan, CeBIT´98 izenekoan, aurkeztu zen beste aukera berria, jende askori harridura ekarri ziona: Internetekiko lotura energia elektrikoaren sarearen bitartez egitea. Nork esango zuen orain zenbait urte sare elektrikoa ere baliagarria izango zela irratiaren audioa entzun ahal izateko, multimediak dituen baliabideak gauzatu ahal izateko. Teknologia berri horren egileak Nortel (Northern Telecom) eta United Utilities dira.

Ondoren, Interneteko zenbait ziber-irratiguneren helbideak adierazi dira. Irratiguneek izen hori hartzen dute, hastapenean audioan oinarritu zirelako, ondoren Interneterako pausua emanez. Batzuk engoitik ikusentzunezkoen esparruan kokatu dira zibergunean, irudi-artxiboak ere jarriz. Audioaren esparruan sakontzeko ziberguneak eta irratiguneen zerrendak dituztenak ere agertzen dira.

Irratiguneak eta audio-baliabidetegiak	URL
Berriozar Irratia	http://www.arrakis.es/~zartako
Cadena Cope	http://www.cope.es
Cadena Ser	http://www.cadenaser.es
Cadena 100	http://www.cadena100.es
Cadena 40	http://www.cadena40.es
Capital Radio	http://www.capitalfm.co.uk
Catalunya Radio	http://www.catradio.es
Donostia Irratia	http://ccd.herpipo.com/rdonosti/index.htm
EITBko estazioak	http://www.eitb.com
En tu onda	http://www.redestb.es/entuonda
Equipo A 40 Bilbao, El	http://personal.redestb.es/jagoba

Flash FM	http://www.intercom.es/fashfm
FM Vitoria-Gasteiz	http://members.xoom.com/maspv/fmvitoria.htm
France Info	http://www.radio-france.fr/chaines/france-info/flash
Irratirako Audio Baliabideak	http://194.224.4.2/ponchecaballero/radiotv
Mediapolis Radio	http://mediapolis.es/radio
Onda Cero Radio	http://www.ondacero.es
Radio Cable	http://www.xpress.es/radiocable
Radio en Internet	http://www.hispacioweb.net/hellradio
Radio Exterior de España	http://www.rtve.es/rne/ree/index.htm
Radio Nacional de España	http://www.rtve.es/rne *edo* www.rne.es
Radio Rioja	http://www.radiorioja.es
Radios en Direct sur Internet	http://comfm.fr/sites/rdirect/index.php3
RealAudio in Spanish	http://www.digigrup.com/realaudio
Top Radio Bilbao	http://www.topbilbao.com
100 años de radio	http://www.weblandia.com/radio/inite.htm

9.4. NORABIDE BERRIAK (III): CD AUDIOAREN KALITATEA SATELITE BIDEZKO IRRATI DIGITALEAN

Telekomunikazioen esparrutik irten gabe, aipa dezagun goi-fidelitateko audioa mundu osora bidaltzeko eta edozein tokitatik jasotzeko Internetetik kanpo dauden esperientziak ere egin direla, epe luzera etorkizun argirik ez daukatenak. Horrela, 1995. urtean ASTRA enpresa luxemburgotarrak posible egin zuen irrati digitala, Europako bizilagunen artean jasotze estatikoa posibilitatzeko. ISO/IEC 11172-3-MPEG 1 estandarra erabili zen ADR (Astra Digital Radio) izenekoa gauzatzeko. Estandar horren bidez frekuentzia-erantzuna 20Hz-20 kHz artekoa da, distortsio maila baxua —0,03koa— eta 91 dBeko seinalea/zarata erlazioa lortuz, era horretan CD audioaren kalitatera asko hurreratuz.

ASTRA enpresak Kathrein izeneko aparatu jasotzaileak jarri zituen salmentan Musicam audio-seinaleak eta irrati-telebista analogikoarenak jasotzeko. Irrati-hedapen digitalaren alorrean, ASTRAren eskaintza 106 kanalekoa da, horietarik 44 doan eta 62 kodifikatuak (Digital Music Express, DMX). Kanalen tipologia musika espezializatuaren formatu desberdinetan zentratzen da (pianoa, *light jazz*a, *new age*a, musika hawaitarra, musika judua…), kanal informatiboak eta kulturalak ere asko izanik.

Dena den, CD audioaren kalitatea daukan irrati-mota horren erakargarritasuna eskaintza programatikoaren menpean geratzen da; eta horren barruan hizkuntza europar desberdinak sartzen dira, bistan denez.

9.5. ARO DIGITALEKO IRRATIAREN TIPOLOGIA

Irrati hertziar zaharrak hartuko dituen norabideak ezagutu ondoren, hedabide honetan interesaturik dauden pertsona eta adituek beren buruari egiten dizkioten galderak mota honetakoak dira: zer-nolako joerak egongo dira programazioan? edukietan irrati digitala irrati analogikoaren kopia petoa izango ote da? Horra hor galderak.

Etorkizuneko irratia ondo ulertzeko gakoetariko bat interaktibitatea izango da. Lehen munduko herrietan ere berrogei internet-urtez (hamar urte arrunt alegia) itxaron beharko dugun arren, apurka-apurka irrati-telebista digitalaren interaktibitatea errealitate bihurtuz joango da, kartara egindako hedabide modura kontsideratu arte, hau da, programen autoerrealizazioa gauzatu arte. Dagoeneko hasiak gara ikusten horrelako teknologien lehenbiziko saioak. Irrati digitalean goi-fidelitateko soinuak igortzen dira zuntz optiko eta sateliteen bitartez. Urrats bat hurbilago gaude, orain dela asko Bertold Brecht-ek iragarri zuen interaktibotasunetik, pauso bat hurbilago tele-informazioaren gizartera heltzeko. Hain zuzen, interaktibitatea da irratietako edukiak aldatu ahal dituena. Dena den, irratian, aditu askok edukien kopia baino ez dute espero, analogikotik digitalera pasatutako edukiak baino ez ikustea alegia.

Irrati digitalean bi eredu berri ageri zaizkigu:

- *Eduki metatuetako irratia*: entzuleak makinarekin interaktibatzen du. RNEk eta Telefónica-k dituzten informazio-zerbitzuen parekoa da. Erabiltzaileak zinta batean grabatutako azken albisteak entzun ditzake. Zuntz optikoen zabaltzeaz batera, dauden trabak kendu ahal izango dira autoprogramazioa gauzatzeko. Entzuleak aktiboki hartuko du parte informazioaren hautaketan, datutegi eta audioteka interaktiboetara joan ahal izango delarik. Irratia eta telebista kaiku edo leloentzako kutxak izatetik harantzago joan ahal izango dira.

- *Iturriarekiko interaktiboa den irratia*: irrati-mota honen posibilitateak ikusiak dira jada konputagailu-sareetan. Interaktiboak deitzen diren kazetariek *multicast* moduan bidaltzen diete informazioa bezero harpidedunei, igorleak *feedback* egin dezakeelarik. Modalitate hori audio-multikonferentzia motako sistemekin dago erlazionaturik, horrelakoetan interaktibitateak mailarik gorena iristen duelarik.

Entzuleriei dagokienez, gogoeta egiteko orduan eta behin Lehen Munduan irratiak eduki duen bilakaera ikusi ondoren, joera bat iragar daiteke gure herrirako: etxeko entzuleak audioarekin bakarrik emendatu ahal direnik ez du ematen; aitzitik, ibilgailuetan egindako audio-jasotzeak gora egin dezake oraindik. Bestalde, telebista digitalarekin batera datorkigun irratiak subsidiario izaten iraungo duela dirudi, batez ere musikaren alorrean zokoraturik. Iragartzen zailagoa izan daiteke Interneten edukiko duen bilakaera; badirudi irratiguneak erabat multimediatikoak izateko joera nagusitu behar dela, sarearen ahalmen

guztia aprobetxatzearren; beraz, bideoarekin batera joango da gehienbat irrati-mota hori. Hedabide pobreak bere norabide eta esparrua bilatuko du entzuleak irabazten segitzeko, nahiz eta jakin badakien, audioarekin bakarrik ezin duela goia jo.

Estatu Batuetan horrenbeste garatu den espezializazioarekin segituko dukegu etengabe, digitalizazio-prozesuek ahalbide hori emango digutelako. Esaterako, Europan ez dira oraindik ugaldu Estatu Batuetan azken urteotan agertu diren *newstalk* izeneko irrati-estazioak. Irrati-entzuleekiko elkarrizketan oinarritutako irrati-mota horrek 1.200 estazio inguru ditu herrialde hartan, eta Europako irrati-kate handi-mandi batzuek interesa dute dagoenekoz, 24 orduz entzuleen adierazpide askea izan nahi duen irrati-molde horretan (Maherzi, 1999, 143).

Bestalde, edukiei dagokienez, Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleekin 1997. urtean azterketa bat egin genuen irratien parriletako edukiak zein ziren ikusteko. Euskal Herriko irrati-estazioetan musika eta informazioa binomioak denboraren %49,8 hartzen du. Ikerketa Hego Euskal Herriko 17 estaziotan egin zen eta informaziorako parrilek utzitako portzentaia %18,3koa izan zen; musikarena, aldiz, altuagoa zen, %31,5eraino helduz. Bestalde, entretenimendua eta hitza/hizketa, ordu programatuen %42,8ra iritsi zen (magazinak, lehiaketak, tertuliak…). Nire ustez, azken eduki hauek (entretenimendua eta hitza) izango dira, irrati digitala hedatzen denean beherakada jasango dutenak.

Edukiei dagokienez, etorkizunean irratiaren tipologia orokorra bost estazio-motaren barruan gera daiteke. Bost irrati-motak honako hauek dira:

1. Irrati musikala: Aldaki guztiak bere eginez (rocka, popa, klasikoa, etnikoa…), irrati-estazio hauek arrakasta handia lortu dute Estatu Batuetan. Bertan, irrati komertzialetan, *country* formatua da nagusi, entzunena alegia (2.525 estazio); ondoren, bigarrenik, adinekoen musika garaikidea dago *ranking*ean (1.572 estazio); eta hirugarrenik, ostera, hizketa/albisteak formatuko estazioak doaz, 1.272 izanik (Wall Street Journal, 1996ko urria). Irrati musikalean aukera asko egongo da bezero bakoitzak kalitate handiko musika entzun edo graba dezan. Musikan espezializaturiko formatuetan gehiago sakontzeko, David T. MacFarland-en azken liburua kontsulta daiteke (1997).

2. Info motako irratia: informazioan espezializaturiko irrati-estazioak. Irratia informaziorako bitarteko edo kanal egokia izaten segitu ahal delako.

3. Musi-info motako irratia: bere parrilan musika eta informazioaren eskaintza egiten duen estazioa. Berrogeita hamarreko hamarkadaren erdialdeaz geroztik, telebista lehiakide izan zuenetik, arrakasta eduki duen irrati-formula hau izan zen irratiaren pizgarri eta sustatzailea, eta etorkizunean ez du ematen erakargarritasuna galduko duenik. New York-eko WNEW bezalako irratiek ipini zuten modan koktel hori orain zenbait hamarkada.

4. Irrati generalista: hizketako irratsaioak dituen irrati-mota honetan informazio-saio onak egiten dira. Aurrekontu handiak eduki ditzaketen estazio hauek, etorkizunean kinka larrian egon daitezke, alde batetik, audientzien horma-hilobiak agertuko direlako eta, bestetik, plataforma multimediatikoek lehia handia eragingo dutelako hedabide guztien sektorean.

5. Koktel motako irratia: musika, informazioa eta hizketa duten estazioak dira; irrati merkeak, esperimentaziokoak, eta estazio askorentzat bitarteko eredu modukoak izango direnak, azkenik beste motetariko bat hartzeko balioko dutelako.

Beraz, irrati-ereduen bilakaera horixe izan daiteke, nahiz eta Hego Euskal Herrian irrati generalistak oraindik indar handia eduki. Etorkizunean, apurka-apurka, estatistikak irrati espezializatuaren alde egingo du, ziur asko. Informazioaren esparruan, esaterako, zenbait erakundek dagoeneko apostu egin dute espezializazio horren alde, informazioan espezializaturiko irratia abian jarriz, Kataluniako irrati publikoak egin duen legez.

Josep Martí irakasle katalanak (1996) iragarri bezala, irratiguneen audientzia handien amaiera etorriko da, horma-hilobiak agertuz entzuleen nahiak asetzeko. Batzuetan hiperespezializazioa gertatuko da, digitalizazioari esker, ditugun entzuleei buruzko datuak hobeto ezagutuko ditugulako. Irrati-estazioen muntatzeak merkea izaten segituko du eta irrati berri horrek kazetari gutxiri emango dio enplegua, orain arte bezalatsu, Espainia-mailan urteroko 1.500 lizentziatu langaberen kopuru horri traba ipini ahal izan gabe.

Digitalizazioaren aroan, erronka nagusia edukietan egongo da. Alarma piztu da munduko zenbait herritan, Japonian adibidez, non telekomunikazioetarako ministerioan irrati eta telebistarako programak sortzeko grina sustatu nahi duten, kanalen aniztasunari aurre egin ahal izateko.

Programatzaileak erreminta onak izango dituzte *target* edo entzuleria-helburuetara artezago heltzeko, programeria informatikoari esker entzuleak ia polizialki kontrolatuz. Beraz, aroa espezializazioarena izango dateke, nahiz eta espezializazio hori poliki-poliki finkatuz joango den.

9.6. IRAKURGAIA

Bernardo Díaz Nosty-ren testua (1998, 172-176) duzu ondoren. Irakasle espainiarrak Internet eta irrati digitalaren inguruan gogoeta interesgarriak egiten ditu bertan, irratibidearen etorkizuna zein izan daitekeen pentsatzen laguntzeko.

Internetetik DABera

Estatu Batuetan Internet erabiltzen dutenen ohiturei buruzko ikersaioek adierazten dutenez, kontsumo-baloreei dagokienez, irratia da kalterik gutxien daukan hedabidea. Internet baliatzen duen %35ek diote telebista ikusteari kentzen diotela denbora Sarean nabigatzeko, %16k prentsari eta %10ek irratia entzuteko denbora murrizten dutela. Ikersaio horiek ez dute kontuan hartzen sarean zeharko bidaiatzearen eta irratia entzutearen arteko osagarritasun-maila garaia, horretarako irrati-aparatu konbentzionala edo Interneten bidez Real Audio bezalako sistema erabiliz.

Irratia da hedabide idatzien ondoren Interneten presentziarik handiena daukana. 1998. urtean irratibideak Sarean dituen ekoizpen-lekuak 2.100 dira, Mediainfo-ren estatistikaren arabera.

Sareko irratibideak, ahalmena handitzen duten ezaugarri komunikatiboak bere egiten ditu, baita Internet bezalako euskarri multimediatikoaren agertze- eta garapen-fase honetan ere. Lehenbizikoa eta nagusia den berrikuntza, hedapenean datza: eremua zabaltzen da, emanaldi bakoitzaren seinalerako planeta osoa hartuz. Adibidez, Patagoniako irratigune txiki bat, irismen telefonikoaren bidez sareari lotura egonez gero, munduko edozein tokitatik entzun daiteke.

Emanaldien irismen orokorrari beste balore bat eransten zaio: sareak ahalbidetzen duen kontsumo-bateratasuna; hortaz, erabiltzaileak soinu-seinalea jasotzeaz batera, kazeta baten edizio digitala edo beste informazio-iturri edo zerbitzu bat kontsulta dezake.

Ziber-irratiguneetako orrietan aktibatzen diren irrati-seinaleek balore narratibo desberdinak eskain ditzakete. Denbora errealean iristen diren jarduneko emanaldi hertziarren kopiaz batera, Interneten egiten den eskaintzak diskurtsoaren sekuentzia kronologikoa hausten du, audio-artxibo historiko eta tematikoetan paketatzen diren programekin, horrela ahalgarri eginez emanaldiaren uneak finkatzen ez duen kontsulta.

Izan diren saioak eta irratiaren zabaltze- eta jasotze-euskarriranzko transizio-prozesua gorabehera —edukien desdoblamendua eta tematizazioa posibilitatzen da, satelite bidez edo kablezko plataformen eskaintzan sartzeaz gain—, oso gutxi garatu dira ekoizpen-estrategiak, eskaintzaren azterketa eta irrati digitalaren eragina eszenatoki teknografiko berrian. Estandar teknikoen deskribatzea da nagusi, eta soinuaren kalitatea, edukien dibertsifikazioa eta zabaltzearen abantailak handiesten dituen literatura topatu ohi da.

9.7. ERREFERENTZIAK

Díaz Nosty, Bernardo. “Radio: ser o no ser de una expansión” in *Informe anual de la comunicación 1997-1998*. Bartzelona: Grupo Zeta, 1998.

MacFarland, David T. *Future Radio Programming Strategies. Cultivating Listenership in the Digital Age*. Londres: Lawrence Erlbaum, 1997.

Maherzi, Lofti. *Informe mundial sobre la comunicación*. Madril: Unesco-Acento, 1999.

Martí i Martí, Josep Mª. “Nuevas redes: autopistas de especialización para la radio” in *La radio española ante las nuevas redes de comunicación* udako ikastaroan, Santander, UIMP, 1996.

Martínez-Costa, María del Pilar. *La radio en la era digital*. Madril: El País-Aguilar, 1997.

Rodríguez, Luis. “La radio en Internet” in *La radio ante la era digital: la segunda revolución* izeneko mintegian, Santander, 1997.

Tejerina, José Luis. “Las nuevas tecnologías para la radio” in *La radio ante la era digital: la segunda revolución* izeneko mintegian, Santander, 1997.

10. BIBLIOGRAFIA OROKORRA (AUTOREKA)

Hona hemen irratibidearen ikasketan gehiago sakontzeko erabil daitezkeen zenbait liburu eta artikulu. Dena den, kontsultatu aurretik, ondorengo oharrak irakurtzea komeni da.

Oharrak:

1. Egilearen izena zein den agertu ezean, liburua *anonimo*-tzat jo dut.

2. Egileak hiru baino gehiago direnean (aldizkari-artikuluak, jardunaldietako ponentziak etab.), lehenengoaren deitura-izena eta *eta beste* hitz adierazleak jarri ditut.

3. Egileak asko direnean, *zenbait autore* izendapena aukeratu dut sarrera egitean.

4. Liburuak zenbait autore eduki arren, azalean editorearen erreferentzia baino agertzen ez bada, editoreak edo argitarazleak sortzen du sarrera.

5. Eskuliburu edo estilo-liburuak komunikabideka ordenatu ditut.

LIBURUAK, ARTIKULUAK ETA LIBURU-ATALAK

AGUILERA, Miguel. *Radios libres y radios piratas*. Madril: Forja, 1985.

ALBERT, Pierre eta TUDESQ, Andre-Jean. *Histoire de la radio-télévision*. Paris: Presses Universitaires de France, 1981.

ALVAREZ ENPARANTZA, J.L. «Txillardegi». *Euskal azentuaz*. Donostia: Elkar, 1984.

ALVAREZ ENPARANTZA, J.L. «Txillardegi». *Euskal fonologia*. Bilbao: Ediciones Vascas, 1982.

ANONIMOA. *Características de la programación de las estaciones francesas*. Madril: Mensajes & Medios aldizkarian, 1981 (4. hiruhilekoa), 9. zb., 70. or.

ANONIMOA. *La radio pública en la Europa democrática*. Madril: Mensajes & Medios aldizkarian,1990eko abuztua-iraila, 17-18 zbk., 93-97 orr.

ANONIMOA. *Radio Exterior de España —si estás lejos, siéntenos cerca—*. RNEk egindako txostena, 1991.

ANONIMOA. *Radio pública - radio privada*. IORTV erakunde espainiarrak antolaturiko topaketetan irakurritako txostena. Madril: Mensajes & Medios aldizkarian, 1981 (4. hiruhilekoa), 9. zb., 61-66 orr.

ARNHEIM, Rudolf. *Estética radiofónica*. Bartzelona: Gustavo Gili, 1980.

ARRIETA Leyre, RODRIGUEZ José Antonio et al. *Radio Euskadi: La Voz de la Libertad*. Bilbao: EITB, 1998.

BAEZA BETANCORT, José Antonio. "Introducción a la radiodifusión. Sentido y perspectiva de la radio" in *Manual de periodismo*. Las Palmas: Universidad de las Palmas de Gran Canaria eta Editorial Prensa Ibérica, 457-477 orr.

BALSEBRE, Armand. *El lenguaje radiofónico*. Madril: Cátedra, 1994.

BALSEBRE, Armand. *La credibilidad de la radio: aproximación al carácter multidimensional del concepto credibilidad. Area 5* aldizkarian, Madril, 1993ko urtarrila-apirila (2. zb.). 119-136 orr.

BAMBERGER, Manuel. *La radio en France et en Europe*. Paris: Presses Universitaires de France, 1997.

BAREA, Pedro. “Centralismo y descentralización en las radios vascas”. *La comunicación en las naciones sin estado* liburuan. Bilbao: EHUko argitarapen-zerbitzua, 1989, 177-187 orr.

BAREA Pedro eta MONTALVILLO Roberto. *Radio: redacción y guiones*. Bilbao: EHUren argitarapen-zerbitzua, 1992.

BARNETT S. eta MORRISON D. *The listener speaks: the radio audience and the future of radio*. Londres: HMSO, 1989.

BASSETS editorea. *De las ondas rojas a las radios libres*. Bartzelona: Gustavo Gili, 1981.

BERTRAND, Claude-Jean. “La radio comercial” in *Los medios de comunicación social en Estados Unidos*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitatearen argitarapenak (EUNSA), 1983. 88-90 orr.

BETHENCOURT Tomás & CUBERO Manuel. “Los medios productivos en radio y televisión”. in *Manual de periodismo*. Las Palmas: Universidad de las Palmas de Gran Canaria eta Editorial Prensa Ibérica, 753-786 orr.

BITTNER John R. eta BITTNER Denise A. *Radio Journalism*. New Jersey (EEBB): DePauw University, 1977.

BLISS Edward (Jr.) eta PATTERSON John M. *Writing News for Broadcast*. New York: Columbia University Press, 1971.

BROOKS, Williams F. *Radio News Writing*. New York: McGraw-Hill Book Company, 1948.

BROWN, Donald R. “Raidió na Gaeltachta: Reviver, Preserver or Swan Song of the Irish Language?”. *European Journal of Communication* aldizkarian, Londres, 1992-IX, 3. zb., 7. liburukia, 415-433 orr.

BROWN Donald E. eta JONES John Paul. *Radio and Television News*. New York: Rinehart & Company, 1954.

BURRIEL, José María. La Radio. Bartzelona: Salvat, 1981.

BUSH, Chilton R. *The Art of News Communication (a beginning textbook for classes in news writing)*. New York: Appleton-Century-Crofts, 1954.

CALVO Manuel eta Del BRIO Dolores. *El orador y el discurso (Arte y partes de la oratoria)*. Madril: Dólar, 1978.

CEBRIAN, Mariano. Géneros informativos audiovisuales. Madril: Ciencia 3 Distribución, 1992.

CEBRIAN, Mariano. *Información radiofónica. Mediación técnica, tratamiento y programación*. Madril: Síntesis, 1993.

CEBRIAN, Mariano. *La información audiovisual: un servicio a la sociedad*. Madril: Forja, 1983.

CEBRIAN, Mariano. *La mediación técnica de la información radiofónica*. Bartzelona: Mitre, 1983.

CEBRIAN, Mariano. "Radio pública / Radio privada". *Comunicación social 1992/Tendencias* urtekarian. Madril: Fundesco, 1992, 215-228 orr.

CHANTLER, Paul eta HARRIS, Sim. *Local Radio Journalism*. Oxford: Focal Press, 1997^{2}.

CHEVAL Jean-Jacques. "La radio en Aquitania". *Aquitania-Euskadi, Imágenes recíprocas en los medios de comunicación social* liburuan. Bilbao: EHUko argitarapen-zerbitzua. 1993, 81-85 orr.

CONTRERAS, José Miguel. *Estrategias de las grandes cadenas de radio*. Madril: Telos aldizkarian, 1988ko ekaina/abuztua, 14. zb., 86-91 orr.

CROOK, Tim. *International Radio Journalism. History, theory and practice*. Londres: Routledge, 1998.

CZITROM, Daniel J. El crisol etéreo: "La radio nortemaericana, desde el inalámbrico hasta la radiotransmisión, 1892-1940". *De Morse a McLuhan. Los Medios de Comunicación* liburuan. Mexiko: Publigrafics, 1985. 69-102 orr.

DARY, David. *Radio News Handbook*. EEBB: TAB books, 1970.

DIAZ, Lorenzo. *La radio en España. 1923-1997*. Madril: Alianza Editorial, 1997.

DIAZ MACISIDOR, Alberto. *La empresa de radio en USA*. Iruñea: EUNSA, 1984.

DIAZ MANCISIDOR, Alberto. "La radio-fórmula y las nuevas tecnologías". *Los medios de comunicación ante las nuevas tecnologías* liburuan. Bilbao: EHUko argitarapen-zerbitzua, 1988.

DIAZ MANCISIDOR Alberto eta URRUTIA Victor. *La nueva radio*. Bilbao: EHUko argitarapen-zerbitzua, 1986.

DIAZ NOCI, Javier. *Euskal irratiak: lehenbiziko esperientziak*. RIEV aldizkarian.

EICHHORN Wolfgang eta KELLER Michael. "The Unknown Audience: Typologies of Radio Listeners in Germany". *European Journal of Communication* aldizkarian, 1992-III, 1. zb., 7. liburukia, 95-119 orr.

EL PAIS irratiaren *eskuliburua*.

ETXEBERRIA, J.L. «Txigua». *Euskera jatorraren ildotik*. Gasteiz: Arrate Irratia, 1993.

FANG, I.E. "Radio News" atala *Television News* liburuan. New York: Hastings House, 1972.

FAUS, Angel. *La radio: introducción a un medio desconocido*. Madril: Latina Universitaria, 1981.

FAUS, Angel editorea. *Radio y universidad. Treinta años de radio en la Facultad de Ciencias de la Información de la Unversidad de Navarra*. Iruñea: Universidad de Navarra, 1991.

FERNANDEZ ASIS, Victoriano. *Radio Televisión. Información y programas. Las incógnitas de los medios electrónicos*. Madril: RTVEko argitarapen-zerbitzua, 1986.

FRANQUET, Rosa. *Concentración radiofónica: un proceso inconcluso*. Madril: Telos aldizkarian, 1988ko ekaina/abuztua, 14. zb., 81-85 orr.

FRANQUET Rosa eta MARTI Josep M. *La Radio -de la telegrafía sin hilos a los satélites.* Bartzelona: Mitre, 1985.

GARATE, Gotzon. *Erderakadak*. Bilbao: Gero-Mensajero, 1988.

GARCIA Eduardo, MADINAVEITIA Eduardo eta TORRE José María. "Señales de alarma en la radio española". Madril: *Mensajes & Medios* aldizkarian (3. zenbakia), 1988ko azaroa, 2-8 orr.

GARCIA JIMENEZ, Jesús. "Lanoticia radiofónica" in *Información audiovisual II. Los géneros*. Madril: Paraninfo, 1999, 15-30 orr.

GARITAONANDIA, Carmelo. "Emisiones radiofónicas en cadena en Euskadi". *Aquitania-Euskadi. Imágenes recíprocas en los medios de comunicación social* liburuan. Bilbao: EHUko argitarapen-zerbitzua. 56-58 orr.

GARITAONANDIA, Carmelo. *La radio en España (1923-39): del altavoz musical a arma de propaganda*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV), 1988.

GARITAONANDIA, Carmelo. *La radio en Madrid*.

GARITAONANDIA, Carmelo. "Radio". *Diccionario de ciencias y técnicas de la comunicación* izeneko obran. Madril: Ed. Paulina, 1991.

GIL FERNANDEZ, Juana. *Los sonidos del lenguaje*. Madril: Síntesis, 1990.

GONZALEZ Mª Ángeles eta CARRERO Enrique. "Radio" in *Manual de planificación de Medios*. Madril: ESIC, 1999[2], 156-160 orr.

GUBACK Thomas H. eta HILL Steven P. "The Beginnings of Soviet Broadcasting and the Role of V. I. Lenin". *Journalism Monographs* (26.zb.). Lexington (Kentucky): Association for Education in Journalism,1972.eko iraila.

GUTIERREZ ESPADA, Luis. *Historia de los medios audiovisuales (desde 1926) —Radio y Televisión—*. Madril: Pirámide, 1982.

HASLING, John. *Fundalmentals of Radio Broadcasting*. EEBB: McGraw-Hill, 1980.

HAYE, Ricardo.M. *Hacia una nueva radio*. Buenos Aires: Paidós, 1995.

HILLS, George. *Los informativos en radiotelevisión*. Madril: Instit. Oficial de Radiotelev, 1987 (3. ed.).

HILMES, Michele. *Radio Voices. American Broadcasting, 1922-1952*. Minneapolis: University of Minnesota Press, 1997.

HOHENBERG, J. *Ciencias y técnicas de la información en los medios masivos de comunicación*. México: Interamericana, 1984 (4.ed.)

HUGHES, Anthony. "La radiodifusión como servicio público" (Erresuma Batua). Madril: *Mensajes & Medios* aldizkarian, 1981 (4. hiruhilekoa), 9. zb., 67-69 orr.

JANKOWSKI Nick eta beste (ed.). *The People´s Voice: Local Radio and Television in Europe*. Londres: John Libbey, 1992.

KEITH, Michael C. *Técnicas de produción de radio*. Madril: IORTV, 1992.

LEWIS, Peter. "La radio británica y la perspectiva europea". *Comunicación social 1991/Tendencias. Informes anuales de Fundesco* urtekarian, Madril: Fundesco, 1991, 223-237 orr.

LEWIS Peter M. eta BOOTH Jerry. *The Invisible Medium. Public, Commercial and Community Radio*. Londres: Macmillan Education, 1989.

LEWIS Peter M. eta BOOTH Jerry. *El medio invisible. Radio pública, privada, comercial y comunitaria*. Bartzelona: Paidós, 1992.

LEWIS Peter M. eta BOOTH Jeremy. *Profundas transformaciones en la radio británica*. Madril: Telos aldizkarian, 1988ko ekaina/abuztua, 14. zb., 113-119 orr.

MacFARLAND, David T. *Future Radio Programming Strategies. Cultivating Listenership in the Digital Age*. New Jersey: Lawrence Erlbaum Associates, 1997.

MADINAVEITIA, Eduardo. "1989: alza en las audiencias" (de radio). Madril: *Mensajes & Medios* aldizkarian, 1990eko otsaila, 11. zb., 68-72 orr.

MAESENEER, Paul de (ed.). *Here´s the News. A Radio News Manual*. Asiako Irrati-hedapenaren Elkartea. Urtea ez da ageri.

MARTI i MARTI, Josep. "Estructura programática del modelo radiodifusor español: de la variedad a la especialización". Madril: *Telos* aldizkarian, 1988ko ekaina/abuztua, 14. zb., 66-72 orr.

MARTI i MARTI, Josep. *Modelos de programación radiofónica*. Bartzelona: Feed-back, 1991.

MARTI i MARTI, Josep. "Radio española: los parámetros de la transformación". *Comunicación social 1991/Tendencias. Informes anuales de Fundesco* urtekarian, Madril: Fundesco, 213-222 orr.

MARTI i MARTI, Josep M. "Nuevas redes: autopistas de especialización para la radio". Universidad Internacional Menéndez y Pelayo-k antolatuta 1996ko udako ikastaroen barruan emandako ikasgaia.

MARTINEZ-COSTA, María del Pilar. *La radio en la era digital*. Madril: El País-Aguilar, 1997.

McCAIN A. eta LOWE G. Ferrell. "Localism in Western European Radio Broadcasting: Untangling the Wireless". *New York: Journal of Communication* aldizkarian, 1990 (negua, 41.zb.), 86-101 orr.

McLEISH. *Técnicas de creación y realización en radio*. Madril: IORTV, 1985.

MERAYO, Arturo. *Para entender la radio*. Salamanca: Universidad Pontificia de Salamanca, 1992.

MIRANDA, Fátima. *La fonoteca*. Madril: Kultura-Ministerioaren argitarapen-zerbitzua, 1986.

MONTES, Fco. José. *Los orígenes de la radiodifusión exterior en España*. Madril: RTVEren argitarapen-zerbitzua, 1988.

MONTES, Fco. José. "La radiodifusión sonora: nuevas tecnologías". Madril: *Mensajes & Medios* aldizkarian,1990.eko ekaina, 15. zb., 13-19 orr.

MONTES, Fco. José. "La radio pública francesa". Madril: *Mensajes & Medios* aldizkarian, 1990.eko azaroa. 20. zb., 89-95 orr.

MONTES, Fco. José. "La radiotelevisión en Canada". Madril: *Mensajes & Medios* aldizkarian, 1989.eko abendua, 9. zb., 33-38 orr.

MORAN, José M. eta beste. "La radio". *Las telecomunicaciones* liburuan. Bartzelona: Salvat, 1981.

MUGURUZA, Jesús. *Las radios vascófonas de Euskadi Norte*. Argitaratu gabe, 1988.

MUÑOZ, José Javier. "Particularidades de los géneros en radio y televisión" in *Redacción periodística. Teoría y práctica* liburuan. Salamanca: Librería Cervantes, 1994[2].

MUÑOZ, José Javier. *Radio educativa*. Salamanca: Librería Cervantes, 1994.

MUÑOZ, José J. eta GIL, César. *La Radio: Teoría y Práctica*. Madril: Instituto Oficial de Radiotelevisión, 1986[1], 1994[2].

NORBERG, Eric E. *Programación radiofónica: estrategias y tácticas*. Madril: IORTV, 1998.

ORTIZ Miguel A. eta MARCHAMALO J. *Técnicas de comunicación en radio*. Bartzelona: Paidós, 1994.

ORTIZ Miguel A. eta VOLPINI Federico. *Diseño de programas en radio*. Bartzelona: Paidós, 1995.

PALAZIO, Gorka J. (ed.). *Hedabideetako euskara*. Bilbao: EHU, 1994.

PALAZIO, Gorka J. "Irratiko informazio generoak" in *Comunicación, medios y mensajes* liburuan. Bilbao: EHUko Kazetaritza Saila, 1995. 103-116 orr.

PALAZIO, Gorka J. "Basque Radio Networks. News sources in Basque Radio Stations". IAMCR elkartearen 1996ko Konferentzia Nagusian aurkeztutako artikulua. Sydney, 1996ko abuztuan. Bertsio laburtua kontsulta daiteke ZER aldizkariaren 2. zenbakian. Leioa: EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, 1997.

PALAZIO, Gorka J. "La radiovisión, el nuevo medio multiservicio". in *Zer* aldizkaria, 1998ko maiatza, 6. zenbakia, 179-198 orr..

PEÑAFIEL, Carmen. *Las radios autonómicas y transformaciones de la radio entre 1980-1990*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea (doktorego-tesi argitaratua), 1994.

PEÑAFIEL, Carmen. "Las radios autonómicas: hacia una política de normalización lingüística y cultural". *La comunicación en las naciones sin estado* liburuan. Bilbao: EHUko argitarapen-zerbitzua, 1989, 143-162 orr.

PRADO, Emili. *Estructura de la Información Radiofónica*. Bartzelona: Mitre argitaletxea, 1985.

PRADO, Emili. "La incesante transformación de la radio". Madril: *Telos* aldizkarian, 1986, 5. zbk., 53-59 orr.

PRADO, Emili. "Radio y nuevas tecnologías: un maridaje secreto". Madril: *Telos* aldizkarian, 1988ko ekaina/abuztua, 14. zb., 92-95 orr.

PUIG, Jaime J. *Cómo ser guionista de cine, radio y tv*. Bartzelona: Mitre argitaletxea, 1986.

REDFERN, Barrie. *Radio: Emisoras locales*. Bartzelona: Hispano Europea, 1984.

REMESAL, Agustín. "France Info: la noticia total". Madril: *Mensajes & Medios* aldizkarian, 1990eko uztaila, 16. zb., 14-19 orr.

REMESAL, Agustín. "Francia: del monopolio a la libre competencia" (radiotelevisión). Madril: *Mensajes & Medios* aldizkarian, 1990.eko urtarrila, 10. zb., 6-11 orr.

ROMO GIL, María Cristina. *Introducción al conocimiento y práctica de la Radio*. Mexiko: Diana, 1987.

SALILLAS, José Manuel. *Historia de Radio Ibérica. La primera emisora de España*. Bartzelona: autorea, 1989.

SANTOS DIEZ, María Teresa. *Origen y desarrollo de las radios libres en el área metropolitana del Gran Bilbao (1978-1989)*. Euskal Herriko Unibertsitatea (doktorego-tesia), 1991.

SANTOS DIEZ, María Teresa. *Radios comerciales… Ondas libres*. Bilbao, Onda Cero Radio, 1994.

SANTOS DÍEZ, María Teresa. *La radio vasca*. Bilbo: EHU, 1999.

SCHLBERG, Bob. *Publicidad Radiofónica*. Mexiko: McGraw-Hill, 1992.

SER irratikatearen *arau-proiektua*.

SOLA POOL, Ralph de. "Discursos y sonidos de largo alcance" in *Historia de la Comunicación vol. 2 -de la imprenta a nuestros días-* liburuan. Bartzelona: Bosch, 81-116 orr.

SOROA, Santiago. "Audiencias y oyentes" (de radio). Madril: *Mensajes & Medios* aldizkarian, 1989ko urrian, 7. zb., 36-39 orr.

SOROA, Santiago. "Avances hacia una radio personalizada". Madril: *Mensajes & Medios* aldizkarian, 1990eko abuztua-iraila, 17-18 zbk., 90-92 orr.

SOROA, Santiago. "La radio de los 90". Madril: *Mensajes & Medios* aldizkarian, 1990eko apirila, 13. zb., 6-10 orr.

STEPHENS, Mitchell. *Broadcast News. Radio Journalism and an Introduction to Television*. New York: New York University, 1980.

TORAL, Gotzon. *Las tertulias de la radio. La Linterna: análisis de un modelo*. Bilbo: EHU, 1997.

TUBAU, Iván. *Periodismo oral. Hablar y escribir para radio y televisión*. Bartzelona: Paidós Ibérica, 1993.

UNESCOren albistaria. *Informaziobideak (askatasunaren abenturak)*. 70. alea. 1990eko azaroa.

VILLAFAÑE Justo eta beste. *Fabricar noticias: las rutinas productivas en radio y televisión*. Bartzelona: Mitre, 1987.

VILLAFAÑE, Justo. "La información radiofónica: los caminos de la mediación". Madril: *Telos* aldizkarian,1988ko ekaina/abuztua, 14. zb., 105-119 orr.

ZENBAIT AUTORE. "Características de la radiodifusión en los países plurilingües". *La comunicación en las naciones sin estado* liburuan Bilbao: EHUko argitarapen-zerbitzua, 1989, 101-129 orr.

ZENBAIT AUTORE. *Euskal Kazetarien Jardunaldiak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako argitarapen-zerbitzua, 1991.

ZENBAIT AUTORE. *Los medios de comunicación en el País Vasco*. Bilbao: EHUko argitarapen-zerbitzua, 1993.

ZUBIMENDI, Joxe Ramon, ESNAL, Pello: *Idazkera-liburua*. Zarautz: Eusko Jaurlaritzaren Argitarapen-Zerbitzu Nagusia, 1993.

ARGAZKIEN JATORRIA:

✷ ***James C. Maxwell-en argazkia:***

"Gran Diccionario Enciclopédico Ilustrado
de Selecciones del Reader's Digest" (1977)
1. kapituluan, 13. orrian

✷ ***Heinrich Rudolph Hertz-en argazkia:***

"Gran Diccionario Enciclopédico Ilustrado
de Selecciones del Reader's Digest" (1977)
1. kapituluan, 14. orrian

✷ ***Guglielmo Marconi-ren argazkia:***

"Gran Diccionario Enciclopédico Ilustrado
de Selecciones del Reader's Digest" (1977)
1. kapituluan, 14. orrian

✷ ***Ternuako saioaren argazkia:***

"Mansell Collection"
1. kapituluan, 15. orrian

✷ ***Nelli Melba-ren argazkia:***

"The Marconi Company Ltd."
1. kapituluan, 16. orrian

✷ ***Orson Welles-en argazkia:***

"El Correo" egunkarian argitaratua (98-11-01)
1. kapituluan, 22. orrian

Sailean argitaratu diren beste liburuak:

Semiotika eta masa-komunikazioa

Jose Inazio Basterretxea, Marian Gonzalez
1997an argit.
ISBN.: 84-86967-84-8

Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia

Jose Inazio Basterretxea
1997an argit.
ISBN.: 84-86967-85-6

Komunikazioaren eta informazioaren oinarriak

Iñaki Zabaleta
1997an argit.
ISBN.: 84-86967-87-2

Kazetari-l@na Euskal Herrian

Txema Ramirez de la Piscina
1998an argit.
ISBN.: 84-86967-94-5